

- IKER 28  
*Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan.* Aiora Jaka Irizar. 2012.
- IKER 29  
*Koldo Mitxelena zen zinemaren eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak.* Agurtzane Azpeitia Eizagirre. 2012.
- IKER 30  
*Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian.* Eneko Bidegain. 2013.
- IKER 31  
*Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942.* Natalia Mikhaïlovna Zaika. 2014.
- IKER 32  
*Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak II.* Juan Manuel Etxebarria Ayesta. 2016.
- IKER 33  
*Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982.* Isabelle Echeverria. 2016.
- IKER 34  
*La politique linguistique de la Révolution Française et la langue basque.* Egoitz Urrutikoetxea. 2018.
- IKER 35  
*Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954).* Anton Ugarte. 2018.
- IKER 36  
*Le Dauphin: 1757ko gutunierari buruzko osagarriak eta gogoetak, «othoi çato etchera».* Xabier Elozegi. 2018.
- IKER 37  
*Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): burbilpen kritikoa.* Itziar Madina Elguezabal. 2019.
- IKER 38  
*Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak 1975-2015.* Miren Ibarluzea Santisteban. 2020.
- IKER 39  
*Euskal onomastika aplikatua XXI. mendean.* Roberto González de Viñaspre (arg.). 2020.
- IKER 40  
*Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018).* Andres Urrutia (arg.). 2021.
- IKER 41  
*Aniztasuna: bizkeren berba-mintzoak. Euskaltzaindiaren II. Nazioarteko Dialektologia biltzarra.* Adolfo Arejita (arg.). 2021.
- IKER 42  
I. liburukia: Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Edizioa.  
II. liburukia: Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Hizkuntza azterketa.  
Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri Luxanbio eta Iker Salaberri Izko. 2021.
- IKER 43  
*Bertsolaritzaren historia soziala: Oihartzuma, eragiletza eta gakoak (1823-2018).* Antxoka Agirre Maiora. 2021.
- IKER 44  
*Territoires, Langues, Littératures & Cultures : Confrontations, Lectures, Traductions.* Sous la direction de Herve Le Bihan & Aurelia Arcocha. 2022.
- IKER 45  
*Ingurune digitala, hizkuntzen estandarizazioa eta euskara.* Andoni Sagarna & Miriam Urkia (argk.). 2022.
- IKER 46  
*Creación, traducción, autotraducción.* Olga Anokhina & Aurelia Arcocha (eds.). 2022.
- IKER 47  
*Mendealdeko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia.* Eneko Zuloaga. 2022.
- IKER 48  
I. liburukia: Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Edizioa.  
II. liburukia: Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Hizkuntza azterketa.  
Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri Luxanbio eta Iker Salaberri Izko. 2023.



Elamako burdinolaren hondakinak



Arranbideko benta

# IGNAZIO BERGARA GOIZUETARRAREN GUTUNAK. ARRANBIDE (ARANO) ETA ELAMA (ARTIKUTZA). 1787-1811.

## HIZKUNTZA AZTERKETA

Patxi Salaberri Zaratiegi  
Juan Jose Zubiri Luxanbio  
Iker Salaberri Izko

Iker - 48

IGNAZIO BERGARA GOIZUETARRAREN GUTUNAK. ARRANBIDE (ARANO) ETA ELAMA (ARTIKUTZA). 1787-1811. HIZKUNTZA AZTERKETA




**Gobierno de Navarra**

**Nafarroako Gobernua**



ISBN 978-84-126313-9-5  




**PATXI SALABERRI ZARATIEGI** (Uxue, 1959). Filologia Hispanikoan lizentziatu zen lehenik (UN, 1982) eta Euskal Filologian gero (EHU, 1986). Doktore tesia EHUen egin zuen, Eslaba aldeko toponimiaren eta euskararen inguruan. Beti euskara irakaslea izan da, Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan lehenbizi (1984-1990) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ondoren (1990- ). Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko zuzendari eta zuzendariordea izan da, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko idazkaria eta Errektoreari Atxikia hizkuntza plangintzarako. Hamahiru urtez Nafarroako Gobernuaren FLV aldezkararen zuzendari izan da, pare bat aldiz Nafarroako Euskararen Kontseiluko kide eta luzaz NUPeko Hizkuntza Plangintza batzordeko kide. NUPeko «Nafarroako Ondare Materiagabea» katedraren zuzendari ere izan da, bi urtez (2014-2016). Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1996an eta euskaltzain oso 2005ean, eta Onomastika batzordeko buru izan zen bost urtez (2013-2017). Ikerketa gehiena onomastikaren gainean egin du, eta hein txikiagoan dialektologiaren (batez ere dialektologia historikoaren), testu zaharren eta hizkuntzaren historiaren gainean. Hogeita bi liburu idatzi ditu, bakarka eta lankidetzan, eta hamar argitaratu. Bestalde, ehun artikulua, liburu atal eta txosten tekniko karrikaratu ditu, gehienak Euskal Herriko aldezkarari eta liburuetan.



**JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO** (Donostia, 1961) Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Donostiako EUTG-ESTE, 1984) eta doktore tesia Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen (1997), 0-3 urte arteko haurren ama-hizkuntzaren jabeakuntzari buruz. Geroztik ikerketa-lerro hau bera lantzen jarraitu du, gaiaren inguruko hainbat proiektutan parte hartu eta zenbait artikulua argitaratu ditu. Ikerketa-lerro honetaz landa, dialektologia arloko datuak bildu, deskribatu eta jorratzen ere aritu da, bereziki Goizueta-Arano herrietakoak, eta honen fruitu dira, besteak beste, *Goizueta eta Aranoko hizkerak* (1998), *Biraoak. Nafarroan bilduak* (2007) eta *Goizuetako etxeen izenak* liburuak (2011). Urte luzez irakaskuntzan aritua da, lehenik Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan (1984-1990), eta gero Nafarroako Unibertsitate Publikoan (1990-2023). Hemen Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika saileko idazkari (2002-2010) eta zuzendari (2010-2018) izan da. Gaur egun, Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanordea da. Bestalde, euskaltzain urgazlea da 2006az geroztik.



**IKER SALABERRI IZKO** (Iruñea, 1989). Ingeles Filologian lizentziatu zen 2012an eta Aleman Filologian graduatu 2017an, Euskal Herriko Unibertsitatean. Hizkuntzalaritzan doktorea, 2017an saxoierra zaharren sintaxiaren inguruko tesia defendatu zuen EHUen. 2018-2019an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle aritu ondoren, 2021etik Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko kidea da. Hainbat lan argitaratu ditu Euskal Herriko eta atzerriko aldezkarietan, bereziki tipologia linguistikoaren, hizkuntza aldatetaren, morfosintaxiaren eta onomastikaren inguruan, euskarari zein munduko mintzaireri begira, besteak beste “Grammaticalization of nouns meaning ‘head’ into reflexive markers: a cross-linguistic study” (Natalia Evseevarekin batera, 2018) *Linguistic Typology*-n, “The word order of negation in the history of Basque: a linguistic and sociolinguistic approach” (2021) *Diachronica*-n eta “A cross-linguistic study of emphatic negative coordination” (2022) *Studies in Language*-n. 2020tik *Association for Linguistic Typology* eta *Societas Linguistica Europaea* erakundeen batzorde exekutiboetan egiten du lan, eta 2019tik *Aziti Bibia* Hizkuntzalari eta Filologoen Elkartearen parte hartzen du.







PATXI SALABERRI ZARATIEGI  
JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO  
IKER SALABERRI IZKO

**IGNAZIO BERGARA  
GOIZUETARRAREN GUTUNAK  
ARRANBIDE (ARANO) ETA  
ELAMA (ARTIKUTZA)  
1787-1811**

**HIZKUNTZA AZTERKETA**

IKER 48

2023

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)



Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoko mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Argitalpen hau Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarlanaren emaitza da.

Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

**Kontrazaleko argazkien egileak:**

Elamako burdinolaren hondakinak: Xabier Taberna

Arranbideko benta: Xabier Taberna

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B.

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

© Patxi Salaberri, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri

ISBN (obra osoarena): 978-84-126313-7-1

ISBN (Hizkuntza azterketarena): 978-84-126313-9-5

Lege-gordailua: BI 00943-2023

Inprimatzea: IMPRESIÓN Tecnigraf, S.L.L.

Erletxe industriagunea, C1 pabiloia 25 zk. – 48960 GALDAKAO (Bizkaia)

# AURKIBIDEA

## IGNAZIO BERGARA GOIZUETARRAREN GUTUNAK. ARRANBIDE (ARANO) ETA ELAMA (ARTIKUTZA). 1787- 1811. HIZKUNTZA AZTERKETA

<b>1. Izen morfologia</b> .....	1
1.1. Gai orokorrak .....	1
1.1.1. Hondarkien ezabaketa .....	1
1.1.2. Artikuluaren eta pluralgilearen erabileraz .....	3
1.2. Kasuak .....	3
1.2.1. Absolutiboa .....	3
1.2.2. Partitiboa .....	5
1.2.3. Ergatiboa .....	6
1.2.4. Datiboa .....	8
1.2.5. Inesiboa .....	8
1.2.6. Adlatibo soila .....	11
1.2.7. Hurbiltze adlatiboa .....	11
1.2.8. Muga adlatiboa .....	11
1.2.9. Ablatiboa .....	12
1.2.10. Leku genitiboa .....	13
1.2.11. Genitiboa .....	15
1.2.12. Soziatibo edo komitatiboa .....	18
1.2.13. Genitiboaren gainean moldatutako destinatiboa .....	20
1.2.14. Adlatiboaren gainean moldatutako destinatiboa .....	20
1.2.15. Inesiboaren gainean eraturtako destinatiboa .....	21
1.2.16. Instrumentala .....	22
1.2.17. Motibatiboa .....	23
1.2.18. Prolatibo edo esiboa .....	23
<b>2. Aditz morfologia</b> .....	25
2.1. Ezaugarriak .....	25
2.1.1. Aditz nagusia (AN) + ez + aditz laguntzailea (AL) hu- rrenkera .....	25
2.1.2. Komunztadura .....	25
2.1.3. Aditza eta datiboa .....	26
2.1.4. Aditzoina eta partizipioa .....	26
2.1.5. Bi argumentuko adizkiak vs hiru argumentukoak .....	27

2.1.6. <i>Izan</i> aditza . . . . .	28
2.1.7. * <i>Edun</i> (eta <i>ukan</i> ) aditza . . . . .	29
2.1.8. Aditza eta menderagailua . . . . .	30
2.1.9. <i>Nork</i> aditzen pluralgileak . . . . .	31
2.1.10. * <i>Edin</i> aditzeko <i>-ai-</i> / <i>-i-</i> bikoiztasuna . . . . .	32
2.1.11. <i>Dediela</i> , <i>dediñ</i> eta <i>dadiela</i> . . . . .	32
2.1.12. Geroaldia . . . . .	33
2.1.13. Arazlea . . . . .	33
2.1.14. Adlatiboa eta AL . . . . .	34
2.1.15. Trinkoen bokala, iraganaldian . . . . .	35
2.1.16. <i>Heldu</i> aditzak <i>etorri</i> -ren trinkoak ordezkatu ohi ditu . .	35
2.1.17. <i>Joan</i> -en adizki trinkoak . . . . .	36
2.1.18. <i>Ari izan</i> aditzaren jokabidea . . . . .	36
2.1.19. <i>Nahi izan</i> aditzaren jokabidea eta lekunea . . . . .	36
2.1.20. * <i>io</i> ‘esan’ aditzaren lekunea . . . . .	37
2.1.21. <i>Egon</i> ‘uste izan’ aditzaren lekunea . . . . .	37
2.1.22. <i>Behar izan</i> -en lekunea . . . . .	37
2.1.23. <i>Ahal izan</i> -en erabilera . . . . .	38
2.1.24. <i>Ezin izan</i> -en erabilera eta lekunea . . . . .	39
2.1.25. Aditz batzuen partizipio pleonastikoa . . . . .	39
2.1.26. Bokal irekiarekin bukatzen den partizipioa + <i>-a</i> . . . . .	40
2.1.27. Partizipioa eta instrumentala . . . . .	40
2.1.28. Partizipioa + <i>-t(z)e</i> . . . . .	40
2.1.29. Aditzen erregimena . . . . .	41
2.1.30. Aditza galdegaitzeko <i>egin</i> erabiltzen da . . . . .	44
2.1.31. ALren ezabaketa eta partizipioaren erabilera . . . . .	45
2.1.32. Aferesirik ez aditzetan . . . . .	45
2.1.33. Erregistroak . . . . .	46
2.2. Taulak . . . . .	47
2.2.1. Aditz laguntzaileak . . . . .	47
2.2.1.1. <i>IZAN</i> . NOR <i>orainaldia</i> . . . . .	47
2.2.1.2. <i>IZAN</i> . NOR <i>iraganaldia</i> . . . . .	48
2.2.1.3. <i>IZAN</i> . NOR <i>alegiatzkoa</i> . . . . .	48
2.2.1.4. <i>IZAN</i> . NOR-NORI <i>orainaldia</i> . Hura . . . . .	49
2.2.1.5. <i>IZAN</i> . NOR-NORI <i>orainaldia</i> . Haiek . . . . .	49
2.2.1.6. <i>IZAN</i> . NOR-NORI <i>iraganaldia</i> . Hura . . . . .	49
2.2.1.7. * <i>EDUN</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Hura / haiek . .	50
2.2.1.8. * <i>EDUN</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Ni . . . . .	50
2.2.1.9. * <i>EDUN</i> . NOR-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura / Haiek	51
2.2.1.10. * <i>EDUN</i> . NOR-NORK <i>alegiatzkoa</i> . Hura / haiek	51
2.2.1.11. * <i>EDUN</i> . NOR-NORI-NORK <i>orainaldia</i> . Hura . .	52
2.2.1.12. * <i>EDUN</i> . NOR-NORI-NORK <i>orainaldia</i> . Haiek	52
2.2.1.13. * <i>EDUN</i> . NOR-NORI-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura	53

2.2.1.14. *EDUN. NOR-NORI-NORK <i>iraganaldia</i> . Haiek	53
2.2.1.15. *EDIN. NOR subjuntiboa. <i>Orainaldia</i> . . . . .	54
2.2.1.16. *EDIN. NOR ahalera. <i>Orainaldia</i> . . . . .	54
2.2.1.17. *EDIN. NOR ahalera. <i>Alegiazkoa</i> . . . . .	54
2.2.1.18. *EDIN. NOR baldintza . . . . .	55
2.2.1.19. *EDIN. NOR agintera . . . . .	55
2.2.1.20. *EZAN. NOR-NORK. <i>Orainaldia</i> . Hura / haiek	55
2.2.1.21. *EZAN. NOR-NORK. <i>Alegiazkoa</i> . Hura / haiek . .	55
2.2.1.22. *EZAN. NOR-NORK subjuntiboa. <i>Orainaldia</i> . Hura / Haiek . . . . .	56
2.2.1.23. *EZAN. NOR-NORK subjuntiboa. <i>Iraganaldia</i> . Hura / Haiek . . . . .	56
2.2.1.24. *EZAN. NOR-NORI-NORK. <i>Orainaldia</i> . Hura / haiek . . . . .	56
2.2.1.25. *EZAN. NOR-NORI-NORK subjuntiboa. <i>Orain-</i> <i>aldia</i> . Hura . . . . .	57
2.2.1.26. *EZAN. NOR-NORI-NORK subjuntiboa. <i>Orain-</i> <i>aldia</i> . Haiek . . . . .	57
2.2.1.27. *EZAN. NOR-NORK ahalera. <i>Orainaldia</i> . Hura / haiek . . . . .	58
2.2.1.28. *EZAN. NOR-NORK ahalera. <i>Alegiazkoa</i> . Hura	58
2.2.1.29. *EZAN. NOR-NORK ahalera. <i>Iraganaldia</i> . Hura	58
2.2.1.30. *EZAN. NOR-NORK agintera. Hura / haiek . . .	59
2.2.1.31. *EZAN. NOR-NORK agintera. Ni . . . . .	59
2.2.1.32. *EZAN. NOR-NORI-NORK agintera. Hura . . .	59
2.2.2. Aditz trinkoak. . . . .	60
2.2.2.1. <i>ATXIKI</i> . NOR-NORI <i>orainaldia</i> . . . . .	60
2.2.2.2. <i>EGON</i> . NOR <i>orainaldia</i> . . . . .	60
2.2.2.3. <i>EGON</i> . NOR <i>iraganaldia</i> . . . . .	60
2.2.2.4. <i>EGON</i> . NOR <i>alegiazkoa</i> . . . . .	61
2.2.2.5. <i>ETORRI</i> . NOR <i>orainaldia</i> . . . . .	61
2.2.2.6. <i>ETORRI</i> . NOR subjuntiboa. <i>Orainaldia</i> . . . . .	61
2.2.2.7. <i>IBILI (ebilli)</i> . NOR <i>orainaldia</i> . . . . .	62
2.2.2.8. <i>IBILI (ebilli)</i> . NOR subjuntiboa. <i>Orainaldia</i> . . . .	62
2.2.2.9. <i>JARIO</i> . NOR-NORI <i>orainaldia</i> . . . . .	62
2.2.2.10. <i>JOAN</i> . NOR <i>orainaldia</i> . . . . .	63
2.2.2.11. <i>JOAN</i> . NOR agintera. . . . .	63
2.2.2.12. <i>UKAN</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Hura / haiek . .	63
2.2.2.13. <i>UKAN</i> . NOR-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura / haiek . .	64
2.2.2.14. <i>EDUKI (iduki)</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Hura / haiek . . . . .	64
2.2.2.15. <i>EKARRI</i> . NOR-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura . . . . .	64
2.2.2.16. <i>ERAMAN</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Haiek . . . . .	65



2.2.2.17. <i>ERAMAN</i> . NOR-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura . . . .	65
2.2.2.18. * <i>IO</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Hura . . . . .	65
2.2.2.19. * <i>IO</i> . NOR-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura . . . . .	66
2.2.2.20. <i>IRITZI</i> . <i>Orainaldia</i> . . . . .	66
2.2.2.21. <i>IRUDITU</i> . <i>Orainaldia</i> . . . . .	66
2.2.2.22. <i>JAKIN</i> . NOR-NORK <i>orainaldia</i> . Hura . . . . .	67
2.2.2.23. <i>JAKIN</i> . NOR-NORK <i>iraganaldia</i> . Hura . . . . .	67
<b>3. Joskera</b> . . . . .	69
3.1. JUNTADURA . . . . .	70
3.1.1. Emendioa. . . . .	70
3.1.1.1. Baiezko emendioa . . . . .	70
<i>eta</i> . . . . .	70
<i>eta...ere bai</i> . . . . .	70
3.1.1.2. Ezezko emendioa . . . . .	71
<i>ez...(e)ta ez</i> . . . . .	71
3.1.2. Hautakaritza . . . . .	71
<i>edo</i> . . . . .	71
<i>nabiz...eta</i> . . . . .	71
3.1.3. Aurkaritza . . . . .	71
<i>baña</i> . . . . .	72
<i>baño</i> . . . . .	72
3.2. Menderakuntza . . . . .	72
3.2.1. Osagarriak . . . . .	72
3.2.1.1. Konpletiboak . . . . .	72
3.2.1.1.1. Forma jokatuak. . . . .	72
a) Indikatiboan . . . . .	73
<i>-ela</i> . . . . .	73
<i>ezik</i> . . . . .	73
<i>nola...-en (gaztigatu aditzarekin)</i> . . . . .	73
b) Subjuntiboan. . . . .	73
<i>-ela</i> . . . . .	73
c) Alegiazko adizkia . . . . .	74
<i>-ela</i> . . . . .	74
<i>ba...ere (nabiago izan aditzarekin)</i> . . . . .	74
3.2.1.1.2. Forma jokatugabeak . . . . .	74
<i>-tua</i> . . . . .	74
<i>-tzea</i> . . . . .	74
<i>-tzeke</i> . . . . .	74
Galdetzaila + partizipioa (+ partitiboa, ezezkoan). . . .	75
3.2.1.2. Zehar-galderak. . . . .	75
<i>ba...ere</i> . . . . .	75
<i>ea...-en</i> . . . . .	75

<i>ea</i> + galdetzailea + <i>-en</i> . . . . .	76
<i>-en</i> . . . . .	76
<i>-en edo ez</i> . . . . .	76
galdetzailea + <i>-en</i> . . . . .	76
<i>ote</i> + . . . <i>-en</i> . . . . .	77
3.2.2. Erlatiboak . . . . .	77
3.2.2.1. Jokatuak . . . . .	77
<i>-en</i> + izenkia . . . . .	77
Buru izen mugabea aitzinatua dutenak (izen oste- koak) . . . . .	78
Buru izen mugatua aitzinatua dutenak (aposatuak) . .	78
<i>-eneko</i> + izena . . . . .	79
3.2.2.2. Jokatugabeak . . . . .	79
<i>-tu</i> + mugatzailea . . . . .	79
<i>-tu</i> + izena . . . . .	79
<i>-tu</i> + <i>-tako</i> + izena . . . . .	79
3.2.3. Adberbialak . . . . .	80
3.2.3.1. Alderaketa . . . . .	80
<i>baño...-ago</i> . . . . .	80
( <i>baño</i> )... <i>-xeago</i> . . . . .	80
<i>bezala</i> . . . . .	81
<i>bezañ</i> . . . . .	81
<i>-en bezalakoa</i> . . . . .	81
<i>diña</i> (genitiboarekin edo destinatiboarekin) . . . . .	81
( <i>-rik</i> )... <i>-ena</i> (superlatiboa) . . . . .	81
3.2.3.2. Baldintzazkoak . . . . .	82
3.2.3.2.1. Forma jokatuak. . . . .	82
<i>ba-</i> . . . . .	82
<i>baldin...ba-</i> , <i>baldiñ...ba-</i> . . . . .	82
<i>baldiñ</i> + <i>porsiokaso</i> + <i>ba-</i> + aditza + <i>ere</i> . . . . .	83
3.2.3.2.2. Forma jokatugabeak. . . . .	83
<i>-tu</i> + <i>ezkero</i> . . . . .	83
<i>-tzekotan</i> . . . . .	83
<i>baldin...-tzekotan</i> . . . . .	83
3.2.3.3. Denborazkoak . . . . .	84
3.2.3.3.1. Forma jokatuak. . . . .	84
<i>-ela</i> (denborazkoa-edo, baldintzazkoa menturaz). . .	84
<i>-en bitartean</i> ‘-en arte’ . . . . .	84
<i>-en denboran</i> ‘-enean’ . . . . .	84
<i>-en ezkero</i> . . . . .	84
<i>-enean</i> . . . . .	85
<i>-enetik</i> . . . . .	85
<i>-eño</i> ‘-en bitartean’ . . . . .	85

3.2.3.3.2. Forma jokatuabeak . . . . .	85
-tu + artea(n) ‘-en artean’, ‘-en bitartean’, ‘-en arte’ .	85
-tu + baño len(ago) . . . . .	85
-tu + bitartean ‘-tu arte’ . . . . .	86
-tu + ezker(z) . . . . .	86
-tu gabe ‘-tu baino lehen’ . . . . .	86
-tu orduko . . . . .	86
-turik . . . . .	86
-tzera ‘-enean’ ‘-tzean’ . . . . .	87
3.2.3.3.4. Helburuzkoak . . . . .	87
3.2.3.4.1. Forma jokatuak (subjuntiboarekin) . . . . .	87
3.2.3.4.2. Forma jokatuabeak . . . . .	87
-tzeko . . . . .	87
-tzera . . . . .	87
3.2.3.3.5. Kausazkoak . . . . .	88
3.2.3.5.1. Forma jokatuak . . . . .	88
bait- . . . . .	88
-elako . . . . .	88
-en ezker . . . . .	88
nola bait- . . . . .	88
nola...-en . . . . .	88
zergatik . . . . .	89
zergatik...-en . . . . .	89
3.2.3.5.2. Forma jokatuabeak . . . . .	89
-tzeagatik . . . . .	89
3.2.3.3.6. Kontzesiboak . . . . .	89
3.2.3.6.1. Forma jokatuak . . . . .	89
ba- + aditza + ere . . . . .	89
baldiñ + porsio kaso + ba- + aditza + ere . . . . .	90
zer (+ izena) bait- + aditza + ere . . . . .	90
3.2.3.6.2. Forma jokatuabeak . . . . .	90
-agatik . . . . .	90
3.2.3.3.7. Moduzkoak . . . . .	91
3.2.3.7.1. Forma jokatuak . . . . .	91
-ela . . . . .	91
-en bezala . . . . .	91
-en moduan . . . . .	91
3.2.3.7.2. Forma jokatuabeak . . . . .	91
-tu bezala . . . . .	91
-tu gabe . . . . .	92
-tuta . . . . .	92

<b>4. Hitz hurrenkera</b> . . . . .	93
4.1. Aditz sintagmako osagaien hurrenkera . . . . .	93
4.1.1. Aditza eta osagarri zuzena . . . . .	93
4.1.2. Aditza eta aditzaren osagaiak . . . . .	95
4.1.3. Ezeztapena . . . . .	96
4.2. Izen sintagmako osagaien hurrenkera . . . . .	98
4.2.1. Izena eta izenburua, gentilizioa, zenbakia, jabego genitiboa . . . . .	98
4.2.2. Izena eta erlatibo zoko perpausa . . . . .	100
4.2.3. Izena eta erlazio sintagma . . . . .	101
4.3. Ondorioak . . . . .	103
<b>5. Euskara-gaztelania ukipenaren eraginak</b> . . . . .	111
5.1. Sarrera . . . . .	111
5.2. Hizkuntza ukipenaren inguruko teoria linguistikoa . . . . .	113
5.3. Ukipenaren eraginak Ignazio Bergararen gutunetan . . . . .	116
5.3.1. Bokal protetikoen erabilera . . . . .	117
5.3.2. Soinu arrotzak egokitzea . . . . .	117
5.3.3. Atzeranzko osaera . . . . .	118
5.3.4. Kasuen erabilera, postposizioekin . . . . .	119
5.3.5. Kasuen erabilera, zenbatzaileekin-eta . . . . .	119
5.3.6. «Taldea jokatzeko» murriztua . . . . .	121
5.3.7. Genero komunztadurarik eza . . . . .	123
5.3.8. Adposizioen ezohiko erabilera . . . . .	124
5.3.9. Kalko semantikoa . . . . .	126
5.3.10. Mailegatzea . . . . .	127
5.3.11. Hitz hurrenkerearen transferentzia . . . . .	130
5.3.12. Kode txandaketa . . . . .	131
5.4. Euskara-gaztelania ukipena kontaktu teoriaren argitan . . . . .	133
5.5. Ondorioak . . . . .	136
<b>6. Onomastika gaiak</b> . . . . .	137
6.1. Sarrera . . . . .	137
6.2. Antroponimia . . . . .	140
6.2.1. Ponte izen neutroak . . . . .	140
6.2.2. Hipokoristikoak . . . . .	147
6.2.3. Deiturak . . . . .	148
6.2.4. Izengoitiak . . . . .	153
6.2.4.1. Izengoiti hutsak . . . . .	153
6.2.4.2. Etxe izengoitiak . . . . .	158



6.2.5. Herritarren izenak . . . . .	161
6.3. Etxe eta baserri izenak. . . . .	162
6.4. Toponimia . . . . .	169
6.4.1. Toponimia nagusia . . . . .	169
6.4.2. Toponimia txikia. . . . .	171
7. Hiztegia . . . . .	177
8. Ignazio Bergararen eta Jose Ramon Minondoren hiztegien alderaketa . . . . .	283
9. Laburdurak eta erreferentziak . . . . .	301
9.1. Laburdurak . . . . .	301
9.2. Erreferentziak. . . . .	302

# 1. IZEN MORFOLOGIA

## 1.1 GAI OROKORRAK

### 1.1.1. Hondarkien ezabaketa

Juntaduran, bi juntagai direnean hondarkia ez da behin ere ezabatzen, eta hau nabarmentzekoa da, hizkera mintzatuan —eta IBren hizkera horretatik aski hurbil dago— ezabaketa behin eta berriz egiten delako:

- *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]i ezkutuko bat.*
- *Azeki guziek egurrez eta zakarrez bete ditu.*
- *Bart arratseko edo goizeko anaiea ekarriko zutelakoan atzo gelditu niñzan.*
- *Eta gaztigatu beza asteartean edo asteezkenean olak basi behar duen.*
- *Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderok zakurik ez daukate bat ere gauza denik.*
- *Guziek beren lanetan eta beren gonbenienzietan dabillza.*
- *Hoiek dira Epeleko eta Alzate aldeko ikatz guziak.*
- *Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik.*
- *Horra Aranoko bi anaiean eta Kaperoren asentuak.*
- *Horra Lorentxio igelearen eta Ignazio igelearen denborako burniak beren espensakin.*
- *Horra aurtengo Makutsolako eta Arteskiñetako basoen plazeriak.*
- *Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak.*
- *Patxiku beratar horrek eta Paskoal de Insauspek Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak dirade... 129 quintales, 1 arroba.*
- *Santiago de Alzubidek Tranparen eta Pepe Exurrenekoaren Gorriolako basoan egiñ dituen ikatz guziak.*
- *Ubarrizetan eta Karamalkatan egin dituen guziak dirade... 85 quintales, 2 arrobas.*

Pasarte nahasixe honetan hondarkia lehen juntagaian ageri da, aski harri-garriro, ongi interpretatua badago bederik:

- *Egun goizea eman tiot Barberoari atzoko diruak. [Esan] diot lauren eta bost karga dirala.*

Txanda batean, artikulua aurreneko juntagaitik ezabatu dela iduri du:

– *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago.*

Juntagaiak hiru edo gehiago direnean, lehen juntagaitik artikulua behin edo behin kendu du IBk:

– *Olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio.*

Baina hondarkia juntagai guztietan azaltzen den lekukotasunak dira ia guziak:

– *Juan Pello Bexinok Ubarrizetan, Azkoteko ubaldean eta Urraiden egin~~ta~~ (sic) dituen meak.*

– *Ubarrizetan, Urraiden eta Azkoten eginak.*

Gehien-gehienetan, gainera, juntagailua errepikaturik dago:

– *Basaianegiko mea belzean, 14 diciembre ezker, Aranazko Danboliñaren horrek eta Eguzkiak eta Bautista Porterorenak, horiek hirurak hiru laguneko partiduan egin dituzten mea guziak.*

– *Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten 102 reales.*

– *Eta hoiengiteak eta ekarzeak eta paratzeak, gauza gutxi gorabera, beurrek jakiñen du zenbatsu kosta ditezkean.*

– *Eta horra Fermiñen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin ezkerokoak.*

– *Juan Antoniok eta Moxok eta honen anaie Josepek Basaianegitik honara bialdu dituzten mea guziak.*

– *Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarrak eta harez, antaparako soleraraño.*

– *Orañ inor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz.*

– *Zarrukok eta Baratzurik eta Zurmioren semeak egin dituzten mea zurriak.*

Honako honetan hiru juntagai daude eta ergatiboa lehenetik kendu du egileak, ahanzturaren fruitua ez bada behintzat:

– *Juan Josepe de Altamira eta Martiñ Antonio Lizartxikitoren semeak eta Martin Josepe de Belasko itzaiaren semeak Elama galarrean egin dituzten meak Elaman pisatuak dirade 99 quintales, 1 arroba.*

Hauetan lau juntagai eta hiru eta ditugu:

– *Horra bada Eguerri artekoak, guzienak, Sidrorena eta Manuel Antoniorrena eta Xarbiderena eta Mikolas Gazterena.*

– *Mutill horrek entregatu ditu hamar ogi, eta ardoa, eta tobera, eta baba.*

– *Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku Errotariak eta bere semeak, lauen artean, egin dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½.*

Ondoko honetan ere lau juntagai eta hiru juntagailu ditugu, eta ergatiboa aurrenekotik baizik ez da ezabatu:

– *Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranparenena eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite.*

Beste honetan bost juntagai daude —komak xuxen non paratu behar diren ez dago guziz argi— eta lau juntagailu. Honek, seguruenik, IBren idazkiak ahozko mintzoari hurren direla esan nahiko du:

– *Ignazio Loidikoak entregatu zituan sei bost ezkutuko, eta zorzi urretxiki, eta bi pezeta, eta dezitxano bat, eta bost ogi.*

### 1.1.2. Artikuluaren eta pluralgilearen erabileraz

Zenbait aldiz artikulua (eta pluralgilea, inoiz) ez da kentzen hondarkia eranstea edo beste osagairen bat ondoan ezartzean: *asentua guzia, hartuak guziak* (edo «*hartuak, guziak*» menturaz), *ikatzakua berria* (edo «*ikatzakua, berria*»), *kostala bat, urzalle berria horren partez...* Cfr. hauek:

– *Patxiku ardamandazaia horrek ekarri zituen ardoan eta hartu zituen burniñtxoan asentua bialdu nion noviembrean.*

– *[Urak, ubeldeak] eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka.*

Nolanahi ere, JRMren izkribuetan (I, 1-6) aise ugariagoak dira holakoak IBrenetan baino.

## 1.2. KASUAK

### 1.2.1. Absolutiboa

**Galde hitza:** *zer, zeñ*

**Izenordain, determinatzaile, adjektibo, aditzondo eta beste:**

*Bi* zenbatzailea izenaren edo izenordainaren aurretik nahiz atzetik joan daiteke. Ondoko etsenplu hauetan haren gibeletik doa:

– *Aste hoietan bietan baditu taia txikiko ardoak... 2½ piñtas.*



- *Hau da horiek biek erdi bana egiñ dutena.*
- *Hoiek biak partiduan egiñ dituzten meak dirade 70 quintales, 1 arroba.*
- *Horiei biai kontua garbitu nahi badite [...].*
- *Konponduko dira haiek biek.*
- *Murgioko itzai horiek biek kontua garbitu nahi dutela diote.*
- *Patxiku Malet horrek eta Paskual de Insauspek Erbizaño errekan hasialdi bitan egiñ zituzten meak.*
- *Saldagarbiren babaren txartela eta Goierrirenzat anega birena bial dezala horrekin.*

Ikusten den eran, ia beti erakuslearen lagun azaltzen da: holakorik gabe hondarreko bi lekukotasunetan baizik ez da ageri, edo hobeki eta zehazkiago esan, azkenekoan, hondar-aitzinekoan IBk hasmentan *hasialdi batean* (*Asialdi vatean*) idatzi baitzuen, eta gero hura zuzendu eta *bitan* (*vitan*) bihurtu.

Ordea, gutiz gehienetan izenkiaren aitzinean egoten da: *bi agoa, bi anaieak* ‘bi anaiek’, *bi borra, bi burniñziri txiki, bi egun, bi erreal, bi ezkutu, bi fraideri, bi hillabetekoa, bi ikaztogi, bi karga ziri gai, bi kiñtal burnia, bi lagunek, bi libra olio, bi mandorekiñ, bi ogi, bi partidatan, bi pezeta, bi pinta ardo, bi porzio, bi urretxiki, bi urte hoietakoak, biña egun, biña erreal, Murgioko bi [i]tzaiak...*

Honetan JRM baino franko berritzaileago edo berrizaleago ageri zaigu IB, hurrenkera zaharra, *bi* izenaren gibelean paratzekoa, hark baino aise gutiagotan ibiltzen duelako.

**Pertsona izenordaina:** *ni*

**Erakusle arruntak:** *hau, hori, hura, hoiek, horiek, haiek*

**Erakusle indartuak:** *berori, bera*

**Bestelakoak:** *batzuak, batzuek; batzuek [...]* eta *besteak; biek, iñor (ere) (ez), iñor gutxi*

**Singularra:**

Artikulu (-a) erabiltzen da: *garbitua, ikatza, jauna, jorna, kontua, portea...*

**Plurala:**

Artikulu eta pluralgilea (-ak) erabiltzen dira: *ardoak, biak, espensak, hartuak, iduriak, ikatzak, mandoak...*

Arteka aitzineko goiko bokalak *a* itxi eta *e* bilakarazi du:

- *Hark emanen ziozkala 60 pezeta eta 5 kuarto, eta konponduko dira haiek biek.*
- *Horiek dira horiek egiñ dituzten mea guziek.*

- *Juakiñ de Erasok eta bere lagunak Epelean aurten egiñ dituzten mea guziek dirade 142 kintal, 2 arroa ½.*
- *Llebarik gabe pisatuak dira guziek.*

Izen berezi batekin —edo jatorria izen berezi batean duen izen arruntarekin—, aurrekoan bezala, *-ek* darabil IBk:

- *Azenzio horrek samigelek ezkerro hemen egiñ dituen burniak.*
- *Samigelek ezkerro Nolbertoren denboran hemen Arranbiden egiñ diran burniak.*

Kontua da egun ere, Goizuetan, kontsonantez bukatutako pertsona izenekin *-ek* erabiltzeko joera dagoela: *bi Mirenek etorri dira, hiru Mikelek ikusi ditut herrian*. Baina horiekin batera *safermiñak, sanantonak, sanjuanak* esaten da. Zernahi gisan, *samigelek ezkerro* ageri den gutun berean, beheitixeago, *Samigel ezkerro* dago, eta honek pentsarazten digu, IBk, hartan, ez ote zuen huts egin. Asimilazioaren emaitza ere izan daiteke, ordea.

### Mugagabea:

Ø dugu: *bi, hamabi barra, hamalau ogi, hamazazpi kuarto eta erdi, hañbeste enkargu, hiru itzai, lau lepalotu...*

Izen bereziekin ere berdin, jakina: *Migeltxo, Felipe Iparragerre...*

## 1.2.2. Partitiboa

Beti ezezko perpausetan, zehar-galderetan edo *bage, gabe*-rekin azaltzen da:

- *Atzo etzen agertu itzairik bat besterik.*
- *Porfiñ, ekusi beza febreroko hilleko asentuan paraturik ote den Paskoal horrenik, eta baldin paraturik bada ezpada, orañ hemen paratuak izanen dira guziak.*

Ondoko hau berezikara dateke, egun *ziertotik* ibiliko genukeelako, menturaz. Eskutitzean hagitz garbi ikusten da, hala ere, *r* dagoela hor, ez *t* (ikus ablatiboari eskaini puntuan dioguna):

- *Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut, eta zenbat duen ziertorik ez dut aditzen, baña beurrri gaztigatuak izanen dira, jakiñen du beurrek bada.*

Nolanahiko gisan, «*zenbat duen ziertorik ez dut aditzen*» ere uler daiteke, hots, ‘zenbat duen segururik ez dut aditzen’. Ikus beheitixeagoño, atal honetan berean.

Zenbaitetan baldintzazko perpausetan ere badugu:

- *Añarbeko Erdikoitxeko Pelipe Eza[...] lanik badegu etorriko dirala, eta nifk] ez dakit agertu diran.*
- *Aste honetan ez da itzairik izandu, gaur etorriko dirala uste dut, mearik badute.*
- *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik inondik ez ematekotan.*
- *Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderoak zakurik ez daukate batere gauza denik, eta baldiñ zakurik badu, behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena.*

Bokal ondoan **-rik** dago: *ardorik, asenturik, aziertorik, berezirik, besterik, burnirik, deiturik, dirurik, errajarik, esparik, espensarik, harturik, janaririk, konturik, mearik, oliorik...*

Behin, halarik ere —eta ez dakigu orduko egungo aldaera laburtua sortua zen edo oker grafikoa den— **-k** hutsa dago **-i-z** bukatu hitzarekin:

- *Ez dakit deusen berrik; ekarzen badute nahi nuke ekusi.*

Kontsonante ondoan **-ik** daukagu: *emanik, lagunik, lanik.*

Diptongo ondoan **-rik** dago: *itzairik, tairik.*

Adberbioak egiteko ere badarabil IBk, behin edo beste:

- *Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den leborrik sartu nahi ganituke (sic), batzuek badere.*
- *Esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran.*

Ikusten den moduan, beraz, gutunotan ez dago, Goizuetako egungo hizkeran gertatzen denaz bestera, **-an** luzagarria duen *gizonikan*-en tankerako formarik, alegia, ez dago horrelako bikoiztasunik.

Alderaketan ere ager daiteke partitiboa: *gauzarik onena.*

### 1.2.3. Ergatiboa

Galde hitza: *zeñek*

Pertsona izenordain arrunta: *nik*

**Erakusle arruntak:** *honek, horrek, hark, horiek*

**Erakusle indartuak:** *berak* ‘berak’, *beurrek* ‘berorrek’, *berak* ‘berek’

**Bestelakoak:** *batek, iñork ez*

**Singularra:**

*-ak* dugu: *anaieak, beratarrak, difuntuak, hargiñak, igeleak, koñadoak, maisuak, mealleak, semeak...*

**Plurala:**

Gehien-gehienetan *-ak* dago:

- *Aleroak ate[ra] zuten mea, ehun bat kintal iragoa.*
- *Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.*
- *Iturindar zurgiñak dituzten egunak.*
- *Itzai kondenatu hoiek agiñzen dute guziak, eta erdiak ez etorri gaur.*
- *Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala (sic), eta bealdu beza gizon horrekin.*
- *Zarrukok eta Baratzurik, bi anaieak, egin dituztenak.*

Zenbait aldiz *-ek* dago, baina hau aurreko bokal itxiak eragindako hersketari zor bide zaio; alegia, *-ak* da hori berez:

- *Eta hoietaz gañera, bide egiten bi lagunak badituzte biña egun.*
- *Hau da horiek biek erdi bana egiñ dutena.*
- *Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz.*

Erka bitez beste hauekin:

- *...eta konponduko dira haiek biek.*
- *Fermin de Zubeldia Tranpa horrek Berdabioko ondoan egin dituan ikatz guziek dirade honara etorri diranak.*
- *Guziek beren lanetan eta beren gonbenienzietan dabilza.*
- *Llebarik gabe pisatuak dira guziek.*

**Mugagabea:**

Izen bereziekin *-k* dugu bokal ondoan: *Anbrusiok, Baratzurik, Battittak, Franzisku de Lekunak, Gregorio Eskuderok, Martijoxepeke, Matixak, Patxikuk, Santiagok, Sebastian Etxeberriak, Zarrukok...*

Kontsonante ondoan *-ek* dago: *Manuelek, Oletek, Sebastianek.*



### 1.2.4. Datiboa

**Pertsona izenordaina:** *niri*

**Erakusle arruntak:** *honi, horri, hari, horiei, haiei*

**Erakusle indartuak:** *neroni, beurri* ‘berorri’, *berari*

**Bestelakoak:** *bati, elkarri, iñori ez*

**Singularra:**

-*ari* dago normalean: *anaieari, arzai izanduari, fraideari - praideari, heldu zaionari, igeleari, ingudeari, olajaunari, semeari, suñari...*

**Plurala:**

-*ai* dugu: *ikazgilleai, horiei biai, lagunai, mendi guziaz...*

Reguerok (2018 [2015]: 221) dio Goizuetako 1753ko predikuan singularra -*ari* dela eta plurala -*ai*. Gaur egun, lau silaba baino gutxiagoko hitz askotan (*adár*-en adibidez) singularra - mugagabearen eta pluralaren arteko bereizketa, bai datiboan eta bai lekuzkoak ez diren gainerako kasuetan, azentuaren bidez egiten da: singularrean eta mugagabearen azentua goranzkoa duten hitzek pluraleran beheanzkoa daukate (Lujanbio, 2013 [2018]: 7): *adárrari* (singular eta mugagabea) vs *adàrrari* (plurala).

**Mugagabea:**

Bokal ondoan -*ri* daukagu:

– *Hoietarako baditu Karmengo bi fraideri emanak... 2 reales.*

– *Hoietarako baditu taia txikiko ardoak 3 pintas ½, eta Karmengo bi praideri emanak 2 reales.*

Izen bereziak direnean, bokalez bukatzen direnei -*ri* paratzen zaie: *Agustin de Ubitziri, Juakintxori, Lukas Iraolari, Mariolari, Nolbertori, Tranpari...*

Kontsonantez bukatzen direnetan -*i* dago: *Juan Fermin Iribarreni, Juan Antonio de Iribarreni, Juan Domingo Fundidorri, Erremoni, Martin Labañi, Pastor de Leoneti.*

### 1.2.5. Inesiboa

**A) Bizigabeak**

Singularra ibiltzen da epeak, denbora tarteak, adierazten direnean: *bi egunean, hiru egunean...*

Orobat kopuruekin:

– *Eta honetan esan dit niri, len ere honi ematen ziola bi pezeta, eta orañ ere orobat bi pezetan emanen dituela, eta igandeko beharko dituela diruak.*

**Galde hitza:** *non*

**Erakusle arruntak:** *honetan, horretan, hartan, hoietan, haietan*

**Erakusle indartua:** *bertan*

**Adberbioak:** *hemen, hor, han, inon ez*

**Singularra:**

Bokal ondoan **-an** dago: *aldean, aldian, arratsaldean, asentuan, astean, astelenean, beajean, denboran, dermioan, errekan, gaztañadian, itxean, kartan, kontuan, luzean, neurrian, ondoan, presentean, tretxuan.*

Diptongo ondoan **-ean** daukagu: *taiean.*

Kontsonante ondoan ere **-ean** dugu: *apirillean, batean, goizean, hillean, jornalean, larunbatean, ostiralean...* Nolanahi ere, *goizen goiz* dago gutun batean, hots, egungo forma laburtu bera ageri zaigu.

Izen berezien eta arrunten artean diren zenbait toponimorekin ere **-ean** dugu: *Buztiñean, Elama galarrean, Epelean (Epelan ere badago), Uralperrean.*

Inoiz sudurkaririk gabeko aldaera dugu, ez dakigu IBri paratzea edo idaztea ahanzi zaiolako edo bestela: *Egun goizea eman tiot Barberoari atzoko diruak.*

**Plurala:**

Bokal gehienen, diptongoen eta kontsonanteen ondoan **-etan** dugu: *aste hoietan bietan, atzoko ogietan, denbora onetan, denbora txarretan, gonbenienzietan, jaietan, jorradetan...*

Ordea, oinarriaren azken bokala **-e** denean  $e + e > e$  egiten da:

- *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten.*
- *Horra Jaimeren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak, lenbiziko lau astetan tretxuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan.*
- *Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardo franko gastatuta.*
- *Zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean.*

Izenak bukaeran *-i* badu, *-etan* gehitzean soluzioa *-ietan* ohi da, baina *-itan* ere bada:

- *Egun hoietan guzietan hemen izandu dute jana.*
- *Ardo hoietan guzitan dirade Goizuetatik Tranpak ekarriak hiru zagi.*

Hitzak bukaeran *-u* duenean  $u + e > u$  egiten da batean:

- *Hoietaz gañera, Yakomeakan eta Beko Patarroan, bi lekutan egiñak [...].*

Pentsa daiteke *bi lekutan* hori mugagabea dela, baina kasualitate handia iruditzen zaigu bi aurkintza izatea, Yakomeaka eta Beko Patarroa. JRMk ere badu holakoren bat, eta egun, Goizuetan, beti hola esaten da.

### Mugagabea:

Bokal ondoan *-tan* dugu:

*...eta nik esan diot ea zer preziotan izanen diran.*

- *Bi partidatan badago asentu horretan, hoiek izanen dira batean.*

Kontsonante ondoan *-etan* dago:

- *...baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean.*
- *Olioia ordañetan meakariai kendurik eman diotet olakoai.*
- *Tranparenzat egurretan arragorako sartuak...3 reales.*

Diptongoa iduri duenaren gibelean *-etan* daukagu: *lohietan* (egun *loi.tan* Goizuetan), baina, jakina, silabatzea bana da *loi*-n (silaba bakarra) eta *lo.ie.tan*-en (hiru silaba).

Behin *-etan* dugu mugagabea ematen duenean, *-tan* hutsaren partez:

- *Olaundiko sutegia konponzen, bi aldietan... 4 días.*

Leku izenekin *-n* dugu bokalez bukatzen direnetan: *Arranbiden, Arritxurietan, Astiarragan, Azkoten, Elaman, Ereñezun, Urraiden...* Akabailan bokal palatal itxia duen *Basaianegi* toponimoan, berriz, *-ñ* dago beti (*Basaianegiñ*, bost aldiz). Grafia kontua izan daiteke hau, bukaera bera duten beste hainbat hitzekin gauza bera gertatzen baita: *alabarekiñ, bere lagunakiñ, bi mandorekiñ, egiñ, Fermiñ, Juakiñ, Martiñ*. Ikus grafiari eskaini atalean dioguna.

Akabailan albokoa duen *Urriztitxabal* toponimoan *-en* dugu: *Urriztitxabalen*. Baina sudurkariz akitzen direnetan *-an* dago, espero genuen *-en*-en ordainez: *Oiarzun* ‘Oiartzunen’, *Olzorrotzan* ‘Oltzorrotzen’. Ikus JRM (II, 21).

### 1.2.6. Adlatibo soila

**Galde hitza:** *nora*

**Adberbioak:** *honara, horrara, hara, aurrera*. Behin *horra* ageri da. Aurkezpen hitza denean, ordea, *horra* dugu beti.

A) **Bizigabeak**

**Singularra:**

Bokal ondoan *-ra* dago: *basora, bestera, errekarra, itxera, kanpora, kontura, lekura, portura, suertera...*

Kontsonante ondoan *-era* dugu: *batera, gañera*.

Diptongo ondoan ere *-era* dugu: *taiera*.

**Mugagabea:**

Bokal ondoan *-tara* dugu: *guzitara* ‘denetara’. Behin, ordea, *-etara* dago: *guzietara* ‘denetara’.

Toponimoekin, bokal ondoan *-ra* erabiltzen da: *Arranbidera, Astiarragara, Donostiara, Goizuetara, Lezora, Pagollagara...* Kontsonante ondoan *-a* hutsa ohi dago: *Goizariña, Olzorrotza*.

B) **Bizidunak**

**Izenordainak:** *neregana* ‘niregana’, *beurrengana*

**Mugagabea:**

Bokal ondoan *-rengana* dago: *Patxiku Antoniorengana*.

### 1.2.7. Hurbiltze adlatiboa

**Izenordain, aditzondo eta beste:** *hononzean* ‘honatakoan’

### 1.2.8. Muga adlatiboa

**Erakuslea:** *honetaraño*

**Izenordain, aditzondo eta beste:** *honaraño* (eskuarki) – *honarano* (behin edo beste; kontu grafiko hutsa dela dirudi azken *n* horrena)



### Singularra:

Bokal ondoan **-raño** dugu, eta inoiz **-rano**, baina *n* azaltzea grafia kontua da, hots, iduri du soinua hor ere palatala zela:

- *Bigarren urte honetakoa da 1805an 1 juniotik hasi eta 1806ean 1 de juniörañokoa [...].*
- *19 septiembretik hasi eta 23 octubrerano jasoak (sic).*
- *Patxiku Errotariak bere semearekin aparte egiñak baditu 28 deciebretik hasi eta 30 eneroraño: 14 quintales, 0 zabal.*

Kontsonante ondoan **-eraño** dago: *mairaren nibeleraño*.

### 1.2.9. Ablatiboa

#### A) Bizigabeak

**Galde hitza:** *zeñetatik, zertatik*

**Erakusleak:** *hartatik, hoietatik, horietatik, haietatik*

**Adberbioak:** *goztik, hemendik, hortik, iñondik ez*

Ohiko gisan ez ezik, partitibo gisa ere erabiltzen da:

- *...eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalakoa; eta buruko azal baten gaia, kosna azalak egiten diran hartatik.*
- *Beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik, sobratuatik (sic), eman nition hiru pezeta.*
- *Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere.*
- *Eta mea hoietatik ez dakit febreroko hilleko asentuan paraturik ote den.*
- *Iruñerako Artantxurenzat diran burni hoietatik badaude bederetzi kintal bezala.*
- *Nik ez dut mea hoietatik gehiago ekartzeko pensame[n]turik, zergatik txarrak diran.*
- *Sebastian zor dut bi libra olio, ordaña emateko elizarako oliotik kendua.*

### Singularra:

Bokal ondoan **-tik** dago: *abuztutik, asentutik, Azkoteko ubaldetik, meatzetik, menditik, nere dirutik, olatik, ondotik, suertetik...*

Kontsonante ondoan **-etik** dugu: *astelenetik, behatzetik, egunetik, hasi ziranetik, miñgañetik*.

### Plurala:

Bokal eta kontsonante ondoan **-etatik** dago: *alderdi guzietatik, bere diruetatik, eguerrietatik, ikatz hoietatik guzietatik, samigeletatik.*

**Mugagabea:**

Bokal ondoan **-tatic** dago: *hirutatik bi.*

Izen bereziekin **-tik** dago: *Aranotik, Astiarragatik, Azkotetik, Donostia-tik, Goizuetatik, Iruñetik, Pikoagatik, Presaburutik, Urraidetik...*

Sudurkari ondoan, berriz, **-dik** dugu: *Goizariñdik.*

Nolanahi ere, bada toponimoa izanik ere izen arruntak bezala deklinatzen den bat: *Epeletik (Epela da aurkintza).* Ikus inesiboari eskaini puntuan dioguna.

**B) Bizidunak**

**Singularra:**

**-agandik** dugu diptongo ondoan: *Leoneten arzaigandik.*

**Mugagabea:**

Bokalez bukatzen den *Bergara* eta *Mitxelena* ditugu:

– *Buruzuriak ekarriak, Gregorio Mitxelenagandik...05.*

– *Pello Bergaragandik beurren kontura hartuak...100 pesos fuertes.*

IBren eskutizetan ez dago, beraz, eta ikusten den bezala, **-an** luzakina duen formarik (ikus JRM, II, 26-27).

### 1.2.10. Leku genitiboa

**Erakusleak:** *honetako, hoietako, horietako - horitako, haietako. Hartako* ere bada, baina destinatibo balioa du, oker ez bagaude.

**Bestelakoak:** *atzoko, aurtengo, hemengo, horko, oraño - orango, orduko*

**Singularra:**

Bokal ondoan **-ko** dago: *asteakoak, bi hillabetekoa, presako ura.*

Kontsonante ondoan **-eko:** *azkeneko, belzeko, eguneko, hillekoa, laguneko* ‘laneguneko’, *lenekoa.*

Dena dela, behin **-ako** dago, hain segur ere **-ko** hondarkia artikuludun sin-tagmari gehitu zaiolako:

- *Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak, pisatu diranak, dirade 407 quintales, 1 arroba.*

Beste batean, ordea, *mea belzeko dauka* IBk:

- *Aranazko Danboliñaren semeak eta Eguzkiak Basaianegiko Anzizarren mea belzeko lantegian, leneko kontua garbitu ezkerro, 1809 hasta 19 octubre ezkerro, hoiek biak partiduan egiñ dituzten meak dirade 70 quintales, 1 arroba.*

### Plurala:

Kontsonante ondoan **-etako** daukagu:

- *Goizetako ogi laurdenak...5, goizetako txiki ardoak...5.*

Baina hitzak akabailan **-e** badu, **-e + e -> -e-** egiten da:

- *Horra Baupista de Mitxelena karretero horren leneko lau astetako asent-uak, eta oran aste honetakoa gelditzen da hemen.*
- *Iñotetako haragitako emanak...10 pezetak.*

Inoiz **-tako** hutsa dago:

- *Aurtengo basotako plazeriak dir[a] [...].*

Erka bedi hurrengo honekin:

- *Aranobasotakoak, Isillis aldean [...].*

### Mugagabea:

Toponimoekin **-ko** dugu bokal ondoan: *Aranoko dermioan, Elamako urzalleari, Makutsolako eta Arteskiñetako basoen plazeriak, Tintopoloko suertetik, Zubietako menditik...*

Orobat kontsonante ondoan, sudurkaria ez denean: *Olzorrozko suertetik.*

Sudurkari atzean, aldiz, **-go** daukagu: *Erbizango malda, Erbizango erreka, Gañzi[n]go erreka, Gañziño ondoan, Goizaringo igeleak, Oiarzungo haxiak, Unzingo suertera...*

Kopuruekin ere **-(e)ko** dugu: *bi eguneko journala.*

Baina ez beti, honako pasarte honetan ikusten den moduan **-tako** ere bai-tago, **-ko**-rekin batera:

- *Horra aranaztar karreteroan asent-uak: Baupista de Mitxelenaren[a]k hiru astetakoak, Baupista de Zentenak bi astekoak, Martiñ Josepe de Mitxelenak bi astekoak.*

Banatzaile balioa ere eduki dezake:

- *Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago.*

Maiz *ondoan* postposizioarekin aurkitzen dugu, egun Iparraldean egiten den eran:

- *Fermin de Zubeldia Tranpa horrek Berdabioko ondoan egin dituan ikatz guziek dirade honara etorri diranak [...].*
- *Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian, Arolako ondoan, egiña bere propioa [...].*
- *Hoietaz gañera, Gañziñgo ondoan egiña baditu meak [...].*
- *Urte honetako gure ikazgilean plazeriak izanen dira lenbizikoak Añerbekoarekiñ (sic) trukada egin dudanak, Ozizpeko ondoan.*

### 1.2.11. Genitiboa

**Galde hitza:** *zeñena*

**Erakusleak:** *honen, horren, haren, hoien, horien, haien*

**Posesibo arrunta:** *nere* ‘nire’ (eta ‘neure’, agian)

**Posesibo indartuak:** *beurren* ‘berorren’, *bere, beraren, beren*

**Bestelakoak:** *baten, deusen (ez), elkarren*

**Singularra:**

Gutiz gehienetan *-aren* dugu: *astearen erdiko* ‘astearen erdirako’, *burniñtxoarena, denbora txarrarena, difuntuaren denboran, enbarguaren aitzakia, Gorgorio Arotzandikoaren ikatzak, Gregorio Apezenekoarena, kontu harzallearena, kupelaren ustaiatako, lana egiñaren konforme, Juan Antonio itzaiaren semeak, Lorenzo igelearen partida, mairaren nibeleraño, Martxaren suñaren espensak, Migel difuntuaren semearenak, mintegiaren ondotik, olatxoko ardatzaren ondoko pareta, Patxiku ardamandazaiaren ardoan asentua, Felipe Erdikoitxearena, Saldagarbiren babaren txartela, Sidro iganziar igelearena.*

Pasarte nahasixe batean, ordea, *-an* dagoela dirudi, karraiadore bakarra baita aipatzen dena, baina segurua ez da:

- *Horra leneko hilleko karraiadorean asentua, Juan Josepe Arrantxalekoarren[a] (sic).*

### Plurala:

Zenbaitetan *-en* dago, bokal eta kontsonante ondoan (batez ere *guzi* zenbatzailearekin): *basoen plazeriak, guzien egunak, guzien kontua edo gastua, ikatzen asentua, guzienekin* ‘guzienekin’, *hor daude guzienak, Moxoren eta bere lagunen meak, Moxorenak eta bere lagunenak, olakoenak.*

Halaber diptongo ondoan: *itzaien, lauen artean* ‘lauren artean’.

Behin *-eñ* dugu:

– *Hoien laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira.*

Kontu grafiko hutsa izanen da hau, hala ere (ikus grafiari eskainitako atala).

Ordea, pluralean, gehien-gehienetan, *-an* dago:

– *Aurtengo ikazgillean plazeriak izanen dira [...].*

– *Baratzuri hor da beren mean asentuarekin.*

– *Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten 102 reales, eta haienak eta bere mandoan jornalak 18 pesos, 7 reales, 18 maravedís.*

– *Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri.*

– *Eta hoietaz gañera, tokatzen zaio Gregorio igeleari azkeneko aste honetan egiñ diran burnian kintalajea [...].*

– *Hemengo karreteroan esperanza.*

– *Hiru Erregean egunean.*

– *Hoiek dirade hiruan artean mealle sartu dituzten egunak.*

– *Hoiek dituzte aita-semblean artean egiñ dituzten ika[tz] guziek.*

– *Hoietaz ganera, baditu presako nazan sartuak aita-semblean...9 días.*

– *Horra Aranoko bi anaiean eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin zuten ezkerokoak.*

– *Horra hemendik hartu dituan diruan asentua.*

– *Horra itzaian asentua eta karraiadoreana, leneko hillekoa.*

– *Horra Patxiku ardamandaziaren ardoan asentua.*

– *Olaundian egiñ dituzten burnian gañera erremienta egiteko egunak [...].*

– *Patxiku ardamandazaia horrek ekarri zituen ardoan eta hartu zituen burniñtxoan asentua bialdu nion noviembrean.*

– *Sebastian Etxeberriak Urteberri egunetik honarano dituen ardoan kontua eskatu dit.*

– *Urte honetako gure ikazgilean plazeriak izanen dira lenbizikoak Añerbekoarekiñ trukada egin dudanak, Ozizpeko ondoan.*

Zenbait aldiz biak (*-an* eta *-en*) dauzkagula dirudi, beste gisan ere uler daitekeen arren:

- *Horra leneko hilleko karreteroan eta itzaien asentuak.* (‘karraiadoreen eta itzainen asentuak’)
- *Oiarzungo karraiadoreak honara ekarri zituzten mea errean eta ikatzen eta eraman zituzten burnien asentuak bialdu nituan 3 de noviembreira-ñokoak beren espensakiñ.* (‘mea errean eta ikatzen eta eraman zituzten burdinen asentuak’)

Interesgarria da honako honetan, genitibo mugatu pluralean, *hiruan* eta *hiruren* dagoela nabarmentzea:

- *Hoiek dirade hiruan artean mealle sartu dituzten egunak.*
- *Hoién hiruren partiduko meak dirade guzitara, itzaiak ekarri[a]k [...].*
- *Hoién hiruren partiduko meak dituzte hoiek [...].*

### Mugagabea:

Bokal ondoan **-ren** dugu:

- *Anega bat babaren txartela.*
- *Mandoren batzuek.*
- *Puxkaren batean.*
- *Hoiek ez dira, ez, merkeagoren zale izanen, noski.*
- *Orañ hemen ez dago olioren tanta bat ere.*

Diptongo ondoan **-ren** daukagu: *hiru koltxoiren azalak; lauren eta bost karga.*

Kontsonante ondoan **-en** dago: *hogeí eta sei karga ikatzen kontua* (plurala ere izan liteke).

Izen bereziekin **-ren** dugu bokal ondoan: *Anbrusioren semeak, Antokoren semea, Axtiarragaren semeari, Dendariren senar Premiñ horrek, Dunburen semeari, Fermiñen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak, Jose Domiñgoren Urraideko basoa, Juapatxikuren semeak, Kaperoren partez, Martxaren suñaren espensak, Mundragoren semeak, Mundragorena, Nolbertoren denboran, Pepe Trabukoren eta Zanpadoren semearen asentua, Saldagarbirena, Sebastian Etxeberriaren suña, Tranparena, Zurmioren semeak...*

Kontsonante ondoan **-en** dago:

- *Aste honetan bertan Jaimek ere baditu Pelizen partez pasatuak bi egun meallekoan.*
- *Eta horra Fermiñen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak.*
- *Franzisku Zapiañen kontuan.*
- *Jose Domingo Iribarrenenak dira.*
- *Leoneten arzaia gandik.*
- *Sebastianen leneko urteko asentua.*

Ikus bedi hizkuntza ukipenaz mintzatzean «ez dago olioren tanta bat ere» modukoez dioguna.

### 1.2.12. Soziatibo edo komitatiboa

**Galde hitza:** *norekiñ, zeñekin*

**Pertsona izenordaina:** *nerekiko* (ondoan aditza du, ez izena)<sup>1</sup>

**Erakusle arruntak:** *honekin, horrekin eta horrekiñ, hoiekiñ, horiekiñ, haiekin eta haiekiñ*

**Erakusle indartuak:** *beurrekin, berarekiñ*

**Bestelakoak:** *beste...batekin, batekiñ, batzuekiñ*

**Singularra:**

*-arekin, -arekiñ* ohi dago: *alabarekiñ, Ansanekoarekiñ, Añarbekoarekiñ, Aranoko alkatearekiñ, asentuarekiñ, asuntoarekin, babarekiñ, beldurrarekin, gaurko jorradarekiñ, kontu harzallearekin, lagun berriarekin, lagunarekin -lagunarekiñ, maisuarekiñ, mea errearekin, semearekin eta semearekiñ, beren espensarekiñ, zaldalearekiñ, zaku eskasarekiñ.*

Kasu batean, hala ere, singularrean *-akiñ* dagoela dirudi: *Demandako meatzean Berako Jainkoak bere lagunakiñ egiñak...6 quintales, 5 arrobas (cfr. «Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak»).*

**Plurala:**

Batean *-ekin* dugu, eta beste batean *-ekiñ*: *guzienekiñ* ‘guzienekin, guzien asentuekin’, *zur guziekin*.

Baina *-akin, -akiñ* edireten dugu arruntean, beti plurala den seguru ez dakigun arren:

- *Aste honetako hiru egunakiñ izanen dituzte bi lagunek hamasei egun...32 jornales.*
- *Atzo etzen agertu itzairik bat besterik, eta egun goizean bialdu ditut hemengo karraiadoreakin Errenteriara juan behar duten burniak.*
- *Espensak txiki ardoakiñ...9.*

---

<sup>1</sup> Cfr. Axularren hau: «*Gauza perilosak dira hauk elkeharrekiko*».



- *Ez dihoa lagunakiñ.*
- *Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin.*
- *Horra horren denboran egiñ diran burniak beren espensakiñ.*
- *Horra Lorenzo igelearen partida astean astekoak, joan diran moduan, burniak beren espensakin.*
- *Igandean, iñolaz ere al badu, bialdu behar dizkit hogei eta hamar ezkutu, arren. Lotsatua nabill zorrakiñ.*
- *Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardo franko gastatuta.*
- *Orañ geldituko dira joan den asteko burniak gehienak, eta aste honetan egiten diranak beren espensakiñ.*

Kontsonante ondoan **-ekin** dago:

- *...eta honek ez du esaten ez hoiien egurrekin egiña dela ikatza, eta ez ez dela.*

Kasu pare batean **-kin** hutsa dago. Honetan ez dakigu singularra, plurala, edo zer den:

- *Eta bial bitzate ogiak eta baba eta olio fundamentuz. Horra Lukusak (sic) ogikiñ ekarri zuen zakua.*

Beste batean, aldiz, mugagabea dela dirudi (ikus hurrengo atalñoa).

**Mugagabea:**

Bokal ondoan **-rekiñ** dago: *bi mandorekiñ, hamar ogirekiñ, hamasei ogirekiñ, hiru ogirekiñ, libra bat eta erdi oliorekiñ, zorzi ogirekiñ.*

Kontsonante ondoan **-ekiñ** dago: *batekiñ.*

Izen bereziekin **-rekin**, **-rekiñ** dugu bokal ondoan: *Axtiarragarekiñ, Juamartin Ansarekiñ, Juan Franzisku Galtxadarekiñ, Nolbertorekin, Patxiku Antoniorekiñ, Patxikurekiñ.*

Ikusten da 1800 ingururako Goizueta aldeko egungo aldaera laburtua sortua zela, adibide honetan, bokal ondoan, **-kiñ** eta **-rekiñ** aldizkatzen baitira:

- *Ignazio Loidikoak bost ogikiñ ekarri zuen zaku txiki bat, eta Jose Domingo Teresanekoak hamar ogirekiñ ekarri duen kostala bat.*

### 1.2.13. Genitiboaren gainean moldatutako destinatiboa

Batzuetan bestelako destinatiboa espero genuen tokian aurkitzen dugu, espero genuenarekin batean:

- *Ikatz hoietatik guzietatik Tranpak eta Pepek egurra egiteko saria eta basoa botatzeko sariarenzat geldi ditzala buerrek (sic) hoiien konturako hogeit eta sei karga ikatzen kontua.*

**Pertsona izenordaina:** *neretzat* ‘niretzat’

**Erakusle arruntak:** *honenzat, hoienzat, horienzat, haienzat*

**Singularra:**

Hemen *-arenzat* dugu: *alkatearenzat, Estartakoarenzat, igelearenzat, maisuarenzat, meallearenzat, Perrazelaikoarenzat, semearenzat...*

**Plurala:**

Bokal, diptongo nahiz kontsonante ondoan *-anzat* (behin) eta *-enzat* (gehiagotan) daukagu:

- *Bigar goizeko olakoanzat ez da ogirik gelditzen gaur.*
- *Beste guzienzat usatzen dena, erreal bana.*
- *Guzienzat erreal fuerte bana.*
- *Heldu diranenzat.*
- *Utzi ditu eskupularioak guzienzat.*

**Mugagabea:**

Izen bereziekin, bokal ondoan, *-renzat* dago: *Artantxurenzat, Bordatxorenzat, Eskuderoarenzat, Goierrirenzat, Gregoriotxorenzat, Juakin Kaperoarenzat, Lorenzorenzat, Manuel Antonioarenzat, Moxorenzat, Nolbertorenzat, Tranparenzat...*

Kontsonante ondoan *-enzat* daukagu: *Sarranenzat.*

### 1.2.14. Adlatiboaren gainean moldatutako destinatiboa

**Erakusleak:** *honetarako, horretarako, hoietarako*

**Singularra:**

Bokal ondoan *-rako* dago: *arragoarako* eta *arragorako, elizarako, itxerako, konturako, meatzerako, olarako, presarako, sukaldarako, sutegirako...*

**Plurala:**

Bokal ondoan *-etarako* dago: *gastuetarako*. Baina baita *-tarako* ere: *bi olatarako* ‘bi oletarako’, *guzitarako* ‘guzietarako’.

Kontsonante ondoan *-etarako* dugu: *lanetarako*.

**Mugagabea:**

Ez dakigu hurrengo adibidean mugagabea den edo pluraleko hondarkiaren laburtzearen ondorena, hipertzuzenketaz *-tako* leku genitibo oker emana ez bada behintzat:

– *Taia txikitarako ardoak ditu...4 pintas.*

Leku izenetan *-rako* dugu: *Basoberrirako* (edo *baso berrirako* menturaz), *Donostiarakoak*, *Errenteriarako*, *Franziarako*, *Iruñerako*, *Pagollagarako*, *Pasaiarako*.

### 1.2.15. Inesiboaren gainean eraturako destinatiboa

**Erakusleak:** *hartako*, *hoietako*

**Adberbioak:** *bigarko* ‘biharko’, *etziko*

**Singularra:**

Bokal ondoan *-ko* dago, eta kontsonante ondoan *-eko*: *arratseko* ‘arratserako’, *astearen erdiko* ‘astearen erdirako’, *astezkeneko* ‘asteazkenerako’, *asteleneko* ‘astelehenerako’, *bart arratseko* ‘bart arratserako’, *bigar goizeko* ‘bihar goizerako’, (*egun*) *goizeko* ‘gaur goizerako’, *igandeko* ‘iganderako’, *larunbateko* ‘larunbaterako’, *ola haundiko*, *olaundiko* ‘ola handirako’, *ostiraleko* ‘ostiralerako’.

Nolanahi ere, irudi luke zenbait aldiz, izen arruntetan, bokala pittin bat luzatzen dela, Goizuetako egungo hizkeran: *i itxé:ko* ‘hi etxerako’. Honek menturaz esan nahiko du holakoak ez direla inesiboaren gainean eratuak, adlatiboa oinarri harturik apailatuak baizik, baina kontrako argudioa da usaian, Urumeako herriko hizkeran, dardarkari bakuna edo *tap*-a ez dela erortzen: *eraman*, *itxera* ‘etxera’..., nahiz *oan*, *oañ* ‘orain’ eta *e* ‘ere’ erabiltzen diren. Bestela, aditzondoetan-eta bokal luzerik ez dago egun: *etziko*, *géroko*...

**Plurala:**

Bokal ondoan *-tako* dugu:

– *Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz, zazpi-tako etorriko zirala.*

Diptongo ondoan **-atako** dago:

– *Kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai.*

**Mugagabea:**

Hemen **-tako** dago:

– *Haragitako hartuak...6 pezetas.*

– *Haragitako sei pezeta.*

– *Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik.*

– *Iñotetako haragitako emanak...10 pezetas.*

– *Iñotetako haragitako hartuak...10 pezetas.*

Ikus zer diogun prolatiboaz mintzo garenean.

### 1.2.16. Instrumentala

Denbora adierazteko ere ibiltzen da: *Pazkoz, zeñ egunez* ‘zein egunetan’.

**Erakusleak:** *hoietaz, horietaz* (eskuarki) eta *horitaz* (behin)

**Adberbioa:** *iñolaz ere* ‘nolabait ere’, ‘inola ere’ (*iñola ere* gutunotan)

**Singularra:**

Bokal, diptongo eta kontsonante ondoan **-az** dugu: *alegiñ guziaz; basoaz; orañ iñor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz; errezioaz gañerako ardoak; espensaz kanpora; kabiaz* ‘gabiarekin’; *konzienziaz; lana egiñaz gañera; lantegiaz.*

Partizipioarekin ere **-az** dago: *repartituaz.*

**Plurala:**

Lekukotasun bakarra dugu, eta horretan **-etaz** ageri da: *olako lanetaz kanpora.*

**Mugagabea:**

Bokal ondoan **-z** dago: *akabatzez, fundamentuz, harez, Lorenzoren partez, nire ustez, Pazkoz.*

Kontsonante ondoan **-ez** daukagu: *zakarrez, zeñ egunez* ‘zein egunetan’.

Baina *-az* ere bada adberbioetan eta bestelakoetan: *egurraz* ‘egurrez’, *gabaz* ‘gauzez’, *gehienaz ere* ‘gehienez ere’, *zakarraz* ‘zakarrez’. Ikus JRM (II, 37-38).

Ikusten denez, hemen ere, JRMren eskutizetan agitzen zen bezala, beti *-z* dugu, ez dago nafarreraren ezaugarri eskusibotzat hartzen den (Camino, 2009: 348) *-s* apikala daukan lekukotasunik.

### 1.2.17. Motibatiboa

**Galde hitza:** *zergatik* (baina kausazko menderagailutzat erabilia dago)

**Erakuslea:** *horrengatik* (baina hau ‘hala ere’ da)

**Adizlaguna:** *batengatik*

**Singularra:**

Aditz izenarekin ediren dugu, pare bat aldiz: *ebillzeagatik*, *harzeagatik*. Beste batean *nahiagatik ere* ‘nahi izanagatik ere’ dago.

### 1.2.18. Prolatibo edo esiboa

Prolatibo funtzioa duten hondarkirik gabeko izen hutsak nahiko ohikoak dira munduko mintzairetan. Hala ere, horrelakoak dituzten hizkuntzetan prolatibo hutsek aski izaera mugatua ukan ohi dute: bakarrik lanbideak edota gizakien arteko erlazio egonkorrek adierazteko ibiltzen dira (Creissels, 2014: 619-620). Gutunotan lehen erabileraren adibideak ditugu: *igele*, *lagun* ‘lankide’-edo, *mealle*, *urzalle*. Hona testigantzak:

- *Aragones honek omen ditu lenako ola g[el]ditu zen denboran mealle pasatuak bost egun.*
- *Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*
- *Bizente Kristok hemen mealle sartu dituan egunak dirade [...].*
- *Hoietaz gañera, baditu mealle sartuak [...].*
- *Igele sartuak...4 días...18 quintales, 0...39 ½.*
- *Ko[n]solagarriaren semeak, Urdiñolako urzalleak, Elaman mealle sartu zituan egunak.*
- *Manuel Antonio Ezkartikoak Arranbiden mealle sartu dituen egunak.*

- *Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita.*
- *Martiñ Josepe de Belasko horrek hemen mealle pasatuak baditu [...].*
- *Manuel Juakiñ de Esnaú olaundian igele eta guzietan sartu dituan egunak.*

Batzuetan inesiboaren gainean moldatu destinatiboa eta *-tako*-dun prolatiboa elkarrekin nahas daitezke, alegia, ez dago osoki garbi sintagma non kokatu, sailkatu behar den (ikus destinatiboa).

Goizuetako egungo egoerara itzuliz, hondarkirik gabekoez gainera, *-tako* da arruntean ibiltzen den atzizkia, zenbait aldiz destinatibo kutsua har badakioke ere, hots, ‘zertarakoa’ adierazten duela suma badaiteke ere, eta *-tzat* gutxitan baizik ez da aditzen, baina oraino bizirik dago (ikus Zubiri eta Perurena, 1998: 222). Ikus bedi IBren hau:

- *Ogiak eskas ditugu apalogitako, eta bialdu bitzate ogi batzuek mutill horrekiñ.*

## 2. ADITZ MORFOLOGIA

Hemen Ignazio Bergararen eskutizetan aurkitu ditugun aditzak ikusten eta aztertzen ditugu. Aurren-aurrena aditz horien ezaugarriak aipatzen dira, zerbaitengatik nabarmentzeko modukoak iruditu zaizkigunak, eta, ondoren, irakurle interesatuaren bilatze lana errazteagatik, adizkiak tauletan sarturik ematen ditugu, sailka, lehenbizi laguntzaileak eta jarraian trinkoak. Erabile-rrazak diren Nor, Nor-nori, Nor-nork, Nor-nori-nork etiketak darabiltzagu, betiere argitasun zurrean, irakurleak bilatzen duena aisekiago aurki dezan.

### 2.1. EZAUGARRIAK

#### 2.1.1. Aditz nagusia (AN) + ez + aditz laguntzailea (AL) hurrenkera

Batzuetan, ezezko perpaus nagusietan ere, ordena AN + ez + AL da, baina, herri eta garai berekoak badira ere, IBren erabilera ez dator guziz bat JRMrenarekin, honek askoz gehiagotan ibiltzen baititu *etorri ez da*-ren moduko hurrenkerak IBk baino (ikus hitz ordenari eskainitako atala):

- *Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da.*
- *Atzo Saldagarbirena izandu zen, eta besterik iñor izandu ez da.*
- *Pasatuko ere ez al dira!*

Egia esan, hiru horiek besterik ez dugu harrapatu testuetan, perpaus nagusietan esan nahi dugu, bakarren bat itzuri ez bazaigu bederik.

#### 2.1.2. Komunztadura

Behin edo beste ez da, objektu zuzena plurala izanagatik, aditza harekin komunztatzen:

- *Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke.*

JRMk ere baditu holakoak. Komunztadura falta bizirik dago oraindik gure egunotan Oiartzunen, zenbait aldiz behintzat, baina ez Goizuetan.



### 2.1.3. Aditza eta datiboa

Kasu batean ez dago komunztadurarik aditzaren eta ageri ere den datiboaren artean:

– *Entregatu ditut kartak Juakintxori eta Alkatezarrari bialdu diot Juamartin Ansarekiñ.*

Hala ere, kasu bakana da falta hori; gehienetan komunztadura badago. Gainera, ikusten den moldean, bigarren juntagaiko aditzean datiboaren morfema bada.

### 2.1.4. Aditzoina eta partizipioa

IBk, indikatibotik kanpo, aditzoina erabiltzen du batzuetan, partizipioa besteetan:

#### a) Aditzoina

Subjuntiboan: *bial dezala, bial ditzadala, bial ditzala, entraga ditzatela, garbi dezagun, gaztiga dezala, har dezadan, konpon dezala, konpon ditzala.*

Aginteran: *ajusta beza, bial beza, bial bezate, bial bitza, bial bitzate, enkarga bitza, gaztiga beza, konpon bitza, proga bitza.*

Ahaleran: *bial dezake, konpon ditezke, kabi dezakete.*

#### b) Partizipioa

Subjuntiboan: *egosi dezagula.*

Aginteran: *bealdu beza, bialdu beza, bialdu bitza, bialdu bitzate, ekusi beza, garbitu beza, gaztigatu beza.*

Ahaleran: *txukatu litezke.*

Goiti-beheiti –ez dira kopuru zehatz-zehatzak– esan daiteke subjuntiboan gehien-gehienetan aditzoina darabilela IBk (28 adizki), inoiz (2 adizki) partizipioa ere agertu arren. Aginteran ere aditzoina da nagusi (35 adizki), hemen partizipioak indar handiago erakusten badu ere (23 adizki). Ahaleran adizkiak bakanagoak dira eta gauzak berdinuago daude: hiru ditugu aditzoinarekin eta bat partizipioarekin. Jakina, sudurkariz bukatzen diren hainbat aditzetan ez dago aditzoina eta partizipioa bereizterik (*egiñ, irauñ...*), eta orobat bokalez akitzen direnetan (*atera, atere* adibidez). Gainera, kasuren batean ez dakigu xuxen aditza nola amaitzen zen (*kosta da* ‘kostatu da’ eta *kostatzen da* ditugu batean), eta, beraz, *kosta ditezke* multzo batean nahiz bestean sar daiteke.

Zenbait aldiz *al* ‘ahal’-ekin batean ditugu \**ezan* eta \**edin*-en adizkiak; holakoetan beti partizipioa agertzen da, iduri baitu *al* horrek aditzoia ibiltzea galarazten duela edo nolabaiteko galga paratzen duela. Etsenpluak, halarik ere, ez dira anitz: *ekarri al baganazake*, *ekarri al baganitza*, *erakarri al badezat*, *erakarri al baneza*, *baldin partitu al badioza*, *atere al baditezke*, *libratu al daitekean*. JRMk holakoetan berdin jokatzten du, hau da, partizipioa erabiltzen du: *bildu al badezagu*, *libratu al baditzagu* (II, 90).

Aipatu *al*-dun horietatik lekora, ematen du Mounole (2007: 85) eta Reguero (2019: 435-436) hizpidean daudela *-tu* duten aditzek bukaera *-i* dutenek baino aiseago galtzen dutela diotenean, indikatibotik kanpo. IBren gutunetan *-tu* dutenen artean aditzoia nahiz partizipioa edireten dugu aipatu moduz landakoetan, *geldi bedi* eta *txukatu litezke* demagun, baina *-i* amaiera dutenetan *egosi dezagula* (behin) eta *ekusi beza* (bitan) ditugu, ez dago *-i*-rik gabeko formarik, nahiz eta, hau ere esan beharra dago, *-tu* akabaila dutenak franko ugariagoak izan bokal palatalarekin akitzen direnak baino. JRMrean ere gauzak ildo beretik doazela dirudi, baina hor *ekar dezatela* (behin) eta *ekus dezatela* (behin) ere badauzkagu (ikus JRM, II, 43-44), *ekusi dezala* (hiru aldiz) eta *ekarri ditzake* (bitan) formen ondoan.

Nolanahi ere, egun, Goizuetako hizkeran, indikatibotik kanpo (ikus JRM, II, 44-45) *-tu* eta *-i* galtzen dira edo gal daitezke, ez dago alde nabarmenik bien artean, lekutzeko tenorean.

### 2.1.5. Bi argumentuko adizkiak vs hiru argumentukoak

Zuazok (1998: 214-215) Hego Euskal Herriko euskararen ezaugarrien artean zenbait tokitan gertatu den hiru argumentuko adizkien nagusitzea (hots, eta ulertzeko, *ikusi nizun* esatea, *ikusi zintudan* esan beharrean) hartzen du ahotan. Gutunotan ez dugu holakorik sumatu; alderantziz, bi argumentuko *zor izan* daukagu («*Sebastian zor dut bi libra olio*») guretzat ohikoa den hirukoaren orde. Zernahi gisaz, IBren eskutitzetan etsenplu bakarra daukagu, aipatu dugun hori (JRMreanetan gehiago dira honelakoak; ikus II, 380-381). Goizuetako egungo hizkera dela eta, esan dezakegu gure aurreko belaunaldikoek Nor-nork adizki horiek zuzen ibiltzen zituztela.

### 2.1.6. *Izan aditza*

IBk, lehen pertsonan, *naiz* ibiltzen du perpaus nagusietan, baina *egonen naizala* eta *kargatze[n] naizal[a]* ere badauzka, hots, itxuraz bederen egungo Goizuetako *nitzala* ‘naizela’ formaren aurrekaria. Pluralean, berriz, lehen pertsonan hirutan daukagu *gera* (bi *gera* eta *ezkera* ‘ez gara’ bat) eta behin *gara*, mendeko konpletibo batean (*egonen garala*).

Singularreko hirugarrenean *da* dugu adizkia, eta, menderagailuekin, *dela*, *delako*, *den*, *denean*; ez dago bestetako *dala*, *dan* eta horien erakorrik. Pluraleko hirugarren pertsonaren kariaz, IBk gehienetan *dirade* ibiltzen du perpaus nagusietan, 161 aldiz, ongi zenbatu badugu, JRMk egiten zuenaz bestera, honek *dirade* bakarra baitauka. Bestalde, *dira*, aurretik *ba-* baldintzazkoa duten agerraldiak ere kontaturik, 156 aldiz kausitu dugu IBrean. Gero, mendeko perpausetan ia beti *dira* dugu, hau da, *dira* + *menderagailua* 79 txandatan daukagu, eta *dirade* + *menderagailua* hirutan baizik ez. Alegia, «diranak dirade»-ren modukoak ugariak dira, baina «diraden burniak dirade» bitan azaltzen da, eta «diradenak dirade» batean baizik ez.

Orainaldian *dirala* eta *diran* (*diranak*, *diranenzat*) formak ditugu, beti *a*-rekin; behin *diranean* bide dago, baina adizkia ez da ongi irakurtzen ahal. Nabarmentzekoa da *dira* nagusi dela lehen urteetan, eta *dirade* hondarrekoetan, egileak nolabaiteko bilakaera ukan duelako seinale. Zernahi gisaz, ez dago *garade*-rik ez *zarade*-rik ere; hauek ekialdekoagoak bide dira (ikus Reguero, 2019: 442-443).

Iraganaldian, IBk lehen pertsonan lau aldiz *ninzan* dauka, bi perpaus nagusietan (*ez ninzan oroitu*, *joan ninzan*) eta beste bi mendekoetan (*izandu ninzanean*, *joan ninzanean*). Kontu grafiko hutsaren fruitu iduri duen *niñzan* aldaera beste lautan azaltzen da, beti perpaus nagusietan (*ez niñzan oroitu*, *etorri niñzan*, *gelditu niñzan*, *izandu niñzan*). Pluraleko lehen pertsonan lekuko bakarra dugu: *hasi giñan*.

Singularreko hirugarren pertsonan *zen* du ia beti IBk, perpaus nagusia izan edo mendekoa izan, baina batean «*basoa bota zaneke asentuak*» daukagu, hots, *zan* dugu hor, ez *zen*. Pluraleko hirugarren pertsonan *ziran* 20 aldiz darabil IBk perpaus nagusietan, 12 aldiz erlatiboetan eta hirutan zehar-galderetan. Horietaz landara, *ziranetik* bat dauka, beste *ziranekoak* bat eta bi *ziranean*; *zirala* sei txandatan aurkitu dugu. Bestalde, *ziraden* sei aldiz daukagu gutunotan, baina beti perpaus nagusietan; ez dago *ziraden* + *menderagailua* duen itzulirik.

### 2.1.7. \**Edun* (eta *ukan*) aditza

\**Edun* aditzari dagokionez, *-u-* dugu anitzetan agertzen den *dut* adizkian, *ditut* objektu pluralarekin, gaur egun *dut* eta *ttut*. Gero, ordea, *dezu* dago hiru aldiz, *degu* hamazazpi aldiz eta *dezute* txanda batean (*dezutenean*), *ditugu*, *dituzute* objektua plurala denean. Caminok (2009: 349-350) «nafarreraren ezaugarri bateratzaile ez eskusibo»-en artean sartzen du \**edun*-en orainean *u-*dun formak erabiltzea, baina ikusten da IBk, JRMk baino maila handiagoan, erdialdeko hizkeretako adizkiak darabiltzala, *e-*dunak. Testu zaharretan Beran ageri da, baina ez Goizuetako bereko predikuan (Reguero, 2019: 443). Hemen, deigarri zaigu Nafarroan eta Iparraldean erabiltzen den *-en*-en bidezko geroaldia (akabailan sudurkaria duten aditzekin) eta *degu* erdialdekoa batean ediretea, eta lau lekukotasun dauzkagu: *izanen degu* (1), *egiñen degu* (3).

Singularreko bigarren pertsona, esan bezala, *dezu* da IBren idazkietan, zó orain singularrean Goizuetan, *ttizó* objektu pluralarekin perpaus nagusietan, biak *o*-rekin, baina *u*-rekin mendekoetan: *nái zunà ín* ‘nahi duzuna egin’, *ín ttizún gàuzák* ‘egin dituzun gauzak’.

Hirugarrenean *du* / *ditu* dauzkagu bai IBren lanetan, bai JRMrenetan, *do* eta *tto* orain perpaus nagusietan Goizuetan, baina *du-* eta *ttu-* mendekoetan: *pasátu dun eúna* ‘pasatu duen eguna’, *pasátu ttun eúnak* ‘pasatu dituen egunak’.

Aintzat eduki bedi IBren *degu* eta *ditugu*, JRMren gutunetan *dugu* eta *ditugu* direnak, *du* eta *ttu* direla gure egunotan Urumeako herrian, eta menturaz bereizi nahia izan dela *do* ‘du’, *tto* ‘ditu’ / *du* ‘dugu’, *ttu* ‘ditugu’ horietan, mendekoetan beti *u-*dun formak bi pertsonetan azaltzeak erakusten bide duen moldean: *dúla* ‘duela’ edo ‘dugula’, *dun* ‘duen’ eta ‘dugun’ eta *ttúla* ‘dituela’ nahiz ‘ditugula’, *ttun* ‘dituen’ edo ‘ditugun’.

Pluraleko bigarren pertsona, egun, *zuté* eta *ttizuté* dira Goizuetan: lehenaren oinarrian *duzute* (edo menturaz *dezute*) egon daiteke, eta bigarrenaren azpian *dituzute* seguruenik. Bilakaera \**dittuzute* (palatalizazioa) > \**dittizute* (palatalak eragindako bokal asimilazioa) > *ttizute* (laguntzaileetan gertatu ohi den hasierako *di-*ren galeraren ondorioz) izan dateke.

Pluraleko hirugarren personaren kariatara, *dute* eta *dituzte* daude IBren gutunetan, *duté* eta *ttuzté*<sup>1</sup> Goizuetan orain.

Adizkiek menderagailua hartzen dutenean aldaketa handirik ez dago gutunetarik egungo hizkerara: aldea oraingo «goizueteran» bokal artean igurzkariren bat erortzea (*arkitzen dudana* vs *aurkítzen duána*), bokal bakuntzea (*nahi duenean* vs *nái dúnèn*) eta horrekin batean hasierako silaba

<sup>1</sup> JRM, II, 83-n gaurko aldaera *ttúzte* dela idatzi genuen, baina *ttuzté* da.

galtzea (*ekarri dituen ardoak* vs (*e*)*kárri ttun ardók*) izaten da. Kontuan har bedi eskutitz batean, adizkia bi lerrotan zatiturik badago ere, *nabi dun dirua* dugula, segur aski egungo aldaera laburtua orduko sortua zela adierazten diguna.

IBren hizkeraren beste ezaugarri bat, JRMk erakusten ez duena —honek beti *dituela*, *dituen* dauka—, singularreko hirugarren pertsonan, erlatiboa gehitzean *dituan* (14 aldiz) eta *dituanak* (behin) agertzea da, nahiz eta *dituen* (45 aldiz) eta *dituenak* (17 aldiz) jaun eta jabe izan.

Iraganaldian JRMk *nuen*, *nituen*, *zuen*, *zituen*, *genuen*, *genituen*, *zuten*, *zituzten* eta *joko zenuela* zeuzkan; IBk, ordea, bestelako adizkiak erabiltzen ditu zenbaitetan: *nuen*, *nituen* (2), *nituan* (2), *zuen*, *zituen* (*zituen*, 12; *zituela*, 1) eta *zituan* (*zituan*, 14; *zituala*, 1; *zituanak*, 1), *genduen* (1) eta *ganuen* (*ganuena* ‘*genuena*’, 1), *zuten* eta *zituzten*. *Ganuen* hori bitxixkoa da, eta ez dago bakarrik, *dazake* (behin; arruntean *dezake*) eta *ganazake* ere (aldi batez; *genezake*-rik ez dago idazkiotan) baitugu, kasu honetan asimilazioaren fruitu izan daitekeen arren. Nondik atera da *ganuen*? Pentsa daitekea \**genuan*-en erako bat dela iturria? Baldintzazkoetan, gainera, *ganituke* daukagu (*sartu nabi ganituke*). JRMk (II, 84) *genuen*, *genituen* eta *genituke* ditu, baina *nangoen* bat ere badauka (*ibid.*, 94; *nengoela* beste batean).

### 2.1.8. Aditza eta menderagailua

JRMren gutunetako aditzak aztertzean honela genioen (II, 49-50):

Gutunetan alegiazko adizkiak *-ke* morfema akabailan badu, menderagailua ez da *-en*, *-ela*, *-elako*, baizik *-an*, *-ala*, *-alako*. Esan daiteke, beraz, disimilazioa gauzatu eta «morfologizatu» dela, *-ee-* > *-ea-* burutu dela: *behar(ko) lukeala*, *hartuko lukealako*, *nabi lukeala*, *nabi lukean*, *behar litukeala*, *egosiko litukeala*, *etorriko litzakeala*, *ongi litzakeala*, *behar lirakeala*.

IBk holako franko adizki gutxiago dauzka: *behar lukeala* (1) eta *nabi lukeala* (1) formekin batean, *nabi litukeala* du pare bat aldiz eta *nabi litukela* behin. Horietaz gainera, *etorriko litzakeala* dauka baldintzaren apodosian eta *eraman ditzakeala*, ez *ditzakeala berago eraman*, *eragin zitzakeala* ahaleran. JRMren izkribuetan bezala, *-ke* bukaeran ez badago hau daukagu: *ekarriko luketela*, *jakin nabi luketela*, *kontua egiñ nabi luketela* (ikus taula).

Bestalde, *-ke*-rik ez duten adizkietan *naizala* eta *garala* ditugu, gorago esan bezala, baina *dela* (eta *den*, *deño*, *heldu denik*). Pluraleko hirugarren pertsonan *dirala* daukagu, *diran*, *diranak*, *diranean*, *diraden*-en aldamenan, ikusi moduan.

Behin ediren dugun *disekala* ‘datxeikiola’ adizkiari dagokionez, badirudi *\*da(t)xekiola*, *\*de(t)xekiola* moduko batetik atera dela, metatesi erako baten bitartez. Aldera bedi *diozala* ‘diezaiola’, *diozatela* ‘diezaiela’ (cfr. Leitzako *eztizola eragozi* ‘ez diezaiola eragotz’, Reguero, 2019: 448; Otxoa Arinek eta Lubietak ere badituzte honelakoak; ikus Leturiaga, 2022: 21 eta hur.), *bioza* ‘biezaio’ eta *biozate* ‘biezaie’ adizkiekin (aintzat har bedi Goizuetan *-otezela* batuko *-e-* ‘haiei’ morfemaren baliokidea, orain *-te-* bihurtu dena: *diotet* ‘diet’ > *ditet*, (*di*)*tiozte* > *ttizte* ‘dizkie’, *nitiozten* ‘nizkien’ > *nittizten*, *zaiote* ‘zaie’ > *zite*, *zioten* ‘zien’ > *ziten*...). Horiekin batean *geldi diziz]kiola* ‘geldi diezazkiola’ dugu batean.

Jose Ramon Minondoren eskutizetan dagoen *genezela* (*har genezela*) iruzkintzean honela genioen (JRM, II, 51): «Bestalde, txanda batean aurkitzen dugun *har genezela* ‘har genezala’ menturaz hustako ez, baizik *-ela* eta *-ala*-ren arteko lehiaren erakuskaritzat eduki beharko dugu». Orain, IBren gutunotan *dakidela* ‘dakidala’, *dakidenak* ‘dakidanak’ (cfr. *dakiela*, *dakienak*), *dauzkidaleko* ‘dauzkadalako’ (*dauzkit* + *-lako*) eta *dabillzenak* ditugu (baita *dabillzala* ere), hain segur ere *-ela* / *-ala* (eta *-en* / *-an*) bikoiztasun horrek sortzen zuen ziurgabetasunaren ondorioz.

Gai bihurri eta konplexua dugu hau; gu JRMren gutunetan agertzen ziren bikoiztasunak azaltzen saiatu ginen (II, 49 eta hur.), baina garbi genekusan gai zaila zela. Orain ere horretan gaude. Afera honetaz, besteak beste, hauek ikus daitezke: Mitxelena (1977: 117), Camino (2000: 170), Ariztimuño (2013b), Aldai (2014: 226-227), Zuazo (2014: 233) eta Zuloaga (2022: 89 eta hur.).

### 2.1.9. *Nork* aditzen pluralgileak

JRMren lana aztertzean genioen moduan (II, 53-54), objektu zuzen pluralarekin *-it-* zen pluralgilea gutunetan, bi argumentuko adizkietan; ez zen, batuan gertatzen denaren kontra, *-z-*rik ageri: *sartu nahi nituke*, *egiz nahi litukeala*, *nahi litukeala kontuak garbitu*, *nahi litukela*, *sartu nahi ganituke*. Baina, beste aldetik, eta batuan bezala, *dituzte*, *hartu dituzte*, *sartu dituzte*, *egin zituzten*, *galdu zituzten*, *hartu zituzten*... ditugu JRMrenetan.

Hiru argumentuko adizkietan, Goizuetako egungo usadioaren kontra eta, hein handi batean, baita JRMren usadioaren kontra ere, IBk *-zka-*, *-zki-* pluralgilea dauka gehienetan, *-it-* ere erabili arren. Zenbatzen hasita, orainaldian 20 adizki ditu harekin (*bialduko diozkat*, *eman dizkit*, *entregatuko diozkat*, *pagatuko diozkat*, *eraman diozka*, *esanen diozka*, *gelditu behar diozka*...) eta bi besterik ez *-it-*rekin (*eman tiot*, *emanen batiozte* ere). Iraganaldian 9 adizkitan dugu *-zka-* (*bialdu niozkan* lau aldiz, *eman niozkan*, *entregatu niozkan*, *eman*

*niozkaten*, *eman ziozkatela*, *emanen ziozkala*) eta 6 adizkitan *-it-* (*bialdu zitidan*, *eman nahi nitionak*, *eman nition bitan*, *eman[n] nitizun* eta *eskeñzen nition*). Ohart bedi irakurlea *-it-* datiboaren markaren aitzinean paratzen dutela gure egileok, eta *-zka-* berriz haren gibelean (*niozkan*), edo *-o-* eta *-te-* ren artean (*niozkaten*), tarteko *-o-* hori datiboaren morfema bada (ikus Martínez Areta, 2013: 41). Caminoren (2004: 88, 2009: 348) arabera, bilakaera (analogikoa) *-zki-* > *-it-* izan da, hots, eta alderdi honetatik, IB kontserbatzailatzat hartu beharko dugu, eta JRM berritzailatzat. Nolanahi ere, *ditio* / *diozka* adizkien arteko eremuan zegoen Arranbide (ikus EHHako mapa, Leturiaga, 2021: 155), eta ez da, beraz, miresteko IBren gutunetan holako bikoiztasunak aurkitzea.

Adizki trinkoei dagokienez, *-zki* du IBk *eraman* aditzaren pluraleko forma bakarrean (*daramazki*), egun *-laburturik-* ibiltzen den bera (*damàzki*). JRMk *-zki* ez ezik *-tzi* ere badauka (*daramazki* eta *daramatziela*; honetaz ikus Ariztimuño, 2013a: 363-373; Leturiaga, 2020: 379 eta hur.; Camino, 2022: 326-331). *Iduki*-n *daukat*, *dauka*, *daukate* ditu IBk osagarria singularra denean, baina *dauzki(t)* (*dauzkidaleko* ‘dauzkadalako’), *dauzki* eta *dauzkite* objektu zuzena plurala denean. Honelakoak Goizuetako 1753ko predikuan ere ageri dira (Reguero, 2018 [2015]: 222).

#### 2.1.10. \**Edin* aditzeko *-ai-* / *-i-* bikoiztasuna

\**Edin* aditzean *-ai-* / *-i-* bikoiztasuna daukagu batzuetan, JRMren idazkietan bezala. Alde batetik *kontu egiñ daiteke*, *libratu al daitezkean* eta *izan laiteke* dauzkagu, eta, bestetik, *atere al baditezke*, *ea konpon ditezkean*, *zenbatsu kosta ditezkean*, *egin al baliteke* eta *txukatu litezke*. Goizuetako erungo erabileraren berri jakiteko, ikus JRM (II, 54).

#### 2.1.11. *Dediela*, *dediñ* eta *dadiela*

Subjuntiboan *dedi-* eta *dadi-* dauzkagu eskutitzetan:

- *Bigar bial bitzate ogiak, eta etzi bial beza Juakintxo, arrago hau erre dediñ.*
- *Parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]nzat.*
- *Paskual Insauste honek esan dit akorda dediela lau urretxiki haiek norekiñ bialdu zio[z]kan [...], baña ez dituela lau urretxikiak galduko, akorda dediela zeñekin bialdu zituan, eta bi[al] ditzala al duen lasterrena, hau horrara ebilli gabe.*



JRMk (II, 56-57) *konpon dedilla* eta *oroi dadiela* ditu; IBk, hemen ikusten den eran, *dediela* ere badu (bitan), *dediñ* (behin) eta *dadiela* (behin) ez ezik.

### 2.1.12. Geroaldia

IBren gutunetan, JRMrenetan bezala, sudurkariz bukatzen diren aditzek *-en* hartzen dute ia beti: *egiñen ditut*, *egonen gera*, *emanen diot*, *esanen diotet*, *ez dute eramanen*, *jakiñen du*, *juanen naiz*, *jonen naiz* eta *yonen naiz...* baita *ezagunen da* ‘ezagutuko da’, ‘ikusiko da’, ‘nabarituko da’ ere. Bada salbuespenen bat, alabaina:

- *Hau kon[tu]an sartua bada jakiño du asentutik.*
- *Santiagok apenaz (sic) jango zuen bada.*

Bestela, bokalez akitzen direnek *-ko* hartzen dute IBren eskutizetan: *abisatuko dut*, *ageriko da*, *ekusiko ditut*, *etorriko da*, *ez dirala aterako*, *geldituko dira*, *kontatuko ditu...*

Aditz modalek zuzenean hartzen dute *-ko*, hots, ez dute *izan-en* laguntzaren beharrik: *beharko dira*, *beharko du*, *beharko ditugu*, *nahiko du*, *nahiko dute* (eta *nahiko lukete*).

Berezia da *al-*en erabilera, JRMrean eta IBrean, eta maiz ez dakigu desira adierazi nahi den edo ahala. Biak seguruenik. IBk hauek dauzka: *ez al dute esparik izanen* ‘ez ahal dute esparik izanen!’, *etorriko al da* ‘etorriko ahal da!’, ‘etorriko da, arazi!’, baina *jakiñen al du* ‘jakiten ahalko du’, *bialduko al ditugu* ‘bidaltzen ahalko ditugu’. Ikusten den gisan, bai kasu batean, bai bestean, geroaldiaren morfema aditz nagusiak darama, ez modalak.

Hortaz, esan daiteke Caminok (2009: 350) nafarreraren «ezaugarri bateratzaile ez eskusibo»tzat ematen duen «etorkizuneko morfema *-en* izatea *-n-z* bukatzen diren aditzetan» hatsarrea betetzen dela, baina ez guziz. Ikus JRM (II, 60-51).

### 2.1.13. Arazlea

Oinarriarekin bat eginik edireten dugu, eta laburtua, ondoko aditzetan: *aterarezi* ‘aterarazi’, *hasirazi* ‘hasarazi’, *jasorazi* ‘jasoarazi’ eta *pagarazi* ‘ordainarazi’. Hauekin batera, *eragin*, *eragiñ* ere badarabil IBk, ‘eginarazi’ adierarekin:

- *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean.*
- *Presarako Brunok hemen eragiñ dituen burniak dirade guzitara 1 quintal, 4 arrobas, 7 libras.*

Artizki zaharra *erakarri* ‘ekarrarazi’, ‘etorrarazi’ aditzean ere badarabil IBk:

- *Letra hoiek egin ezkeru, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak.*
- *Liberdiko olio neurria Iruñetik erakarri...1½ reales fuertes, 9 maravedís.*
- *Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara, agertu hobeko dut norbait erakarri al baneza.*
- *Orañ gaztiga beza erakarriko dudan edo zer egiñen dudan.*
- *Patxiku ardamandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria.*
- *Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat.*

Ez ditugu hemen sartzen arazle izaera galdu duten *erakutsi* eta *eraman*.

#### 2.1.14. Adlatiboa eta AL

Zenbait aldiz geroaldiaren morfemarekin ageri da adlatiboaren hondarkia duen forma:

- *Arranbiderako naiz bigar goizean.*
- *Bergamazoiko pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera. Juan dira itxera, esan dute kontuak egiñ bear dituztela, horrarako dirala eta asentuak bial ditzadala.*
- *Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago, eta zertatik basi behar den gaztigatu beza.*
- *Lubis maisua ere horrarako da noski.*

Honelakoak ongi ezagunak dira gure literaturan; *cfr.* Axularren hauek: «*ez abal naiz [...] ifernurako?*», «*ifernurako zarela*», «*eztitutzu [...] eskupeperako*», «*are badaki zenbat parabisurako diren, eta bai zenbat ifernurako diren ere*», «*...etsairik handiena eta perilosena [...] azpirako [...] duzula*»... Hauetaz ikus JRM (II, 62-63).

### 2.1.15. Trinkoen bokala, iraganaldian

Caminok (2009: 349-350) nafarreraren hogeita bost «ezaugarri bateratzaile ez eskusibo» aipatzen ditu, horien artean «aditz sintetikoaren iragana *a*-ren bidez egitea». IBk *egon* aditzean *zagoen* ‘zegoen’ eta *zauden* ‘zeuden’-ez landara *balaude* ‘baleude’ ere badu baldintzan. Gero, *eraman* aditzaren *zaraman* ‘zeraman’ eta *ekarri*-ren *zakarten* besterik ez dauka. Gogora dezagun JRMk (II, 93. or. eta hur.) *nengoela* eta *nangoan*, *zegoela*, *zegoala* eta *zagoela* zeuzkala, azkena subjuntibo balioarekin. Horiekin batean *zauden*, *zabillela*, *zabilkidan*, *nauzkien*, *zaukan*, *zaukaten* eta *balaukate* ere bazituen, IBk ere badarabilen *zakarten*-ez lekora.

### 2.1.16. *Heldu* aditzak *etorri*-ren trinkoak ordezkatu ohi ditu

JRMren gutunak aztertzean (II, 64-65) idatzi genuen Caminoren (2009: 350) arabera nafarreraren hogeita bost «ezaugarri bateratzaile ez eskusibo»-en artean *etorri* aditzaren forma trinkoak aginte perpausetarako gelditu izana zegoela, eta aipatu euskalkian, erabilera arruntean, *heldu*-ren adizkiak edireten zirela *etorri*-renen ordezkari. Reguerok (2018 [2015]) aztertu 1753ko Goizuetako predikuan *heldu*-ren adizki pare bat zegoela genioen, eta, horrekin batean, baita *dator* bat ere.

JRMren gutunetan *heldu* ugaria da, eta autoreak *dator* denborazko itzulietan erabiltzen du gehienetan, *igande datorrenean* edo *datorren astean*-en modukoetan, egun Urumeako herrian *eldù den iánden* eta *eldù den astén* esaten den arren. Aldi batez aginte balioarekin ageri da *datorrela* ‘etor dadila’ Olaberriko arduradunaren (JRMren) gutun batean, egun bezala: *datorréla nài bádo* ‘etor dadila nahi badu’.

IBk *heldu*-ren adizki hauek dauzka: *heldu den* ‘datorren’, *heldu denik* ‘datorrenik’, *heldu zen* ‘zetorren’, *heldu diranenzat* ‘datozenentzat’, *sobra heldu dirala* ‘sobra datozela, daudela’, *heldu zaidan denboran* ‘datorkidanean’, *heldu bada* ‘(baldin) badator’, *heldu ezpada* ‘ez badator’, *heldu ziran* ‘zetozen’ eta *heldu zaionari* ‘datorkionari’.

*Etorri*-ren adizki trinkoak denborazko sintagmetan edireten ditugu IBren izkribuetan: *datorren astean* lau aldiz darabil, *datorrenean* eta *astelen datorrenean zorzi goizean* ‘datorren astelehenean zortzi goizean’ txanda banatan. Aginte balioarekin bitan *datozela* ‘etor daitezela’ dugu. IBk ez du *-ke-*dun adizki trinkorik ibiltzen, eta beraz, ez dago JRMren *datorren astean eziñ datorkeala*-ren modukorik.

### 2.1.17. *Joan-en adizki trinkoak*

IBren gutunetan *joan-en* hiru adizki besterik ez daukagu: *noa* eta *dihoa* ‘doa’ indikatiboan, eta *bihoaz* aginteran. Hortaz, eta JRMren testuak (II, 66) aztertzean adierazi genuen bezala, eskutizetan ez dago Nafarroan hain hedaturik dauden *n(o)aie*, *d(o)aie*-ren moduko adizkirik. Hau bat dator egungo Goizuetako *noá* ‘noa’ eta *dió* ‘dihoa, doa’ formen erabilerarekin (ikus Zubiri eta Perurena, 1998: 142; Zelaiaeta, 2008: 85, 98; Zuazo, 2014: 108).

### 2.1.18. *Ari izan aditzaren jokabidea*

*Ari izan* aditza honela azaltzen da IBren gutunetan: *ari den* (bitan), *ola ari hobeko da* ‘hobe izanen da ola ari dadin’, *aritzen de[n]*, *ari dira*, *ari diran* (hirutan), *aritu baita*, *aritu dira*, *aritu zen* (hirutan), *aritu baitzen*, *aritu zenean*, *aritu baikiñañ*, *aritu ziranekoak*, *arituak* (hirutan), *aritzera*. Aditz honetan oinarritu *arialdi* izena ere badugu.

### 2.1.19. *Nahi izan aditzaren jokabidea eta lekunea*

*Nahi izan* aditza honela jokutzen du IBk: *nahi badu*, *nahi duen*, *nahi duena*, *nahi duenean*, *nahi dutela*, *nahi duten*, *nahi dutenean*, *nahi baditu*, *nahi zituan*, *nahi zuten*, *nahiko du*, *nahiko dute*, *nahi omen luke*, *nahi lukela*, *nahi litukela*...

Partizipioa lagun daukala, ordenaketarik usaiakoena hura aitzinean duena da: *bota nahi luke*, *egiñ nahi badio*, *egiñ nahi litukeala*, *eman nahi badiote*, *eman nahi nitionak*, *era(i)tsi nahi badiozka* ‘erantsi nahi badizkio’, *erakarri nahi nuke*, *etorri nahi badu*, *garbitu nahi badite* ‘garbitu nahi badie’, *jakin nahi luketela*, [*jakin*] *nahi nuke*, *juan nahi nuke*, *sartu nahi nituke*, *sartu nahi ganituke*... Zernahi gisaz, partizipioa gibelean dutenak ere badira, bakanagoak izanagatik: *nahi badio garbitu*, *nahi badiozka egiñ*, *nahi litukeala garbitu*, *nahi nuke ekusi*.

Ez dago, bestalde, *nahiko nuke* eta *nahi izanen dute*-ren tankerakorik; beti *nahi nuke* eta *nahiko dute* dauzkagu. Gainera, *nahiago dira* (inpertsonala), *nahiago nuke* eta *nahiagatik ere* ‘nahi izanik ere’ ere baditu IBk.

### 2.1.20. \*io ‘esan’ aditzaren lekunea

Aditz hau JRMren gutunetan baino aise gutiagotan agertzen da IBrenetan, eta gehienetan perpaus osagarriaren ondotik: *hartu dituela dio, hasiko dirala diote, kontua garbitu nahi dutela diote, kontua garbitua duela dio, kontuak egiñ nahi litukeala dio, etorri behar zuela zion, ezkutua bat behar zuela zion*. Behin konpletiboaren aitzinean dago, baina sekula ez perpausburuan: *igele honek dio nahi lukela kontua garbitu*.

### 2.1.21. Egon ‘uste izan’ aditzaren lekunea

*Egon ‘uste izan’, ‘zalantzan egon’ adierarekin ibiltzen denean perpaus bukaeran agertzen da gehienetan:*

- *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago.*
- *Eta suerte horri disekela, emateko gauza haundirik ez dela nago.*
- *Hala egiñ beharko du; nik hoiengatik kontua lenago bialdu niola nago.*
- *Iruñerako quadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago.*

Hurrengo lerroaldean bi lekuneetan daukagu, hasieran eta bukaeran. Hasierako hori, alabaina, ikusten den moduan, ez dago perpausburuan, lehenago *ni* baitu:

- *Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten. Ez da bada, noski, beurriri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu eta zorra bizi ote den nago.*

### 2.1.22. Behar izan-en lekunea

Eskuarki Hegoaldean ibiltzen den ordena dago:

- *Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala.*
- *Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut.*

Halarik ere, bada salbuespen bat, Iparraldekoen eran antolatuturik dagoen bat:

- *Behar dute izan kontu honeterako (sic).*

Honelakoak, alabaina, Bortzerrietatik ekialderagoko hizkeretan ere badira Nafarroan (P. Rekalde, a.a.). Aezkoan, esaterako, ordena hori da ohikoa *behar* eta *nabi*-rekin (Camino, 1997: 506-507).

### 2.1.23. *Abal izan*-en erabilera

Gehienetan *\*edin* edo *\*ezan*-en *-ke*-dun adizkiak edireten ditugu ‘ahal izan’ adierazteko: *ea konpon ditezkean*, *eragin zitzakeala*, *esan dezaket*, *ez dezaket nik gehiago egiñ*, *izan laiteke* ‘izan liteke’, *kontu egiñ daiteke*, *txukatu litezke*, *zenbatsu kosta ditezkean*...

Baina bi aditz horiek *al*-en lagun ere kausitzen ditugu zenbait aldiz: *atera al baditezke* ‘atera badaitezke’, ‘ateratzen ahal badira’; *egin al baliteke* ‘egin baliteke’, ‘egiten ahalko balitz’; *egiñ al dezakedan guzia*, *ekarri al banazake* ‘ekar banezake’, *libratu al daitekean* ‘ea libra daitekeen’, ‘ea libratzen ahal den’.

Bestalde, *al*-ek bi balio (nagusi) ditu IBren gutunotan: a) desira adierazteko ibiltzen da, b) aditz modala da, posibilitatea adierazten duena (ikus geroaldiari eskainitako puntuan dioguna): *al badu* ‘ahal badu’, *al den bezala*, *al duen diru guzia*, *al dugun lasterrena*... Geroaldiarekin posibilitatea, ahala, adierazten duela dirudi: *Badira, bada, hiru itzai, eta bigar eta etzi bialduko al ditugu. / Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerro jakiñen al du.*

Zenbait aldiz *\*ezan*-en adizkiekin kausitzen dugu, *-ke*-rik ez dutenekin: *norbait erakarri al baneza* ‘norbait ekarraraz banezake’, *partitu al badioza* ‘partitu ahal badiezaio’, ‘banatzen, ematen ahal badio’.

Behin edo beste, JRMren testuetan bezala (ikus II, 68ko «*akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanagatik ezagun gabe juanen al ziran*») iduri luke ‘mentura’ adierazi nahi dela, ‘segur aski’, ‘beharbada’-tik hurbil dagoela:

– *Diru hartuak horr asentatuak al dauzki, noski!*

Honen adiera ‘diru hartuak hor asentatuak, apuntatuak edukiko ditu, noski!’ dela dirudi.

Txanda batean *gaztigatu al diote* ‘berorrek haiei jakinarazten ahal die’ dauka IBk, alegia, ahala edo posibilitatea adierazteko *\*edin* edo *\*ezan*-en adizkirik ez duen itzulia. Gorago zehaztu moduan, *erakarri al baneza* eta *partitu al badioza* baditu, baina bietan *\*ezan* dugu, ikusten den gisan, ez honetan bezala *\*edun* edo *-in-*, *\*nin-* erroko adizkia.

### 2.1.24. *Ezin izan*-en erabilera eta lekunea

Ordenaren kariaz, lautan *ezin* + *aditz nagusia* + \**edun*, *izan* dugu:

- *Ezin ase da.*
- *Ezin baliatu naiz.*
- *Ezin sumatu degu.*
- *Eziñ fiatu dirala.*

Baina \**ezan*-ekin ere hirutan agertzen da:

- *Eziñ bete dezaketenak.*
- *Eziñ eraman ditzakeala.*
- *Zergatik eziñ egiñ dezaketen.*

Zenbaitetan, *ez* + \**ezan*-en adizkia + *AN* dauka *IBk ezin izan*-en ordeaz:

- *Ez dezaket nik gehiago egiñ.*
- *Ez dezake eman satisfaziorik.*
- *Ez ditzakeala berago eraman.*
- *Ez dezakegu deus egiñ.*

JRMk ere (I, 276) badu holako bat, beste hurrenkera batekin eta \**edin*-ekin *izan* arren:

- *Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean.*

### 2.1.25. Aditz batzuen partizipio pleonastikoa

IBren gutunetan *egondu* eta batez ere *izandu* dauzkagu, aspektua burutua den adizkietan: *egondu naiz*, *egondu zen*, *izandu da*, *izandu dira*, *izandu dute*, *izandu niñzan*, *izandu zuena*... baita *izanduari* eta *izanduarena* ere: «*horr arzai izanduari*», «*Pello Josepe Orzeriogan izanduarena*» ‘*izan denarena / zenarena*’.

Bestela, *egon gabe* dugu behin, eta *izan*-ekin hauek: *izan da*, *izan ezagatik* ‘*izan ez zuelako*’, *izan laiteke* ‘*izan liteke*’ eta *behar dute izan*.

Gai honetaz ikus bitez JRM (II, 69-70), Camino (2000: 140-141, 2004: 84) eta Reguero (2019: 436-437).



### 2.1.26. Bokal irekiarekin bukatzen den partizipioa + -a

JRMren idazkiak aztertzean (II, 70) honela genioen: «Honelakoetan, egun Goizuetan ardurakoa den moduan, *-ea* egiten da eskutizetan: *aterea, botea, botetan* ‘boteetan, botatakoetan’. Hala ere, hau ere badugu: *zepoa atera edo hautsia zegoela*». IBk lekukotasun bakarra dauka: «*aterea egonen da burniñtxoa*». Badu, alabaina, *atererik* ‘aterarik’, ‘aterata’ bat ere: «*Eta Iruñerako atererik dauden garrobandak dirade... 3 quintales, 16 barras*».

### 2.1.27. Partizipioa eta instrumentala

Partizipioak instrumentala hartzen duenean *-az* du IBren izkribuetan ediren dugun lekukotasun bakarrean:

– *Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme.*

Egia esan, beste bat ere badu: «*lana egiñaz gañera*», baina hau ez da aitzinekoa bezala-bezalakoa, agertzen ere den «*lana egiña duenaz gañera*»-ren taxukoa baizik.

JRMk (ikus II, 70-71), ordea, lehen itzuli horren moduko franko zituen, beti *-az*-ekin, *ezin izan* aditza ageri ez bazen, holakoetan *-z* hutsa ibiltzen baitzuen. IBk, tamalez, ez du aditz horrekiko testigutzarik eta ezin jakin, beraz, nola jokutzen zuen. Goizuetan, egun, aipatu lanean genioenez, beti *-z* dago bokal ondoan (*ekárriz, (e)kúsiz, geldíttuz, neurtúz, pàtuz, yárriz...*) eta *-ez* kontsonante ondoan (*eònez, eràmanez, ññez...*), baina Oiartzunen biak daude, *-(e)z* eta *-az* (Fraile eta Fraile, 1996: 106).

### 2.1.28. Partizipioa + -t(z)e

Batzuetan *-tze* atzizkia partizipioari gehitzen zaio, ez aditzoinari.

- *Bada, honela arratseko etorritzen badira, espensa doblea behar dute.*
- *Mea hura ala kargatzeko lekura aterarezitzeko modua har dezadan len baño len.*
- *Olatxoko kabiguña sartutzen...1½ días.*

Hau *hasi* aditzarekin hirutan aurkitu dugu:

- *Astearte goizean ola hasitzekotan, mea eskastuko da, inõrk ez ekarzekotan.*
- *Egiñen degu tellatuan egiñ dezakeguna igandean ola hasitzeko, baña ikatza ekarzeak lanak emanen ditu denbora hau honela bada.*
- *Ez da posible izanen datorren astean honekin hasitzea.*

Bestalde, *haste-* ez da behin ere ageri. JRMren erabileraz eta Goizuetako egungo egunekoaz ikus haren bigarren liburukia (71-72). Nafarroako testu zaharretan gertatzen zenaren eta egun agitzen denaren berri jakiteko Camino (2000: 139-140, 2004: 85) eta Reguero (2019: 437-438) ikus daitezke.

Ondoko esaldi honetako *neurritzeko* berez da berezia, oinarrian *neurri* nahiz *neurritu* aditza izan dezakegulako:

- *Ardoa neurritzeko enbuto bat.*

*Neurri* dagoela uste badugu, *-tzeko* partizipioari erantsi zaiola esan beharko dugu; ordea, *neurritu*-tik abiatzen bagara, aditzoinari gehitu zaiola aitortu beste biderik ez dugu (ikus Camino, 2000: 141, 7. oin oharra).

Bestalde, IBren idazkiotan beti *ematen ziola, ematen badu, ez du ematen, eramateko...* daukagu, baina egun Goizuetan *emate-*, *eramate-* esaten da, baita *ebatte-* ‘ebakitze-’ (*belar(ra) ebatte-*) eta *otte-* ‘egote-’ ere, hain segur lehenagoko *\*emaite-*, *\*eramaite-*, *\*ebaite-* eta *\*egoite-* tik, hauen lekukotasunik gutunetan ez dagoen arren, beharbada arazo grafikoengatik. Nolanahi dela, orain *esate-* eta *yote-* ‘joate-’ esaten da, ez *\*esatte-*, *\*yotte-*.

## 2.1.29. Aditzen erregimena

Guri puntu hauek iruditu zaizkigu interesgarri:

*Abisatu*-k absolutiboa galdegiten du gehienetan: *Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela. / Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala. / Beurrek nahi duenean bialduko diozkat, abisa naza noiz nahi duen. / Eta yonen naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Etorzen bada aste honetan abisatuko nauela. / Nolanahi ere, datiboarekin ere aurkitzen dugu: Arren eta arren beurri gaztigitzeko abisatu dit, eta errespuesta bialduko dio.*

*Abaztu*-k absolutiboa (une bateko gauza denean) eskatzen du: *Hau aztu zait kartan paratzea. / Orduko fetxa paratzea aztu zizadan.*

*Allegatu*-k adlatiboa galdegiten du: *Hoiien laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira.*

*Aritu* aditzak absolutibo mugagabea izan dezake lagun, prolatibo edo esibo lanetan (ikus izen morfologiari eskaini atalean dioguna): *Azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita.*

Ase-k instrumentala nahi du: *Orañ inñor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz.*

Atera-k adlatiboa du ondoan: *[Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den]. / Mea hura ala kargatzeko lekura aterarezituzeko modua har dezadan len baño len. / Dena dela, ‘ekoitzi’-edo denean inesiboarekin ere azaltzen da: *Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako, eta halere esan dit beurri gaztigatzeko ola haundian, hemen, atere al baditezke. / Adiera batean edo bestean adlatiboaren gainean moldatu destinatiboarekin ere edireten dugu behin edo behin: *Eta Iruñerako atererik dauden garrobandak dirade... 3 quintales, 16 barras. / Jakina, absolutiboarekin ere ageri da: *Atere bitza kontnuak eta gaztigatu beza olan zeñ egunez hasi behar den.****

Atrebitu-k adlatiboa du aldamenean: *Bergamazoiako paretia hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera.*

Ebilli-k adlatiboa eta inesiboa daramatza lagun eskutitzotan: *...eta bi[al] ditzala al duen lasterrena, hau horrara ebilli gabe. / Jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Oiarzungo honi larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez ebilzeagatik [...]. / Txarkerian ez ebilzeagatik beurrekiñ bi urretxiki galduko dituela. / Aditz honek -ka-dun forma ere onartzen du: *Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade [...].**

Egiñ aditza, txanda batean, instrumentalarekin ageri da: *Gaztiga beza ola haundiko kabiaz zer egiñ behar den.*

Egon(du) soziatiboarekin arrunt ugaria da: *Berarekiñ egonen naizala. / Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. / Orobat inesiboarekin: *Eta espensak taia honetan daudenak...140. / Ergatiboarekin ere behin ageri da: *Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes.***

Eman-ek -tzen edo -tzera eskatzen du, aditz izenetan: *Zaldibiak ditu...2 días jatera hemen emanak, Senperren semeak dituzte...4 días jaten hemen emanak. / JRMk berdin jokutzen du (ikus II, 73). Hauek ere, beste zenbait ezaugarriekin gertatzen den moldean, leku banatara begira daudela iduri du: *yaten eman* erdialde-mendebaldekoa da eta *yatera eman* nafarra eta ekialdekoa. Orain Goizuetan *yáten emán* esaten da.*

Enkargatu absolutiboarekin doa: *Enkarga bitza espensa libre emanen diotela eta datozela; igoal etorriko dira.*

*Eskas egon-ekin instrumentala daukagu: Niri esan dit igande juan den honetan gaztigatu diola Oletek basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean eta hitz egiñen dutela.*

*Estimatu-k instrumentala galdegiten du: Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[er]i ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egitez.*

*Etorri-k adlatiboa ohi du ondoan: Arranbidera etorri diran ikatzak. / Konponzen badira, etorriko litzakeala beurrengana. / Oiarzungo honi larunbatean horrara etorri behar zuela zion. / Baina, bistan da, ablatiboa ere ukan dezake laguntzaile: Beren meatzetik etorri diran meak dirade [...] / Hau da honen gaztañaditik etorri den ikatz guzia, bere propioa.*

*Gastatu-k inesiboa eskatzen du: Olatxoko ardatza ustaitzen gastatu ziran burniak dira...8 quintales. / Solamente nik ez dakit haspategiko ardatza egiten eta lorrean zenbat gastatu zen, hori beurrek jakiñen al du!*

*Gaztigatu-k datiboa du ondoan ‘abisatu’, ‘jakinarazi’ adiera duenean: Arren eta arren beurri gaztigatzeko abisatu dit, eta errespuesta bialduko dio. / Gaztigatu diot Gregorio igeleari etorzeko. / Bestalde, ‘esan’ denean absolutiboarekin aurkitzen dugu: Beurrek nahi duena edo deritzena gaztigatu beza.*

*Hartu-k ablatiboa ere ukan dezake lagun, absolutiboa ez ezik: Pello Bergaragandik beurren kontura hartuak [...].*

*Hasi-k inesiboa eskatzen du: Burnia oran hasi da pixka bat gozatzen. / Garbitzen hasi ziranean. / Meatzeko harria pasatzen hasi ziranetik. / Nik, nola baitzauden ogiak ya urdinzen hasiak [...] / Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago. / Ablatiboarekin ere azaltzen da: Zertatik hasi behar den gaztigatu beza.*

*Izan-ek inesiboa eskatzen du arruntean, baina adlatiboa ere badu aldi batean: Patxiku Antoniorengana izandu niñzan. / JRMk izandu gera biak Sarastirengana darabil; egun honelakoak ez dira bitxiak Goizuetan. Ikus JRM (II, 22).*

*Joan-ek adlatiboa galdegiten ohi du: Eta beste guziak joan ziran larunbat goizean Donostiara. / Ostiral arratsaldean joan ninzan Astiarragara. / Instrumentalarekin ere aurkitzen dugu: Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme. / Baita inesiboarekin ere: Bigar goizean jonen naiz nere beajea.*

*Kargatu-k absolutiboa eta instrumentala eskatzen ditu (ikus JRM, II, 74): [Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera*

[zein den]. / *Orañ espensa horietaz ni kargatze[n] naizal[a] egiñen du deritzan soldata niri emana didana.*

*Libre izan aditzak ablatiboa galdegiten du: Eman hobeko zaiote pezeta, horien miñgañetik ez da libre izanen bestela.*

*Oroitu-k absolutiboa du eskumakila IBrenean, JRMk instrumentala erabiltzen badu ere: Atzo ez ninzan oroitu esatea, eta egiñik ezpada har dazake (sic) egiteko modua. / Ni ez niñzan oroitu lenago esatea. / Egun Goizuetan hola ibiltzen da, absolutiboarekin.*

*Pasatu aditzak absolutibo mugagabea ukan dezake lagun, prolatibo lanetan (ikus izen morfologiari eskaini atalean dioguna): Martiñ Josepe de Belasko horrek hemen mealle pasatuak baditu [...].*

*Sartu-k absolutibo mugagabea izan dezake laguntako, prolatibo edo esibo eginkizunetan (ikus izen morfologiaren gaineko atala): Bizente Kristok hemen mealle sartu dituan egunak. / Elaman mealle sartu zituan egunak.*

*Ukan absolutibo mugabearekin ediren dugu behin prolatibo lanean: Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*

### 2.1.30. Aditza galdegaitzeko egin erabiltzen da

Hau ardurakoa izan da eta da inguru honetan eta beste batzuetan, aditza galdegaitako hartzen denean. IBren gutunetan lekukotasun hauek ditugu:

- *Batere txartelik gabe purrustan heldu ziran, eta eman egin diotet.*
- *Beste urte batean ere holako lana eskatzen badiote, eman egin behar diote horiei, berak nahi dutenean juateko.*
- *Hau da niri esan didana, eta len baño len egiñ gogo badu, egiñ egiñ behar du denbora aunitz luzatu gabe, al duen lasterrena.<sup>2</sup>*
- *Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajejan.*

---

<sup>2</sup> Testuingurua ikusirik, iduri luke *egiñ* errepikatzea idaztean izandako arazotxoia izan dela, ez lehen *egiñ* hori bigarrenarekin galdegaitu nahiaren ondorena, baina ezin seguru egon, holakoak ohikoak dira-eta, gaur egun ere.

### 2.1.31. ALren ezabaketa eta partizipioaren erabilera

Jakina denez, euskaraz aditz laguntzailearen ezabaketa maiz gertatzen da, hizkera mintzatuan bereziki. Helburuak bi izan daitezke: (a) ekonomia erdies-tea, (b) perpausa hanpatzea. Honetaz ikus Iñigo, Salaberri eta Zubiri (1995). Ondoko hauetan hanpadura dugu:

- *Beratar meakari hoiek beti bondade haundia dute, eta mea gutxi egin.*
- *Egun goizean berantetsi eta inor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da.*
- *Horra atzo nik gaztigatze[n]niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak!*
- *Itzai kondenatu hoiek agiñzen dute guziak, eta erdiak ez etorri gaur.*

Maiz laguntzailea —eta aspektu edo aldiaren morfema— ekonomiagatik ezabatzen da, hauetan bezala:

- *Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri.*
- *Leneko kontua egiñ ezkerro, Zapparrok eta Patxiku Errotariak erdi bana 10 de ma[r]zotik hasi eta honaraño egiñ dituzten meak dirade, hemen pisatuak, 55 quintales, 4 arrobas ½.*
- *Olatxoko iñgudea hautsi eta gelditu ziranean.*
- *Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat.*

Nolanahi ere, holakoak ez dira ugariak IBren gutunetan. Hau hondarkien ezabaketan gertatzen denaren parekoa da, hor ere hagitz bakanak baitira ezabaketak (ikus bedi izen morfologiari eskaini atalean dioguna). Laguntzailea, IBren idazkietan, batez ere *hilaren izena* ablatiboan (marzotik adibidez) + *hasi* (ALrik gabe) + *eta* + *aditz osoa* (AN + AL) eta batzuetan erlatiboa ere baduen egiturakoetan kentzen da, «18 de marzotik *hasi eta honarano egiñak dituzte*», «18 febrerotik *hasi eta honaraño egiñ(ak) dituenak dirade*»-ren modukoetan, oinarrian *hasi zenetik*, *hasi zirenetik* edo antzeko adizkia dagoela onesten bada bederik.

### 2.1.32. Aferesirik ez aditzetan

Garrantzi handia ematen diote dialektologialariek aferesiari, nafarrera aztertzeke garaian (ikus, besteak beste, Camino, 1997: 302; Erdozia, 2001: 119-120; Montoya, 2004: 52-53; Salaburu eta Lakar, 2005: 23-24, 39, 57, 59; Zelaieta, 2008: 98-99; Apalauza, 2008: 76 eta 2012: 275-276; Zuazo, 2010: 54-55, 2013: 26 eta 2014: 108).

IBren gutunetan, JRMrenetan agitzen zen bezala, ez ohi dago aferesirik; honako hauek ditugu eskutitzotan: *egondu, ekusi, eman, emazte, esan, etorri, ezagun izan...* Araua baiesten duen salbuespena ere badago, halarik ere, behin *karri* baitugu, gehienetan edireten dugun *ekarri*-ren ordainetan: «*Guzien artean atzo eta egun karri dituzten mea erreak dirade 27 kintal eskasxeak*». JRMk, ordea, *ekarri* du beti, salbuespenik ez dago haren izkribuetan. Goizuetako 1753ko predikuan ere aferesirik gabeko aldaerak dauzkagu; ikus Reguero (2018 [2015]) eta JRM (II, 78).

Guztiz ere, Goizuetan, gaur egun, badira aferesia ukan duten zenbait aditz: *kárrri, kúsi, mán, sán, tórrri...* Baina hauen aldamenean forma osoak ere ibiltzen dira: *ekárrri, ekúsi, emán, esán, etórrri...* Batzuetan, gainera, beti bokaldun aldaerak erabiltzen dira: *emákume, emázte, ezá.utu, ikási, itsúsi, ittúrri...* Gai honetaz ikus Zubiri eta Perurena (1998: 32-33). Testuak eta oraingo hizkera ikusirik, esan daitekeela dirudi aferesiak gero eta gehiago direla Goizuetan, baina hau engainagarria izan daiteke.

### 2.1.33. Erregistroak

Ignazio Bergarak beti berorika idazten dio Juan Bautista Minondo olajaunari, gutunen hastapenean *nagusi jauna* deitu ohi duenari, Jose Ramon Minondok egiten zuen modu berberean: *kontatuko ditu beurrek ere, bealdu beza (beurrek), gaztiga beza, ekusiko du, bial dezala, beurrek esan zidan bezala, al badu, gaztigitu zidan, garbitu beza, garbitu baitzidan (beurrek), bialdu diozala (beurrek hari), gaztiga beza zer daritzan, elkarri era(i)tsi nahi badiozka (beurrek)...*

Eskutitzak ikusirik, akabaila aldean azaldu ohi den «A Juan Bautista de Minondo. *Que Dios muchos años [guarde]*» formula 1810.07.05 data daraman gutunean ageri da azken aldiz. Hurrengoetan (1810.10.19, 1811.04.04(A), 1811.04.04(B), 1811.04.04(C)) ez da holakorik azaltzen eta horietako hirugarrenean, 1811.04.04(B)koan, kontuez ari dela, *dezu* eta *eman nitizun* eztabaidako erregistroko —erregistro neutroko— adizkiak dauzkagu («*leneko urtekoa hor dezu. Ema[n] nitizun guzienak*»). 1811.04.24koan, *nagusi jauna* formalaren ordeaz, *Patxiku* lagun artekoa dakusagu, eta egileak darabilen erregistroa berriz ere eztabaidakoa dela, ez berorikakoa: *entregatu nizun, hor dezu*, «*konponduko dezu deritzazun bezala*».

Geroko gutunetan Ignazio sinatzen du IBk, eta idazkien hasieran ez du *Patxiku* errepikatzen, ez eta *nagusi jauna* erabiltzen ere. Arrazoia argia da: olajaun zaharra hila zen (1810eko agorrilaren 16an zendu zen JBM), eta kontuak olajaun gazteari errendatu behar zizkion orain IBk, bera baino franko

gazteagoa zenari. Alabaina, eta egia esan, bakanak dira Juan Bautistaren seme zen *Patxiku*-ri eztabaidako erregistroan zuzentzen zaion 1811.04.04(B)ko eskutitzaren eta azkena den 1811.09.30(E)koaren artean daudenak: bi horiek zenbatuta, hamahiru gutun dira Ignaziok Patxiku Minondori epe horretan bidalitakoak, hagitz kopuru txikia Juan Bautistari igorri ugariekin alderatzen baditugu.

Nolanahi ere, 1799.02.26ko data daraman eskutitza Juan Bautista artean bizirik zegoenean idatzi zuen Ignaziok, hura hil baino hamabi urte lehenago, eta hor ere *Patxiku* edireten dugu hasieran, eta «*A Franzisku Juakin de Minondo. Que Dios muchos años [guarde]*» akabailan, iduri duenez Juan Bautistaren seme gazteena zen *Juakin Franzisku Minondo*-ri zuzendua zegoelako, arrazoia zein zen —aita, Juan Bautista, eri ote?— ongi ez dakigula. Gutun horretan ere adina erabakigarria izan bide zen olajaun gazteari *Patxiku* deitzeko eta bigarren pertsona —pluralekoa— erabiltzeko: «*Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da*». Testuan ditugun erdarazko «*mal pecado!*» eta euskarazko «*itzai kondenatu hoiek*» birao modukoak agertzeak ere konfiantza zegoela adierazten du, eta segur aski holakorik ez zukeen erabiliko Patxikuren aita zen Juan Bautista «nagusi jauna»-ri zuzendu balitzaio.

Toka-nokako adizkirik ez dago testuan edo, zehazkiago esan, ia ez dago, 1789.02.23ko gutunean —ez dakigu idaztean okertuta edota nork bere buruarekin hitz egiteko izan ohi duen ohituragatik— ez dakik toketakoa ageri delako («*Egun ez dakik noiz akabatuko diran haxi eta zakar hoiek, eta abisatuko dut (berori)*»), ikusten den bezala berorikako adizkiaren aitzinean.

## 2.2. TAULAK

### 2.2.1. Aditz laguntzaileak

#### 2.2.1.1. IZAN. NOR orainaldia

<i>naiz</i> : egondu naiz / jonen naiz / juanen naiz / yonen naiz
<i>da</i> : etorriko da / hor da / hori da / izan da / izandu ez da
<i>gera</i> / <i>gara-</i> : ezker a baliatuko / izanen gera / saiatuko gera
<i>dira</i> / <i>dirade</i> : dira / horiek dira / horiek dirade / izanen dira / izanen dirade



Menderagailuekin:

- Egonen naizala.
- Abuztu joan denean / baldin hutsegin bada / egiñik ezpada / esan du prezio motxa dela / hau honela deño / heldu denik izaten ezpada / joan den urtean / non izanen den / urzalle aritu baita / zer egin behar den.
- Egonen garala.
- Bost karga dirala / egin diran burniak / ez dakik noiz akabatuko diran / egin diranak / ez dakit diran / ez dakit [...] paratuak ote diran / ez dirala / etortzen diranean / hasiko dirala / joan diran moduan.
- Egiñ diraden burniak dirade / egiñ diran burniak dirade.

### 2.2.1.2. IZAN. NOR iraganaldia

<i>ninzan / niñzan:</i> ez ninzan oroitu esatea / ez niñzan oroitu lenago esatea / izandu niñzan
<i>zen / zan-:</i> etzen burnirik joan / hemen zen / izandu zen
<i>giñan:</i> hasi giñan
<i>ziran / ziraden:</i> baziran / entregatuko ziran / etorri ziran / gelditu ziran / ziraden

Menderagailuekin:

- Hor izandu ninzanean
- Aritu baitzen / aritu zenean / egiñ zenean / egondu zen denboran / ez zela inporta / hautsi zenekoa / bota zaneke asentuak.
- Konponzen aritu baikiñan
- Egin ziran burniak / egin ziranean

### 2.2.1.3. IZAN. NOR alegiazkoa

<i>litzake-</i>
<i>lirake:</i> ez lirake kontentu izanen

Menderagailuekin:

- *Etorriko litzakeala.*

#### 2.2.1.4. IZAN. NOR-NORI *orainaldia*. Hura

<i>zait: aztu zait / urrikitu zait</i>
<i>zaiio: hill omen zaiio / tokatzen zaiio</i>
<i>zaku: besterik ez al zaku etorriko / e[t]zaku iñor etorriko</i>
<i>zaiote: eman hobeko zaiote</i>

Menderagailuekin:

- *Dirua heldu zaidan denboran.*
- *Kostatzen zaiona / tokatzen zaiona.*
- *Ez zaiotela iñor etorriko.*

#### 2.2.1.5. IZAN. NOR-NORI *orainaldia*. Haiek

<i>zazkio: agertuko zazkio</i>
<i>zaizkigu: galdu zaizkigu</i>
<i>zazkiote-</i>

Menderagailuekin:

- *Gaztiga beza honetan emanen zazkion / tokatzen zazkionak.*
- *Bialdu zazkioten diruak.*

#### 2.2.1.6. IZAN. NOR-NORI *iraganaldia*. Hura

<i>zizadan: aztu egin zizadan / aztu zizadan</i>


2.2.1.7. \*EDUN. NOR-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>dut / ditut: abisatuko dut / ez dut arkitzen / bialdu ditut / ekusiko ditut</i>
<i>dezu: konponduko dezu</i>
<i>du / ditu: ekusiko du / ekarri ditu / kontatuko ditu</i>
<i>degu, dugu- / ditugu: erre beharko degu / ez degu batere / bialduko ditugu / eskas ditugu / pisatu ditugu</i>
<i>dezute- / dituzte: bialdu behar dituzte</i>
<i>dute / dituzte: behar dute / ekarri dute / ez dute bigaldu / izanen dute / bialdu behar dituzte</i>

Menderagailuekin:

- *Aditu dudalarik / arkitzen dudana / ezpadut hutsegiten / gaztiga beza erakarriko dudana.*
- *Ekarri ditudan guziak / hemen kontatzen ditudanak.*
- *Al badu / ageriko da zer egiten duen / nahi dun dirua / nahi duenean / pasatu duen denborakoak.*
- *Baditu / behar dituela / ekarri dituen ardoak / garbitu nahi baditu / hemen dituenak / pasatu dituan olatxoko egunak / sartu dituan egun guzietan / sartu dituan egunak.*
- *Aski degula / bialduko degula / ez degula.*
- *Bialduko ditugu al dugun lasterreana.*
- *Ez dezentenean.*
- *Kontua garbitu nahi dutela diote.*
- *Behar dituztela / dituzten egunak / egiñ dituzten meak / sartu dituzten egunak.*

2.2.1.8. \*EDUN. NOR-NORK *orainaldia*. Ni

<i>nau: abisatu behar nau</i>


Menderagailuekin:

– *Abisatuko nauela.*

**2.2.1.9. \*EDUN. NOR-NORK iraganaldia.** Hura / Haiek

<i>nuen / nituen / nituan: gaztigatu nuen / utzi nuen / bialdu nituen / bialdu nituan</i>
<i>zuen / zituen / zituan: etzuen / ekarri zuen / entregatu zituen / hartu zituen / egin zituan / nahi zituan</i>
<i>genduen / ganuen-: uste genduen</i>
<i>zuten / zituzten: esan zuten / irago zuten / galdu zituzten</i>

Menderagailuekin:

- *Bialzen nuela gaztigatu nuen / ez dakit zeñ egunez hartu nituan.*
- *Bazuen ere / ekarri zuen kostala / esan zuen bezala / hark lagun zuena / jana zuela.*
- *Pasatu zituen denborakoak / egiñ zituan meak.*
- *Leneko utzi ganuena.*
- *Ebilli beharko zutela / sillua zuten hartan / egin zituzten mea guziak / egiñ zituztenak.*

**2.2.1.10. \*EDUN. NOR-NORK alegiazkoa.** Hura / haiek

<i>nuke / nituke: nahi nuke ekusi / nahiago nuke / sartu nabi nituke</i>
<i>luke / lituke-: nabi omen luke</i>
<i>ganituke: sartu nabi ganituke</i>
<i>lukete: nahiko lukete</i>

Menderagailuekin:

- Behar lukeala / nahi lukeala.
- Egiñ nahi litukeala dio / nahi litukeala / nahi litukela.
- Ekarriko luketela / jakin nahi luketela / kontua egiñ nahi luketela.

2.2.1.11. \*EDUN.<sup>3</sup> NOR-NORI-NORK *orainaldia*. Hura

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	-----		<i>diot</i>	-----		<i>diotet</i>
zuk		-----			-----	
hark	<i>dit</i>		<i>dio</i>	<i>digu</i>		<i>diote,</i> <i>dite</i>
guk	-----			-----		
zuek		-----			-----	
haiek	<i>didate</i>		<i>diote</i>			<i>diote</i>

Menderagailuekin:

- Esan didana / esaten didan bezala.
- Ea egiñen dion / eragiñ dion ikatza / estimatuko diola / zer esaten dion.
- Biai kontua garbitu nahi badite.
- Aditzera emanen diotela lagunai.
- Zer esaten dioten (berorri).

2.2.1.12. \*EDUN. NOR-NORI-NORK *orainaldia*. Haiek

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	-----		<i>diozkat</i> <i>tiot</i>	-----		
zuk		-----			-----	
hark	<i>dizkit</i>		<i>diozka</i>			<i>tiozte</i>
guk	-----			-----		
zuek		-----			-----	
haiek						

<sup>3</sup> Hemen ere, JRMren gutunak argitaratzean egin moduan (ikus II, 85), erosotasunez \*edun deizioa darabilgu, -(i)n- edo \*nin-en ordeez.

Menderagailuekin:

- *Guziak elkarri eraitsi nahi badiozka.*
- *Berak emanen batiozte ere.*

2.2.1.13. \*EDUN. NOR-NORI-NORK *iraganaldia*. Hura

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	-----	<i>nizun</i>	<i>nion</i>	-----		<i>nioten</i>
zuk		-----			-----	
hark	<i>zidan</i>		<i>zion</i>			
guk	-----			-----		
zuek		-----			-----	
haiek	<i>zidaten</i>					

Menderagailuekin:

- *Bialdu niola / ez dakit [...] bialdu ote nion / gaztigatzen niona.*
- *Eman zidan urretxikitik / kontua garbitu baitzidan.*
- *Erakarri zion karga bat / honi ematen ziola.*

2.2.1.14. \*EDUN. NOR-NORI-NORK *iraganaldia*. Haiek

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	-----	<i>nitizun</i>	<i>nition</i> <i>niozkan</i>	-----		<i>niozkatzen</i>
zuk		-----			-----	
hark	<i>zitidan</i>		<i>ziozka-</i>			<i>ziozkate-</i>
guk	-----			-----		
zuek		-----			-----	
haiek						

Menderagailuekin:

- *Eman nahi nitionak.*
- *Beurrek bialdu zitidan hemeretzi urretxikiak.*
- *Hark emanen ziozkala / norekiñ bialdu zio[z]kan.*
- *Ardoak eman ziozkatela.*

2.2.1.15. \*EDIN. NOR subjuntiboa. *Orainaldia*

<i>dediñ / dedi- / dadi-: erre dediñ</i>

Menderagailuekin:

– *Akorda dediela / geldi dadiela.*

2.2.1.16. \*EDIN. NOR ahalera. *Orainaldia*

<i>daiteke: kontu egiñ daiteke</i>
<i>ditezke(-)</i>

Menderagailuekin:

– *Libratu al daitekean.*

– *Atere al baditezke / ea konpon ditezkean / zenbatsu kostat ditezkean.*

2.2.1.17. \*EDIN. NOR ahalera. *Alegiazkoa*

<i>laiteke / liteke: izan laiteke</i>
<i>litezke: txukatu litezke</i>

Menderagailuekin:

– *Egin al baliteke.*

2.2.1.18. \*EDIN. NOR baldintza

<i>ledi: egin baledi</i>

2.2.1.19. \*EDIN. NOR agintera

<i>bedi: geldi bedi</i>

2.2.1.20. \*EZAN. NOR-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>dezat: erakarri al badezat</i>

2.2.1.21. \*EZAN. NOR-NORK *alegiazkoa*. Hura / haiek

<i>neza: norbait ekarri al baneza</i>
<i>ganitza: ekarri al baganitza</i>



2.2.1.22. \*EZAN. NOR-NORK subjuntiboa. *Orainaldia*. Hura / Haiek

<i>dezadan / ditzada-</i> : <i>har dezadan</i>
<i>dezan / ditzan</i> : <i>ez dezan izan / eraman ditzan</i>
<i>dezagun</i> : <i>egin ez dezagun / erre dezagun / garbi dezagun / jakin dezagun</i>
<i>dezaten / ditzate-</i> : <i>izan ez dezaten</i>

Menderagailuekin:

- *Abisatu behar nau [...] aterarezitzeko modua har dezadan / asentuak bial ditzadala.*
- *Beldurrak nago [...] irauñ ez dezan / bial dezala / konpon dezala / konpon ditzala.*
- *Egosi dezagula.*
- *Entrega ditzatela.*

2.2.1.23. \*EZAN. NOR-NORK subjuntiboa. *Iraganaldia*. Hura / Haiek

<i>zitza-</i>
<i>zitzate-</i>

Menderagailuekin:

- *Entrega zitzala / geldi zitzala.*
- *Entrega zitzatela.*

2.2.1.24. \*EZAN. NOR-NORI-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>dioza</i> : <i>baldin partitu al badioza</i>


2.2.1.25. \*EZAN. NOR-NORI-NORK subjuntiboa. *Orainaldia*. Hura

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	-----			-----		
zuk		-----			-----	
hark			<i>diozan</i> <i>dioza-</i>			<i>diozate-</i>
guk	-----			-----		
zuek		-----			-----	
haiek						

Menderagailuekin:

- *Bial diozala / bialdu diozala / egiñ diozala / siñala diozala.*
- *Gaztiga diozatela.*

2.2.1.26. \*EZAN. NOR-NORI-NORK subjuntiboa. *Orainaldia*. Haiek

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	-----			-----		
zuk		-----			-----	
hark			<i>dizi/z]kio-</i>			
guk	-----			-----		
zuek		-----			-----	
haiek						

Menderagailuekin:

- *Geldi dizi[z]kiola.*

2.2.1.27. \*EZAN. NOR-NORK ahalera. *Orainaldia*. Hura / haiek

<i>dezaket: esan dezaket / ez dezaket egiñ</i>
<i>dezake / dazake: bial dezake / ez dezake eman / har dazake</i>
<i>dezakegu: ez dezakegu egiñ</i>
<i>dezakete-</i>

Menderagailuekin:

- *Egiñ al dezakedan guzia / ez dakit zer egin dezakedan.*
- *Eziñ eraman ditzakeala / ez ditzakeala berago eraman.*
- *Egiñ dezakeguna.*
- *Eziñ bete dezaketenak / kabi dezaketen guziak / zergatik eziñ egin dezaketen.*

2.2.1.28. \*EZAN. NOR-NORK ahalera. *Alegiazkoa*. Hura

<i>ganazake</i>

Menderagailuekin:

- *Aranoar karraiadore hoiekiñ ekarri al baganazake!*

2.2.1.29. \*EZAN. NOR-NORK ahalera. *Iraganaldia*. Hura

<i>zitzake-</i>

Menderagailuekin:

– *Lau edo bost jorrada eragin zitzakeala*

2.2.1.30. \*EZAN. NOR-NORK agintera. Hura / haiek

<i>beza / bitza: bealdu beza / ekusi beza / garbitu beza / gatziga beza / bialdu bitza</i>
<i>bezate / bitzate: bial bezate / bial bitzate / bialdu bitzate</i>

2.2.1.31. \*EZAN. NOR-NORK agintera. Ni

<i>naza: abisa naza (berorrek)</i>

2.2.1.32. \*EZAN. NOR-NORI-NORK agintera. Hura

<i>bioza 'biezaio': erakutsi bioza</i>
<i>biozate 'biezaie': egin biozate</i>

## 2.2.2. Aditz trinkoak

### 2.2.2.1. ATXIKI. NOR-NORI *orainaldia*

<i>diseka-</i>

Menderagailuekin:

– *Eta suerte horri diseкала [...].*

### 2.2.2.2. EGON. NOR *orainaldia*

<i>nago: beldurrak nago / ez dela nago</i>
<i>dago: badago / ez dago / garbitua dago</i>
<i>daude: ez daude / hemen daude</i>

Menderagailuekin:

– *Egunero dagoela / Ekusiko du asentua nola dagoen / Ereñezun dagoan  
mea hura / hemen dagoena / nola dagoan.*

– *Nola dauden / taia honetan daudenak.*

### 2.2.2.3. EGON. NOR *iraganaldia*

<i>zagoen-</i>
<i>zauden: altxatuak zauden</i>

Menderagailuekin:

- *Olan zagoena.*
- *Nola baitzauden ogiak ya urdinzen hasiak [...].*

**2.2.2.4. EGON. NOR alegiazkoa**

<i>laude</i>

Menderagailuarekin:

- *Nabiago nuke hemen ezpalaude ere.*

**2.2.2.5. ETORRI. NOR orainaldia**

<i>dator-</i>

Menderagailuekin:

- *Datorren astean / datorrenean.*

**2.2.2.6. ETORRI. NOR subjuntiboa. Orainaldia**

<i>datoz-</i>

Menderagailuekin:

– *Oran abisatuko ditut datozela.*

### 2.2.2.7. **IBILI** (*ebilli*). NOR *orainaldia*

<i>nabill: lotsatua nabill</i>
<i>dabillza: badabillza / dabillza</i>

Menderagailuekin:

– *Eskas dabillzenak.*

### 2.2.2.8. **IBILI** (*ebilli*). NOR subjuntiboa. *Orainaldia*

<i>dabillza-</i>

Menderagailuekin:

– *Esanen diotet dabillzala fundamentuz.*

### 2.2.2.9. **JARIO**. NOR-NORI *orainaldia*

<i>dariote: mendi guziaz ura dariote</i>

### 2.2.2.10. JOAN. NOR *orainaldia*

<i>noa: banoa</i>
<i>diboa: ez diboa lagunakiñ</i>

### 2.2.2.11. JOAN. NOR agintera

<i>biboaz: bihoaz</i>

### 2.2.2.12. UKAN. NOR-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>dut / ditut: ez dut / baditut</i>
<i>dezu: hor dezu</i>
<i>du / ditu: badu / ez du / ardoak ditu / baditu / hauek ditu</i>
<i>ditugu: ogiak eskas ditugu</i>
<i>dute / dituzte: badute / badituzte / dituzte</i>

Menderagailuekin:

- Berak jana duela / dituen ardoan kontua / hemen dituan ardoak ditu.
- Ez dakit meatzean zertsu ote duten / Erdi bana dituztenak.



2.2.2.13. UKAN. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura / haiek

<i>zue- / zituan: zituan</i>

Menderagailuarekin:

– *Berak jana zuela.*

2.2.2.14. EDUKI (*iduki*). NOR-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>daukat / dauzkida-: jarria daukat</i>
<i>dauka / dauzki: iñork ez dauka / horr asentatuak al dauzki, noski!</i>
<i>daukate / dauzkite: ez daukate / leku gaiztoa daukate / boiek dauzkite</i>

Menderagailuekin:

– *Nik hemen dauzkidaleko (sic).*

– *Abisatua daukala.*

2.2.2.15. EKARRI. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura

<i>zakarten: omen zakarten</i>

2.2.2.16. *ERAMAN*. NOR-NORK *orainaldia*. Haiek

<i>daramazki: daramazki sei barra burñintxo</i>

2.2.2.17. *ERAMAN*. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura

<i>zaraman</i>

Menderagailuekin:

– Zeñek zenbat zaraman.

2.2.2.18. \**IO*. NOR-NORK *orainaldia*. Hura

<i>dio: garbitu duela dio</i>
<i>diote: garbitu nahi dutela diote</i>

2.2.2.19. \*IO. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura

<i>zion: zion</i>

2.2.2.20. IRITZI. Orainaldia

<i>daritzada-</i>
<i>daritza-, deritza-</i>

Menderagailuekin:

- *Daritzadan moduan.*
- *Beurrek daritzan bat / beurrek deritzena / daritzana egiñen du / deritzena egiñen du / deritzena gaztigatu beza / gaztiga beza zer daritzan.*

2.2.2.21. IRUDITU. Orainaldia

<i>dirudi: badirudi / mugitua dela dirudi</i>

2.2.2.22. *JAKIN*. NOR-NORK *orainaldia*. Hura

<i>dakit</i> : ez <i>dakit</i>
<i>dakik</i> : ez <i>dakik</i>
<i>daki</i> -:
<i>dakigu</i> : ez <i>dakigu</i>

Menderagailuekin:

- *Zenbat balio duten ez dakidela / zeñenak diran ez dakidenak.*
- *Ez dakiela / ez dakienak.*

2.2.2.23. *JAKIN*. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura

<i>zakin</i>

Menderagailuekin:

- *Nola etzakin beurr[ek].*



### 3. JOSKERA

Kapitulu honetan IBk darabiltzan perpaus motak jasotzen ditugu, JRMren gutunak aztertu genituenean bezala bi atal nagusitan: aurrena juntadura dakusagu eta ondoren menderakuntza. Interesgarria litzateke IBk eta JRMk sintaxi kontu hauek nola ibiltzen dituzten erkatzea, baina hori geroko gelditzen da, Goizueta aldeko eskutitz guziak karrikaratu ondorako.

Badira, alabaina, azterketa sakonik egin gabe ere nabarmen daitezkeen zenbait puntu, adibidez JRMk arruntean *ta* emendiozko juntagailua ibiltzen duela, eta bakanka *eta* jatorrizkoa. IBk, aldiz, behin baizik ez darabil *ta*, oker ez bagaude, «*baba ta olio*» sintagman; gainerateko guzietan *eta* osoa erabiltzen du, *hogeita bat*-en erakoak alde bat uzten baditugu bederik. Halaber, JRMk beti *baño* ‘baina’ aurkaria darabil, sekula ez *baña* –badu *baña*-ren lekukotasun bat, baina ‘bana’, ‘bedera’ banatzailea da, ez juntagailua–, eta IBk berriz gehien-gehienetan *baña* du; *baño* txanda bakar batean ediren dugu eta testuingurua ez da guk nahi genukeen bezain argia.

Aurrekoa dialektologiaren ikuspuntutik ez da munta handikoa; bai, ordea, beste gai batzuk: konparaziorako, JRMk ekialdera begira jartzen gaituen *bait*-en bidezko erlatibo batzuk baditu, baina IBren gutunetan holakorik ez da azaltzen. Alderantziz, JRMk erdialdera so dagoen (*-ela*)-*ta* kausazkoa frankotan erabiltzen du («*Olatzagako hoiek aurrera dihoaz, ta hoiek egiñ beharko dute, berenaren mugante dute-ta*», «*Hangoa nahiago luke, zallago izanen dela esan diotela-ta*»); IBk, aldiz, ez du holakorik batere. Aintzat eduki bedi, hala ere, kausazko perpausak ez direla hainbeste IBren idazkietan.

Korrelazio erlatibo bat ere badauka JRMk eta alerik ez IBk, hau halabeharraren ondorio hutsa izan daitekeen arren. Bestalde, JRMk berriz ere ekialdera so dagoen *-tze*koz frankotan erabiltzen du, baldintzazko (*etor*zektz ‘etortzekotan’) eta helburuzko (*billat*zektz ‘bilatzeko’, ‘xerkatzeko’) adierekin. IBk, ordea, ez du holakorik batere. Alderaketan, JRMk *adiña* eta *diña* ditu, baina IBk bigarrena besterik ez dauka. Helburuzkoetan JRMk *ba*-eta geroaldia frankotan erabiltzen du («*Arotzak ariko badira lorra lenago egin behar dugu*»); IBk behin ere ez.

Perpaus osagarrien barnean, IBk behin *ezik* darabil *-ela* konpletiboaren orde, eta JRMk ez du alerik ere, baina, tamalez, hemen berriro testigantza bakarra daukagu. Konpletiboetatik atera gabe, perpaus nagusiak *nahiago izan* duen batean alegiazko adizkia duen mendekoa dauka IBk («*Nahiago nuke hemen ez balaude ere*»), eta zehar-galderetan *ba...ere*-dun batzuk baditu («*Nik*

*ez dakit egun hoiek Patxikuk hor asentatu baditu ere. Pa[t]xikuri galdutuko dio», konparaziorako). JRMk, aldiz, ez du horietarik baño ere.*

Aitzinsolas labur hau bukatzeko, diogun hemen erabiltzen ditugun forma batzuk, JRMren lanean egin genuen bezala, abstrakzio modukoak direla: *-ela* paratzen dugunean *-ela*, *-ala* eta *-la* esan nahi dugu, *-tu* ezartzen dugunean *-tu*, *-i*, *-n* edo beste kontsonante edo bokal batez bukatzen den aditza adierazi nahi dugu, partizipioa alegia; *-tzea* ipintzen dugunean *-tzea* eta *-tea* izan daitekeela irudikatu nahi dugu eta abar.

### 3.1. JUNTADURA

#### 3.1.1. Emendioa

##### 3.1.1.1. Baiezko emendioa

*eta*

- *Atzoko eguna sartu dute lanean, eta nik zer esan dezaket?*
- *Gregoriotxo de Olaizola Elamako igeleak Nolbertoren partez hemen sartu dituen egunak eta egiñ dituen agoak dirade [...].*
- *Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajean.*
- *Eta ez daki[t] horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere, eta bi partidatan badago asentu horretan.*
- *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada.*

*eta...ere bai*

- *Etziko beharko ditugu olioia eta katzia, eta baba ere bai, laster.*
- *Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun; eta joan den urtean egiñak ere bai, zazpi arroa, haxiak.*
- *Horra, arragoa honetan egiñ dira[n] burnia guziak hor dira eta espensak ere bai.*
- *Olaundikoak eta olatxokoak Karmengo fraide horri emateko esan dute guzientzat erreal fuerte bana, eta neretzat ere bai.*

- *Orañ hemen bigar arteko diña mea da, eta kuadro hoiek tiratzen zeñek hasi behar duen edo nola hasi behar den gaztigatu beza. Eta buztandu hoiek pisatuko diran edo nola egiñ behar duten ere bai.*

### 3.1.1.2. Ezezko emendioa

*ez...(e)ta ez...*

- *Mundragoren semeak ekarri zuen Añarbetik karta hori eta ni egondu naiz kontu harzallearekin, eta honek ez du esaten ez hoienguekin egiña dela ikatza, eta ez ez dela.*

### 3.1.2. Hautakaritza

*edo*

- *Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak.*

Inoiz *edo* ezabaturik dagoela dirudi:

- *Porfiñ, ekusi beza febreroko hilleko asentuan paraturik ote den Paskoal horrenik, eta baldin paraturik bada ezpada, orañ hemen paratuak izanen dira guziak.*

*nabiz...eta*

- *Bihoaz, bihoaz nabiz Pagollagara eta nahi duten lekura!*

Hemen, bigarren *nahi duten* horren ordeez berriz *nabiz* idatzi balu, JRMk darabilen *nabiz...eta nabiz* egitura bera («*Eta esan du hamar orga orobat hartuko dituztela, nabiz kuadro ta nabiz txabala, ta dirua izanen dela burniak entregatzean berehala*») izanen genuke.

### 3.1.3. Aurkaritza

IBk eskuarki *baña* ibiltzen du, eta txanda batean *baño*, bigarren hau ageri den testuingurua txoil argia ez bada ere.



### *baña*

- *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzaakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean.*
- *Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela.*
- *Eta Patxiku Antonioren gana izandu niñzan; ez nuen itxean topatu, baña esa[n] nion emazteari, baña ez da neregana iñor agertu.*

### *baño*

- *Eta esan dit baietz, ez zela iñporta, zenbat ziran [...] <sup>1</sup> ezkerro, dirurik izan ezagatik, baño nabiago dira noski di[ruak].*

## 3.2. MENDERAKUNTZA

Menderakuntzaren barnean hiru multzo nagusi bereizi ohi dira: perpaus osagarriak, erlatiboak eta adberbialak.

### 3.2.1. Osagarriak

Honen barrenean konpletiboak eta zehar-galderak sartzen dira.

#### 3.2.1.1. Konpletiboak

##### 3.2.1.1.1. Forma jokatuak

Aditza jokatua dagoenean, indikatiboan eta subjuntiboan ager dakiguke; alegiazko adizkia ere izan daiteke.

---

<sup>1</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

## a) Indikatiboan

*-ela*

- *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean.*
- *Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baña esan du prezio motxa dela.*
- *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari segururu batekiñ.*

Ezezkoetan ere *-ela* dago:

- *Mundragoren semeak ekarri zuen Añarbetik karta hori eta ni egondu naiz kontu harzallearekin, eta honek ez du ez hoien egurrekin egiña dela ikatza, eta ez ez dela.*

Hurrengo hau berezikara da, aditz nagusia *gelditu* delako:

- *Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau zenbat kostatzen ezpaitu galdatzen.*

*ezik*

- *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian.*

*nola...-en* (gaztigatu aditzarekin)

- *Gaztigatu nion Buruzuriak anega bat baba nola eman zidan; abitu da guzia, ez dago lakadi bat besterik.*

## b) Subjuntiboan

*-ela*

- *Esan behar dio leneko meatzean egin dezala mea ona; bestela, hobe du mearik batere ez harzea. Mea txarrak egiten ditu orañ aldi honetan.*
- *Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri, eta haien esanarekin eziñ fiatu dirala, eta gaztiga diozatela konturik eman dioten, edo zenbat kontu eman dioten jakin nahi luketela, eta gaztigitzeko.*
- *Hoiek ere, eta nabi badu bere mandoak bial ditzala, bederatziña arroa eramateko ez dirala honen abereak gauza.*

- *Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz.*
- *Librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]n zat.*
- *Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaia hemen izandu da, nahi lukeala jakin kontuak egitera noiz etorriko den, egun bat siñala diozala eta etorriko dela orduan.*

### c) Alegiazko adizkia

*-ela*

- *Gregorio igele honek dio nahi lukeala kontua garbitu.*

*ba...ere* (nahiago izan aditzarekin)

- *Bada, nahiago nuke hemen ezpalaude ere.*

#### 3.2.1.1.2. Forma jokatu gabeak

*-tua*

- *Horra atzo nik gaztigatze[n] niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak! Enfiñ! Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hoge eta hamabi kua[r]to eskeñia ere.*

*-tzea*

- *Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala.*
- *Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekiñ konportarik betetzea.*
- *Hau aztu zait kartan paratzea.*
- *Nahi badu Patxiku Antoniorekiñ egotea, egone[n] naiz, igandean.*

*-tzeko*

Ohikoa da *esan* eta *gaztigatu* aditzekin, batez ere.

- *...eta baldiñ pezeta bana ema[n] nahi badiote, egiñen dutela, eta gaztigatzeko beurri, eta Agustin horrekiñ errespuesta bialzeko alkateak, pezeta emanen duen edo ez, pezeta ematen badu hasiko dirala.*
- *Gaztigatu diot Gregorio igeleari etorzeko; entregatuko diozkat gaur.*

- *Gaztigatu nioten ez gehiago egiteko, ez nuela ekarriko gehiago honelako mearik.*
- *Manuel Antoniok esan dit olakoan hasaldi honetako asentuak bialzeko esan ziola.*
- *Olakoak esan dute Aranzazuko fraile horri emateko [...].*
- *Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi; librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]nizat.*

### **Galdetzailea + partizipioa (+ partitiboa, ezezkoan)**

- *Buruzuri hau etorzen bada, gaztigatu beza zer egiñ; edo bestela, bigar goizean bialdu beharko du norbait zer egiñ behar den edo nola hasi behar den jakin dezagun.*
- *Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere. Egiten diran ikatz pixkak ekarri al baganitza, hemengo karreteroan esperanza ez degula zer egonik.*
- *Ez diotet burnirik eman; gaztigatu beza zer egiñ edo burniak Errenteriara behar duen.*

#### **3.2.1.2. Zebar-galderak**

##### **ba...ere**

- *Mean asentu horiek bi urte hoietakoak topatu ditudanak paratu ditut. Ez dakit zierito badira ere; nik hemendik jua diran guzietan beren asentuarekiñ bialdu ditut guziek.*
- *Nik ez dakit egun hoiek Patxikuk hor asentatu baditu ere. Pa[t]xikuri galdatuko dio.*
- *Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat, eta nik ez dakit gehiago badu ere.*

##### **ea...-en**

- *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]i ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egiteaz.*
- *Eta oran garbitzen ari diran meatze hark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean. Proga bitza eta zer esaten dioten adituko diote.*

**ea + galdetzailea + -en**

- *Tiki Añarbekoak esan dit badituela berrogei karga ikatz eta mandoak bialzeko, eta nik esan diot ea zer preziotan izanen diran, hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu.*

**-en**

- *...eta baldiñ porsio kaso juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearen zat edo gamondar haien zat, Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean.*
- *Eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage egiña izanen duela gogoan jarria daukat, eta ekusi beza hala den.*
- *Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak.*
- *Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den.*
- *Orañ gatziga beza erakarriko dudan edo zer egiñen dudan.*

**-en edo ez**

- *...eta baldiñ pezeta bana ema[n] nahi badiote, egiñen dutela, eta gatzigatzeko beurri, eta Agustin horrekiñ errespuesta bialzeko alkateak, pezeta emanen duen edo ez, pezeta ematen badu hasiko dirala.*

**galdetzailea + -en**

- *Beurrek nahi duenean bialduko diozkat, abisa naza noiz nahi duen.*
- *Bialdu nion Jabierri txartela zeñek zenbat zaraman.*
- *Enfiñ, ageriko da zer egiten duen.*
- *Eta ekusiko du horko asentua nola dagoen.*
- *Eta horko asentuan ekusiko du zer duen gehiago.*
- *Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako.*
- *Nik gatzigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.*
- *Oran esaten diot maisu honek, jaietan hemen gelditzen denean, espensa nola behar duen gatzigatu behar du.*

*ote + ...-en*

- *Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit inor ideroko ote duen.*
- *Eta ez daki[t] horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere.*
- *Ez da bada, noski, beurri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu eta zorra bizi ote den nago.*
- *Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkeru jakiñen al du.*

### 3.2.2. Erlatiboak<sup>2</sup>

#### 3.2.2.1. Jokatuak

*-en + izenkia*

- *Enfñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas.*
- *Entregatu ditu mandazaiak beurrek esaten didan eta bialzen dituen diruak.*
- *Esteban Ansaren espensak dira, taia honetan daudenak...1805.*
- *Eta aste hartan egin ziran burniak dira...30 quintales, 3 arrobas, eta espensak 52 reales.*
- *Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanzen dira, hamabi lantegitakoak.*
- *Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik.*
- *Hoiek dira hemen hartu dituen diruak.*
- *Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajea.*
- *Lubis Makatzenak hemen sartu duen astean egiñ diran burniak beren espensakiñ dirade [...].*
- *Olatxoko maisu hori etorri ezkeru egiñ diraden burniak dir[a]de [...].*
- *Tranpak entregatu ditu beurrek gaztigatu duen diruak eta sei ogi.*

---

<sup>2</sup> Ikus bedi hitz ordenaz mintzo garenean honetaz dioguna.

### Buru izen mugagabea aitzinatua dutenak (izen ostekoak)<sup>3</sup>

- *Eta hoietaz gañera, badituzte meatze berri orañ garbitzen ari diran hartan, jornalean sartuak [...].*
- *Ez du Axtiarragak hoietan parterik; jornalean aritu zen hoietan. Hoietaz gañera, azkeneko aritu ziranekoak [...].*
- *Haspagilleak esan dit etorriko dela astelen datorrenean zorzi goizean, beurrek esan bezala.*
- *Hogei ezkutuko Ansaneakoarekiñ bialdu zuen hura utzi nion Ansaneakoari berari.*
- *Hoiek dira Murgioko bi itzai horiek, abuztu joan denean urtebete ezkerro, hemen hartu dituzten diruak.*
- *Hoietarako diru hartu duena [...].*
- *Niri esan dit igande jua den honetan gaztigatu diola Oletek basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean eta hitz egiñen dutela.*
- *Urte jua den horretan Elaman nik egiñ dudan espensa da [...].*

Goizuetako 1897ko udal ordenantzetan ere (Satrustegi, 1996: 304) badugu etsenplua: «*Mozorroac faltatcen baldin badute artículo leitu diran ayeri [...]*».

### Buru izen mugatua aitzinatua dutenak (aposatua)<sup>4</sup>

- *Azkeneko meak etorri diranak dirade [...].*
- *Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme.*
- *Hau da lendabiziko urteko espensa nik Elaman hartu nuena.*
- *Orañ espensa horietaz ni kargatze[n] naizal[a] egiñen du deritzan soldata niri emana didana.*
- *Urte honetako gure ikazgilean plazeriak izanen dira lenbizikoak Añerbekoarekiñ trukada egin dudanak, Ozizpeko ondoan.*

Ezezkoetan partitiboarekin doaz bai buru izen aurreratua, bai honen lekuan ageri den erlatibo artikuluduna:

- *Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderok zakurik ez daukate bat ere gauza denik.*

<sup>3</sup> Hauetaz Zubiri (2000: 391-392) eta Krajewska (2020) ikus daitezke.

<sup>4</sup> Hauen inguruan Krajewska (2020) ikus daiteke orain.

**-eneko + izena**

- *Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziranekoak, eta zubia konponzen sartu zituzten egun guzietan, zenbat diran guzien egunak.*
- *Horra hemendik hartu dituan diruan asentua. Paper txiki horretan, hor ditu presako nazako eta Urraideko basoa bota zaneke asentua.*

**3.2.2.2. Jokatugabeak**

**-tu + mugatzailea**

- *Buruzuriak ekarriak, Gregorio Mitxelenagandik,...05.*
- *Horiek deritzan bezala konpon bitza, nik emanarekiñ ez lirake kontentu izanen inñolaz ere.*
- *Hoietarako baditu Karmengo bi fraideri emanak...2 reales.*
- *Meak leneko astean Goizariñdik ekarriak...3 quintales,1 arroba.*
- *Urriztitxabalko suertetik ekarriak bi karga ziri [...]. Itxola ekarriak [...].*

**-tu + izena**

- *Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak, pisatu diranak, dirade 407 quintales, 1 arroba. Hoiek dirade pisatu guzietan, eta nik ez dakit meatzean zertsu ote duten.*

Beste etsenplu batean izena ezabatua dago:

- *Diru hartuak 1797an. Horr arzai izanduari emateko zizala, Dunburen semeari emateko zituela.*

**-tu + -tako + izena**

- *...eta ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat.*
- *Anjel de Martiarenak emantako basoan Santiago de Elizalde egiñ dituan ikatz guzietan dirade [...].*
- *Goizariña eramantako burniak. (Cfr. «Goizariña burnia eramanak»)*
- *Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin.*
- *Hoietaz gañera, baditu Gorriolako ubaldean, Ubarrizetan, egiñtako meak...8 quintales, 5 arrobak.*
- *Manuel de Ansa hemen orañ ari den igeleari kenduta emantako diruak.*
- *Pikoagatik Ereñazura eramantako burniak.*



- *Santiago de Alzubide horren semeari hemen emantako diruak baditu [...].*

Inoiz buru izena aurreratua dago:

- *Ardizar[r]ja jantakoa sei pezeta.*
- *Hoietatik Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako jornala ('egindako bi agoaren jornala'), bi erreal.*

### 3.2.3. Adberbialak

#### 3.2.3.1. Alderaketa

##### *baño...-ago*

- *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik iñondik ez ematekotan.*
- *Bada, horri eman ezkerro, Juan Antoniok, Alkatezar[r]jak ere nahiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du.*
- *Hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu.*
- *Juan Josepe Arrantxaleko horrek baditu Azkoteko ubaldetik lenago ekarriak, meak [...].*
- *Nik agiñze[n] dut, eta egiten dut egiñ al dezakedan guzia; ez dezaket nik gehiago egiñ egiten dudana baño.*
- *Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago, ez ditzakeala berago eraman.*

Egun bezala, *baño len* ere bada, hots, *-ago-rik* gabeko aldaera:

*...Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko.*

*Hobeki-k*, bestalde, ez du *-ago-ren* beharrik:

- *Enfiñ, beurrek jakiñen du hobeki nola dagoan.*

##### *(baño)...-xeago*

- *Bada, horri eman ezkerro, Juan Antoniok, Alkatezar[r]jak ere nahiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du.*

Ikusten den moduan, *-ago* dugu berez holakorik behar ez lukeen *hobea* adjektiboarekin. Horretan, beharbada, *-xe* atzizkia agertzeak eduki izanen du zerikusia.

Bestalde, ondoko hau esaldi berezia da, alderaketa balioa duena:

- *Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.*

### *bezala*

- *Hau bera bezala izanen da, eta lenago gaztigatu zidan kontua garbitu eta bialzeko.*

### *bezañ*

- *Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik.*

### *-en bezalako*

- *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogei eta zazpi kana kotoña, edo beurri daritzan bezalako, eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalako.*

### *diña* (genitiboarekin edo destinatiboarekin)

- *Gaur akabatzeke deseoa nuen heme[n]go lana, baña ez degu akabatuko, izanen da asteleneko diña lan ere.*
- *Hemen arratseko diña ogi dut, eta gaur ezpadituzte bialzen, bigar goizean goiz bialdu behar dituzte ogiak.*
- *Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten.*
- *Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu.*
- *Orañ hemen bigar arteko diña mea da.*
- *Sebastianek bialdu ditu txartel horiek. Ogiak badira hiru egun hoietako diña.*

### *(-rik)...-ena* (superlatiboa)

- *Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa.*

- *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten.*
- *Bada, horri eman ezkeru, Juan Antoniok, Alkatezar[r]ak ere nahiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du.*
- *Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko.*
- *Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiiek ordañzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten errezelarik.*
- *Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderok zakurik ez daukate batere gauza denik, eta baldiñ zakurik badu, behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena.*
- *Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira!*
- *Horra atzo nik gaztigatze[n] niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak!*

### 3.2.3.2. Baldintzazkoak

#### 3.2.3.2.1. Forma jokatuak

*ba-*

- *Bada, honela arratseko etorritzen badira, espensa doblea behar dute.*
- *Eta bial bitza itzai horien kontua eta diruak; hemen dirurik ezpadago etzaku iñor etorriko.*
- *Por fiñ, beurrek nahi badu olajaunari esatea, nik esanen diot, eta gaztigatu beza zer egiñen dudan.*

*baldin...ba-, baldiñ...ba-*

- *Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria ez ematekotan, ez dutela baso beharrik; eta baldiñ pezeta bana ema[n] nahi badiote, egiñen dutela.*
- *Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nahi badu.*
- *Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderok zakurik ez daukate batere gauza denik, eta baldiñ zakurik badu, behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena.*
- *Nere ustez, hor du haien asentua, eta baldin nasi bazaio beste paperen batzuekiñ, [...].*

- *Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira, eta baldin honela ona heldu bada, egiñen degu burniñtxoa, eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa.*
- *Orañgoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*
- *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada.*

### ***baldiñ + porsiokasoa + ba- + aditza + ere***

Hau baldintzazkoen eta kontzesiboen arteko gurutzaketa erako zerbait dugu, formari doakionez, adiera baldintza garbia baita:

- *Nik bigar goizean juañ nabi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ porsiokasoa juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearenzat edo gamondar haienzat.*

### **3.2.3.2.2. Forma jokatugabeak**

#### ***-tu + ezkerro***

- *Bada, horri eman ezkerro, Juan Antoniok, Alkatezar[r]jak ere nahiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du.*
- *Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerro jakiñen al du.*

#### ***-tzekotan***

- *Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria ez ematekotan, ez dutela baso beharrik.*
- *Astearte goizean ola hasitzekotan, mea eskastuko da, iñork ez ekarzekotan.*

#### ***baldin...-tzekotan***

Hau *baldin...ba* eta *-tzekotan* menderagailuak dituzten perpausen arteko gurutzaketa da, bistan da:

- *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik iñondik ez ematekotan.*

### 3.2.3.3. Denborazkoak

#### 3.2.3.3.1. Forma jokatuak

**-ela** (denborazkoa-edo, baldintzazkoa menturaz)

– ...*eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa, baña burñitxo* Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanen.

**-en bitartean** ‘-en arte’

– *Zarrukok eta bere anaie Baratzurik meatzeko harria pasatzen hasi ziranetik, Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean bi anaieak egin dituzten mea guziak dira [...].*

**-en denboran** ‘-enean’

- *Aragones honek omen ditu lenako ola g[el]ditu zen denboran mealle pasatuak bost egun.*
- *Bada, horiek guziak, eta illeak, eta punzio honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentu aparteko batean; eta dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak.*
- *Hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio.*
- *Itzaiak esan zidaten niri mearik etzuten jorradetan espensa libre beharko zutela; esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran.*
- *Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat.*

Goizuetan egun ohikoak dira *-emon* (< *denbon* < *denboran*) dutenak: (*e*) *tórtzen dénemon abítuko gâ* ‘etortzen den denboran abiatuko gara’. Dena dela, hauekin batean *-enen* ‘-enean’ dutenak ere ardurakoak dira. Aipatu herrian *-elik(an)* ere badago, baina adiera, denborazkoa izanik ere, bestelakoa da: *orí pasátu(a) délikan badá, gútxinez, bost urté* ‘hori gertatu dela badu gutxienez bost urte’. Ikus JRM (II, 122-123).

**-en ezker**

– *Horra Aranoko bi anaiean eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin zuten ezkerokoak.*

**-enean**

- Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.
- Beurrek Astiarragara joan ninzanean gastatzeko eman zidan urretxikitik eman nition 7 septienbrean... 3 pezetas.
- Entregatuzituen maisu honek sei hogei ezkutukoak. Barberoa Oiarzunan da eta entregatuko diozkat datorrenean.
- Eta emanen diot, hilla akabatzen denean, guzian kontua.
- Horra horiek egin dituzten mea guziak, eta horien kontua, nahi duenean garbi dezagun, eta guziak llebarik bage pisatuak dira.
- Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta.
- Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke.

Ikus *-en denboran* aztertzean hauetaz esan duguna, goitixeago.

**-enetik**

- Zarrukok eta bere anaie Baratzurik meatzeko harria pasatzen hasi zira-netik, Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean, bi anaieak egin dituzten mea guziak dira [...].

**-eño ‘-en bitartean’**

- Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño.

**3.2.3.3.2. Forma jokatu-gabeak**

**-tu + artea(n) ‘-en artean’, ‘-en bitartean’, ‘-en arte’**

- Eta egondu naiz Ubitziren seme zarrarekiñ eta esan dit Belaundiak abisatua dankala, santiagoak pasatu artea iñori ez agiñzeko.
- Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño.
- Mandoren batzuek paratu artean ezkerre baliatuko.

**-tu + baño len(ago)**

- ...Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla aterretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko.

- *...eta baldin egia bada, naturalmente izan laiteke horrara agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea.*

**-tu + bitartean** ‘-tu arte’

- *Zarrukok eta bere anaie Baratzurik meatzeko harria pasatzen hasi ziranetik, Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean, bi anaieak egin dituzten mea guziak dira [...].*

**-tu + ezker(o)z**

- *Eta horra Ferminen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin ezkerokoak.*
- *Hoiek dira nik beurri horren asentua bialdu ezkeru ekarri dituenak.*
- *Horrek honara etorri ezkeroz hemen taia txikira hartu dituen ardoak.*
- *Letra hoiek egin ezkeru, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak.*
- *Martin de Tellitxeak leneko kontua pagatu ezkeru ekarri dituenak.*
- *Patxiku ardamandazaiak kontuak egin ezkeru ekarri dituen ardoak.*

**-tu gabe** ‘-tu baino lehen’

- *Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke iñork eraman gabe.*
- *Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun.*

**-tu orduko**

- *Aranoko erregimentuak bialdu digu baba, haiek etorri orduko egosi dezagula.*
- *Errenteriarako burni hoiek hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena.*

**-turik**

- *Nik hemen dauzkidaleko, bada, Martin Labañi esa[n] nion, haren aurrera deiturik, hark emanen ziozkala 60 pezeta eta 5 kuarto, eta konponduko dira haiek biek.*

**-tzera** ‘-enean’ ‘-tzean’

- *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n], ura bajatzera ezagunen da.*

**3.2.3.4. Helburuzkoak**

**3.2.3.4.1. Forma jokatuak (subjuntiboarekin)**

- *Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik.*
- *Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiek ordañzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten errezelarik.*
- *Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun.*
- *Orañgoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*

**3.2.3.4.2. Forma jokatugabeak**

**-tzeko**

- *Beste urte batean ere holako lana eskatzen badiote, eman egin behar diote horiei, berak nahi dutenean juateko.*
- *Diru hartuak 1797an. Horr arzai izanduari emateko zirala, Dunburen semeari emateko zituela.*
- *Haiek eman dizkit itzulzeko beurri, eta beste mandatari batekin bialduko ditut.*
- *Hoietaz gañera, baditu olakoak gonbidatzeko hartuak bi pinta ardo.*
- *Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz, zazpitako etorriko zirala; batzuek beñzat gabaz etorriko zirala esan zuten, eta besteak ere abisatuak dira goiz etorzeko.*

**-tzera**

- *Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du, eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek.*
- *Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun.*
- *Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaia hemen izandu da, nahi lukeala jakin kontuak egitera noiz etorriko den.*



### 3.2.3.5. Kausazkoak

#### 3.2.3.5.1. Forma jokatuak

##### *bait-*

- *Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau zenbat kostaden ezpaitu galdatzen.*
- *Hoietaz gañera tokatzen zaio Manuel honi erremienta egiten bi eguneko jornala, olatxoko kabiak konponzen aritu baikiñan bi egunean.*
- *Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita.*

##### *-elako*

- *Nik hemen dauzkidaleko (sic), bada, Martin Labañi esa[n] nion, haren aurrera deiturik, hark emanen ziozkala 60 pezeta eta 5 kuarto.*

##### *-en ezker<sup>5</sup>*

- *Eta esan dit baietz, ez zela inporta (sic), zenbat ziran [...]<sup>6</sup> ezker<sup>o</sup>.*

##### *nola bait-*

- *Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik, eta nik nola baitzauden ogiak ya urdinzen hasiak, eman niozkaten biru ogi eta pezeta bat.*

##### *nola...-en*

- *[Esan]<sup>7</sup> diot lauren eta bost karga dirala eta nola etzakin beurr[ek]<sup>8</sup> zenbat ziran segururik [...].*
- *Ez diotet burnirik eman, Erreterian, nola mearik ez dagoan, ez dituztela entregatuko.*

---

<sup>5</sup> Ikusten den bezala, lekukotasun bakarra dugu eta hura ez argia. JRMk (II, 130-131) *-en ezker<sup>o</sup>* denborazko perpausetan ibiltzen du, baina baita kausazkoetan ere, eta hori ikusirik erabaki dugu hau hemen sartzea.

<sup>6</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d-z* hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

<sup>7</sup> Zuloa dago eta ez da ongi irakurtzen.

<sup>8</sup> 'Berorre<sup>k</sup>'.

### *zergatik*

- *Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den lehorrik sartu nahi ganituke (sic), batzuek badere.*
- *Asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea, zergatik bi jai erdi horietan ez da mea errerik etorriko, noski.*
- *Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik.*

### *zergatik...-en*

- *Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen.*
- *Nik ez dut mea hoietatik gehiago ekartzeko pensame[n]turik, zergatik txarrak diran.*
- *Orañ kontatu ditut barrak, eta 47 barra dira, eta gutxi gorabera izanen dira 13 quintales, 2 arrobas, baña hoiengzat beti beharko dira lau uztarri, zergatik bide gaiztoak egonen diran.*

### **3.2.3.5.2. Forma jokatugabeak**

#### *-tzeagatik*

- *Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nahi badu.*
- *Hemen ari den mealle Oiarzungo honi larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez ebillzeagatik, beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik, sobratuatik (sic), eman nition hiru pezeta.*
- *Txarkerian ez ebillzeagatik beurrekiñ bi urretxiki galduko dituela, baña ez dituela lau urretxikiak galduko.*

### **3.2.3.6. Kontzesiboak**

#### **3.2.3.6.1. Forma jokatuak**

##### *ba- + aditza + ere*

- *...baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela, iñor (sic) al badu kuarto batzuek berak emanen batiozte ere.*
- *Horra karretoko asentua hillean hillekoa, aparte nahi badu ere. Ez dute hill honetan mea gehiago izanen.*

Zenbaitetan erdi menderagailu, erdi lokailu den *badere* ibiltzen du IBk (JRMk ere bai; ikus II, 230):

- *Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela, kargatu badere egin baledi!*
- *Eta horretarako ere horiek jornala nabiko dute, biña erreal badere.*

### *baldiñ + porsiokasu + ba- + aditza + ere*

Hau baldintzazkoen eta kontzesiboen arteko gurutzaketa erako zerbait dugu (ikus gorago dioguna):

- *Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ porsiokasu juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearen zat edo gamondar haien zat.*

### *zer (+ izena +) bait- + aditza + ere*

- *Maisu hau atzera gelditu da; ez dihoa lagunakiñ, zer pensamentu baitu ere.*
- *Orañ meatzea inibitu omen diote; zer egiñen baitute ere, egonen gera Pazkoz.*

Honelakoak usaiakoak dira egun ere Goizuetan: *ángo motíl orà, zéin baita re, zialdo érrak ítten ai duk!* ‘hango mutil hura, zein ere den, zaldo ederrak egiten ari duk!’, *órko orí, nóndik eldù baitare, txukún eldù duk!* ‘horko hori, nondik heldu baita ere, txukun heldu duk!’, *kuàdro áu, zéñek pintátu baitore, ikiárri gustátzen tzit* ‘koadro hau, zeinek ere pintatu baitu, ikaragarri gustatzen zait’, *erósi zun gòna, zéñentzat baitare, politt askía da* ‘erosi duzun gona, zeinentzat baita ere, polit askia da’.

### 3.2.3.6.2. *Forma jokatuabeak*

#### *-agatik*

Berezi antza da IBren hau; adiera ‘nahi izanagatik’, ‘nahi izanik ere’ duela dirudi:

- *Eta Ereñezutik ere mea pixka bat erakarri nahi nuke, baña hemen abere gutxi dago, nahiagatik ere.*

Tankera bertsukoa da ondoko hau ere:

- *Eta esan dit baietz, ez zela in̄porta, zenbat ziran [...]⁹ ezkerok, dirurik izan ezagatik, baño nahiago dira noski di[ruak].*

### 3.2.3.7. Moduzkoak

#### 3.2.3.7.1. Forma jokatuak

##### -ela

- *Eta suerte horri disekelela, emateko gauza haundirik ez dela nago.*
- *Hoietaz gañera, badu bideak egiten sartua... 1 día, berak jana duela.*

##### -en bezala

- *...eta guzien kontua edo gastua, gauza gutxi gorabera batean paratuko du, beurrek deritzan bezala.*
- *Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baño esan du prezio motxa dela.*
- *Horiek deritzan bezala konpon bitza, nik emanarekiñ ez lirake kontentu izanen in̄olaz ere.*
- *Horra leneko kontuak garbitu ezkerok ikazgilleak egiñ dituzten ikatzak. Arranbidera etorri diranak etorri diran bezala, hor daude guzienak.*
- *Saiatuko naiz lantegiaz beurrek gaztigatzen didan bezala.*

##### -en moduan

- *Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme.*
- *Horra Lorenzo igelearen partida astean astekoak, joan diran moduan, burniak beren espensakin.*

#### 3.2.3.7.2. Forma jokatugabeak

##### -tu bezala

- *Haspagilleak esan dit etorriko dela astelen datorrenean zorzi goizean, beurrek esan bezala.*

---

⁹ Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

*-tu gabe*

- *Ez da bada, noski, beurri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu eta zorra bizi ote den nago.*
- *Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke.*

*-tuta*

- *Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta.*
- *Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi; librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]n zat.*

## 4. HITZ HURRENKERA

Kapitulu honetan IBk darabilen hitz hurrenkera aztertzen dugu, bi atal nagusitan: lehenbizi aditz sintagmako osagaien ordena ukitzen dugu, eta gero izen sintagmakoena. Interesgarria izan daitekeen kasuetan IBren testuetako hurrenkera JRMren gutunetakoarekin alderatzen dugu.

### 4.1. ADITZ SINTAGMAKO OSAGAIEN HURRENKERA

#### 4.1.1. Aditza eta osagarri zuzena

Testuinguru neutroetan, hau da, perpauseko atal bakar bati ere besteei baino garrantzi handiagorik ematen ez zaionean, eta osagarri zuzena bereziki pisua edota konplexua ez denean, Bergarak osagarri zuzena aditzaren aitzinean (1a–b) zein ondoan (1c–d) paratzen du, perpaus nagusietan eta, halaber, mendekoetan:<sup>1</sup>

- 1a. *Beratar meakari hoiek beti **bondade haundia** dute, eta mea gutxi egin.*
- 1b. *Predo Antonio iganziar olatxoko maisu horrek **leneko kontua** bialdu ezkerro hemen Elaman pasatu dituan olatxoko egunak ditu.*
- 1c. *Honek badu **erraja errugu bat baba** gehiago.*
- 1d. *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hor-tik honara heldu den mandatarari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela **neskamea** larunbatean.*

Oro har, gutunetan aditzaren aitzineko osagarri zuzenak dira ohikoenak: kasu guztien erdia baino gehiago (61/111, % 54,9) hartzen dute; ikus atal honetako eranskinetan lehenbiziko taula. Aditzaren gibleko osagarri zuzenak, berriz, mintzagaia (informazio zaharra) direnean eta perpaus bereko beste osagarri bat galdegaitako (informazio berritako) hartzen denean agertzen ohi dira (2a–b):

- 2a. *Etzi bialdu behar dituzte **ogiak eta baba eta olio**a goizean goiz.*
- 2b. *Gaur akabatzeko deseoa nuen **heme[n]go lana**.*

---

<sup>1</sup> Azpial honetako adibideetan eztabaidagai diren perpausaren osagaiak letra lodiz adierazi dira, ulertzeko errazagoak izan daitezten.

Bestalde, gutunen egileak berri aipagarriak azaltzen dituenean edo, beste modu batera esanda, kontakizunari bizitasuna eman nahi dionean, aditza perpausaren hasieran paratzen du. Osagarri zuzenik baldin badago, beraz, horrelakoetan ere aditzaren eskuinean agertzen da (3a–c):

- 3a. *Gaztigatu nion **Buruzuriak anega bat baba nola eman zidan; abitu da guzia, ez dago lakadi bat besterik.***
- 3b. *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da **Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek.***
- 3c. *Entregatu ditu **Battittak hamasei ogi.***

Bergarak hurrenkera bera osagarri zuzena gaztelaniaz dagoenean ere ibiltzen du, gehienetan behintzat, nahiz ez beti. Hori kasu askotan oletako langileekin lotutako ekoizkinak (ikatza, jatekoa, dirua) aipatzean gertatzen da eta, dirudienez, kontabilitate hizkeraren isla izan daiteke (4a–c). Gai horrekin lotzen diren euskarazko osagarriekin ere hurrenkera bera erabiltzen du maiz (4d):

- 4a. *Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten **102 reales, eta haienak eta bere mandoan jornalak 18 pesos, 7 reales, 18 maravedís.***
- 4b. *Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, **Suruako ondoan egiñ dituen meak, bere propioak baditu 5 quintales, 2 arrobas ½.***
- 4c. *Hoietaz gañera, **baditu bide egiten sartuak 3 días.***
- 4d. *Taia txikiko ardoak ditu **sei pinta eta txiki bat.***

Azkenik, osagarri zuzena luzea, pisua edota konplexua (perpaua) denean aditzaren eskuinean agertzeko joera garbia da (5a–b). *Perpau osagarria-aditza* ordena lekukotuta badago ere (5c–d), hemen proportzioak, testuinguru neutrokoen aldean, alderantzizkoak dira: 8/28 (% 28,6) perpau osagarri baizik ez dira agertzen aditzaren ezkerrean. Datuotatik ondoriozta daiteke osagarria zenbat eta luzeagoa, pisuagoa eta konplexuagoa izan, orduan eta aditzaren eskuinean agertzeko joera handiagoa duela.

- 5a. *Niri esan dit **igande juan den honetan gaztigatu diola Oletek basoaz eskas daudela.***
- 5b. *Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela **Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri.***
- 5c. *Sebastian Etxeberriak **Urteberri egunetik honaraño dituen ardoan kontua eskatu dit.***
- 5d. *Hortxe **beurrek deritzan errebaja egiñen diote.***

Laburbilduz, beraz, *osagarria-aditza* vs *aditza-osagarria* aldakortasuna edozein testuingurutan ager daiteke, baina bi horietatik lehena da hurrenkera ohikoena eta baldintza berezirik gabeko egoeran ibiltzen dena. Aditzen

eskuineko osagarri zuzenak, berriz, arrazoi jakin baten ondorioa dira arruntean: (a) osagarri zuzena ez den osagaia hanpatzea eta aldi berean perpaus bereko osagarri zuzena mintzagaia edo hizpideabarra<sup>2</sup> izatea; (b) kontabilitate mintzoa, batez ere gaztelaniaz dagoena; (c) osagarri zuzena pisua edota konplexua izatea. Hiru faktore horiek bat datoz egungo euskaran aditz sintagmako osagaien hitz hurrenkera baldintzatzen dutenekin (Osa, 1990: 21; Euskaltzaindia, 2011: 88–98).

#### 4.1.2. Aditza eta aditzaren osagaiak

IBren eskutitzetan azter daitekeen hitz ordenaren beste ezaugarria aditzaren eta osagarri zuzenaz bestelako osagaien arteko erlazioarena da. Eztabaida sinpletzeagatik, hemen osagarri zuzenetik landako aditz sintagmako osagaiak talde bakarrean multzokatu dira, eta *X* izena eman zaie.

Osagarri zuzenekin gertatzen den era berean, testuinguru neutroetan aditzaren osagarriak —aditzarekin batera ageri den edozein atal, subjektua eta osagarri zirkunstantzialak barne, osagarri zuzena izan ezik— haren aitzinean azal daitezke (6a–b) edo, gutxiagotan, perpausaren hondarrean (6c–d):

- 6a. *Eta meatzean ekarzeko daudenak, hoietaz gañera badituzte 50 kiñtal bezala.*
- 6b. *Orañ hemen bi kiñtal burnia bezala gelditzen dira.*
- 6c. *Ni etorri niñzan Elamara 1804an maiatzaren azkenean.*
- 6d. *Bialduko ditut larunbatean olakoenak.*

Aditzaren osagarria galdegaia denean, haren ezkerrean agertzen da (7a–b), eta, alderantziz, mintzagaia edo hizpideabarra denean eta osagarri zuzena galdegaia, aditzaren eskuinean paratzen da (7c–d):

- 7a. *Eta lenago hor em[n] nion paper batean.*
- 7b. *Mea horietaz gañera, Axtiarragarekiñ partiduan basi ezkerro, honara etorri diran meak badituzte...190 quintales, 5 arrobas ½.*
- 7c. *Bial bitza mutill horiek; arratseko trunkada ya eraman du arragoak.*
- 7d. *Karta hori bart hemengo mandazaiak ekarri zuen Goizuetatik.*

Bestalde, hemen ere berriak kontatzen direnean edota aditza bera galdegaia denean perpausburuan kokatzen da, eta ondotik heldu dira gainerako osagarriak (8a–d):

- 8a. *Juan dira itxera, esan dute kontuak egiñ bear dituztela, horrarako dirala eta asentuak bial ditzadala.*

---

<sup>2</sup> Garziak (2014: 59) «hizpideabar» deitzen die aditzaren eskuinean agertzen diren eta informazio berririk ez dakarten aditz sintagmako osagaiei.



- 8b. *Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. Esan diot beurrek gaztigatu didan bezala.*
- 8c. *Hartu zituan urak gorago eta busti dira larru guzietz bagitz.*
- 8d. *Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guzietz.*

Gainera, eta aitzineko ezaugarriarekin gertatzen den modu berean, hemen ere aditzaren osagaiak perpausaren bukaeran, hau da, aditzaren eskuinean agertzen dira, baldin eta perpausa osatzen badute (9a–b):

- 9a. *Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.*
- 9b. *Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den leborrik sartu nahi ganituke.*

Azkenik, nabarmendu beharra da aditzen eta osagarrien ordenamenduan gaztelaniak eta kontabilitate hizkerak ere eragina dutela. Horrelakoetan osagarriak aditzen aitzinetik inoiz ikusten badira ere (10a–b), ardurakoena da perpausaren akabailan agertzea (10c–d):

- 10a. *Oiarzuar karreteroak Fermiñ de Zubeldia Tranparen basotik, Alzatetik, Arranbidera 5 de noviembre semana aste honetan ekarri dituzten ikatzak.*
- 10b. *Hoiem kontua bialdu nion, Moxo horrekiñ berarekiñ, eta geroztik, 10 de juniotik hasi eta 30 julio (sic), egiñ zituztenak dirade 53 quintales, 1 arroba ½.*
- 10c. *Patxiku Errotariak bere semearekin aparte egiñak baditu 28 diciembretik hasi eta 30 eneroraño: 14 quintales, 0 zabal.*
- 10d. *Hoietarako beurrek gaztigatu, eta hemen hartua badu hasta 27 julio...un orillo viejo.*

#### 4.1.3. Ezeztapena

Ezezko egitura perifrastikoen barne egituraren kariatara, aipatu ohi da bi galdegai leku dituztela: lehena eta garrantzitsuena, perpausaren osagarri edo sintagma bat galdegai egiten duena, aditz sintagmaren ezkerrekoa da, eta bigarrena, kontraste bidezko galdegai sortzen duena, aditz laguntzailearen eta nagusiaren artekoa. Mintzagaia eta hizpideabarra, berriz, galdegaiaren ezkerrean edo aditz nagusiaren eskuinean agertzen ohi dira (Osa, 1990: 198–205; Euskaltzaindia, 1987b: 490). Hemen aztergai ditugun eskutitzetan era horretako perpausak ohikoak dira, hots, osagarri edo sintagma galdegai

bihurtzen dutenak (11a–b) zein galdegai kontrastiboa adierazten dutenak (11c–d):

- 11a. *Lenago gaztigatu zidan kontua garbitu eta bialzeko, eta ni ez niñzan oroitu lenago esatea.*
- 11b. *Bitarte honetan hasi geldian, jan eta lanik ez egiñen da hementxeñ.*
- 11c. *Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako.*
- 11d. *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian, eta beti nik eskeñzen nition eta ez ditu beñere hartu.*

Ezezko osagaien hurrenkerari dagokionez, hemen ikergai diren gutunetan ezezko marka - aditz laguntzailea - aditz nagusia (E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub>) (12a–b) zein aditz nagusia - ezezko marka - aditz laguntzailea (A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub>) (12c–d) lekukotzen da, baina ordena horietatik lehena bigarrena baino franko ohikoagoa da (ikus eranskineko bigarren taula):

- 12a. *Aste honetan ez da burnirik pisatu.*
- 12b. *Gaztigatu nioten ez gehiago egiteko, ez nuela ekarriko gehiago honelako mearik.*
- 12c. *Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da, ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor!*
- 12d. *Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira, eta baldin honela ona heldu bada, egiñen degu buniñtxoa, eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa.*

Aldiz, ezin ahaleraren ezezko marka daramaten perpausetan ez da inolako aldakortasunik ikusten: Bergarak, salbuespenik gabe, ezezkoaren marka - aditz nagusia - aditz laguntzailea (E-A<sub>N</sub>-A<sub>L</sub>) ordena ibiltzen du (13a–d); ikus eranskineko hirugarren taula. Baliteke, hori bai, aldakortasunik eza adibide gutxi izatearekin lotuta egotea; izan ere, osotara zazpi kasu bakarrik kausitu baititugu, hiru perpaus nagusietan, eta lau mendekoetan.

- 13a. *Orañ iñor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz.*
- 13b. *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan.*
- 13c. *Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago.*
- 13d. *Hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekiñ beñere konportarik eziñ bete dezaketanak.*

Ahalera ezeztatzeko orduan, beraz, Bergara, Jose Ramon Minondo bezala, erabat gordetzailea dela esan daiteke, E-A<sub>N</sub>-A<sub>L</sub> hurrenkera baita, ekialdeko testuetan bereziki, XVIII. gizaldiaren bukaera arte holako perpausetan ibiltzen den ia bakarra.

## 4.2. IZEN SINTAGMAKO OSAGAIEN HURRENKERA

### 4.2.1. Izena eta izenburua, gentilizioa, zenbakia, jabego genitiboa

Bergararen gutunetan egungo euskaran ohikoa den *izena - izenburua* (14a–b) eta alderantzizko *izenburua - izena* (14c–d) ordenak lekukotzen dira:

- 14a. *Horra Juan Josepe urzalle berri horren aurtengo asentua, eta leneko urtekoa entregatu nizun.*
- 14b. *Horra Baupista de Mitxelena karretero horren leneko lau astetako asentuak, eta oran aste honetakoa gelditzen da hemen.*
- 14c. *Eta horren anaie Premin horrek Kaperoren partez pasatu zituen denborakoak dirade burniak.*
- 14d. *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[er]e ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egiteaz.*

Adibideei begiratu gero, ez du ematen aukera bata edo bestea aparteko faktoreren batek baldintzatzen duenik, luzera eta esanahi bertsuko esaldiak baitira hauek eta, beraz, ondoriozta daiteke bi hurrenkerak aldakortasun librean daudela. Bestalde, eta antza denez, izenaren eta gentilizioaren ordenak ere aldakortasun askea du, lehena bigarrenaren aurretik (15a–b) edota atzetik (15c–d) etor baitaiteke. Nolanahi ere, *izena - gentilizioa* da gehienetan kausitzen duguna (30/47, % 63.8; ikus eranskineko laugarren taula), egungo euskaran bezala:

- 15a. *Razón de los carbones Baupista de Ubitzi y su compañero Manuel andoiñdarrak, suerte de Elamagoieneko lantegikoarenak.*
- 15b. *Hara beharko dutela ustean egun baziran lau itzai astiarragatararak.*
- 15c. *Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri.*
- 15d. *Pikoagatik aranoar karraiadore hoiekiñ ekarri al baganazake!*

Zenbaki ordinaletan, berriz, aukera bakarra ediren dugu, hots, *zenbaki ordinala - izena* hurrenkera, egungo euskaran bezala (16a–c). *Izena - zenbaki ordinala* ordenaren adibiderik ez dago, eta hori gutunen egilearen hizkeraren isla izan daiteke, edo testuetan kasu gutxi egotearen ondorena:

- 16a. *Horra paper txiki horretan lenbiziko lagunarekiñ egiñ zituan mean asentua.*
- 16b. *Bigarren urte honetakoa da 1805an 1 juniotik hasi eta 1806ean 1 de juniorañoa.*
- 16c. *Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak.*

Zenbaki kardinalen kasua bestelakoa da eta bereizketa garbia dago: (a) *bat* beti izenaren ondotik dator (17a), (b) *bi* zenbaitetan izenaren ondotik (17b), baina gehienetan aurrean (17c) agertzen da, eta (c) *hiru* eta honetatik gorako zenbakiak beti izenaren aurretik aurkitzen ditugu (17d):

- 17a. *Bost pinta ardo eta **ogi bat** hartu zituzten, eta gehiago ere nahi zuten.*
- 17b. *Patxiku Malet horrek eta Paskual de Insauspek Erbizaño errekan **basialdi bitan** egiñ zituzten meak.*
- 17c. *Pepe Exurrenekoak, alkateak, esan dit Santiago hori harzeko duela, **bi ezku[tu]**, eta hogeik karga ikatz horien gañera geldi dizi[z]kiola **bi ezkutu** horiek ere.*
- 17d. *Eta **hiru koltxoiren** azalak behar omen dute **hogeik eta zazpi kana kotoña**, edo **beurri daritzan bezalakoa**, eta **sobrekama bat**, **beurri daritzan bezalakoa**.*

Izen sintagmaren barneko hurrenkera aztertzean jabego genitiboa ere ukitu beharra dago. JRMren lanak aztertzean (II, 157) aipatu genuen, izen bereziak alde bat utzita, ezohikoa den *izena - jabego genitiboa* hurrenkera kasu gutxi batzuetan baizik kausitzen ez dela. Ordea, Bergararen idazkietan ez dugu behin ere aurkitu, hau da, *jabego genitiboa - izena* da ordena bakarra (18a–f). Alderantzizko hurrenkeraren adibiderik ez topatzea corpusaren izaera mugatuaren ondorena izatea ez da oso sinesgarria, edutezko genitiboaren kasu asko baitaude (zortziehun inguru, guzitara). Beraz, ez ediretearen hobena IBren hizkerari eman beharko diogu.

- 18a. *Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, **Buruzuriaren zaldian badere**.*
- 18b. *Ogeko kama konplutua egiteko behar omen da hogeik eta bi berga; **horra kamaren muestra**.*
- 18c. *Pepe Trabukoren eta Zanpadoren semearen **asentua bialdu nion larunbatean Nolbertorekin**.*
- 18d. *Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut **lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta, eta guzien kontua edo gastua, gauza gutxi gorabera batean paratuko du**.*
- 18e. *Haspoak atererik, **altxatuak zauden mairaren nibeleraño**, baña ez da probetxurik izandu.*
- 18f. *Artxaiaren seme **horrek Basoberrirako 38 kuarto eskatzen du, eta nik 32 kuarto esan diot**.*

#### 4.2.2. Izena eta erlatibozko perpausa

Bergararen gutunetan lau erlatibozko perpaus mota lekukotzen dira: izenaren aurrekoak (19a), izenaren giblekoak (19b), aposatuak (19c) eta jokatugabeak (19d). *Bait-* edo *zein* menderagailua daukan perpausik ez dago,<sup>3</sup> eta *-ko* atzizkia daramaten egiturak hurrengo azpiatalean eztabaidatzen dira. Hona lekukotasunak:

- 19a. *Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu.*
- 19b. *Eta hoietaz gañera, badituzte meatze berri orañ garbitzen ari diran hartan, jornalean sartuak, aste honetako hiru egunakiñ izanen dituzte bi lagunek hamasei egun.*
- 19c. *Ba awrtego esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*
- 19d. *Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako jornala, bi erreal, eta Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio.*<sup>4</sup>

Krajewskak (2016: 464) argudiatzen duenez, batzuetan ezinezkoa da izenaren ondoko erlatibozkoak (19b) aposatuetatik (19c) bereiztea: hori da kasua, adibidez, (a) perpausaren burua den izenak *-a* itsatsia daramanean edo (b) izena mugagabea denean eta erlatibozko perpausa absolutiboan eman denean. IBren gutunen kasuan, gainera, puntuazioak ez du biak desberdintzen laguntzen. Ondorioz, hemen (19b) bezalakoak (a) eta (b) gertatzen ez direnean bakarrik hartu dira izenaren ondoko erlatibotzat, eta gainerako kasuetan, berriz, aposatuztat.

Erlatibo aposatuak erabiltzeko pisuzko arrazoia beren luzera izaten da gehienetan: zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta aposatzeko aukera handiagoa izaten da (Euskaltzaindia, 2011: 62). Bestalde, izenaren aurreko perpaus erlatiboak testuinguru neutroetan agertzen dira eta, hortaz, ez dago baldintzatzen dituen aparteko faktorerik. Ezaugarri horiek guztiak kontuan izanik, espero izatekoa da Bergararen gutunetan erlatibozko perpaus gehienak izenaren aurrekoak eta aposatuak izatea eta, aldiz, izenaren ondokoak gutxitan kausitzea. Hori da, hain zuzen ere, kasua: 1793ko eskutitzetako testigantzetatik

<sup>3</sup> Nolanahi ere, erlatibozko eta mendeko esanahien arteko anbiguotasuna erakusten duten *bait-*dun adibideak ez dira gutxi. Hori *bait-* osagaiaren gramatikalizazioaren zantzua bide da; prozesu horren inguruan Krajewskak (prentsan) xehetasun gehiago eztabaidatzen ditu.

<sup>4</sup> Adibide honetako erlatibozko perpausan ez dago aditz laguntzailerik eta, hortaz, jokatugabetzat sailka daiteke. Hala ere, ez da adibiderik argiena. Ematen du Bergarak 'egin-dako bi agoen jornala' esan nahi duela.

27/65 (% 41,5) izenaren aurrekoak dira, eta 23/65 (% 35,4) aposatuak; ordea, izenaren ondoko bakarra (1/65, % 1,5) ediren dugu. Ikus eranskinetako seigarren taula.

#### 4.2.3. Izena eta erlazio sintagma

Aurreko atalean izenaren modifikatzaile konplexuetatik IBren gutunetan hitz-ordena aldakortasuna erakusten dutenak aztertu dira, hau da, erlatibozko perpausak. Horiek ez ezik, gutxienez beste modifikatzaile mota bat ere bada, *-ko* erlazio atzizkia hain zuzen. Atzizki hau daukaten osagarriek hainbat funtzio ukan ditzakete, besteak beste xedea, iraupena, neurria edo kopurua, ezaugarria edo nolakotasuna, eta denbora edo lekua (Krajewska, 2019: 91). Aztergai ditugun gutunetako beheargoko adibideetatik (20a–f) bakoitzak *-ko*-dun modifikatzaileen erabilera bana erakusten du.

- 20a. *Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nabi badu.*
- 20b. *Lau la[ne]guneko espensa dute 18½ reales.*
- 20c. *Horiek hirurak hiru laguneko partiduan egiñ dituzten mea guziak dirade 373 quintales, 3 arrobas ½.*
- 20d. *Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa.*
- 20e. *Hoietarako baditu Karmengo bi fraideri emanak 2 reales.*
- 20f. *Horra carretero Auntxaiaren horien leneko asteko asentua eta hemen den meagalbaia.*

Hurrenkerari begira, Bergarak erlazio atzizkia duten modifikatzaileak izenaren ondotik erabiltzea gutxitan gertatzen bada ere, badaude adibideak eta, hortaz, egitura hauek ere aparteko azterketa merezi dute. Ordena baldintzatzen duten arrazoi bat baino gehiago daude: besteak beste, adjektiboen antzeko funtzioak betetzen dituztenak adjektiboen leku berean agertzen dira, hau da, izenaren ondotik. Horretaz gain, *-ko*-dun modifikatzaileek aingura erlazioa adierazten dutenean, hau da, mugatzen duten izenak objektu, denbora edo toki jakin bati aipu egiten dionean, izenaren atzean agertzeko joera oso ahula da. Aldiz, sintagma berak aingura erlaziorik adierazten ez duenean, hau da, mugatzen duen izena sailkatzeko edo ezaugarritzeko balio duenean, izenaren gibeletik azaltzeko joera garbiagoa da (Krajewska, 2019: 98).

Aurreko paragrafoan deskribatu den banaketa IBren gutunetan neurri batean ikusten da; zehazki esan, aingura erlazioa adierazten duten sintagmak (21a–b) adierazten ez dutenak (21c–d) baino maizago agertzen dira izenaren ezkerrean.

- 21a. *Horra Juan Josepe urzalle berri honen aurtengo asentua, eta leneko urtekoa entregatu nizun.*
- 21b. *Bada, hori da hemengo taiekoa, eta ekusiko du horko asentua nola dagoen.*
- 21c. *Antokoren seme horko urzalle berri horren kontua bialdu nion, lenago hemen izandu zuena.*
- 21d. *Hemen ari den mealle Oiarzungo honi (sic) larunbatean horrara etorri behar zuela zion.*

Azkenik, *-ko*-dun sintagmek etxe izena adierazten dutenean izenaren gibelean agertzeko joera nabaria dago (22a–f):<sup>5</sup>

- 22a. *Manuel Antonio Ezkartikoak Arranbiden mealle sartu dituen egunak.*
- 22b. *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik bonara heldu den mandatari seguru batekiñ.*
- 22c. *Juan Josepe Arrantxalekoaren meak Ubarritzetan egiñak...14 quintales, 3 arrobas ½.*
- 22d. *Jose Domingo Teresenakoaren Urraideko basoa bota zen jornaleroan egunak dirade, 1802 hasta 24 abril semana [...].*
- 22e. *Derecho itxola bat eramana Arranbidetik Tintopoloko suertera Gregorio Apezenakoari.*
- 22f. *Gorgorio Arotzandikoaren ikatzak, gaztañadian eginak.*

Laburbilduz, *-ko* erlazio atzizkia daramaten modifikatzaileen hurrenkerari eragiten dion faktore nagusia haien izaera da: modifikatzaileak aingura erlaziorik adierazten ez duenean izenaren eskuinean agertzeko aukera handiagoa dago, nahiz eta, oro har, ordenarik arruntena *erlazio sintagma - izena* izan. Bestalde, kasu batzuetan nahiko antzekoak diren izen sintagmek (21a–d) hurrenkeran aldakortasuna erakusten dute eta, ondorioz, esan daiteke *-ko*-dun modifikatzaileen ordena orokorrean aski librea dela. Salbuespena atzizkia daramaten etxe izenak dira, hemen aztergai ditugun gutunetan eskuarki izenaren ondoan finkatuta azaltzen baitira.

---

<sup>5</sup> *-ko* atzizkia daramaten etxe izenen sorreraz, duten portaera gramatikaz eta egun-go erabileraz zehetasun gehiago jakiteko ikus Salaberri (2006), Kamino eta Salaberri (2007, 2022), Salaberri eta Zubiri (2009). Oikonimiaren inguruko informazio gehiago nahi duenak Apezetxea eta Salaberriren (2009: 191–213) lana irakur dezake.

### 4.3. ONDORIOAK

Atal honetan IBk ibiltzen duen hitz hurrenkera deskribatzeko saiakera egin da. Erakutsi da hitz ordenan faktore pragmatikoez dutela eragina, informazioak entzulearendako duen interes mailak (berria edo zaharra den, galdegaia, mintzagaia edo hizpideabarra), eta kontatzen denaren bizitasunak, batez ere. Gainera, ikusi da Bergarak ahozko hizkuntzan ohikoak diren formak ibiltzen dituela, erlatibo aposatuak (*juradua, hark lagun zuena*), esaterako. Ezaugarri horrekin batean kontabilitate hizkeraren isla ikus daiteke, askotan gaztelaniarekin nahasita, perpausaren bukaerako osagaietan (*egĩñ dituzten mea guziak dirade 373 quintales, 3 arrobas ½*) batik bat. Azkenik, aditzaren eskuineko osagarri zuzenen, erlatiboazko perpausen eta *-ko* erlazio atzizkia daramaten izenaren modifikatzaileen erabilerak iradokitzen du osagaion ezaugarriek, pisu-luzerak eta ainguratze mailak hitz hurrenkera baldintzatzen dutela.

Atal honi amaiera emateko, interesgarria izan daiteke IBren euskara JRMrenarekin alderatzea. Bien testuetako hitz hurrenkera berdintsua bada ere, badira aldeak: Bergarak ezeztapenaren  $A_N$ -E- $A_L$  ordena gordetzailea franko gutxiagotan ibiltzen du perpaus nagusietan (JRMk 13/93 = % 13,8 vs IBk 3/59 = % 5,1) eta mendekoetan (JRMk 30/50 = % 60,0 vs IBk 8/22 = % 36,4), eta, hortaz, halaber denetara (JRMk 43/143 = % 30,1 vs IBk 11/81 = 13,6). E- $A_L$ - $A_N$  hurrenkera berritzailearekin kontrara gertatzen da: IBk gehiago ibiltzen du perpaus nagusietan (JRMk 79/93 = % 84,1 vs IBk 54/59 = % 91,5) eta mendekoetan (JRMk 20/50 = % 40,0 vs IBk 14/22 = % 63,6) eta, ondorioz, baita denetara ere (JRMk 99/143 = % 69,2 vs IBk 68/81 = % 83,9).

Horretaz gainera, IBren gutunetan *izena - gentilizioa* hurrenkera ohikoagoa da; ordea, JRMren testuetan ez bezala, IBrenetan *izena - zenbaki ordinala* eta *izena - jabego genitiboa* hurrenkerarik ez dago, eta ez dugu, ezta ere, *bait*-dun erlatiborik kausitu.

#### Eranskina: gutunetako hitz hurrenkeraren kopuruak

Lehen taula: osagarri zuzenen eta aditzaren hurrenkera, IBren 1803ko gutunetan.<sup>6</sup>

Gutuna	OA	AO	OLuzeaA	AOLuzea
1803.01.11	0 (% 0,0)	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.01.28	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)

<sup>6</sup> Lehenbiziko taulan laburdura hauek erabili ditugu: «O» = osagarri zuzena (perpausa ez dena), «A» = aditza, «OLuzea» = osagarri zuzen luzea (gutxienez perpaus bat osatzen duena).



Gutuna	OA	AO	OLuzeaA	AOLuzea
1803.02.01	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.02.10	14 (% 77,8)	4 (% 22,2)	2 (% 50,0)	2 (% 50,0)
1803.02.17	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.03.28(A)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.03.28(B)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.03.31	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.04.07	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.04.25	1 (% 33,3)	2 (% 66,7)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1803.05.03	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.06.02	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.06.06	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.06.21	2 (% 28,6)	5 (% 71,4)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1803.01.08_1803.06.23	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.07.05	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.08.20	4 (% 50,0)	4 (% 50,0)	2 (% 66,7)	1 (% 33,3)
1803.10.13	3 (% 50,0)	3 (% 50,0)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1803.10.19	12 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.10.29	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.11	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.11.05(A)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.11.05(B)	2 (% 66,7)	1 (% 33,3)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.11.15	3 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	3 (% 100)
1803.11.20	1 (% 50,0)	1 (% 50,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1803.11.21	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.11.23	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1803.11.26	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803.12.08	6 (% 85,7)	1 (% 14,3)	0 (% 0,0)	4 (% 100)
1803.12.22	0 (% 0,0)	4 (% 100)	1 (% 33,3)	2 (% 66,7)
1803.11.05_1803.12	1 (% 100)	0 (% 0,0)	2 (% 100)	0 (% 0,0)
1801.01.15_1803.12.31	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803_1804.01.05	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
<b>Oso tara</b>	<b>53 (% 63,9)</b>	<b>30 (% 36,1)</b>	<b>8 (% 28,6)</b>	<b>20 (% 71,4)</b>

**Bigarren taula:** ezeztapenaren hurrenkera, IBren gutunetan.<sup>7</sup>

Gutuna	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (pn)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (m)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (m)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (m)
1787	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1788	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1789	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1790	3 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 50,0)	1 (% 50,0)	0 (% 0,0)
1791	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1792	4 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 25,0)	3 (% 75,0)	0 (% 0,0)
1793	1 (% 33,3)	2 (% 66,7)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1794	1 (% 50,0)	1 (% 50,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1795	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1796	11 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	3 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1797	5 (% 83,3)	0 (% 0,0)	1 (% 16,7)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1798	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1799	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1800	6 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	2 (% 100)	0 (% 0,0)
1801	5 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	3 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1802	1 (% 50,0)	0 (% 0,0)	1 (% 50,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803	8 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	4 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1804	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1805	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1806	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1807	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1808	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1809	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1810	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1811	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
<b>Oso tara</b>	<b>54 (% 91,5)</b>	<b>3 (% 5,1)</b>	<b>2 (% 3,4)</b>	<b>14 (% 63,6)</b>	<b>8 (% 36,4)</b>	<b>0 (% 0,0)</b>

<sup>7</sup> Bigarren eta hirugarren tauletan ondoko laburdurak erabili dira: «E» = ezezko marka, «A<sub>N</sub>» = aditz nagusia, «A<sub>L</sub>» = aditz laguntzailea, «(pn)» perpaus nagusia, «(m)» = mendeko perpausa.

**Hirugarren taula:** ezin marka duten perpausetako hurrenkera,  
IBren gutunetan.

Gutuna	$E-A_L-A_N$ (pn)	$A_N-E-A_L$ (pn)	$E-A_N-A_L$ (pn)	$E-A_L-A_N$ (m)	$A_N-E-A_L$ (m)	$E-A_N-A_L$ (m)
1787	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1788	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1789	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1790	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1791	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1792	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1794	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1795	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1796	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1797	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1798	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1799	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1800	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1801	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1802	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1803	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1804	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1805	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1806	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1807	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1808	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1809	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1810	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1811	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
<b>Osotara</b>	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	3 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	4 (% 100)

**Laugarren taula:** izenaren eta gentilizioaren hurrenkera, IBren gutunetan.

Gutuna	Gentilizioa-izena	Izena-gentilizioa
1791.10.15	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1793.09.09	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1797.01.16	2 (% 100)	0 (% 0,0)
1797.04.11(A)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1797.05	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1800,09.11	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1802.07.13(A)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1803.01.08_1803.06.23	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1803.02.10	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1803.04.25	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1803.06.21	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1803.10.19	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1803.11.05(A)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1803.11.05(B)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1803.11.15	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.07.20(A)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.07.20(B)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.07.27(A)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.07.27(B)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.09.07(B)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.10.19(A)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.10.19(B)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1805.10.19(C)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1805.11.09(A)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.11.09(B)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.11.16(A)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.11.23(A)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1805.11.23(B)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.12.07(A)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1805.12.07(B)	0 (% 0,0)	1 (% 100)

Gutuna	Gentilizioa-izena	Izena-gentilizioa
1806.07.24	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1806.12.24(B)	0 (% 0,0)	2 (% 100)
1807.03.31	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1807.06.26	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1807.09.28(C)	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1807.10.31	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1807.12.24(A)	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1808.03.04	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1809.03.17	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1809.10.05	0 (% 0,0)	1 (% 100)
1810.06.28	0 (% 0,0)	1 (% 100)
<b>Osotara</b>	17 (% 36,2)	30 (% 63,8)

**Bosgarren taula:** izenaren eta zenbaki ordinalaren hurrenkera, IBren gutunetan.

Gutuna	Zenbaki ordinala-izena	Izena-zenbaki ordinala
1790.08.09	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1794_1795	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1800.11.19	2 (% 100)	0 (% 0,0)
1802.06.09	3 (% 100)	0 (% 0,0)
1802.09.05	1 (% 100)	0 (% 0,0)
1806.06.30	3 (% 100)	0 (% 0,0)
<b>Osotara</b>	11 (% 100)	0 (% 0,0)

**Seigarren taula:** izenaren eta erlatiboazko perpausaren hurrenkera,  
 IBren 1793ko gutunetan.

Gutuna	Izenaren aurrekoa	Izenaren ondokoa	Erlatibo aposatua	Erlatibo jokatu <b>g</b> .	<i>Bait</i> -dun erlatiboa	<i>Zein</i> -dun erlatiboa	<i>-ko</i> -dun perpausa
1793.02.07	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	3 (% 75,0)	1 (% 25,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793.02.16	2 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793.09.09	4 (% 44,4)	0 (% 0,0)	1 (% 11,1)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	4 (% 44,4)
1793.09.18	7 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793.10	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	17 (% 73,9)	3 (% 13,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	3 (% 13,0)
1793.10,04	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793.11.19	4 (% 100)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793.11.26	3 (% 75,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 25,0)
1793.12.02	7 (% 77,8)	1 (% 11,1)	1 (% 11,1)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
1793	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	1 (% 50,0)	1 (% 50,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)
<b>Osotara</b>	27(% 41,5)	1 (% 1,5)	23 (% 35,4)	6 (% 9,2)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	8 (% 12,3)



## 5. EUSKARA-GAZTELANIA UKIPENAREN ERAGINAK

### 5.1. SARRERA

Euskararen historia ikertzeko orduan, tradizioz, latinarekiko eta hizkuntza erromantzeekiko ukipenak eta ukipen horren ondorioek interes handia piztu dute, lehenaren zein azkenen ikuspegitik (Caro Baroja, 1945; Menéndez Pidal, 1956: 460–465; Mitxelena, 1964: 91–119; Etxenike, 1984; Haase, 1992; Trask, 1997: 259–261; Igartua (arg.), 2012; Berro eta beste (arg.), 2019; gutxi batzuk besterik ez aipatzeagatik). Hala ere, ikerketa horiek guztiak ez dira sistematikoak, eta ez dago, oraindik ere, erromantzeen eta euskararen arteko ukipena testuz testu, garaiz garai edota, gramatika, alderdiz alderdi ikertzen duen lanik. Testuinguru horretan aipatu beharra dago euskararen kasua ez dela bakarrik gure hizkuntzaren eta berarekin ukipenean egon direnen diakronia aztertzeko interesgarria. Aurrekoaz gain, ukipenak hizkuntzaren egitura eta aldaketan izan dezakeen eragina ikertzeko ere oinarri aproposa eskaintzen du eta, orobat, kontaktu egoeran dauden mintzairetan gerta daitekeenaren eta ezin gerta daitekeenaren —halakorik badago, behintzat—<sup>1</sup> mugak finkatzen lagun dezake.

Izan ere, euskarak eta latin hizkuntzek zenbait ezaugarri aski desberdin erakusten dituzte beren gramatika egituretan eta, lekuaren eta sasoiaren arabera, euskaldun batzuk behintzat hainbat mendetan egituraz desberdinak diren hizkuntza horietatik bitan gutxienez elebidunak izan dira.<sup>2</sup> Elebitasunaren eragina, gainera, anitz aldiz paperetan idatzirik gelditu da, eta izkribu horiek sei gizalditan zehar, XV. mendetik gaurdaino, lekukotu dira. Idatzizko historia horrek hizkuntzalariari ukipenak mintzairaren aldaketan daukan eragina goiti-beheiti zuzenean ikusteko eta jarraitzeko aukera ematen dio. Hitz gutxitan esanda, hizkuntza teoriaren ikuspuntutik partikularki erabilgarria da ukipen egoera honi ohartzea, munduan ondoko baldintza hauek betetzen dituzten

---

<sup>1</sup> Gai honen inguruan Thomasonek (2001: 63) jarrera argia erakusten du: «What can be adopted by one language from another? The short answer is, anything».

<sup>2</sup> Gogora bedi hemen, zenbait ikertzaileren arabera, ukipenaren ondorioz sortu diren berrikuntzak elebidunen eta eleaniztunen arteko banakako harremanen bidez hedatzen direla, hau da, elebidunak eta eleaniztunak izaten ohi direla ukipenaren ondorioz sortu diren aldaketen eragileak (Thomason eta Kaufman, 1988: 35). Hitzunen portaerak ukipen egoeretan duen garrantziaz xehetasun gehiago bigarren atalean ematen dira.



kontaktu egoerak ez baitira asko: 1. Egituraren aldetik nahiko desberdinak diren hizkuntzak, 2. Horien idatzizko historia erlatiboki luzea, kontaktuaren eraginak aztertzea ahalbidetzen duena.

Filologiaren ikuspuntutik, ukipenaren gaia aztertzeko orduan, gutun elebidunen bildumak bereziki aproposak dira, bi arrazoiengatik: (a) egile berak bi hizkuntzetan duen trebetasuna erakusten dute, eta (b) gutunek ahozkotatasuna aski era egokian islatzen dute, hau da, erregistro jasoagoetan idatzitako testuen artifizioetatik nahiko aske egoten dira; ondorioz, testu hauetako hizkeraren egiantzekotasuna, oro har, handia da (Collins, 2001; Schneider, 2002: 72-73). Azkenik, bilduma handia bada, daitekeena da denboran hedadura zabala izatea eta, hortaz, hizkuntzaren erabilerak jasan dituen aldaketa batzuk behintzat erakustea. Euskararen kasuan gutxi dira garai historikoan izkiriatu diren eta denbora hedadura luzea ukan duten gutun elebidunen bildumak; gure ustez garrantzitsuenak hauek dira: Gabriel Etxart Zuberoako fiskalak eta Miguel Ros Erronkariko alkateak XVII. gizaldiaren hasieran elkari bidalitakoak (Lakarra eta beste, prentsan), XVIII. mendearen erdialdeko *Le Dauphin* itsasontzikoak (Padilla-Moyano eta Videgain, 2015), Jose Ramon Minondo (JRM) ola arduradun goizuetarrak Juan Bautista Minondo (JBM) olajaunari XVIII. jendamearen akabailan eta XIX.aren hasieran idatziak (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021a-b), eta Ignazio Bergarak (IBk) hartzaile berari garai bertsuan igorriak.

Aurrekoa kontuan izanik, atal honen xedea IBk gutunetan ibiltzen dituen eta ukipenarekin lotzen diren esateko erak —maileguak eta bestelakoak— aztertzea da.<sup>3</sup> Sarrera labur honen ondotik, bigarren atalean ukipenaren inguruko teoriaren testuinguruari begira hainbat xehetasun azaltzen dira. Hirugarren puntuan Bergararen gutunetan ikus daitezkeen eta kontaktuaren ondorio diren gertakariak zerrendatzen eta sailkatzen dira lehenik, eta banan-banan eztabaidatzen ondoren. Laugarrenean IBren hizkuntza erabilera ukipen teoriaren argitan aztertzen da. Azkenik, bosgarren atalean aurreko eztabaidatik atera daitezkeen ondorioak azaltzen dira.

---

<sup>3</sup> Ohart bedi irakurlea gehienbat euskarazko gutunak aztertu ditugula, eta ez dugula erdarazko dokumentazio guztia arakatu; euskarazko gutunetan agertzen diren gaztelaniazko apunteei baizik ez diegu erreparatu, JBM olajaunak egindakoei. Erdarazko testuak osorik aztertzea beste liburu baterako edo batzuetarako lana da.

## 5.2. HIZKUNTZA UKIPENAREN INGURUKO TEORIA LINGUISTIKOA

Hizkuntzalaritza historikoan ukipena, soinu aldaketarekin, analogiarekin, berranalisiarekin eta hedapenarekin batera, hizkuntza aldaketaren mekanismo nagusietako batentzat hartu da (Anttila, 1989: ix; Harris eta Campbell, 1995: 50; Bybee, 2015: 248). Hala ere, kontaktuak ez du nahitaez aldaketarik eragiten. Zehazki, bi mintzairaren ukipen egoeraren emaitzak hiru izan daitezke: (a) ez da deus gertatzen; (b) zerbait aldatzen da; (c) ukipen egoerak etorkizunean gerta litezkeen aldaketak murrizten, gelditzen edota eragozten ditu. Bigarren kasuan, normalean, ukipenean dauden hizkuntzetako bata bestearen eraginez aldatzen da; horrelakoetan, aldatzen denari *hizkuntza hartzailea* (HH) eta aldaketa eragiten duenari *iturri hizkuntza* (IH) deitzen zaie (Weinreich, 1953; Matras, 2009: 146). Ukipenaren ondorioz, beraz, HHak bi aldaketa mota jasan ditzake: berritzaileak, adibidez IHtik zerbait hartzea edo ukipenagatik zerbait galtzea, edo gordetzaileak, hau da, ukipenaren ondorioz ezaugarriren bat mantentzea edo kontakturik gabe gerta zitezkeen berrikuntza saihestea. Edozein kasutan, HHak ukipenaren ondorioz jasaten dituen aldaketak ez dira nahitaez egonkorrak: egoera soziolinguistikoaren eta aldaketa bultzatzen duten hiztunen portaeraren, kopuruaren eta hiztun erkidegoan duten indarraren arabera, aldaketa HHaren gramatikan egonkortu daiteke, edo ez (Thomason, 2001: 68).

Ukipen egoeran agi daitekeena ulertzeko, kontaktuarekin lotzen diren bi aldaketa mota bereiztea komeni da: *mailegatzea* eta (*sustratu*) *interferentzia* (Thomason eta Kaufman, 1988: 37; Thomason, 2001: 75) edo *inposatzea* (Thomason eta Kaufman, 1988: 38; Guy, 1990: 48). Lehen kasuan HHan mintzatzen direnek ama hizkuntzatat dute, eta IHko egituraren edo ezaugarriren bat ama hizkuntzara ekartzen dute, arruntean berariaz edo ohartuki gutxienez. Emaitzarik ohikoena IHren hiztegiko osagaiak (izen arruntak, aditzak, esamoldeak) HHra ekartzea izaten da. Bigarrenean, aldiz, IHren ezaugarriak HHra eramaten dituztenek IH dute ama hizkuntza, eta HHa beren bigarren mintzaira dute; emaitza, eskuarki, IHko egiturak (hitz hurrenkera, gramatika kategoria berriak) HHan agertzea izaten da.

Hortaz, mailegatzea interferentziatik edo inposiziotik bereizten duena da inposatzean aldaketaren eragileek HHa ez dutela guztiz ongi ikasi, eta horregatik hartzen dituztela ezaugarriak beren lehen mintzairatik.<sup>4</sup> Hemen

<sup>4</sup> Aipatu beharra da ez dagoela erabat garbi mailegatzearen eta inposatzearen arteko bereizketa HHa guztiz ongi ez ikastearen ondorena ote den. Van Coetsem-ek (1988: 3), esaterako, proposatzen du aldian aldiko hiztunak bere ama hizkuntzako egiturak gordetzeko joera erakusten duela, eta horregatik eramaten dituela IHren ezaugarriak HHra, edo alderantziz. Beraz, Van Coetsem ez da mailegatzeaz eta inposatzeaz mintzatzen, baizik eta *IHaren eraginaz* («source-language agentivity») eta *HHren eraginaz* («recipient-language agentivity»).

aipatu diren bi ukipen egoerak Guyk (1990: 48) eta Labovek (2006: 203–209) era honetan adierazten dituzte:

**Lehenbiziko taula:** Egoera soziolinguistikoaren araberrako kontaktu egoerak (Guy, 1990: 48; Labov, 2006: 203–209)

	Ukipen egoera motak		
Jatorria	Barnetik bideratua	Kanpotik bideratua	
Aldaketa mota	Berezkoa	Mailegatzea	Inposatzea/ interferentzia
Bestelako izenak	Naturala, behetik datorrena	Berariaz egina, goitik datorrena, hizkuntza hartzaileak bultzatua	Substratua, iturri hizkuntzak bultzatua
Ukipenik ba ote da?	Ez	Bai	Bai
Bideratzaileak	Jatorrizko hitzunak	Jatorrizko hitzunak	Hiztun berriak

Oro har, mailegatzeak hiru eragin mota hartzen ditu. Lehenik, HHak IHTik gorputz fonologiko hautemangarria duen materiala har dezake, dela hitz jakin bat, dela morfema bat, dela gramatikako beste maila bateko osagaien bat. Boliviako kitxua, adibidez, gaztelaniarekiko ukipenaren ondorioz azken honen pluralgilea, *-s*, mailegatzea iritsi da, eta izen arrunt bizidunei atxikitzen die orain (*algu* ‘zakur’ vs *algu-s* ‘zakurrak’); mailegatu den pluralgile berri horrek Boliviako kitxuak lehenagotik erabiltzen zuen eta beste aldaera kitxua batzuetan oraino aurki daitekeen jatorrizko *-kuna* pluralgilea ordezkatu du (Muysken, 2012: 484–485).

Bigarrenik, HHak IHTik abstraktuagoa den ezaugarri, joera, funtzio edo esanahi banaketaren bat mailega dezake.<sup>5</sup> Adibidetako, eta kitxua aldaeretako pluralgilera itzuliz, izen arruntei *-kuna* (edo *-s*) atxikitzea, oro har, nahitaezko araua da; hala ere, nahitaezkotasun hori galtzen da izen arrunta zenbatzailearekin batera datorrenean, adibidez *bi* edo *hiru*-rekin. Gaztelaniaz, berriz, halako gramatika legerik ez dago; pluralgilea izen arruntei beti gehitzen zaie, zenbatzailea izan edo ez. Horrela, bada, gaztelaniarekin kontaktuan dauden kitxuaren beste aldaera batzuk, Imbaburakoa (Ekuadorgo iparraldekoa) konparazione, *-kuna* pluralgilea zenbatzaileekin batera ibiltzen

<sup>5</sup> Atal honetan *banaketa* adigaiak gramatika jakin batean ezaugarriak, joerak, funtzioak, materiala, esanahia eta abar nola antolatzen diren adierazten du.

diren izen arruntei ere atxikitzen hasi dira, eta atera dezakegun ondorioa da berrikuntza hau gaztelaniarekiko ukipenari zor zaiola (Gómez-Rendón, 2008: 488).

Hirugarrenik eta azkenik, HHak IHTik material fonologikoa mailega dezake eta, aldi berean, IHn material fonologiko hori arautzen duen ezaugarriren, funtzioaren edo banaketaren bat. Azken mailegatze mota honetaz kestone, Grandik (2004: 70) aipatzen du malterak italierako *-one* atzizki handigarria, euskaraz *-tzar* (*gizontzar* adibidez) baliokide duena, *-an* moduan mailegatu edo egokitu duela; atzizkia ez ezik, banaketa ere hartu da, malteraz izenei eta adjektiboari baizik ezin baitzaie erantsi, italieraz bezala. Hortaz, kasu honetan material fonologikoa ez ezik, material hori IHn (italieran) arautzen duen banaketa ere mailegatu du malterak. Hiru mailegatze mota horiei Sakel-ek (2007) eta Matras eta Sakelek (2007) *materiala mailegatzea*, *eredua mailegatzea* eta *materiala eta eredua mailegatzea* deitzen diete, hurrenez hurren.

Mailegatzearen eta inposatzearen arteko bereizketara itzulita, aipatu beharra dago, praktikan, banaketa ez dela erabat garbia edo, hobeki esan, ukipen egoerek bien ezaugarriak konbinatzen dituztela, neurri handiagoan edo txikiagoan. Thomasonek (2001: 66-67) Asia Txikiko grezieraren adibidea ematen du bereizketaren lausotasuna erakusteko. Eskualde horretako greziar aldaerek —Pontokoak eta Kapadoziakoak, batez ere— azken mendeetan berekin genetikoki erlazionatua ez dagoen baina nagusitasun politiko eta soziolinguistikoa duen hizkuntzaren, turkieraren, eragin handia izan dute. Horregatik, aldaera horiek hainbat aldaketa ukan dituzte, turkierarekiko ukipenaren ondorio direnak, Greziako grezieraren aldaeretatik, baita gainerako hizkuntza indoeuroparretatik ere, nabarmen bereizi dituztenak.

Egoera honetan uste da aldaketaren eragile nagusiak Asia Txikiko greziera ama hizkuntza duten hiztunak izan direla, turkiera bigarren mintzaira dutenak, hauxe izan baita, luzaz, ezinbestean jakin beharreko estatu hizkuntza. Hala ere, badaiteke turkieraren ezaugarriak Asia Txikiko grezierara eraman dituztenen artean turkiera ama hizkuntza dutenek ere parte hartu izana, eskualdeko grezieraren gramatikaren ezagutza zerbait dutenek behintzat, kopuruari begira grezieradunak baino gutxiago izanagatik ere. Pentsatzekoa da talde honen barruan badaudela etniaz turkiarrak diren baina Asia Txikiko greziarrekin, tarteka, harremanak dituzten hiztunak, adibidez eskualdera noizean behin jotzen duten saltzaileak, edo bizitzera joan diren beste eskualdeetako migratzaileak. Hortaz, Asia Txikiko grezieraren aldaketetan mailegatzea eta inposatzea, biak gauzatu direla ondorioztatu behar dugu. Gauza bera gertatuko da, segur aski, ukipen egoera gehienetan; edonola ere, kontaktuaren aldiak aldiko ondorioak egoera soziolinguistikoaren eta, zehatzago, kontaktuaren intentsitatearen araberrakoak bide dira (Thomason, 2001: 66). Xehetasun gehiagotarako ikus laugarren atala.

Atal honetan aipatzea merezi duen beste puntu bat, Ignazio Bergararen gutunetako euskararekin zuzenean lotzen dena, ukipenaren ondorioz burutzen den hizkuntza aldaketaren mekanismoena da eta, zehazki, *kode aldaketa*-rena. Kode aldaketa, euskaraz *kode txandaketa* eta *kode alternantzia* ere deitu izan zaion gertakaria, ukipenak bultzatutako aldaketaren eragileetako bat da; ez da bakarra eta ez, menturaz, garrantzitsuena, baina bai ikerketan interes handiena piztu duena (Thomason, 2001: 131-132). Hitzun berak elkarrizketa berean bi mintzairaren edo gehiagoren materiala erabiltzen duenean, dela esaldi batetik bestera aldatzean, dela esaldi berean, dela esaldiko atal batean, kode aldaketaz mintzatzen gara (Poplack, 1980: 583). Azken urteetan gertakari horrek euskararen duen presentziari buruzko hainbat lan agertu dira (Rotaetxe, 1999; Amonarriz, 2008; Epelde eta Oihartzabal, 2010; Aurrekoetxea eta Unamuno, 2011; Ibarra, 2011; Ezeizabarrena, 2015; besteak beste), baina esan beharra dago ikerketa lerro horrek oraindik bide luzea duela egiteko. Hirugarren atalean erakutsiko den moduan, IBk erabiltzen dituen zenbait esamolde kode aldaketatzat har daitezke, eta, hortaz, gutunetako euskara aztertzeak gauzak hobeki ulertzen lagun dezake, eta alderantziz.

Atal honi akabaila emateko, aipatu beharra dago gaurdaino ez dela, kontaktuak ekarri hizkuntza aldaketaz dugun ezagutza azken hamarkadetan asko hobetu bada ere, ukipenaren eraginez agi daitekeenaren mugak finkatzeko saiakera funtsezkorik egin. Salbuespen esanguratsua Gardaniren lana (2020) da, munduko hizkuntzetan ikus daitekeena oinarri harturik mailegatzearen tipologia finkatzen ahalegintzen baita, lan horrek batez ere morfologia izan arren aztergai. Egituraz desberdinak diren eta Europako hizkuntza handiak baino gutxiago ikertu diren mintzairetan gertatu eta gertatzen dena ikertzeak mailegatzearen tipologia ontzen, aberasten eta hobeki ulertzen lagun dezake. Ondorioz, atal honek, Ignazio Bergararen euskara hobeki konprentzen laguntzeaz landara, giza hizkuntzaren xehetasunak sakonkiago ezagutzeari ekarpena egin diezaioke.

### 5.3. UKIPENAREN ERAGINAK IGNAZIO BERGARAREN GUTUNETAN

Aurreko atalean aipatu den Gardaniren artikulua (2020) ildotik, hemen IBren gutunetan ikus daitezkeen euskararen eta gaztelaniaren arteko ukipenaren emaitzak banaka aztertzen eta sailkatzen ditugu. Era berean, eta lana ulergarriago izan dadin, eraginen tipologia hizkuntza mailaka —fonologia, morfologia, sintaxia eta abar— osatu dugu, eta gainera, beharrezko iruditu zaigunean, IBren euskararen ezaugarriak garaikide, herrikide eta lankide zuen JRMren hizkeraren bereizgarriekin alderatu ditugu.

### 5.3.1. Bokal protetikoen erabilera

Euskaraz hitzaren hastapenean ez da soinu dardarkaririk onartu berriki arte. Ondorioz, murriztapen horrekin bat ez datozen maileguei bokal protetikoa (*a-* edo *e-*) gehitu zaie (*rota* > *errota*, *rosa* > *arrosa* adibidez). Gaur egun murriztapen hori hein batean ahuldu bada ere, ez dira gutxi bokal protetikoa erabiltzen jarraitzen duten hiztunak, mailegu berriagoetan ikusten den moduan: *radio* > *erradio* eta *ropa* > *arropa* (Mitxelena, 1977: 332–333). IBren gutunek erakusten dutenaren arabera, badirudi euskarazko murriztapena indarrean zegoela eta gaztelaniara hedatu zuela (1a-b):<sup>6</sup>

- 1a. **Arrazón** de los carreteros buyerizos de Astiarraga.
- 1b. *Nik gaztigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.*

Hemen aipatu beharra dago, testuinguruari begiratuz gero, (1a) adibideko elea ez dela bi hitz balira bezala ulertu behar, hau da, ematen du Bergarak *razón de* «Xri buruzko informazioa» esan nahi duela, eta ez *a razón de* «hurrenez hurren». Nolanahi ere, ez du euskarako araua gaztelaniaz era sistematikoan erabiltzen (2a-c).

- 2a. **Razón** de los fierros de Arranbide.
- 2b. **Razón** de los carbones Santiago de Alzubide.
- 2c. **Razón** de los carbones Sebastian Artxaia viejo.

### 5.3.2. Soinu arrotzak egokitzea

Hegoaldeko euskararen eta gaztelaniaren sistema fonologikoak aski antzekoak badira ere, badituzte zenbait desberdintasun; besteak beste, euskarak hiru fonema txistukari bereizten ditu: lepokaria (/ʃ/), hobikaria (/ʒ/) eta sabaikaria (/ʎ/) (Mitxelena, 1977: 279). Txistukari hobikariaz landa, gaztelaniak daukan euskarazko lepokariaren hurbileneko ordaina hortz arteko igurzkarri ahoskabea (/θ/) da eta, ondorioz, soinu hori euskaraz txistukari lepokariaren bidez ematen ohi da. Gaztelaniako hortz arteko igurzkarriaren ordez euskarazko lepokaria —edo lepokaria adierazten bide duen grafia— behin agertzen da IBren gutunetan (3):

---

<sup>6</sup> Gaztelaniatik euskararako maileguetan ere ikusten da murriztapen hau, «*eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso*» eta «*hortxe beurrek deritzan errebaja egiñen diote*» pasarteetan, esaterako.

### 3. *Rebajo 2 cribas, 4 sestás...12 reales.*

Gaztelaniaz *cestras* ‘zareak’ ([ˈθeʃ.taʃ]) <s> grafemarekin idazteak iradokitzen du Bergarak hitza [ˈʃeʃ.taʃ] ahoskatzen zuela, kasu honetan segurik bai.<sup>7</sup>

### 5.3.3. Atzeranzko osaera

Morfologia historikoan bereizten den prozesuetako bat *atzeranzko osaera* (*back formation*) da. Crystalen (2008: 48-49) arabera, atzeranzko osaera gertatzen da hiztunek hitz luze baten atal bat hizkitzat berranalizatu eta gero hitz luzeari hizki berranalizatua kentzen diotenean; horren adibidea ingelesezko *editor* izenetik eratorri den *edit* ‘editatu’ aditza da. Berez *editor* latineko mailegua da, *ēdere* ‘ekarri’, ‘sortu’, ‘(argitara) eraman’ aditzaren *ēditus* partizipio iraganetik eratorritako egile izen arrunta (Klein, 1971: 238). Hortaz, ingelesez *editor* izen arrunta *edit* aditza baino zaharragoa da. Ordea, ingeles hiztunek, beren mintzairako *credit* ‘zor’ ~ *creditor* ‘zordun’ eta *inspect* ‘ikertu’ ~ *inspector* ‘ikertzaile’ bikoteekiko analogiaz, *editor* hitzetik *edit* atera bide dute. IBren gutunetan antzeko zerbait gertatu dela ematen du (4):

4. *Buruko azal baten gaia, kosna azalak egiten diran hartatik; eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua.*

Gaztelaniaz egun erabiltzen ez den *servilla* hitzak ‘zapata arina, zola oso fina duena’ adiera du, RAEren hiztegiaren arabera,<sup>8</sup> baina ez da hau IBk ematen dion esanahia, honendako ‘ahozapia’ baita, eta, guk dakigula, *servillak* ez du inoiz esanahi hori ukan; ez du ematen, bestalde, oker izkiriatu hitza (*salvilla* adibidez) dela. Aitzitik, iduri luke gutunen egileak *servilleta* hitzean -*eta* ustezko atzizki txikigarria ikusi duela (*cfr. moza* eta *moceta, plaza* eta *placeta*,<sup>9</sup> *segur* ‘aizkora’ eta *segureta* ‘aizkora txikia’...), eta hitzari kendu diola. Ondorioz, kasu hau atzeranzko osaeratzat interpretatzen dugu. Aldera bedi Jose Ramon Minondoren *ragua* ‘arragoa’ (gaztelaniaz *fragua*) eta Juan Bautista Minondoren *remientas* ‘tresnak’ (gaztelaniaz *herramientas*) hitzekin (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021b: 250, 334).

<sup>7</sup> *Cestas* > *sestras*-en parekoa izan daiteke zenbait aldiz aurkitzen dugun *Sagarzazu* deitura, berez *Sagartzazu* behar bailuke euskaraz, eta gaztelaniaz *Sagarzazu*.

<sup>8</sup> <https://dle.rae.es/servilla?m=form>

<sup>9</sup> Bide batez, erronkarierazko *plazta* (Mitxelena, 1953: 508, 1969: 30-31 eta 1977: 287, 348) erdarazko *placeta* ‘plaza txikia’ eletik atera dela zalantza handirik ez dago, haren ebakera proparoxitonotik, *plázeta*-tik, alegia.

### 5.3.4. Kasuen erabilera, postposizioekin

*Orotariko Euskal Hiztegia*-ren arabera (Euskaltzaindia, 2023a) *gainera* lokailua XVIII. mendearen erdialdean Gipuzkoako tradizioan hasi zen erabiltzen, eta XIX. menderako euskalki guztietara hedatu zen; postposiziotzat XIX. mendearen bukaeran orokortu zen. Azken kasu honetan, ohikoena da postposizioaren aurretik doan izenak instrumentala (-z) hartzea; OEHk ez du besterik biltzen. IBren gutunak, beraz, *gainera* postposizioa hedatzen ari zen garaikoak dira, eta aintzat har bedi osagai horren erabilera, nonbait, erromantzearekiko ukipenak bideratua dela edo, gutxienez, hizkuntza erromantzeak eredu izan direla. Beraz, ez da harrizkoa lekukotzerik zaharretan postposizioaren erabileran aldakortasuna ediretea. Hemen aztergai ditugun testuetan *gainera* instrumentalarekin (-z) zein genitiboarekin (-*r*)*en*) azaltzen da, (5a-f) adibideetan ikus daitekeen moduan.

- 5a. *Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun.*
- 5b. *Hoietaz gañera baditu Ignazio igeleak ondu beharrak...18 reales.*
- 5c. *Hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio.*
- 5d. *Horien gañera geldi dizi[z]kiola bi ezkutu horiek ere, konponduko dirala beurreakin.*
- 5e. *Olaundian egiñ dituzten burnian gañera<sup>10</sup> erremienta egiteko egunak.*
- 5f. *Eman nahi nitionak –bi– badaude, lau urretxiki, eta nahi badu hoi gañera edo zer nahi duen gaztigatuko du.*

Adibideak ikusita, ez du ematen instrumentalaren eta genitiboaren arteko aukerak esanahi aldaketarik dakarrenik. Zernahi gisaz, badirudi batez ere *-en gainera* dutenak gaztelaniako *además de* esamoldearen ordain direla. JRMk aldakortasun bera erakusten du *gainera* postposizioarekin (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021b: 276).

### 5.3.5. Kasuen erabilera, zenbatzaileekin-eta

Euskaraz ohikoa da kopuruak adierazten dituzten eta zenbatzaileztat erabiltzen diren hitzekin batera doazen izen arruntak mugagabean agertzea. Horren adibide dira «*arpegia garbitzean igarotzen bada eztarritik ur tanta bat edo beste*» eta «*abalge tanta bat ere erakutsi gabe*» (Euskaltzaindia, 1990: 102 eta 2023a) esaterako. Hemen *tanta bat*-ekin batera doazen *ur* eta *ahalge*

<sup>10</sup> Berez *burdinen gainera* da, egun *burdinez gainera* esanen genukeena.



izen arruntek ez dute inolako hondarkirik hartzen. Ordea, IBren gutunetan badira hiru adibide gutxienez aipatu direnekin erka daitezkeenak; hauetan zenbatzailedun sintagmarekin batera doan izen arruntak genitibo hondarkia hartzen du eta, kasuren batean, baita mugatzailea ere (6a-b):<sup>11</sup>

- 6a. *Orañ hemen ez dago olioren tanta bat ere.*  
 6b. *Igande arratsean Lukes Iraolak entregatu zituan zorzi ogi, eta orañ hemen ez dago ez ogirik, eta ez babaren granorik, eta ez olioaren tantarik.*

*Olio* eta *baba* eleekin doan genitiboa azaltzea, egungo euskara batuaren eta zenbait hizkerarekin ikuspuntutik, ez da erraza, ez baita, oker ez bagaude, ohikoa. Ordea, gaztelaniaz horrelako egituretan *de* erabiltzen da, hau da, euskaraz, besteak beste, ordaintzat genitiboa duen preposizioa. Hortaz, iduri du (6a-b) adibideetan IBk «*no hay ni (una) gota de aceite*» eta «*no hay ni un grano de haba*» adierazi nahi duela. Alabaina, aipatu behar da gaztelaniaz izen arruntak ez duela artikulurik hartzen eta aipatutako horiek (6a-b) direla kausitu ditugun adibide bakarrak. *Olio* eta *baba* hitzak beste zenbatzaile batzuekin mugagabean erabiltzen dira (7a-b), eta orobat talde semantiko berean sailkatzen diren bestelako izen arruntak, *ardo* kasu (7c-d):

- 7a. *Hoietarako hartuak ditu Nafarroako lakadi bat baba eta laurden bat olio, eta hiru txiki ardo.*  
 7b. *Hoietaz gañera, badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba, eta liberdí bat olio.*  
 7c. *Hoietaz gañera, Juakintxok agindurik [go]nbitetan gastatuak, bi ogi eta 9 pinta ardo.*  
 7d. *Hoietarako badu pinta bat ardo eta Aranzazuko praideari emana...1 pezeta.*

Bestalde, zenbatzailearekin batera doan izen arruntak mugatzailea eta genitibo hondarkia hartzea ez da IBren euskarara mugatzen, egungo Goizuetako hizkeran ere antzeko etsenpluak kausitzen baititugu (8a-d):

- 8a. *Olíon tántaik eztó.* ‘Olioren tantarik ez dago’  
 8b. *Ézta úran tántaik.* ‘Ez da uraren tantarik’  
 8c. *Uín kozkòrrik étziu geldítzen.* ‘Ogiren kozkorrik ez zaigu gelditzen’  
 8d. *Éztik uín aléik erósi.* ‘Ez dik ogiren alerik erosi’

<sup>11</sup> Adibide hauetan (6a-b) eta beheragokoetan (8a-d) eztabaidatzen ditugun osagaiak ezezko pespauzetara daude mugaturik. Horregatik, «zenbatzaile»-ez baino egokiagoa dateke menturaz «ezezko polaritatea»-z mintzatzea.

Gaur egun IBk erabiltzen dituen esamoldeak edireteak iradokitzen du [izena (+ mugatzailea) + genitiboa - zenbatzailea] egitura azken mendeetako Goizuetako euskaran ongi errotuta egon dela. Honek, halarik ere, ez du argitzen horrelakoak ukipenaren ondorio direnetz eta, hortaz, badirudi kasu hau zalantzazkotzat hartu beharra dagoela.

### 5.3.6. «Talde jokatzeko» murriztua

Gramatika kategoriak morfemen edo bestelako baliabideen bidez adierazten dituzten hizkuntzetan bi aukera izan ohi dira: kategoria sintagma bakoitzean behin bakarrik adierazten da, edo sintagma osatzen duten osagaietako bakoitzari marka bana atxikitzen zaio. Lehen aukerari Finck-ek (1910) *Gruppenflexion* «talde jokatzeko» deitzen dio, eta hainbat kategoria —kasua, generoa, numeroa, mugatutasuna eta abar— markatzea biltzen du adigai horretan, eta horixe da euskara batuan duguna.<sup>12</sup> Haatik, IBren gutunetan badira zenbait izen sintagma, numeroa edota mugatutasuna bi aldiz adierazia dutenak (9a-e):

- 9a. *Hoiek dira harria pa[sa]tzen hasi ezkerok Zarrukok eta Baratzurik eta bi anaie horiek egiñ dituzten meak guziak.*<sup>13</sup>
- 9b. *Horra, arragoa honetan egiñ dira[n] burnia guziak hor dira eta espensak ere bai.*<sup>14</sup>
- 9c. *Iduriak emanak Jose Olaitzola Marzaneari.*<sup>15</sup>
- 9d. *Ignazio Loidikoak bost ogikiñ ekarri zuen zaku txiki bat, eta Jose Domingo Teresaneok hamar ogirekiñ ekarri duen kostala bat.*
- 9e. *Porfiñ nere jubizioa hau egiten dut honela, eta ageriko da.*

<sup>12</sup> Talde jokatzekoaren zenbait adibide JRMren gutunen edizioan eztabaidatzen dira (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021b: 2-5).

<sup>13</sup> Izen sintagma honen bigarren kidea aposizioan dagoela ere uler daiteke, hau da, «... bi anaie horiek egiñ dituzten meak, guziak», IBren puntuazioak ez baitu hemen argitasunik ematen. Bigarren kidea aposizioan balego, hau ezin genuke talde jokatzekoaren salbuespenetz hartu. Hori bai, hemen aipatzen diren adibide guzti-guztiak aposizioan egotea zalantzazkoa da, batez ere kontuan izanda batzuetan izen sintagma berean numero komunztadurarik ere ez dagoela, «burnia guziak» esamoldean, adibidez.

<sup>14</sup> *Burni* hitzaren kasua zalantzazkoa da. Izan ere, IBk zenbaitetan «burnia bat» idazten du. Ezin bazter daiteke, beraz, gutunen egileak hitzaren forma zaharra, -a duena, erabili duelako ustea. Ikus, gai honen inguruan, Euskaltzaindia (2023a).

<sup>15</sup> Adibide honetako adjektiboa ere izenarekiko aposizioan egon liteke, hau da, «*iduriak, emanak Jose Olaitzola Marzaneari*». Iduri du IBk gaztelaniako erlatibo erako partizipioa duela burutan: «*ciscos dados a Jose Olaitzola Marzanea*».

Beraz, esan daiteke adibide horietan (9a-e) ez dagoela talde jokatzetik, eta joera hori lehenagoko eta egungo euskaran ohikoa izan denaren eta denaren kontra doala. Deigarria da, gainera, talde jokatzetik ez dagoen sintagmetan zenbatzaileak (*guziak*) eta izenordainak (*hau, horrek*) ugariak izatea eta, horien artean, batez ere *guzi* zenbatzailea. Berebat, aipagarria da JRMen gutunetan ere talde jokatzea murrizteko joera egotea, eta horrelakoetan ere *guziak* eta beste usaiaokak izatea (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021b: 2–3). Nolanahiko gisan, era horretako esamoldeak 1897an Goizuetan berean lekukotzen dira (Satrustegi, 1996: 309), eta baita Etxalarren (1826-1865an; Apezetxea, 2006) eta Beran ere (1822an; Santazilia eta Taberna, 2019: 841-842). Gaur egun Oiartzunen (Fraile eta Fraile, 1996: 71-72) eta Hondarribia-Irunen ere (Sagarzazu, 2005: 71) ezagunak dira. Hortaz, era horretako esapideak euskararen barneko ezaugarritzat har daitezke. Gertakari honen hedaduraz gehiago jakiteko ikus bedi Zelaieta (2008: 109).

Izen sintagma berean mugatzaile pareta edo mugatzailea eta erakuslea ditzutenak azaltzeko beste bi aukera daude. Alde batetik, badaiteke gertakari honek Erdi Aroko euskaran hasten bide den eta egun oraino ere badirauren artikulu mugatuaren gramatikalizazioarekin zerikusia izatea.<sup>16</sup> Hizkuntzaren tipologia aztergai duten hainbat lanetan (Greenberg, 1978; Himmelmann, 1997, 2001; Dryer, 2013) erakutsi den bezala, munduko hizkuntza batzuek artikulu mugaturik ez dute eta beste batzuek, aldiz, bai. Azkenekoek mugatzaileak sortzeko (gramatikalizatze) orduan gramatikako hainbat osagai har ditzakete oinarri, eta horietatik ohikoenetakoa erakuslea da. Gramatikalizazio bide edo kate horretan erakusleek zenbait urrats egiten dituzte; honako hauek (Greenberg, 1978; Himmelmann, 2001: 832):

*Izenordain erakuslea* → *artikulu mugatua* → *artikulu espezifikoa* → *izen marka*

Gramatikalizazio bide honi jarraitzen zaion osagaiak urrats bat aitzina egin duenez hautemateko badaude zenbait zantzu. Adibidez, erakusleak, artikulu mugatua izatera pasatzean, balio deiktikoa galtzen du, hau da, aurreko diskurtsoan aipatu den izaki, egoera, denbora edo toki jakin bati erreferentzia egiteko gaitasunaz gabetzen da (Greenberg, 1978; Manterola, 2015: 14). Gainera, erakusleak, artikulu mugatu bihurtzean, bakarrik agertzeko ahalmena ere galtzen du, hots, izenarekin batean joan behar du nahitaez (Himmelmann, 2001: 833).

---

<sup>16</sup> Hopper eta Traugott-ek (2003: 1) honela definitzen dute gramatikalizazioa: «“grammaticalization” refers to that part of the study of language change that is concerned with such questions as how lexical items and constructions come in certain linguistic contexts to serve grammatical functions or how grammatical items develop new grammatical functions».

Aldiz, artikulua mugatua espezifikoki bihurtzean hiztunarentzat bakarrik ezaguna (eta entzulearentzat gehienetan ezezaguna) den izakiari erreferentzia egiteko aukera sortzen da. Azkenik, artikulua espezifikoa izen marka izatera iragan dela frogatzen duen aldaketa da artikulua mugatutasuna eta espezifikotasuna ezin adieraztea. Bestela esan, gramatikalizazioaren hondar urratsean artikulua ezin du adierazi izena hiztunarentzat, entzulearentzat edo biezat ezaguna dela (Greenberg, 1978). Horren ordez, batzen zaion osagaia izena dela erakusteko bakarrik balio du, eta horregatik deitzen zaio «izen marka». Beraz, gerta daiteke osagai hau duten hizkuntzetan izen sintagmari, izen marka ez ezik, erakuslea edo artikulua mugatua ere gehitzea, mugatutasuna edo espezifikotasuna adierazteko.

Hortaz, badaiteke IBren eskutizetako hizkeran, baita gorago aipatu diren Berakoan, Oartzungoan eta Hondarribia-Irungoan ere, euskara batuan artikulua mugatutzat ematen den *-a* (Trask, 2003: 118-119) izen marka bihurtua egotea. Hala balitz, espero genuke euskalki horietan *-a* erakusleekin sintagma berean agertzea. Nolanahi den, *-a* izen sintagman kiderik ukan gabe ere ager daiteke eta, horrelakoetan, antza denez, mugatutasuna adieraz dezake. Ikus, adibidez, 1811.04.04(B) gutuneko pasarte hau: «*Hau da urte honetako hemengo Belasko horren kontua*». Hemen *kontua*-k pasartearen aurretik aipatu denari egiten dio aipu eta, beraz, egilearentzat zein irakurlearentzat ezaguna (mugatua) da. Beraz, gramatikalizazioan oinarritzen den azalpena ez dator datuekin bat.

Izen sintagma berean bi mugatzailearen edo mugatzailearen eta izenordainaren presentzia azaltzeko hirugarren aukera gaztelaniarekiko ukipena da. Izan ere, gaztelaniaz sintagmako kide batek baino gehiagok hartzen dute pluralgilea: «*todo-s lo-s hierro-s*». Orobat, gaztelaniaz eta IBren gutunetan talde jokatzeko ez gauzatzea pluralgileekin gertatzen da, eta kasu markekin, berriz, ez. Hori kasualitatea izan liteke, baina *meak guziak* eta bestek —gorago esan bezala, «*meak, guziak*» puntuatu behar ez bada, bederen— gaztelaniaren eraginaren ondorio direlako ikuspegia bermatzen dute.

### 5.3.7. Genero komunztadurarik eza

Orain arte egin diren ikerketen arabera, ukipenak genero gramatikala markatzean eragin handia izan dezake (Thomason, 2001: 84–85, 86–87). Hala ere, zehaztu beharra dago kontaktuan dauden generodun mintzairek generoa galtzea ohikoagoa dela, ez dutenek garatzea baino, izan ere tasun hori agertzea barne kontua izan ohi baita, ukipenarekin zerikusirik ez duena (Corbett, 1991: 137-142; Igartua, 2019: 183). Generoa galtzea, berriz, bestelako zenbait sinpletze prozesurekin agitzen den eran, hizkuntza guztiz ongi ez ikastearen

ondorioa bide da (McWhorter, 2007: 69) eta, horregatik, bigarren atalean aipatu den inposatzearekin edo interferentziarekin (Thomason eta Kaufman, 1988: 38; Guy, 1990: 48) lotu behar da. Halaber, genero marka jasotzen duten osagaien artean komunztadurarik ez izatea, hau da, osagai guztiek genero marka berak ez erakustea edo genero markarik ez ukaitea, gramatika kategoria horren ahultzearen edo galtzearen zantzutzat interpreta daiteke.

IBk gutun hauetan gaztelania darabilen pasarteetan genero komunztadura ez da aldiro gauzaten. Komunztadurarik eza batez ere adjektiboetan ikus daiteke (10a-d), baina baita partizipioetan (10e) eta mugatzaileen aukeran (10f) ere.<sup>17</sup>

10a. **Propia castañal**, *junto de Surue*.<sup>18</sup>

10b. *Mando batekin egurra karraiazan*, **media día**.

10c. *Guzitara sartu dituan egunak ditu*, *berak jana duela*, **6 días y media**.

10d. *Arragoarako egurretan sartuak bi mandorekiñ egun erdi bat*, **media día**.

10e. **Dinero dada** *Lamote*.

10f. *Enero abono en cuenta del labor 7 pezetas 1 real 20 de ragoas en cuenta corriente*.

Interesgarria da ikustea JBMk ere han-hemenka genero bera ez duten sintagma bereko izena eta adjektiboa erakusten dituela baina, hori bai, izen arrunt maskulinoekin gehienbat eta, zehazki, «*en otra papel*» esamoldean (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021b: 333).

### 5.3.8. Adposizioen ezohiko erabilera

Bergarak olajaunari igortzen dizkion gutunetan ikus daitekeen beste ezaugarri bat, ukipenari zor bide zaiona, adposizioen erabilera da. Haren hizkeran batik bat *ondoan*, *ondotik* postposizioarekin izenak edukitzen duen hondarkia *-ko* da, eta *ez*, euskara batuan espero izatekoa den eran, *-(r)en* genitiboarena edo hondarkirik eza (11a-e).

11a. *Hoietaz gañera*, **Gañzingo ondoan** *egina baditu meak*.

11b. *Fermin de Zubeldia Tranpa horrek Berdabioko ondoan* *egin dituan ikatz guziek dirade honara etorri diranak*.

<sup>17</sup> Azken bi adibideak (10e-f) JBMren oharretan jasoak dira, eta hori esanguratsua da, olajaunak genero nahasketaren adibide gehiago baititu gaztelaniaz.

<sup>18</sup> Adibide hau zalantzazkoa da, hemen ere sintagmaren osagaietako bat aposizioan izan baitezakegu: «[suerte] *propia*(,) *castañal*».

- 11c. *Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, Suruako ondoan egiñ dituen meak, bere propioak baditu...5 quintales, 2 arrobas ½.*
- 11d. *Demandako meatzeko ondotik ekarri diranak dituzte...65 quintales, 2 arrobas.*
- 11e. *Horra Jose Migel Portalezekoaren ikatz guzien asentua, Txaradiko ondotik ekarri diranena.*

Bestalde, *ondoan*, *ondotik* denborazko (ez lekuzko) postposiziotzat erabiltzen denean edota izena bizigabea denean —honetaz ikus Euskaltzaindia (1987a: 283-284)—, badirudi IBk nahiago duela oinarriari hondarkirik ez erantsi (12a-b):

- 12a. *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak [...], baña jai ondoan ere ikatzetan ebili beharko zutela puxkaren batean.*
- 12b. *Eta beste Pazko ondoan hasi giñan txabal haietatik juan dira...46 quintales, 2 arrobas ½, 383 barras.*

Hemen kontaktuarekin lotu badugu ere, badaiteke Goizuetan XVIII. mendearen hondarrean eta XIX.aren hasieran *-ko ondoan*, *ondotik* esamoldea erabiltzeak ukipenarekin zerikusirik ez izatea. Izan ere, oraino Iparraldeko eta mugaren inguruko zenbait euskalkitan ohikoa da (Camino, 1997: 404, 63. oin oharra; Montoya, 2004: 148-149; Kamino eta Salaberri, 2007: 149), eta pentsa daiteke, beraz, garai hartako euskararen ezaugarri hori egun baino hedatuago zegoela. Gauza bera gertatzen da *ondoan*, *ondotik* postposizio hutsaren denborazko erabilerekin, horrelakoak gainerako euskalkietan ere ibili eta ibiltzen baitira, eta ez baitira erromantzearen hitzez hitzeko baliokideak.

Nolanahi ere den, Bergarak euskarazko *-ko ondoan* esamoldearen gaztelaniako ordaina ere era berezian ibiltzen du: *junto a* preposizio lokuzioaren ordez, *junto de* kausitzen dugu beti (13a-e). Badirudi horrelakoak euskarazko *-ren ondoan* dutenen ordez ibiltzen dituela eta, hortaz, euskarazko *-ko ondoan* eta gaztelaniako *junto de* esamoldeen artean lotura izan daitekeela:<sup>19</sup>

- 13a. **Junto de Belzunza.**
- 13b. *Propia castañal junto de Enazti.* (9 aldiz gutun berean)
- 13c. *Propia castañal junto de Agoña.*
- 13d. *Suerte de Goizariñ, junto de Epela.*
- 13e. *Domingo Bizente y su hermano Suerte de Añarbe, junto de Agoña.*

---

<sup>19</sup> Bi egituren arteko esteka izan daitekeela onarturik ere, ez dago garbi zein den mailegatzearen norabidea. Bi egiturak antzekoak dira, eta lotuta egoteko itxura dute, baina ez dute garapen diakronikoari buruzko zantzurik erakusten. Horrelako ukipenaren eraginei «konbergentzia» deitu ohi zaie (Bollée, 2007 [1982]: 392).

Ohart bedi hemen irakurlea *junto de* preposizioa gaztelaniaren historian zenbaitetan erabili dela, baina bakarrik XIV-XVII. mendeetan; testigantzarik berriena 1605. urtekoa da (RAE, 1994). Gainera, guk gure aldetik Nafarroan gaztelaniaz idatzitako hamaika dokumentu irakurri ditugu, eta XVI. mendetik hona ez dugu *junto de* duenik ediren. Hortaz, ez du ematen kasu honetan Bergara gaztelaniako forma zaharkitua erabiltzen ari denik.

Azkenik, aipatu beharra dago *en* preposizioa ere berez espero ez ditugun testuinguruetan erabiltzen duela JBM olajaunak (14a-b) bere gaztelaniazko oharretan, itxuraz euskarazko inesiboaren ordainez:

14a. *Mas la soldada de la hija en 12 años.*

14b. *Abono desde 1 junio de 1808 asta 1 de junio de 1819 dos años de soldada a 142 pezetas en cada un año.*

Euskarazko eta gaztelaniazko esapide baliokideak erabiltzeak iradokitzen du, testuingururik gabe sailkatzen eta interpretatzen zailak izanagatik, ukipenarekin lotuta daudekeela.

### 5.3.9. Kalko semantikoa

Crystal-en (2008: 64) arabera, *kalkoa* hizkuntzen arteko ukipen egoeran burutzen den mailegatze mota da. Gertakari hau zuzeneko mailegatetik bereizten da, ez delako A aldaeratik B aldaerara hitz edo forma linguistiko bat zuzenean ekartzen. Aldiz, kalkoan B aldaerak A aldaerako esamolde baten esanahia kopiaetzen du, horretarako bereak dituen hitzak, erroak edota morfemak erabiliz. Hortaz, kalkoan ereduaren eramatzen da hizkuntza batetik bestera, eta zuzeneko mailegatzean, berriz, materiala (Matras eta Adamou, 2021: 238); materialaren eta ereduaren arteko bereizketari buruz xehetasun gehiago 4. atalean ematen dira.

Kalkoaren bi adibide ingeleseko *power politics* ‘botere politika’ eta *superman* ‘supergizona’ dira; esanahi bera duten alemaneko *Machtspolitik* eta *Übermensch* esamoldeei kopiatuak dira, hurrenez hurren (Crystal, 2008: 64). Adibideek erakusten duten moduan, alemaneko *Macht* ‘boterea’ ingeleseko *power* hitzarekin itzuli da, *Politik* ‘politika’ *politics* ordainaren bidez, *über* ‘gain’ *super* baliokidearen bitartez eta, azkenik, *Mensch* ‘gizakia’ *man* irauli da. Beraz, alemaneko esamoldeen esanahia ingelesera kopiatu da, baina horretarako ingeleseko eleak erabili dira, ez alemanekoak.

Kontu eztabaidagarria bada ere, IBren gutunetan gure ustez kalko semantikoa islatzen duen erabilera ikusi dugu, *denbora* hitzarena hain zuzen ere (15a-e):

- 15a. *Itzai hoiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño.*
- 15b. *Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut.*
- 15c. *Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.*
- 15d. *Buruzuriak kiñtal bana burnia eramanen dutela, denbora onzen badu.*
- 15e. *Egiñeñ degu tellatuan egiñ dezakeguna igandean ola hasitzeko, baña ikatza ekarzeak lanak emanen ditu denbora hau honela bada.*

*Denbora* elearen kariaz, OEHk aipatzen du ‘eguraldi’ esanahiarekin erabiltzea ohikoa izan dela euskalki gehienetan, eta batez ere Iparraldean eta Nafarroa Garaian; mendebaldean eta erdialdean ere lekukotzen da, baina askoz gutxiagotan eta, oro har, adibideak oso berriak dira. Aldiz, erdialde-ekialdean lehen testuetatik lekukotua dago *denbora*-ren ‘eguraldi’ esanahia. Goizuetari dagokionez, IBk badarabil ere, gaur egun ez da ohikoa (ikus, gainera, EHHA). Horregatik, ondorioztatu behar dugula dirudi gutunetan ikusten duguna gaztelaniako *tiempo* ‘denbora, eguraldia’ kalkatzearen emaitza dela. Hau, dena dela, *-ko ondoan, ondotik* eta beste gauza batzuk bezala, Iparraldekoekiko harremanen ondorioa izan liteke. Egun Goizuetan ibiltzen ez diren erak badira JRMren eta IBren gutunetan (*anitz* adibidez). Hau ondoko Lesakatik hartuko zuketean, apika.

Orain arte aipatu direnez gain, bada kalko semantikoa izateko itxura duen beste adibide bat IBren gutunetan, kasu honetan euskaratik gaztelaniarako: JBMren gaztelaniazko oharren artean (1793.10.04ko gutunean) «*en la ría de Urraide*» esamoldea kausitzen dugu. *Urraideko lepoa* berez Añarbe ibaiaren ondoan dagoen mendi lepoaren izena da (ikus liburu honetako onomastikaren inguruko atala), eta gaztelaniaz *ría* hitzak ‘itsasadarra’ esan nahi du. Inguru horretan ez dago inolako itsasadarrik eta, hortaz, badirudi hemen JRM *Urraideko erreka* edo antzeko zerbaite gaztelaniara egokitzen ari dela, erdarazko hitzak erabiliz, hots, kalko semantikoaren bitartez.

### 5.3.10. Mailegatzea

Atal honen hasieran aipatu da mailegatzea ukipenak bultzatutako aldaketa motarik ohikoenetarikoa dela. Ondorioz, eta orain arte zerrendatu diren kontaktua bestelako eraginak ikusita, ez litzateke miresteko Bergararen gutunetan maileguak kausitzea. Hori da, hain zuzen, dakusaguna: gaztelaniatik euskarara eta, neurri franko txikiagoan, euskaratik gaztelaniara mailegatzen



ditu gutunen egileak hitzak. Ohart bedi irakurlea, hori bai, eduki semantikoa duten eleak besterik ez dela hartzen, hots, izen arruntak (16a-b), izenordain zehaztugabeak (16c) eta adberbioak (16d-h), testuari lotura emateko balio dutenak eta, berez, lotura hori erdiesteko beharrezkoak ez direnak.<sup>20</sup>

- 16a. **Carretero** *Martxaren suña.*
- 16b. *Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hogei eta bi berga; horra kamaren **muestra**.*<sup>21</sup>
- 16c. *Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egintako jornala, bi erreal, eta Manuel horren suñari **lo mismo** tokatzen zaio.*
- 16d. *Nik bigar goizean jua nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ **porsiokaso** juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearenzat.*<sup>22</sup>
- 16e. *Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, **solo** ez dakit ziertoa den, eta baldin egia bada, **naturalmente** izan laiteke horrara agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea.*
- 16f. *Erremienta egiten eta hemen sartu dituzten egun guziak hor dira, **solamente** atzokoa ez dut paratu.*
- 16g. *Porfiñ nere jubizioa hau egiten dut honela, eta ageriko da.*
- 16h. *Egiñen degu kuadroa, baña burñitxo Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanen. **Enfiñ**, nik esanen diotet.*

IBk horrelako hitzak mailegatzearen arrazoia izan daiteke kulturaduna dela erakustera eman nahi izatea, Nafarroako erlijio testuetan agitzen den moduan (honetaz ikus Mitxelena, 1984: 96-97). Hori bai, gaztelaniako maileguak euskaratzea bestelako arrazoiengatik gertatzen zela ere aipatu da; Iriartek (2022: 95), adibidez, argudiatzen du Lizarraga Elkanokoak halakoak eskolagabeei zuzentzen zitzaielako ibiltzen zituela, gauzak hobeki uler zitzen. Zernahi gisaz, Lizarraga gaztelaniatik itzultzen ari zen, Iriartek berak

<sup>20</sup> Gutunen egileak interjekzioen edo biraoren bat ere badakar, adibidez: «*Moduren batera sobra da, mal pecado!*» Horrelakoak usaiakoak dira bestelako euskal testu zaharretan, menturaz euskararen eta erdararen egoera diglosikoaren ondorioz. Ikus, gaiaren inguruan, Mitxelena (1984: 21), Salaberrri eta Zubiri (2007).

<sup>21</sup> OEHk erakusten duen moduan, *mostra, muestra, mustra, monstra* mailegua garai eta euskalki askotan lekukotzen da eta, beraz, ezin har daiteke IBren berezitasuntzat. Gutunek *muestra* eta *mostra* aldaerak dakartzate, baina adiera bana dutela ematen du. Ikus hiztegiari eskaini atalean *mostra* eta *muestra* sarrerak.

<sup>22</sup> Iduri du IBk *porsiokaso* mailegua baldintzazkoen eta kontzesiboen arteko gurutzaketa diren perpausetan ibiltzen duela, *baldiñ* eta *ba-* baldintzazko menderagailuekin eta *ere* adberbioarekin agertzen baita. Baliteke maileguaren jatorrizko baldintzazko esanahiak ('badaezpada ere') erabilera horretan eragina izatea. Ikus hiztegiaren eta joskeraren ataletan hitz honen inguruan dioguna.

dioenez (*ibid.*), eta horrek, ez dago zalantzarik, erdarazko ele eta egitura anitz erabiltzera bultzatu eta eraman zuen.

Bestalde, Bergararen idazteko era eta gaztelaniatik mailegatzeko joera sarreran aipatu den filologiaren ikuspuntutik azter daitezke. Gai honen kariaz, gaztelaniaren eta alemanaren tradizioan bi idazle mota bereizi dira: «*jantziak*» eta «*erdi jantziak*». Alde batetik, historiarekiko eta historiografiarekiko interesa duten idazle profesionalak daude, idazteko trebetasuna eta esperientzia dutenak, eta testuak lan emaile baten enkarguz idazten dituztenak: ofizial, idazkari, eskribau, kronikagile eta historialariak izaten dira maiz (Oesterreicher, 1994: 158). Beste aldetik, kultura gutxi(ago)ko idazleak daude, literaturan prestakuntzarik ez dutenak, beste ogibide bat dutenak, izkiriatzeko trebetasun gutxi dutenak eta, ondorioz, idatzizko generoak eskatzen duen erregistroa (ongi) ezagutzen ez dutenak (*ibid.*, 1996: 324-325).

Idazle erdi jantziek testuetan komunikazio hurbiltasuna erakusten duten adierazpenak erabiltzen dituzte, hau da, ahozko mintzairan ohikoagoak direnak, hala nola komunztadura akatsak, anakolutoak, elipsiak, holofraseak eta dislokazio sintaktikoak (Oesterreicher, 1994: 165). Orain arte eztabaidatu diren IBren eta JBMren mintzairako zenbait ezaugarri, eta orobat beste batzuk, ahozko hizkeran ardurakoak diren adierazpenen kategorian sailka daitezke, besteak beste, talde jokatzeko murriztua (5.2.6), genero komunztadura eza (5.2.7) eta adposizioen ezohiko erabilera (5.2.8). Gainera, idazle erdi jantziek idatzizko erregistroaren araukiko segurtasun falta izaten dute, eta horrek gehiegizko zuzenketak egitera eramaten ditu. Gutunen egilearen kasuan, bokal protetikoen erabilera (5.2.1) eta atzerantzko osaera (5.2.3) gehiegizko zuzenketatzat har daitezke. Oro har, gutunak horrelako ezaugarrien erakusle onak izan ohi dira (Oesterreicher, 1996: 325). Hortaz, iduri du Ignazio Bergara idazle erdi jantzien ezaugarriekin nahiko ongi bateratzen dela, eta halaber Juan Bautista Minondo olajauna.

Hiztun elebidunen testuetan egileek eskuarki ez dute eredu zko erregistrorik izaten eta, ondorioz, eredu zkoak ez diren aldaerak ibiltzen dituzte bi hizkuntzetan. Sarritan bi mintzairaren arteko nahasketa izaten da emaitza (Oesterreicher, 1996: 326). Beherago eztabaidatzen ditugun transferentzia (5.2.11) eta kode txandaketa (5.2.12) hizkuntza nahasketatzat jo daitezke. Aurrekoa jakinda, pentsa daiteke gaztelaniatik euskarara mailegatzea, kultura erakutsi nahi izateaz gain, Bergararen ezaugarriengatik gertatu dela.

Euskaratik gaztelaniarako maileguez kestone, IBk izen arruntak bakarrik hartzen ditu, bere ogibidearekin lotzen direnak (17b-c). JBMk ere mailegatzten du, inoiz, izen arrunt bat, JRMren eskutitzetan (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021a: 155) eta IBrenetan ikusten den bezala:

- 17a. *En la lantegua de Alzate 2 agosto 1797 abone 15 pesos.*  
 17b. *Menas negras de Basaionegui hechas en la lantegua que trabaja hijo Basilio Anzizar.*<sup>23</sup>  
 17c. *Asta S Marco savado...15 zamas.*

### 5.3.11. Hitz hurrenkeraren transferentzia

Aurreko ataletan azaldu den moduan, hitz, morfema edo erro bat aldaera batetik bestera zuzenean eramateari ‘mailegatzea’ deitu ohi zaio, eta esamolde baten esanahia egokitzeari, berriz, ‘kalko semantikoa’. Bada ukipenaren ondorioz izan daitekeen hirugarren eragin linguistiko bat, *transferentzia* hain zuzen ere; transferentziaz mintzatzen gara hizkuntza batetik bestera gramatika arau bat edo, bestela esan, egiturazko ezaugarri bat igarotzen denean (Thomason 2001: 11). Egiturazko ezaugarriok semantika eta hiztegia ez diren gramatikako beste edozein eremutakoak izan daitezke, hau da, fonologiakoak, morfosintaxikoak eta abar.

IBren gutunetan bada gutxienez hitz ordenaren adibide bat, euskararen ohiko hurrenkerarekin bat ez datorrena: euskaraz *gehiago* eta beste konparaziozko egituretan erkatzen den entitatearen eskuinean agertzen dira (Euskaltzaindia, 1987a: 187-188). Hala izaten da eskuarki IBren beraren euskaraz: (18a) esaldian *gehiago prezio*-ren eskuinean agertzen da, (18b) adibidean *ikatz* hitzaren ondoren eta (18c) perpausean *mea* izen arruntaren hurren. Aldiz, (18d)-n *gehiago* alderatzen den *pinterdi bat ardo* sintagmaren ezkerrean heldu da.

- 18a. *Nik esan diot ea zer preziotan izanen diran, hemen ez dela len baño prezio **gehiago**.*  
 18b. *Ba orduan baño ikatz **gehiago**, ikatz **gehiago** orañ ez dela nago.*  
 18c. *Ez dute hill honetan **mea** **gehiago** izanen.*  
 18d. *Honek badu **gehiago** pinterdi bat ardo.*

Euskaraz hitz hurrenkerak malgutasun zerbait erakusten badu ere —ikus, kontu honen inguruan, hitz hurrenkerari buruzko atala—, adjektibo alderatzailea eta entitatea tokiz aldatzea ez da, oro har, zuzena. Gaztelaniaz, berriz, adjektibo konparatiboak alderatzen den entitatearen ezkerrean agertzen dira. Horrek iradokitzen du (18d)-n ezohiko hurrenkera hori izatearen arrazoia gaztelaniarekiko ukipena dela, hau da, hitz ordena gaztelaniatik euskarara

<sup>23</sup> Adibide honetan, *la lantegua* mailegua ez ezik, *bijo* ere modu berezian darabil IBk, izan ere *el hijo de* izango bailitzateke hemen usaiako erabilera. Badaiteke euskarak erabilera horretan eragina izatea.

transferitu dela. Gainera, iduri du adibide horretan IBk, gaztelaniaren antzera, *gehiago* adberbioa *gainera* lokailuaren adierarekin darabilela, hau da, hor ‘este tiene más / además [de lo que se ha dicho] media pinta de vino’ esan nahi duela. Hala izatekotan, hitz hurrenkeraren transferentziaz landa kalko semantikoaren beste adibide bat ere izango genuke hemen.

### 5.3.12. Kode txandaketa

Gaiaren inguruko ikerketetan azpimarratu da zaila dela kode txandaketa mailegatzetik bereiztea. Zenbait ikertzailearen arabera, bi gertakarien arteko aldea funtsean hau da: IHtik HHra mailegatzten diren osagaiak HHaren lexiko orokorrean sartu dira, hau da, HHeko elebidunek zein elebakarrek erabiltzen dituzte, eta kode txandaketan erabiltzen direnak, ordea, ez; alegia, elebidunek bakarrik ibiltzen dituzte (Myers-Scotton, 1993: 163). Beraz, espero izatekoa da mailegatu diren osagaiak HHaren gramatika arauetara —fonologiakoei, morfologiakoei eta abarri— egokitzea. Irizpide horren arabera, 5.2.10 atalean aipatu diren *porfiñ*, *enfiñ* eta *la lantegui*a mailegutzat har daitezke, HHra egokitu direla ikusten baita, HHaren ezaugarri fonologikoak eta morfosintaktikoak baitituzte: bokal sabaikariaren ondoko sudurkariaren bustidura euskararako maileguetan,<sup>24</sup> eta maileguari generoa esleitzea eta esleipen hori artikulatu definituan islatzea, gaztelaniarakoetan. Alabaina, Myers-Scotton-ek (1993: 163-164) berak aipatzen du maileguak kode alternantziaren eraginetik bereizteko orduan egokitze mailari ohartzeak emaitza nahasiak izaten dituela eta, hortaz, ez dela irizpide fidagarria.

Beste ikertzaile batzuek bestelako irizpideak darabiltzate: Deuchar-en (2020: 2-3) arabera, IHtik datozen formak HHaren erreferentziazko hiztegi(et)an zerrendatuta badaude, mailegutzat har daitezke; bestela ez. Lipskiren (2005: 6) arabera, berriz, maiztasuna da irizpide fidagarri bakarra: elkarrizketan maileguak gehiagotan erabiltzen dira; kode alternantzian, aldiz, forma aniztasun handiagoa dago eta, hortaz, forma bakoitza gutxiagotan erabiltzen da. Ikertzaile horietako lehenari kasu eginez gero, *porfiñ*, *enfiñ* eta *la lantegui*a ez dira mailegutzat hartzen ahal, ez baitaude, hurrenez hurren, Euskaltzaindiaren eta RAEren hiztegietan zerrendatuta. Bigarrenari kasu eginez gero, ordea, mailegutzat eman daitezke, IBk gutunetan maiz ibiltzen dituelako. Aintzat har bedi, hori bai, maiztasunarena kontu erlatiboa dela.

<sup>24</sup> Halarik ere, IBk *en fin* eta *por fin* <ñ>-rekin idaztea kontu grafiko hutsa izan daiteke (ikus grafiari eskaini atalean dioguna).

Nolanahi ere den, aipatu berri diren irizpideetatik egokitze maila eta maiztasuna neurri batean segurik aintzat har daitezke, IBren gutunetako ukipenaren eraginak aztertzeko tenorean. Izan ere, testuak IHko formaz josita daude (19a-d).<sup>25</sup>

- 19a. *Aranaztar Danboliñaren meakari horiek 3 de juniotik hasi eta honaraño Basaianegitik, beren meatzetik etorri diran meak dirade... 84 quintales, 4 arrobas.*
- 19b. *Aurten Epelean egin dituzten mea guzietatik dirade 119 quintales, 4 arrobas, llebarik gabe gaur pisatuak.*
- 19c. *Olaundiko boba egiten... 1½ días 13 septiembre semana... 11 agoas eta kabiguña sartua 20 septiembre semana... 16 agoas.*
- 19d. **Hasta 18 de marzotik hasi eta honarano (sic) eginak dituzte 110 quintales, 1 arroba.**

Oro har, ematen du kasu gehienetan IBk euskaraz idatzi ataletan kopuruak eta datak gaztelaniaz erabiltzen dituela. Horrek daukan prestakuntzarekin bide du zerikusia, hau da, kopuruak eta datak gaztelaniaz ikastearekin; egun ere euskaldun eskolagabe frankok, adinekoek, eskolan gutxi ibili direnek eta ibili direnean gaztelaniaz ikasi dutenek kopuruak eta datak erdaraz ematen dituzte. Aldi berean, gaztelaniazko formak zenbait funtziotarako baizik ez hartzeak iradokitzen du hemen aztergai ditugun egiturak kode alternantziaren emaitza direla, eta ez maileguak.

Bestalde, kode txandaketaren barruan bereizketa hau egin ohi da (Poplack, 1980: 615): elkarrizketa bereko esaldi bat hizkuntza batean egin daiteke, eta bestea bestean; kasu horiei esaldi batetik besterako kode alternantzia deitzen zaie. Horrekin batean, ordea, esaldi beraren barruan atal bata hizkuntza batean egin daiteke, eta bestea bestean. Horrelakoei esaldi barneko kode alternantzia deritze. Gorago eman diren adibideak ikusita, iduri du IBk gehienbat esaldi barneko kode alternantziara jotzen duela.

---

<sup>25</sup> Atal honetan aipatu diren adibideez landa, badira datak ematean gaztelaniako *semana* hitzari *de* atxikitzen zaion kasuak, «1803 Carretero Antonio de Arotzena cuenta marzo 26 de semana», esaterako. Ez dago garbi horrelakoetan IBk zer adierazi nahi duen eta, hortaz, zaila da ukipenaren eraginaren ondorio ote diren zehaztea.

## 5.4. EUSKARA-GAZTELANIA UKIPENA KONTAKTU TEORIAREN ARGITAN

Aurreko atalean aztertu diren kontaktuaren eraginak bi xedetarako izan daitezke baliagarriak: alde batetik, IBk eta, hedaduraz, IBren garaiko eta eremuko gizarteak bizi zuten ukipen egoera deskribatzen lagun dezakete. Beste aldetik, hizkuntza kontaktuaren inguruko teoriari ekarpenen bat egin diezaioke. Bi xedeak erdiesteko modu bat eraginak orain arte proposatu diren mailegatze eskalen edota tipologiaren arabera sailkatzea da.

Mailegatze eskalaren adibide ezaguna Thomason eta Kaufmanek (1988: 74-76) proposatzen dutena da. Sailkapen horren arabera, kontaktuak eragindako aldaketak bost mailatan bana daitezke, haren intentsitatearen arabera:

(a) *Aldi bateko ukipena*: mailegatze lexikoa bakarrik gertatzen da. Eduki semantikoa duten hitzak mailegatu dira, hots, izen arruntak, aditzak, adberbioak eta abar. Oinarrizko hiztegiaren sartzen den eduki hitzik ez da hartzen, ez eta funtzio hitzik ere.

(b) *Intentsitate gutxiko ukipena*: hitzak ez ezik gramatika egiturak ere har daitezke. Lehen kasuan, eduki semantikoa duten hitzak bakarrik ez, funtziozkoak ere har daitezke, funtsean lokailuak eta partikulak. Bigarren kasuan, soinu berriak daramatzaten egokitu gabeko maileguak ager daitezke IHan, baita IHaren egiturari eragiten ez dioten funtzio edota banaketa sintaktikoak eta semantikoak ere.

(c) *Intentsitate handiagoko ukipena*: edukizko eta funtziozko hitzak mailegatzeaz landa, HHko hiztunek maileguetako eratorpen hizkiak identifikatu eta HHko hiztegiara heda ditzakete. Orobat, kasu batzuetan, flexiozko hizkiak. Oinarrizko hiztegiaren hitzak hartzeko aukera handiagoga dago, adibidez pertsona izenordainak, erakusleak eta hamarretik beherako zenbakiak. IHko fonemak, arau fonotaktikoak eta prosodikoak ere igaro daitezke HHra, baina maileguetan bakarrik. HHaren egiturarekin erabat bat ez datozen ezaugarriak ere mailega daitezke.

(d) *Presio kultural handia*: HHak aldaketa nabarmenik sortzen ez dioten gramatika egitura osoak beregana ditzake IHtik. IHko fonemak, maileguetatik haratago, HHaren jatorrizko hiztegiara heda daitezke. Oro har, IHko arau fonotaktikoak eta morfonemikoak egokitzen zaizkio HHari, bustidura edota trabakariaren ahoskabetzea, esate baterako. Hitz hurrenkera alda daiteke, eta flexio hizkiak eta IHko kategoria gramatikal osoak ere mailega ditzake HHak.

(e) *Presio kultural oso handia*: HHaren egituraren eragin handia duten ezaugarriak mailegatu dira, HHak arau morfonemikoak eta kontraste

fonemikoak galtzen ditu, eta hitzak sortzeko baliabideak IHkoei egokitzen zaizkie. Funtsean, ia edozer mailega diezaioke IHk HHari.

IBk gutunetan erakusten dituen ukipenaren eraginak Thomason eta Kaufmanen (1988: 74-76) tipologiaren arabera sailkatzea ez da erraza. Izan ere, gramatikako alderdi guztietan (fonologian, morfologian, syntaxian, hiztegian) ikusten dira aldaketak, baina aski azalekoak iduri dute. Mailegatzea lexikoa da, eta ez dago euskaratik gaztelaniara edo alderantziz igaro den hizkirik; gainera, mailegatzen diren eleak ez dira oinarritzko hiztegiokoak. Horregatik, azken hiru aukerak (*c*, *d*, *e*) zalantzarik gabe bazter daitezke. Nolanahi ere den, testu antolatzaile funtzioa duten zenbait adberbio gaztelaniatik euskarara mailegatu direla (ikus 5.2.10 atala) aintzat hartuta eta, berebat, euskarazko soinuak egokitzeko baliabidea (ikus 5.2.1 atala) gaztelaniara hedatu dela jakinda, IBk bizi duena intentsitate gutxiko ukipen egoera dela argudia daiteke, aldi bateko ukipenaren eta intentsitate gutxiko kontaktuaren arteko egoera ez bada bederik.

Ukipen ahul horren arrazoia IBk euskara eta gaztelania berdin ongi ez jakitea izan daiteke. Zeren, adibidez, gutunen egileak *cantero* ibiltzen baitu, baina ez hitz horrek gaztelaniaz duen ‘hargina’ esanahiarekin, baizik eta ‘pegarra’ adierarekin. Antza denez, Bergarak *cantero* ‘hargina’ eta *cántaro* ‘pegarra’ hitzak nahasi ditu, eta horrek iradokitzen du haren gaztelania ez zela goren mailakoa.

Aintzat eduki bedi, hori bai, ukipenaren eragin handiagoa ez ikustea ez dela nahitaez ukipen egoera ahula izatearen ondorioa. Kontaktu teorian askotan eztabaidatu den moduan (adibidez Weinreich, 1953: 33), badaiteke euskararen eta gaztelaniaren egitura desberdinak, hau da, bien arteko distantzia tipologikoak mailegatzea neurri batean murriztu izana, ukipen egoera estua izanik ere.

Hizkuntzen arteko elkarbizitzaren ondorioz sortzen diren aldaketak sailkatzen ahalegintzen den beste egile bat Gardani (2020: 270-272) da. Thomason eta Kaufmanena (1988) ez bezala, sailkapen hau ez da ukipenaren intentsitatean oinarritzen, baizik eta mailegatzen den gramatika eremuaren (fonologiaren, morfologiaren eta abarren) bereizketan, batez ere Sakelek (2007) eta Matras eta Sakelek (2007) egiten duten materiala mailegatzearen, eredia mailegatzearen eta materiala eta eredia mailegatzearen arteko banaketan. Hau proposatzen du Gardanik (2020: 270-272):

(a) Materiala mailegatzea

(a1) Formak mailegatzea: soinuak, morfema hutsak.

(a2) Soinua bereizteko balio dezaketen formak mailegatzea: fonemak, tonuak.

- (a3) Balio semantikoak eta gramatikala izan dezaketen formak mailegatzea: flexio morfemak, balentzia aldatzen dutenak, kategoria aldatzen dutenak, hiztegia hedatzeko balio dutenak eta beste.
- (b) Eredua mailegatzea
  - (b1) Balio semantikoak duten ezaugarriak edota ezaugarrien balioak mailegatzea: «morfemak», flexio klaseak, numero bereizketak, kasu balioak, denbora-aspektu-modu balioak eta beste.
  - (b2) Baliabide abstraktuak mailegatzea: prozesu fonologikoak, fonema bereizketak, ezaugarri prosodikoak, hitzak sortzeko baliabideak, egitura perifrastikoak eta abar.
  - (b3) Baliabide edota formen ezaugarri abstraktuak mailegatzea: emankortasuna, aldakortasuna, maiztasuna.
  - (b4) Gramatikaren antolakuntzarekin eta banaketarekin zerikusia duten ezaugarriak mailegatzea: murriztapen fonotaktikoak, arau morfotaktikoak, hitz kategoriak, perpaus motak, sintaxi mailako banaketak eta beste.
- (c) Materiala eta eredua mailegatzea
  - (c1) Ezaugarri semantikoak eta gramatikalak adierazten dituzten hizkiak eta hizkion balioak mailegatzea: flexio klaseak, numeroa, kasua, denbora, aspektua, modua, animazitatea eta abar.
  - (c2) Tresna abstraktuak eta tresnon gauzatzeko estrategiak mailegatzea: hitzak sortzeko eskuarteak, hizkiekin batean; egitura perifrastikoak, baliabide morfosintaktikoak eta sintaktikoak.
  - (c3) Gramatikaren antolakuntzarekin eta banaketarekin zerikusia duten ezaugarriak eta ezaugarrien gauzatzeko estrategiak mailegatzea: hitz kategoriak, perpaus motak eta beste.

Sailkapen honetako hainbat alderdi dira aipagarri, IBren hizkuntzari dagokionez: murriztapen fonotaktikoak mailegatzen ditu (5.2.1 atala), eta orobat hitzak sortzeko arauak (5.2.3), balio semantikoak duten ezaugarriak eta ezaugarrien balioak, kasu honetan, postposizioekin (5.2.4) eta zenbatzaileekin (5.2.5) agertzen diren kasu markak, ezaugarri morfosintaktikoak (5.2.6, 5.2.7 eta 5.2.11), kalko semantikoak (5.2.9) eta maileguak (5.2.10). Hala ere, ez du ematen soinu arrotzik mailegatzen duenik (5.2.2 atala), eta adposizioen ezohiko erabilera (5.2.8) zaila da Gardaniren (2020) sailkapenean kokatzen. Oro har, ondoriozta daiteke IBk materiala zuzenean hartzen duen baino gehiagotan mailegatzen dituela ereduak, materialarekin batera edo, gehienetan, materialik gabe. Ez du ematen, gainera, aurreko atalean zerrendatu diren kontaktuak bultzatutako aldaketak tipologiaren aldetik bereziak direnik.



## 5.5. ONDORIOAK

Atal honetan Bergarak izkiriatzean erakusten dituen euskara-gaztelania ukipenaren eraginak deskribatzeko saioa egin da. Gaia konplexua dela erakutsi da, hizkuntza formak kontaktuaren ondorio ote diren erabakitzea usu testuinguruaren eta, hortaz, interpretazioaren araberakoa baita. Lehenik eta behin, argudiatu da IBk euskararen gramatikako alderdi guztietan eta gaztelaniakoaren eremu zenbaitetan erakusten dituela ukipenaren eraginak; desberdintasun horrek iradokitzen du gutunak idatzi ziren testuinguruan gaztelaniak zuela nagusitasuna. Hala ere, badaiteke horrek Bergararen prestakuntzarekin eta idazteko ohiturarekin zerikusia izatea, gaztelania kontuak ateratzeko eta datak emateko orduan erabiltzen baita, baina ez bestelako funtzioetan. Bestalde, gutunetan ukipenarekin lotutako hainbat mekanismo (mailegatzea, kode aldaketa, interferentzia edo inposizioa) antzeman badaitezke ere, eraginak axalekoak direla ematen du.

Bigarrenik, ukipenaren eraginak kontaktu egoerei eta efektuei begira egin diren proposamenen argitan aztertu dira. Proposatu da aldaketa mekanismoek ukipen egoera garbia erakusten dutela, baina euskararen eta gaztelaniaren arteko kontaktua ez dela, antza, oso handia. Azkenik, argudiatu dugu IBk gaztelaniatik euskarara eta alderantziz gehienbat ereduak eta ereduak eta materiala batera mailegatzen dituela, baina ez material hutsa. Horretaz gain, erakutsi da ukipenaren zenbait eragin, batez ere postposizioekin erabiltzen den kasua eta postposizioen beren ezohiko zenbait erabilera, ukipen tipologiaren arabera sailkatzen zailak direla. Zailtasun horrek, hein batez, tipologiak berrikusi beharrak direla iradokitzen du.

## 6. ONOMASTIKA GAIAK

### 6.1. SARRERA

Ignazio Bergararen gutunak irakurtzen dituena fitexko ohartzen da mota bateko eta besteko izenek idazkiotan duten garrantziaz, karraiadoreak, itzainak, igeleak, meailleak, urtzaileak eta beste identifikatu behar direlako, egindako lanaren edota espensaren asentua paratu edo kontua errendatu ahal izateko. Lan lekua ere munta handikoa da gauza hauetan, pentsatzekoa zenez, eta, horregatik, hainbat toki izen edireten ditugu.

Ponte izen «neutroak», palatalizatu eta laburtu gabe daudenak, anitz aldiz erdaraz ibiltzen diren eran azaltzen zaizkigu gutunotan: *Agustin, Domingo Bizente, Esteban, Fermin, Gabriel, Gregorio, Ignazio, Jabier, Jaime, Jeronimo, Juakin, Lorenzo, Lukas, Manuel, Salvador, Santiago, Sebastian...* Beste batzuetan, ordea, aldaketa zerbait bada, erdarazkoekin erkatzen ditugunean: *Anbrusio, Erremon, Franzisku, Gorgorio, Jerolimo, Josepe, Juaesteban, Juajosepe, Juamartin, Juamigel, Juan Josepe, Lubis, Lukes, Martiñ Josepe, Migel Josepe, Mikolas, Nolberto, Paskoal, Pelipe, Predo, Premin, San Juan, Yakua...*

Zenbaitetan beste eranskinik gabe aurkitzen ditugu, gehiagoko identifikatzailerik gabe, hain segur ere IBk eta JBMk nor ziren argi zekitelako. Beste batzuetan, ordea, lehen izenarekin batean deitura —edo deitura iduri duena— agertzen da, orain erabiltzen den bezala: *Jose Antonio Beloki, Jose Antonio Olai(t)zola, Juan Fermin Iribarren, Gregorio Eskudero, Lukas Iraola, Manuel Etxeberria, Salvador Mitxelena* eta abar.

Ezaguna den moduan, ohikoa zen garai honetan eta geroago ere *de* erdarazko preposizioa izenaren eta deituraren artean sartzea, nahiz bigarrena abizen hutsa izan, ez etxe, auzo edo herri izena. Guretako neke da orain, gutunetan azaltzen zaizkigun lekukotasunetan, halako onimoa zer zen xuxen jakitea, esaterako *Ansa* edo *Mitxelena* deizioak abizenak, etxe izenak edo etxe izengoitia ziren argi ikustea, ardura biak ere lehena, bigarrena edo hirugarrena izan zitezkeelako.

Hemen eta orain ez dugu aztertuko *de* hori kasu gehienetan euskarazko *-ko*-ren itzulpena denetz, baina bistan da zenbaitetan hala zela. Aipatu ditugun *Ansa* eta *Mitxelena*-ren kariaz, *Anbrusio Ansane*koa eta *Anbrusio de Zabala Mitxelene*koa ditugu IBren idazkiotan, Aranoko *Antsenea* eta *Mitxelenea* oikonimoei erreferentzia egiten dietenak. Lehena *Antsene* da egun, *Anssenea*

1654an, *Ansarena* 1684an, *Ansenea* 1726an; bigarrena *Mitxel(e)ne* da orain, *Michelena* 1709an, *Michelenea* 1726an. Baina, bestalde, *Ansa* eta *Mitxelena* deitura ezagunak ziren eta dira.

Hona preposiziorik gabe eta *de*-rekin ageri diren adibide batzuk: *Anbrosio Eskudero Txoanikanea* (JBM) = *Anbrusio de Eskudero* (IB); *Anton Bef[n] goetxea* = *Anton de Bengoetxe* = *Antonio de Bengotxea*; *Esteban Ansa* = *Esteban de Ansa*; *Franzisku Loperena Perrazelai* = *Franzisku de Loperena*; *Franzisku Zapiañ* (eus.) = *Franzisku de Zapiañ* (erd.); *Gregori[o] Danborena* = *Gregorio de Danborena*; *Ignazio Bergara* = *Ignazio de Bergara*; *Jaime Goizueta* (JBM) = *Jaime de Goizueta* (IB); *Jose Antonio Aroztegi* = *Jose Antonio de Aroztegi*; *Juamartin Ansa* (eus.) = *Juamartin de Ansa* (erd.); *Manuel Etxeberria* = *Manuel de Etxeberria*; *Paskoal Insauspe* = *Paskoal de Insauspe*; *Sebastian Etxeberria* = *Sebastian de Etxeberria*... Zenbait aldiz *de*-dun aldaera besterik ez daukagu: *Ignazio de Ezponda*; *Jose Antonio de Eskudero*. Beste batzuetan hipokoristikoa ageri da deiturarekin batean, ez izen neutroa, *de*-rekin edo preposiziorik gabe: *Lorentxio de Alsua*; *Pepe Lukanbio* = *Pepe de Lukanbio*.

Ponte izenak eta hauetan oinarritu hipokoristikoak franko errepikatzen direnez gero, usaiakoa da aipatzen den lagunaren sorterrria edo jaiotetxea ahotan hartzea: *Anbrusio Ansanekoa* (Arano); *Anbrusio de Zabala Mitxelenekoa* (Arano); *Anbrusio Martikaldenekoa* edo *Anbrusio Lukanbio Martikaldenekoa* (Arano); *Gorgorio Arotzandikoa* (Arano); *Gregorio Apezzenakoa* (Arano); *Jose Antonio Arakiñenekoa* (Arano); *Jose Antonio Beloki Murgiokoa*; *Jose Olaizola Marzanekoa* (Arano); *Juan Josepe Arrantxalekoa*; *Manuel Antonio Ezkartikoa* (Goizueta); *Pepe Exurrenekoa* edo *Pepe Lukanbio Exurrenekoa* (Goizueta); *Pello Garzitegikoa* (Donostia?); *Yakua Labekoa* (Goizueta)... Batzuetan etxearen izena eta *-koa* dauzkagu, ponte izenik eta bestelako identifikatzailearik gabe: *Pellobaztanenbordakoa* (Goizueta), *Txurdankikoa* (Arano)...

Tarteka *ponte izena* (+ *deitura*) + *etxe izengoitia* segida dugu: *Anbrusio Arotzandia* (Arano); *Gregorio Arotzandia* (Arano); *Juan Josepe Arrantxale*; *Jose Manuel Arrieta Soldadua* (Arano, ustez); *Jose(pe) Olaizola Marzanea* (Arano); *Juan Esteban Motelarena*... Artetan *etxe izengoitia* bakarra azaltzen da: *Kapero* (Goizueta), *Martxa* (Arano), *Txute* (Goizueta?) eta abar.

Hipokoristiko edo konfiantza giroko izenak ere usaiakoak dira, batzuetan beste gehigarririk eta argigarririk gabe, ola arduradunarendako eta ola jaunarendako identifikatzeko arazorik ez zegoelako, antza: *Ant(t)on*, *Battitta*, *Gregoriotxo*, *Josepe*, *Juakintxo*, *Juapatxiku* edo *Juan Patxiku*, *Juan Pello*, *Leontxo*, *Lorentx(i)o*, *Martijoxepe*, *Matixa*, *Migeltxo*, *Patxi*, *Patxiko*, *Patxiku*, *Patxiku Anton* edo *Patxiku Antonio*, *Pello*, *Pello Jose*, *Pello Josepe* (edo *Pello Joxepe*), *Pepe*...

Arteka pertsona bera modu batera baino gehiagotara izendatua aurkitzen dugu: *Anton Be[n]goetxea = Anton de Bengoetxe = Antonio de Bengotxea; Jose Olaizola Marzanea = Josepe Olaizola Marzanea = Jose Olaizola Marzanekoa...* Batzuetan aita eta semea bereizteko *zarra / seme* eta *viejo / hijo* erabiltzen dira: *Anbrusio Arotzandia / Arotzandiko Anbrusioaren semea; Artxaizarra* edo *Artxaia viejo / hijo de Artxaia; Mariola / «Mariolaren seme horrenak», hijo de Mariola; Moxo / Moxo zarra; Mundrago / Mundragoren semea...* *Etxeberria zarra* edo *Etxeberria viejo*-ren kasuan *seme-rik* ez dugu aurkitu, baina izan bazatekeen.

Maiz *suña* ‘suhia’, alabaren senarra alegia, azaltzen da gutunotan, *Martxaren suña* partikulariki (*Anzizar* bide zen), baina baita beste hauek ere: *Gregorio igelearen suña* edo *Gregorioaren suña*, «*Manuel horren suña*» («*Manuel Antonio Elamako urzallea*»-rena), *Patxiku Intxaloren suña*, *Sebastian Etxeberriaren suña* edo *Etxeberriaren suña* eta abar. Kasu hauetan, ikusten den bezala, erreferentea (*Gregorio, Manuel Antonio, Paskual Intxalo, Sebastian Etxeberria...*) erreferentziatua (*suña*) baino munta handiagokoa zen, identifikaziorako. Halarik ere, kasuren batean erreferentziatuaren izena edo izen-deiturak ere ageri dira: *Antonio de Arotzena Atanasioren semea; «librea gelditzen dena emateko Gregorioaren suñari, Manueli».*

Goitizen hutsak ardura aurkitzen ditugu eskutizetan, ziurrenik horiek zirelako eguneroko bizimoduan ibiltzen zirenak. Batzuek jaioterriari egiten diote aipu: *Elduiñ, Goierri, Mundrago...* Zenbait eramailearen gorputz edo izaera ezaugarriren baten ondorio dira: *Exkerra, Haundia, Mutua, Okerra, Ttiki* eta beste. Deizioaren jabearen lanbidean oinarri dutenak ere badira: *Artxaia, Arzaia, Barberoa, Dendari, Errotaria, Xixtero...* Beste batzuek bestelako arrazoiak dituzkete: *Eguzkia, Paradisu, Saldagarbi, Trabuko* edo *Trabujo, Tranpa...*

Bestalde, eta (gaur egungo ikuspuntutik) aski harrigarriro, abizenak batzuetan «euskaratuak» daude, hots, Goizueta - Arano inguruko hizkerara ekarriak, egokituak, orain hau bitxikara gerta badakiguke ere: *Apezitxea, Goikoitxea, Itxagoien, Itxeberria, Tellitxea...*

Tarteka lanbide izena ibiltzen bide zen ponte izenarekin batean: *Bizente meallea, Gregorio igelea, Ignazio igelea, Juan Antonio itzaia, Lorenzo igelea, Lubis maisua, Manuel igelea, Patxi mandazaia, Patxiku ardamandazaia...* Baita deitura edota sorterrria ere, harekin batera: *Gregorio de Eskudero igelea, Ignazio de Ezponda Oiarzungo igelea, Lorentxio de Alsua Goizaringo igelea, «Sebastian de Etxeberriak, Aranoko ardamandazaiak»...* Edo etxearen edo herriaren izena baizik ez: «*hemen ari den mealle Oiarzungo honi*», «*Oiarzungo mealle horrek*», «*Pikoagako aleroa*» eta abar.

Gainera, maiz ustiatu beharreko basoa, meatzea, mendia, zortea... non zegoen, zein aurkintzatan, edo zein herritakoa zen zehaztu beharra zen, gaia edo ekaia non erosia zen, lana non egina zen edo zerbait nondik nora eramana... Hori guzia kontabilitaterako oinarrizkoa baita, gauzak eta kontuak ez nahasteko: *Aranoko Goiko mendian, Aritzederretatik, Azkoteko ubaldetik, Basaianegitik honara, Basakaizko suertetik, Dixiduko ubalde honetan, Elaman, Erbizañgo errekan, Goizuetatik, Gorriolako basoan, Iruñerako burni hoiek, Oiarzungo haxiak, Olzorrozko suertetik Gañzi[n]go errekarra, Olzorrozko suertetik Arranbidera, Pikoagan, Pikoagatik Ereñezura, Presaburutik Olzorrotza, Presaburutik Unzingo suertera, Suruan, Tintopoloko suertera, Tintopoloko suertetik Arranbidera, Ubarrizetan, Urraide aldetik, Yakomeakako beko begian, Zubietako menditik...*

Segidan gutunetan agertzen diren mota bateko eta besteko izenak zerrendatzen ditugu, sailka emanik. Lehenik antroponimia heldu da, eta honen barnean ponte izen neutroak aurrena, hipokoristikokoak gero, deiturak ondoren, izengoitiak laugarren —hauen barnean izengoiti hutsak direnak lehenbizi, etxe izengoitiak jarraian— eta herritarren izenak hondarrean. Hauen gibeletik etxe eta baserri izenak datoz eta, azkenik, toponimia, nagusia aurrena eta txikia ondotik.

## 6.2. ANTROPONIMIA

### 6.2.1. Ponte izen neutroak

*Agustin, Agustiñ: Agustin de Olaizola. / Agustin de Ubitzi. / Agustin de Ubitziri Basoberriko iduriak emateko portea... 1½ reales. / Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria ez ematekotan, ez dutela baso beharririk. / Agustin Itxeberria Mutuaren itzaiaren meak dira 34 quintales. / Agustin Sazberro (sic) (JBM). / Agustiñ Ubitzik entregatu zituan lau ogiak.*

*Anbrusio* (gehien-gehienetan), *Anbrosio* (behin, JBM): *Anbrosio Eskudero Txoanikanea. / Anbrusio Ansanekoa. / Anbrusio Ansusarobe. / Anbrusio Ansusarobekoak...36 cuartos eta errugu bat baba. / Anbrusio Arotzandia. Suerte de Isillis, lo de Arano. / Anbrusio Arotzandiak egiñak ziran. / Anbrusio Arotzandikoak...36 cuartos. / Anbrusio de Eskudero. / Anbrusio de Zubeldia Tranpa. / Anbrusio Lukanbio Martikaldenekoa. / Anbrusio Martikaldenekoa. Suerte de Basakaitz, lo de Arano. / Anbrusio de Zabala Mitxelenekoa. / Anbrusio Olasokoak...17 días. / Anbr[u]sio Tranpak...02. / Anbrusio Zubeldia Tranpak...12 días. / Anbrusiok...3 días. / Ansusarobe*

- Anbrusioarena...08. / Arotzandiko Anbrusioaren semeak entregatu zuen gaitziru baba. / Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskudero zakurik ez daukate batere gauza denik. / Iduriak emana(k) Anbrusio Arotzandiari.*
- Angel:** *Angel de Martiarenak emantako basoan Santiago de Elizaldek egiñ dituan ikatz guziek dirade [...]. / Angel de Ubitzi tirador. / Angel de Ubitzi tirador Artanzu. / Eta horra Angel Artanzurena eta Manuel Antoniorena ere.*
- Anton, Antonio:** *Anton Bef[n]goetxea...02. / Anton de Bengoetxe. / Anton Paradisu. Suerte de Añarbe. / Anton Paradisu honen basotik olarako, sategirako ekarria karga bat iduri. / Carretero Antonio de Bengotxea (sic). / Horra beste alderdian Antonio de Arotzena Atanasioren semeak leneko kontua egiñ ezkerro Arranbiden egiñ dituen lanak.*
- Atanasio:** *Horra beste alderdian Antonio de Arotzena Atanasioren semeak leneko kontua egiñ ezkerro Arranbiden egiñ dituen lanak.*
- Azenzio:** *Azenzio horrek samigelek ezkerro hemen egiñ dituen burniak. / Azenziorena (IB), Azenzio (JBM). / Cuenta nueva Azenzio de Arotzena tiradores (sic). / Cuenta nueva Azenzio fundidor oiarzuarrarena.*
- Bauptista:** *Aranazko Danboliñaren horrek eta Eguzkiak eta Bauptista Porterorenak, horiek hirurak hiru laguneko partiduan egiñ dituzten mea guziak dirade [...] / [Bauptista] de Agaña. / [Bau]ptista de Agiñaga. / Bauptista de Mitxelenaren[a]. / Bauptista de Tellitxea. / Bauptista de Zentena. / Bauptista de Ubitzi. / Bauptista Ostitaskos.*
- Bernardo:** *Bernardo Karreda. / Bernardo Karrera (JBM).*
- Bizente:** *Bizente Kristo. / Bizente meallea.*
- Braulio:** *Braulio.*
- Bruno:** *Brunok hemen eragiñ dituen burniak. / Brunok niri esan dit presan gastatu ziran burniak zenbat ziran. / Brunori kontua ema[n] nahi badio.*
- Domingo, Domiño:** *Domingo de Iribarren Soldadua. / Domingo de Loiarte. / Domingo de Loiarte Ezkerra. / Domingo de Pikabea. / Domingo de Pikabearena. / Domiño de Loiarte. / Domiño de Pikabearena. / Domiño Estartako horrek egiñ duen ikatza.*
- Domingo Bizente, Domiño Bizente:** *Domingo Bizente. / Domingo Bizente de Mitxelena. / Domingo Bizente Mitxelena. / Domiño Bizente Mitxelena.*
- Esteban:** *Esteban Ansaren espensak. / Esteban de Ansa. / [Es]teban de Zabala.*
- Ferman** (German-en partez, ustez): *Ferman Makatzenarena urzalle berriaren partez. / Ferman urzallea. / Manuel Antonio urzallearen partez Ferman Iberon aritzen de[n] urzalleak hemen pasatu zuen aste bat.*
- Fermin, Premin:** *Dendariren senar Premin horrek edo horren denboran egin diran burniak. / Dendariren senarrak, Premin horrek, 2 junioko astea uzten dela, horra geroztik pasatu duen denborako burniak. / Eta horra Ferminen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak. / Eta horren anaie Premin horrek Kaperoren partez pasatu zituen denborakoak dirade*

*burniak. / Fermin de Unsari Dendariren senarraren denborakoak. / Fermin de Unsari dendariren senarrarenak. / Fermin de Zubeldia Tranpa. / Fermiñ de Unsari fundidor. / Fermiñ de Zubeldia Tranpa. / Fermin Onsari (JBM).*

**Fermin Jose(pe):** *Fermin Jose Moxo y su hermano Josepe (JBM) / Fermin Josepe de Ubitzi Moxo zarrak Yakomeakan egin dituen meak. / Fermiñ Jos[e]pe Moxok leneko kontua egiñ ezkerro. / Fermiñ Josepe de Ubitzi Moxok Yakomeakan bere lagunarekin egiñ zituan meak.*

**Franzisku:** *Franzisku de Agesta. / Franzisku de Insauspe. / Franzisku de Lekuna. / Franzisku de Loperena. / Franzisku Loperena Perrazelai. / Franzisku Zapiañen kontuan [...] Franzisku de Zapiañ.*

**Franzisku Antonio:** *Franzisku Antonio de Leonet. / Franzisku Antonio Makatzena.*

**Franzisku Ignazio:** *Franzisku Ignazio de Treku.*

**Franzisku Juakin:** *Franzisku Juakin de Minondo.*

**Gabriel:** *Gabriel de Tomasarena.*

**Gregorio, Gorgorio:** *Gorgorio Arotzandikoaren ikatzak. / Gregorio Apezenakoa. / Gregorio Aranoko alkatea. / Gregorio Arotzandia. / Gregori[o] Danborena. / Gregorio Eskudero. / Gregorio igelea. / Gregorio Mitxelena. / Gregorio de Ansa. / Gregorio de Danborena. / Gregorio de Danborena tirador de Arano. / Gregorio de Eskudero igeleak olan egiñ dituen lanak edo burniak. / Gregorio de Eskudero igeleak ekarri dituen meak. / Gregorio de Eskudero tirador horren diru hartuak. / Gregorio de Mitxelena. / Gregorio Eskudero. / Gregorio Eskudero igeleak...36. / Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskudero zakurik ez daukate batere gauza denik. / Gregorio igelearen suñarenak izanen dirade hoiek. / Iduriak emanak Gregorio de Ansari Epeleko suertera. / Itxola bat ekarria Tintopoloko suertetik Arranbidera, Gregorio Apezenekoarena. / Librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli. / Nolbertok ekarri zituen hiru hogeiz ekzutuko haiek.*

**Ignazio:** *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]i ekzutuko bat. / Hoietaz gañera baditu Ignazio igeleak ondu beharrak...18 reales. / Ignazio Bergara. / Ignazio de Arrube. / Ignazio de Bergara. / Ignazio de Erbitik Urraiden, Ubarrizetan, egin dituen meak. / Ignazio de Ezponda Oiarzungo igeleak. / Ignazio de Eztonba. / Ignazio Haundiaren semearen denboran. / Ignazio Loidikoak entregatu zituan sei bost ekzutuko. / Ignazio Malaierena.*

**Ignazio Predo:** *Hoietaz gañera badituzte Ignazio Predo Zubinekoak eta biak Iraurgiko ondoan egiñak [...] / Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak.*

**Jabier:** *Bialdu nion Jabierri txartela zeñek zenbat zaraman.*

**Jaime:** *Jaime de Goizueta fundidor. / Jaimek ere baditu Pelizen partez pasatuak bi egun meallekoan. / Jaimeren denboran egiñ ziran burniak.*



**Jeronimo, Jerolimo:** *Jeronimo Txoperena Ianzi fundidor (JBM) = Jirolimo de Txoperena Iganzikoko urzalle horrek pasatu dituan egunak.*

**Joakin, Juakin, Juakiñ:** *Joakin de Lekuna. / Juakin Apezetxea. / Juakin Apezitxea. / Juakin Kaperorenzat. / Juakiñ de Erasok eta bere lagunak Epelean aurten egiñ dituzten mea guziek. / Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku Errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek. / Juakiñ Kaperok Elaman egiñ dituen burniak. / Juakiñ Kaperorenzat.*

**Jose:** *Jose Minerrek ditu [...] / Jose Olaizola Marzaneokoak eskatzen du anega bat babaren txartela.*

**Jose Antonio** (arruntean), **Joseph Antonio** (behin, JBM): *Hoiiek dira Jose Antonio Beloki Murgiokoarenak. / Horra Jose Antonio Arakiñenekoaren partez Dendariren senar Premiñ horrek edo horren denboran egin diran burniak. / Jose Antonio Aroztegi horrena ere hor da. / Jose Antonio de Alsua. / Jose Antonio de Aroztegi hartuak [...] / Jose Antonio de Eskudero. / Jose Antonio de Tellitxea. / Jose Antonio Eskudero. / Jose Antonio Olaizola horrek ez du hemen diru harturik. / Jose Antonio Sollari... 4 reales. / Joseph Antonio Beloki (JBM).*

**Jose Domingo, Jose Domiño:** *Jose Domingo de Iribarrenen Urraideko basoa Jose Domingo Teresanekoak hamar ogirekiñ ekarri duen kostala bat. / Jose Domingo Iribarrenenak dira [...] / Jose Domingo Teresenakoaren Urraideko basoa bota zen jornaleroan egunak. / Jose Domiñg[o] Iribarren. / Jose Domiñgoren Urraideko basoa botatzen pasatuak 3 días.*

**Jose Juakiñ:** *Jose Juakiñ Iganzikoko igele horrek orango etorraldi honetan Elaman egiñ dituen burniak.*

**Josepe:** *Fermin Jose Moxo y su hermano Josepe (JBM). / Josepe de Bearrak. / Josepe de Larramendi. / Josepe de Olaizola Marzanea. / Josepe igeleak zituan [...] / Josepe Lekuna. / Josepe Moxo (JBM). / Josepe Moxorenak eta bere semeak egiñ dituzten meak. / Josepe Moxorenari... 30 pezetak. / Josepe Soldadua. / Josepe Soldaduaarena. / Juan Antoniok eta Moxok eta honen anaie Josepek Basaianegitok honara bialdu dituzten mea guziak. / Moxok eta bere anaie Josepek Txorikantarian egiñ dituzten mea guziek.*

**Josepe Ignazio:** *Josepe Ignazio de Lekuna. / Josepe Ignazio horrek hogeitau eta hamaika ogi.*

**Juasteban:** *Juasteban de Zabala Danboliña. / Ikus Juan Esteban sarrera.*

**Juajosepe:** *Juajosepe de Altamiraren partidukoak. / Ikus Juan Josepe sarrera.*

**Juamartin:** *Alkatezarrari bialdu diot Juamartin Ansarekiñ. / Juamartin de Ansa.*

**Juamigel:** *Juamigel de Galdeano Mund[r]ago. / Juamigel de Loperenak eta Martin Antonio Zulokoak Isillisko suertean, Aranokoan, egiñ dituzten meak. / Juamigel Erregearena. / Juamigel Erregerena. / Juamigel Mundrago.*



- Juan Antonio:** *Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria ez ematekotan, ez dutela baso beharrik. / Juan Antonio de Belasko. / Juan Antonio de Iribarren. / Juan Antonio hijo de Artxaia. / Juan Antonio Iribarren. / Juan Antonio itzaiaren semeak Arranbiden egiñ dituen burniak. / Juan Antoniok, Alkatezar[r]jak ere nahiko du. / Juan Antoniok eta Moxok.*
- Juan Domingo, Juan Domiño:** *Juan Domingo de Ubitzi. / Juan Domingo Fundidorri. / Juan Domiño de Ubitzi. / Juan Domiño Fundidor ikazkilleak esan dit bial diozala hamar ezkutuko bat.*
- Juan Esteban:** *Juan Esteban de Urdanobia. / Juan Esteban de Zabala Danboliña. / Juan Esteban Motelarena. / Ikus Juaesteban.*
- Juan Fermin, Juan Fermiñ:** *Juan Fermin Iribarreni. / Juan Fermin Sarranenzat. / Juan Fermiñ Iribarren. / Juan Fermiñ Sarranen partez.*
- Juan Franzisku:** *Juan Franzisku Galtxadarekiñ ere egondu naiz. / Juan Franzisku Korroxxakoak.*
- Juan Josepe (arruntean), Juan Josep (behin):** *Juan Josep de Apezitxea fundidor. / Juan Josepe Arrantxaleko horrek. / Juan Josepe Arrantxalekoaren beraren meak. / Juan Josepe de Altamira. / Juan Josepe de Apezitxea urzalle berria. / Juan Josep (sic) Arrantxalekoarenak.*
- Juan Kruz:** *Eta Juan Kruz de Ipuik ere, irabazia duenaz gañera, hogeit eta hamar ezkutu eskatzen ditu, pagatuko diozkala.*
- Justiano:** *Justiano maxterraren semeak entregatu ditu 22 urretxiki eta hiru ogi.*
- Kosme:** *Bigar etorriko bide dira itzaiak; gaur orañdik ez da etorri Kosme bakarria besterik. / Franziarako egin diran txabalak bialdu nituen Kosmeren itxera.*
- Kristoal:** *Kristoal de Manzidor.*
- Lorenzo, Lorenzo:** *Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak. / Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal. / Horra Lorenzo igelearen partida astean astekoak. / Horra Lorenzoren partida joan den aterañoakoa. / Lorenzo (JBM). / Lorenzo Alsua, Lorenzo Alsua (JBM) = Lorentxio, Lorentxo de Alsua (IB). / Lorenzo bart etorri zen honara. / Lorenzo igelea. / Lorenzorenzat...1 pezeta... Lorenzoren semearenzat...1 pezeta.*
- Lubis (arruntean), Luis (noiz edo behin):** *Lubis maisua ere horrarako da noski. / Luis Makatzaga tirador (JBM) = Lubis Makatzenak hemen sartu duen astean. / Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den.*
- Lukas, Lukes:** *Lukas de Iraola. / Lukas de Zabala. / Lukas Iraola. / Lukas Iraolarena...05. / Lukes igelearenzat. / Lukes Iraolak entregatu zituan zorzi ogi. / Lukesek txarragoa du. / Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes. Mealle irundarra aritu zen Lukes horren partez. Zazpi aste hoietan ez Lukes horrek, ez burnirik eta ez deus ere.*
- Manuel:** *Buruzuriak berak...1 día, honen seme Manuelek...1. / Gregorio de Ansa y su hermano Manuel Aragones. / Honen semeak, Manuelek...3. /*

- Librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli. / Manuel Arpiderenak esan dit. / Manuel de Ansa hemen orañ ari den igeleari kenduta emantako diruak. / Manuel de Ansa tiradores (sic) de Arano (IB) = Manuel Ansa tirador (JBM). / Manuel de Erriberak ditu. / Manuel de Etxeberria. / Manuel Etxeberria. / Manuel Etxeberriak bere gaztañadian egiñ zuen ikatza. / Manuel tirador de Arano.*
- Manuel Antonio** (arruntean), **Manuel Añtonio** (behin): *Manuel Antonio de Unsari fundidor. / Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako jorjala. / Manuel Antonio Ezkartikoak Arranbiden mealle sartu dituen egunak. / Manuel Antonio honen koñadoak [...] Manuel Antonio honen anaieak. / Manuel Antonioren partez. / Manuel Antonio urzallearen partez. / Manuel Añtonio de Unsari fundidor.*
- Manuel Juakin**: *Manuel Juakin (JBM). / Manuel Juakin Elamakoak egiñ zituan agoa bat eta erdi hoiena. / Manuel Juakiñ de Esnaú Elamakoak Elaman maisukoan olaunditik pasatu dituan egunak. / Manuel Juakiñ de Esnaú horrek baditu olatxoan hemen sartutako egunak.*
- Martin**: *Martin de Galdeano. / Martin de Tellitxea, / Martin de Tellitxeak leneko kontua pagatu ezkerre ekarri dituenak. / Martin Goizaringo igeleak. / Martin Okerra. / Martin Tellitxeak geronako kontua bi hillabetekoa egiñ behar zuen.*
- Martin Antonio**, **Martiñ Antonio**: *Martin Antonio Lizartxikitoreren semeak. / Martin Antonio Zuloakoak. / Martiñ Antonio difuntuaren partidukoak.*
- Martin Josepe**, **Martiñ Josepe**: *Martin Josepe de Belasko itzaiaren semeak. / Martin Josepe de Belaskorenak. / Martiñ Josepe de Belasko horrek. / Martiñ Josepe de Belaskoren partidukoak. / Martiñ Josepe de Mitxelenak bi asteak.*
- Matias**: *Matias de Etxagoien. / Matias maestro (JBM). / Matias olatxoko maisuarenzat.*
- Migel**: *Migel difuntuaren semearenak.*
- Migel Antonio**: *Migel Antonio urzalle berria.*
- Migel Fermin**, **Migel Fermiñ**: *Migel Fermin de Mitxelena. / Migel Fermiñ de Mitxelena. / Migel Fermiñ Mitxelena.*
- Migel Josepe**: *Migel Josepe de Ezeizabarrena.*
- Mikolas** (arruntean, IB), **Nikolas** (bitan, JBM): *Mikolas Añarbeko kontu harzallearena. / Mikolas Gazte fundidor oiartzuarra (IB) = Nikolas fundidor (JBM). / Mikolas de Maia lesakarrarena. / Mikolas de Maiarena. / Mikolas Muxudo. / Mikolas Muxudorenak.*
- Nolberto** (eskuarki, IB), **Norberto** (behin, JBM): *Nolbertok ekarri zituen. / Nolbertoren denboran. / Norbertoren partez. / Nolbertorenzat beurrek nahi duena. / Norberto (JBM).*
- Paskoal**, **Paskual**: *Paskoal de Iribarren. / Paskoal Haundiaren denboran. / Paskual de Etxeberria. / Paskual de Insauspe. / Paskual de Iribarren. / Paskual de Loperena Itxazurikoak esan dit. / Paskual Insauspe.*

**Pastor:** *Pastor de Leonet. / Pastor de Leoneten lagunari hemendik bialdu zaskion diruak. / Pastor de Leoneti berari bialdu zaskion diruak. / Pastor Leonet.*

**Paulo:** *Paulo de Ansa Artetxeko horrekin erdi bana. / Paulo de Zabala.*

**Pelipe** (arruntean), **Pilipe** edo **Filipe** (behin, JBM): *Pelipe de Altamira Igelekoarenak. / Pelipe de Altamira Igeletxekoarenak. / Pelipe Erdikoitxekoa. / Pelipe Erdikoitxekoarena. / Pelipe fundidor. / Pelipe Iparragerre. / Philipe Yparraguirre casero de Erdico Ychea de Añarbe (JBM).*

**Peliz:** *Pelizek ekarri zituen. / Pelizen partez pasatuak bi egun meallekoan.*

**Predo Antonio, Pedro Antonio:** *Predo Antonio iganziar maisuak olaunditik olatxoan sartu zituen egunak (IB) = Pedro Antonio maestro martinet[e] (JBM). / Predo Antonio iganziar olatxoko maisu horrek (IB) = Pedro Antonio maestro martinete Ianzi (JBM).*

**Predo Josepe, Pedro Josep:** *Predo Josepe de Elizondo = Pello Elizondo (IB) = Pedro Jph Elizondo, Pedro Joseph, Pello Elizondo (JBM).*

**Salbador:** *Salbador Mitxelena horrek ditu ikatzak, bere propioak, borda aldean egiñak.*

**San Juan** (< Santxo, Santz + Juan): *San Juan de Sagarzasu. / San Juan de Sagarzasu Txute.*

**Santiago:** *Santiago de Alzubide horren semeari hemen emantako diruak. / Santiago de Alzubidek Tranparen eta Pepe Exurrenekoaren Gorriolako basoan egiñ dituen ikatz guziak. / Santiago de Elizaldek egiñ dituan ikatz guziek. / Santiago de Elizondo (JBM). / Santiago de Ubitzi aranaztarrarena. / Santiago de Ubitzirena. / Santiago Elizondo Aranaz (JBM). / Santiago Txikia (JBM). / Santiagok apenaz jango zuen bada. / Santiagok ekarri ditu. / Santiagorena de Ubitzi.*

**Sebastian:** *Sebastian Artxaia viejo. / Sebastian de Bengoetxea. / Sebastian de Bengotxea. / Sebastian de Etxeberriak. / Sebastian de Iribarrenen basoan. / Sebastian de Tellitxea. / Sebastian Etxeberria Larratxuri. / Sebastian Etxeberriak esan dit artoak eman ziozkatela. / Sebastian Etxeberriak kontuak egiñ nahi litukeala dio. / Sebastian Etxeberriaren suña. / Sebastian Goapo. / Sebastian Insauspe. / Sebastian Iribarren Ataju. / Sebastian Itxeberraren suña. / Sebastianek jorrada bat laster hartuko du.*

**Sidro:** *Sidro iganziar igelearena (IB) = Isidro tirador (JBM). / Sidrorena eta Manuel Antoniorena. / JRMk (II, 175) Sidro ohi du.*

**Teresa:** *Teresa sastresa (JBM).*

**Yakua:** *Yakua Labekoak ekarriak.*

## 6.2.2. Hipokoristikoak

**Battitta:** *Entregatu ditu Battittak hamasei ogi.*

**Gregoriotxo:** *Gregoriotxo de Olaizola Elamako igeleak Nolbertoren partez hemen sartu dituen egunak. / Gregoriotxorenzat...erreal bat.*

**Juakintxo, Juakiñtxo:** *Bial beza Juakintxo, arrago hau erre dediñ. / Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. / Juakiñtxok agindurik [go]nbitetan gastatuak.*

**Juan Patxiku, Juapatxiku:** *Juan Patxiku de Insauspe. / Juapatxikuren semeak.*

**Juan Pello:** *Juan Pello Bexinok Ubarrizetan, Azkoteko ubaldean eta Urraiden eginga (sic) dituen meak.*

**Leontxo:** *Leontxo de Zabala. / Leontxo de Zabalak Aranoko errotari Juan Antonio de Tellitxeari Arolako ondoan, gaztañadian, eragin dion ikatza.*

**Lorentxio, Lorentxo:** *Lorentxio de Alsua Goizaringo igeleak Arranbide[n] egin dituen burniak. / Lorentxio de Alsuak ditu. / Lore[n]txio horko igeleak Antokoren seme horren partez pasatu du aste bat. / Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean bi anaieak egin dituzten mea guziak. / Lorentxio Trabujorenak bere semearekiñ eta Baratzurik eta Zarrukok eta lauen artean egiñ dituzten mea guziak. / Lorentxiok Elaman pasatu dituan egunak (IB) = Lorenzo Alsua (JBM). / Lorentxiori tokatzen zaskionak. / Lorentxo de Alsua (IB) = Lorenzo Alsua (JBM). / Lorentxo de Elizondo.*

**Martijoxepe (Martijosepe?):** *Martijoxepek ditu. / Ikus Martin Josepe.*

**Matixa:** *Matixak (ditu)...14 (días).*

**Migeltxo:** *Abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Migeltxo de Iganzi. / Migeltxo de Iganziarena.*

**Patxi:** *Patxi mandazaiak nahi omen luke bebi aretzedun bat negutzeko.*

**Patxiko:** *Patxiko Apeztxea Kaperon tirador (JBM). / Patxiko Eratsun (JBM) (= Patxiku eratsundarra). / Patxiko Ignazio Buruzuria carretero Arranbide (JBM). / Patxiko Jai[n]koaren lagunak. / Patxiko San Antong[oa] (JBM).*

**Patxiku:** *Nik ez dakit egun hoiek Patxikuk hor asentatu baditu ere. Pa[t]xikuri galdatuko dio. / Patxiku (= Franzisku Juakin de Minondo, erd.). / Patxiku ardamandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria. / Patxiku ardamandazaiaren ardoan asentua. / Patxiku beratar horrek eta Paskoal de Insauspek Erbizango errekan egiñ dituzten meak. / Patxiku eratsundarra tirador (= Patxiko Eratsun). / Patxiku eratsundarrarena tirador. / Patxiku Errotariak aurtengo urte honetan Epelean egiñ dituenak. / Patxiku Errotariak eta bere lagunak egiñ dituzten meak. / Patxiku Intxaloren suñaren denboran egiñ diran burniak. / Patxiku Iribarren (JBM). / Patxiku Kaperok Arranbiden pasatu du aste bat. / Patxiku Malet horrek. / Patxiku Maleten meatzean. / Patxiku San Antongoak Elaman egiñ dituan burniak. / Patxikuk. / Patxikurekiñ bialdu zuen hogei ezkutukoa.*

- Patxiku Anton, Patxiku Antonio:** *Nabi badu Patxiku Antoniorekiñ egotea, egone[n] naiz. / Patxiku Anton Erribera. / Patxiku Antonio Erribera. / Patxiku Antoniorengana izandu niñzan.*
- Pello:** *Pello Bergaragandik beurren kontura hartuak...100 pesos fuertes. / Pello de Elizondo. / Pello Elizondo (= Pedro Joseph Elizondo). / Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara. / Pello Haundiarena. / Pello maisuak esan dit larunbatean etorriko dela. / Pello maisuarenzat...1 pezeta.*
- Pello Jose:** *Pello Jose horrek ditu meak 9 quintales, 1 arroba ½, llebarik gabe pisatuak.*
- Pello Josepe edo Pello Joxepe:** *Derecho por menas Pello Josepe Orzeriogan izanduarena. Suerte de Urdiñola, Iturruan egiñak...1 quintal, 4 arrobas ½. / Pello Josepe hijo de Mariola...02.*
- Perrazelai** (Aranoko baserria): *Aste honetan Nolbertoren partez Perrazelaiakoak egin zituan zazpi agoa. / Bada, horri eman ezkerro, Juan Antoniok, Alkatezar[r]ak ere nahiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaiakoak du. / Gelditu behar diozka Nolbertori Perrazelaiakoarenzat zazpi erreal, agoa jornalak. / Perrazelaiakoaren basoan Paulo de Zabalak, Maisunekoak, egiñ dituen ikatzak. / Perrazelaiakoari lau eulz pagatuak...5 pezetas. / Perrazelaiakok (sic)...94 días.*
- Pikoaga** (Oiartzungo burdinola zen): *Barberoaren semeak Pikoagan egin zituen haxiak ziran guzitara 28 quintales zabalak. / Burniak Pikoagatik Ereñezura eramanak. / Orañ esaten diot larunbatean hemen izandu zela Pikoagako aleroa; Ereñezun dagoan mea hura ekarriko luketela berehala, eta Pikoagatik aranoar karraiadore hoiekiñ ekarri al baganazake! / Pikoagatik Ereñazura eramantako burniak.*
- Portaleza** (Oiartzungo baserria): *Horra Jose Migel Portalezekoaren ikatz guzien asentua, Txaradiko ondotik ekarri diranena. / JRMk (II, 189) Fortaleza, Portaleza ditu.*
- San Anton** (izen bereko ermitaren ondoko baserria, Goizuetan): *Manuel Antonioren partez Patxiku San Antongoak Elaman egiñ dituan burniak. / Patxiko San Antong[oa] (JBM). / Patxiko San Antongoa en Elama (JBM). / Patxiko San Antongoa fundidor que trabajó en Elama (JBM).*
- Teresanea, Teresenea** (Teresene, Aranoko etxea): *Ignazio Loidikoak bost ogikiñ ekarri zuen zaku txiki bat, eta Jose Domingo Teresanekoak hamar ogirekiñ ekarri duen kostala bat. / Jose Domingo Teresanekoaren Urraideko basoa bota zen jornaleroan egunak.*
- Tomasarena** (Etxalarako etxea, iduriz): *Gabriel de Tomasarena itxalartarrarena.*
- Torra** (Goizuetako eta Oiartzungo etxe banaren izena): *Torrekoarena.*
- Txara** (Aranoko etxea): *Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranpareneta eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite.*
- Txaradi** (Aranoko eta Oiartzungo baserri banaren izena): *Horra Jose Migel Portalezekoaren ikatz guzien asentua, Txaradiko ondotik ekarri diranena. / Txaradiko ikazgille bati iduriak emateko portea...6 reales.*
- Txoanikenea** (Goizuetako baserria orain; lehen herriko etxea ere bazen. Aranon orobat): *Ambrosio Eskudero Txoanikenea (JBM).*
- Txoperena** (Igantziko etxea 1726an; egun Txoperenborda dago. Deitura ere izan daiteke, jakina, kasu honetan): *Juan Josepe de Apezitxea urzalle*



*berria horren partez leneko astean Jirolimo de Txoperena Iganzikoko urzalle horrek pasatu dituan egunak.*

**Txukalde** (Goizuetako etxe eta baserria behiala, baserria baizik ez egun). *Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½.*

**Txurdanki** (Txurdangi, Aranoko etxea). *Ardo hoietan guzitan dirade Goizuetatik Tranpak ekarriak hiru zagi, eta Txurdankikoak Urraidetik ekarria zagi bat.*

**Unsari** (Untxari Goizuetako baserria da): *Fermin de Onsari (JBM). / Fermin de Unsari Dendariren senarraren denborakoak. / Fermin de Unsari Dendariren senarrarenak. / Fermin Onsari (JBM). / Fermiñ de Unsari fundidor. / Manuel Antonio de Unsari fundidor (IB). / Manuel Antonio Onsari (JBM).*

**Urdallua** (Urdallue, egun Urdállu ebakia, Artikutzako baserri hondatua): *Saltorena, junto de Urdallua...05.*

**Urdanobia** (Irungo lehengo Urdanobiako ola?): *Juan Esteban de Urdanobia olatxoko berozalleak Elaman, olatxoan sartu dituan egun guziek ditu [...].*

**Urđiñola** (Goizuetako behialako burdinola, aurkintza egun): *Derecho por menas Pello Josepe Orzeriogan izanduarena. Suerte de Urđiñola, Iturruan egiñak...1 quintal, 4 arrobas ½. / Hoietaz gañera, badituzte Martiñ Josepe de Belaskok eta bere anaieak eta Altamira Urđiñolako igeleak egiñak [...] / Ko[n]solagarriaren semeak, Urđiñolako urzalleak, Elaman mealle sartu zituan egunak. / Zaparrok eta Errotariak orañ Iturruan, Urđiñolako suertean, egiñ dituzten meak.*

**Urraide** (Oiertzungo baserria; toki izena ere bazen eta bada): *Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke inork eraman gabe. / Eta geroztik honara bialdu dituen ardoak dirade, Urraiden utzia [...] / Hoietaz ganera, izanen ditu presako nazan pasatua[k] zazpi egun, eta espensak hamar eta erdi. Eta Urraideko basoa botatzen, egun bat. / Ignazio de Erbitik Urraiden, Ubarrizetan, egin dituen meak dirade 9 quintales, 2 arrobas. / Jose Domingo de Iribarrenen Urraideko basoa botatzen jornalean sartu dituzten egunak. / Patxiku ardemandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria. / Urraide aldetik ekarria.*

**Zibola** (Goizuetako etxea, eta burdinola antzina): *Altamira el de Zibola tirador. / Ikus Altamira sarrera.*

**Zubinea** (Zubirinea, Goizuetako etxea): *Hoietaz gañera badituzte Ignazio Predo Zubinekoak eta biak Iraurgiko ondoan egiñak...43 quintales, 1 arroba ½. / Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan.*

**Zuloaga, Zuloa** (Oiertzungo baserria): *Juamigel de Loperenak eta Martin Antonio Zulokoak Isillisko suertean, Aranokoan, egiñ dituzten meak.*

## 6.4. TOPONIMIA

### 6.4.1. Toponimia nagusia

**Aragoa:**<sup>3</sup> *Lenagoko aldian Aragoara balaxe juan ziran.*

**Arana(t)z:** *Aranazko Danboliñaren semeak eta Eguzkiak Basaianegiko Anzizarren mea belzeko lantegian [...] egiñ dituzten meak. / Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak.*

**Arano:** *Aranoko baso aurten esamiñatu duten Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut. / Aranoko erregimentuak bialdu digu baba, haiek etorri orduko egosi dezagula. / Aranotik ekarria libra bat olio. / Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak. / Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. / Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan. / Juamigel de Loperenak eta Martin Antonio Zulokoak Isillisko suertean, Aranokoan, egiñ dituzten meak. / Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, Suruako ondoan egiñ dituen meak. / Leontxo de Zabalak Aranoko errotari Juan Antonio de Tellitxeari Arolako ondoan, gaztañadian, eragiñ dion ikatza.*

**Aranzazu** (Aranzazu, Oñatiko auzoa eta monasterioa): *Hoietarako badu piñta bat ardo eta Aranzazuko praideari emana...1 pezeta. / Olakoak esan didate Aranzazuko fraide horri emateko [...] / Olakoak esan dute Aranzazuko fraile horri emateko [...].*

**Astiarraga** (Astigarraga): *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]i ezkutuko bat. / Egun hemen izandu dira Astiarragako itzaiak. / Eta yonen naiz Astiarraga, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Nik bigar agertu hobeko dut Astiarraga. / Ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa, baña burñitxo Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanen. / Ostiral arratsaldean joan ninzan Astiarraga.*

**Bera:** *Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak. / Demandako meatzean Berako Jainkoak bere lagunakiñ egiñak.*

**Donostia:** *Donostiara eramanak, burniak...2 quintales. / Donostiatik bi anega baba ekarriak. / Donostiatik ekarriak bi anega baba. / Donostiatik errugu erdi bat katza...2 pezetas. / Donostiatik kuartillu bat lumera...1 reales fuertes, 9 maravedís. / Eta 25 linea zabal eta 5 linea lodi Donostiarakoak zirala. / Haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154*

---

<sup>3</sup> Ikus gutuna (1798.09.28) aztertzean dioguna.

- kintal, eta burniak Donostiara eramanak 50 kintal. / Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara.*
- Ereñezu, Ereñazu** (Ereñotzu, Hernaniko auzoa): *Burniak Pikoagatik Ereñezura eramanak. / Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean. / Ereñezutik ere mea pixka bat erakarri nahi nuke, baña hemen abere gutxi dago, nahiagatik ere. / Orañ esaten diot larunbatean hemen izandu zela Pikoagako aleroa; Ereñezun dagoan mea hura ekarriko luketela berehala, eta Pikoagatik aranoar karraiadore hoiekin ekarri al baganzake! / Pikoagatik Ereñazura eramantako burniak.*
- Errenteria:** *Atzo etzen agertu itzairik bat besterik, eta egun goizean bialdu ditut hemengo karraiadoreakin Errenteriara jua behar duten burniak. / Derecho por menas de Errenteria...3 quintales, 0. / Errenteriarako burni hoiek hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena. / Gaztigatu beza burni hoiek Errenteriara behar duten. Hara beharko dutela ustean egun baziran lau itzai astiarragatarrak. Ez diotet burnirik eman, Errenterian, nola mearik ez dagoan, ez dituztela entregatuko. Ez diotet burnirik eman; gaztigatu beza zer egiñ edo burniak Errenteriara behar duen.*
- Franzia:** *Franziarako egin diran txabalak bialdu nituen Kosmeren itxera, entregatzeko ordena emanik.*
- Goizuetara:** *Burniak Goizuetara eramanak 13 quintales, 4 arrobas. / Eta Artantxurenzat Iruñerako Goizuetara eraman dituzten burniak dirade 27 quintales, 4 arrobas ½,....190 barras. / Goizuetako itzaiak etorri ziran, Xixtero eta Pellobaztanenbordakoa. / Goizuetatik hiru libra olio...2 pezetas. / Goizuetatik Yakua Labekoak ekarriak. / Iruñerako Artantxurenzat diran burni hoietatik badaude bederetzi kintal bezala, eta gaztigatu beza Goizuetara bialzea nahi duen, edo horra bialzea nahi duen. / Karta hori bart hemengo mandazaiak ekarri zuen Goizuetatik; ez dakit zeñena den.*
- Iganzi, Ianzi** (Igantzi, Bortzerrietako herria): *Jose Juakin Iganzi igele horrek orango etorraldi honetan Elaman egiñ dituen burniak. / Jose Juakin tirador de Iganzi (IB) = Ianzi. Jose Juakin tirador (JBM) = Joseph Juakin Etxeberria tirador Ianzi (JBM). / Juan Jos[e]pe de Apezitxea fundidor de Iganzi. / Juan Josepe de Apezitxea urzalle berria horren partez leneko astean Jiolimo de Txoperena Iganzi urzalle horrek pasatu dituan egunak. / JRMk (II, 97) Ianzi ibiltzen du.*
- Irun:** *Artantxurenzat Iruñerako Goizuetara eraman dituzten burniak. / Hau Iruñerako ere uler daiteke, frankotan n eta ñ zalantzan eta dantzan baitabilza IBren idazkietan. Ikus Iruñe(a) sarreran ageri den Iruñerako Artantxurenzat hori.*
- Iruñe(a):** *Iruñerako Artantxurenzat diran burni hoietatik badaude bederetzi kintal bezala. / Iruñerako atere diran garrobandak dirade 3 quintales, 16 barras. / Iruñerako atererik dauden garrobandak dirade...3 quintales, 16 barras. / Iruñerako burni hoiek ez dira allegatuko hogeita bat kiñtalera,*

*falta izanen dira hiru edo lau kintal. / Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago, eta zertatik hasi behar den gaztigatu beza. / Liberdiko olio neurria Iruñetik erakarri...1½ reales fuertes, 9 maravedís. / Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago.*

**Lezo:** *Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere. Nafarroa, Naparroa:* *Hoietarako hartuak ditu Naparroako lakadi bat baba eta laurden bat olio, eta hiru txiki ardo. / Hoietaz gañera, badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba.*

**Oiarzun:** *Entregatu zituen maisu honek sei hoge ezkutukoak. Barberoa Oiarzunan da eta entregatuko diozkat datorrenean. / Hemen ari den mealle Oiarzungo honi. / Ignazio de Ezponda Oiarzungo igeleak. / Letra hoiek egin ezkerro, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak. / Oiarzungo batek...40.*

**Pasaia:** *Hoietaz gañera, Pasaiarako egin diranak. / Pasaiarako burni hoieta hasirazi ditut, eta bialduko ditugu al dugun lasterrena.*

**Surua, Surue** (Suro, Aranoko auzoa): *Bordal de Surue. / Bordal junto de Surue. / Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, Suruako ondoan egiñ dituen meak. / Junto de Surue. / Orañ geroztik eginak Suruan baditu [...].*

**Zubieta** (ez dakigu Gipuzkoakoa ala Nafarroakoa den): *Zubietako menditik ekarri dute ikatza.*

#### 6.4.2. Toponimia txikia

**Abisaisti** (Arano): *Leoneten arzaia gandik Abisaistiko suertetik karga bat ikatz. / Suerte de Abisaisti, lo de Arano.*

**Agoña** (Abaño, Arano): *Domingo de Loiarte. Suerte de Arano junto de Agoña. / Juan Fermiñ Iribarren. Propia castañal junto de Agoña. / Sebastian Etxeberriaren suña. Suerte de Añarbe, junto de Agoña.*

**Alzate** (Alzate, Goizueta): *Alzatetik ekarriak. / Hoiek dira Epeleko eta Alzate aldeko ikatz guziak. / Oiarzuar karreteroak Fermiñ de Zubeldia Tranparen basotik, Alzatetik, Arranbidera 5 noviembre semana aste honetan ekarri dituzten ikatzak. / Txutarena. Suerte de Oiarzun, junto de Alzate...01.*

**Añarbe** (Errenteria - Goizueta - Oiartzun arteko aurkintza; egun urtegia dago, Donostia urez hornitzen duena): *Anton Paradisu. Suerte de Añarbe. / Añarbetik ekarriak. / Franzisku de Insauspe. Suerte de Añarbe. / Ubarrizetan egiñak eta Añarbetik ekarriak.*

**Aranobasoak:** *Aranobasotakoak, Isillis aldean.*

- Aritzederreta:** *Aritzederretatik ekarria olarako karga bat ziri.*
- Arritxurieta** (Arano): *Aranoko baso aurten esamiñatu duten Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia aditzen dut. / Arrantxaleren suñak eta Juan Franzisku Korroxxakoak Arritxurietan erdi bana egiñ dituzten meak dirade 108 kintal, 2 arroa. / Arritxuritako suertekoak. / Arritxurietan berak eta suñarekin egiñak. / Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, Suruako ondoan egiñ dituen meak.*
- Arteskiñeta** (Arano): *Egun goizean izandu naiz Arteskiñetako hartan ere. / Horra aurtengo Makutsolako eta Arteskiñetako basoen plazeriak.*
- Azkote** (Goizueta): *Azketetik ekarriak. / Ubarrizetan, Urraiden eta Azkoten eginak.*
- Azkoteko ubaldea** (Goizueta): *Juan Josepe Arrantxaleko horrek baditu Azkoteko ubaldetik lenago ekarriak, meak. / Juan Pello Bexinok Ubarrizetan, Azkoteko ubaldean eta Urraiden egintza (sic) dituen meak.*
- Basaianegi** (Basain egun, Artikutza; < Basajaunegi): *Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak, pisatu diranak. / Aranaztar Danboliñaren meakari horiek 3 de juniotik hasi eta honaraño Basaianegitik, beren meatzetik etorri diran meak dirade...84 quintales, 4 arrobas. / Basaianegiko Danboliñaren meak 11 de septiembere ezkerro etorri diranak dirade...225 quintales, 1 arroba. / Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean. / Juan Antonio eta Moxok eta honen anaie Josepek Basaianegitik honara bialdu dituzten mea guziak. / Moxok eta bere lagunak Basaianegiñ jornalean egin dituzten meak.*
- Basakaitz** (Arano): *Anbrusio Martikaldenekoa. Suerte de Basakaitz, lo de Arano. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz.*
- Basoberri(a)** (Arano edo Goizueta, ustez): *Agustin de Ubitziri Basoberriko iduriak emateko portea. / Basoberrikoa.*
- Beko Patarroa** (Goizueta): *Hoietaz gañera, Yakomeakan eta Beko Patarroan, bi lekutan egiñak [...].*
- Belzuntza** (Artikutza): *Santiago Marro Elizondo. Junto de Belzunza...02.*
- Burniñzabal** (Arano, ustez): *Arranbideko suertekoak, Burniñzabalko suertekoak eta Legarraldeko edo Buztindegiko suertekoak.*
- Burugorri** (Goizueta): *Burugorri edo Tantailepo delako hartatik Mariolaren seme horrenak dirala ekarri dituztenak. / Pellottikirena. Suerte de Burugorria, lo de Goizariñ...92. / Pellottikirenak. Suerte de Burugorria, lo de Goizariñ...12. / Sollarenak. Suerte de Burugorria, lo de Goizariñ...12.*
- Buztiña** (Artikutzako aurkintza, iduriz): *Hoietaz gañera, badituzte Errekaagor aldean Buztiñean<sup>4</sup> egiñak...8 quintales, 2 arrobas.*

<sup>4</sup> Ez dakigu seguru Buztiña toponimoa den edo buztina izen arrunta daukagun. Guk hemen leku izentzat hartu dugu, baina ziurtasunik gabe, esan bezala.

**Buztindeg**i, **Buztiñdeg**i (Arano, ustez): *Arranbideko suertekoak, Burniñzabalko suertekoak eta Legarraldeko edo Buztindegiko suertekoak. / Ezkurdi. Suerte de Buztiñdeg*i, lo de Arranbide. / *Ezkurdirena. Suerte de Buztindeg*i, lo de Arranbide.

**Demandako meatzea** (Artikutza): *Demandako meatzean Berako Jaiñkoak bere lagunakiñ egiñak. / Josepe Moxorenak eta bere semeak egiñ dituzten meak, beren propioak, dituzte, Demandako meatzeko ondotik ekarri diranak dituzte...65 quintales, 2 arrobak.*

**Dixidu** (Goizuetako aurkintza; ikus JRM, I, 123, 449. oin oharra, eta II, 304): *...eta hoietarako Dixiduko ubalde honetan egiñ zituen mea pixka batzuak.*

**Elama galarra** (Artikutza, Elama): *Elama galarra (JBM). / Elama galarrekoak: Juan Josepe de Altamirak eta Axtiarraga meakariak, erdi bana, biek partiduan egiñak dirade...72 quintales, 4 arrobak. Hoiek dirade Elama galarrean 1807, hasta 29 octubre ezkerro guzien artean egiñ dituzten mea guziek. / Hoietaz gañera, baditu Elama galarrean mea berezten sartuak, berak jana duela [...] / Juan Josepe de Altamira eta Martiñ Antonio Lizartxikitoren semeak eta Martin Josepe de Belasko itzaiaren semeak Elama galarrean egin dituzten meak Elaman pisatuak dirade 99 quintales, 1 arroba. / Martiñ Josepe de Belaskok eta bere anaieak, biek partiduan, Elama galarrean egiñ zituzten meak.*

**Elamagoiena** (Artikutza, Elama): *Razón de los carbones Bautista de Ubitzi y su compañero Manuel andoiñdarrak, suerte de Elamagoieneko lantegikoarenak.*

**Epela** (Goizueta; Hernaniko burdinola ere bazen): *Epeleko suertekoak dira. / Epeletik honara etorri diran ikatz guziak dirade Mariolaren seme horrenak. / Hoiek dira Epeleko eta Alzate aldeko ikatz guziak. / Hoiek dira Epeletik ekarri ditudan guziak. / Iduriak emanak Gregorio de Ansari Epeleko suertera. / Juakiñ de Erasok eta bere lagunak Epelean aurten egiñ dituzten mea guziek dirade 142 kintal, 2 arroa ½. / Pello Haundiarenak eta bere anaie Pellottikik Epelan egin eta honara ekarriak. / Suerte de Epela lo de Arranbide. / Suerte de Goizariñ, junto de Epela.*

**Erbizango erreka, Erbizañgo erreka** (Arano): *Axtiarragaren semeak eta Martin Antonio Lizartxikitoren semeak Erbizañgo errekan egi[n] zituzten meak. / Beratar meakari horiek Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak. / Erbizañgo errekan bi lagunak erdi bana egin zituzten mea guziak. / Hoiek dira Erbizango errekan egiñ zituzten mea guziak. / Patxiku Malet horrek leneko lagunarekin kontua garbitu ezkerro, lagun berriarekiñ 26 de juliotik hasi eta...2 de agostoraño Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak dirade 31 quintales, 2 arrobak ½.*

**Erbizango malda** (Arano): *Patxiku Malet beratarrak eta bere suñak, Paskual de Insauspek, Erbizango maldan egiñ zituzten meak, Burugorriak lagun bateki[n] orañ berezi dituan meak, dirade...9 quintales, 2 arrobak.*



- Erbizañ** (Arano; *Erbizin* egun): Derecho por menas de *Erbizañ*... 11 quintales, 5 arrobas.
- Errekaagor** (*Errekagor*, Artikutza): *Hoietaz gañera, badituzte Errekaagor aldean Buztiñean egiñak*...8 quintales, 2 arrobas.
- Etzabal** (Arano): *Domingo de Loiarte*. Suerte de *Etzabal*, lo de Arano.
- Ganziñ** (*Gaintzin*, Goizueta): *Hoietaz gañera, Gañziñgo ondoan egiña[k] baditu meak*.
- Gañzingo erreka**: *Itxola eta iduriak eramana Artxaizarrari, Olzorrozko suertetik Gañzi[n]go errekarara*.
- Gaztarotz** (Goizueta): *Anbrusio Tranpari Gaztarozkoaren basora itxola eramana*...3 reales.
- Goiko mendia** (Arano): *Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak. / Beratar meakariak, Jainkoak, eta bere lagun berriak Aranoko Goiko mendian egiñak. / Hoietaz gañera, Aranoko Goiko mendian bi lagunak erdi bana egin dituzten guziak dirade [...]*.
- Goroskarata** (Goizueta): *Goroskarata*, lo de *Goizariñ*. / *Goroskaratako mintegiaren ondotik ekarriak*.
- Gorriola** (Arano, ustez): *Gregorio de Arotzandia*. Suerte de *Gorriola*, lo de *Arranbide*. / *Idiak bial bitza larunbatean, Urriztitxabalen eta Gorriolan izanen dira zurak*.
- Gorriolako basoa** (Arano, ustez): *Santiago de Alzubidek Tranparen eta Pepe Exurrenekoaren Gorriolako basoan egiñ dituen ikatz guziak dirade [...]*.
- Gorriolako ubaldea** (Arano, ustez): *Hoietaz gañera, baditu Gorriolako ubaldean Ubarritzetan egiñtako meak*...8 quintales, 5 arrobas.
- Iraurgi** (Oizartzun): *Hoietaz gañera badituzte Ignazio Predo Zubinekoak eta biak Iraurgiko ondoan egiñak*...43 quintales, 1 arroba ½.
- Isillis** (*Isillas* orain, Arano; aldera bedi herri bereko gutunetako *Erbizañ*, *Erbizan*-ekin, egun *Erbizin*). *Anbrusio Arotzandia*. Suerte de *Isillis*, lo de Arano. / *Aranobasotakoak, Isillis aldean. / Juamigel de Loperenak eta Martin Antonio Zulokoak Isillisko suertean, Aranokoan, egiñ dituzten meak*.
- Iturriaga** (Arano): *Brauliok eta Zapparrok Iturriagan egiñ zituzten meak dira erdi bana egiñak*: 21 noviembre...5 quintales, 1 arroba ½.
- Iturrua** (Goizueta?): Derecho por menas *Pello Josepe Orzeriogan izanduarena*. Suerte de *Urdiñola, Iturruan egiñak*...1 quintal, 4 arrobas ½. / *Zapparrok eta Errotariak orañ Iturruan, Urdiñolako suertean, egiñ dituzten meak dirade 73 kintal, 5 arroa ½*.
- Karamalkata** (Goizueta?): *Juan Josepe Arrantxalekoaren beraren meak, bere propioak, Ubarritzetan eta Karamalkatan egin dituen guziak dirade*...85 quintales, 2 arrobas.
- Karasue** (Goizueta): Hacia *Karasue* (JBM).
- Lakoa** (Arano? Goizueta?): Suerte de *Lakoa*, lo de *Arranbide*.

**Legarralde** (Arano, ustez): *Arranbideko suertekoak Burniñzabalko suertekoak, eta Legarraldeko edo Buztindegiko suertekoak.* / *Agustin de Ubitzi. Suerte de Legarralde, lo de Arranbide.* / *Domíngo Bizente de Mitxelena. Suerte de Legarralde, lo de Arranbide.* / *[Es]teban de Zabala. Suerte de [Legarra]lde, lo de Arranbide.* / *Juan Esteban de Zabala. Suerte de Legarralde, lo de Arranbide.*

**Makutsola, Makutsula** (Arano): *Hacia Makutsola (JBM).* / *Hoietaz gañera, badute santiagoetan Makutsulatik ekarria karga bat ikatz Konsejurako.* / *Horra aurtengo Makutsolako eta Arteskiñetako basoen plazeriak.* / *Sebastian de Ibarrenen basoan, Makutsulan, Domíngo Estartako horrek egiñ duen ikatza.* / *Suerte de Makutsula, lo de Arano.*

**Olzorrotz** (Ontzorrotz orain, Arano): *Artxaia viejo. Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide.* / *Etxeberria viejo. Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide.* / *Iduriak emanak Martín Okerrari eta... Artxaizarrari Olzorrotza.* / *Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan, eginak dituzte...20 quintales, 3 arrobas y ½.* / *Itxola ekarria Olzorrotzko suertetik Arranbidera, Tranparena.* / *Itxola eramana Etxeberria zarrari, Olzorrotzko suertetik Unziño suertera.* / *Itxola eta iduriak eramana Artxaizarrari, Olzorrotzko suertetik Gañzi[n]go erre kara.*

**Ozizpe** (Errenteria): *Urte honetako gure ikazgilean plazeriak izanen dira lenbizikoak Añerbekoarekiñ trukada egin dudanak, Ozizpeko ondoan.*

**Presaburua** (Arano): *Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den lehorrik sartu nahi ganituke (sic), batzuek badere.* / *Itxola bat eramana Tranpari Presaburutik Olzorrotza.* / *Itxola eramana Presaburutik Unzingo suertera, Jose Olaizola Marzanekoari.* / *Pepe Lukanbio. Suerte de Presaburua, lo de Arano.* / *Suerte de Presaburua, lo de Arano.*

**Tantailepo(a)** (Goizueta): *Burugorri edo Tantailepo delako hartatik Mariolaren seme horrenak dirala ekarri dituztenak.* / *San Juan de Sagarzasu. Suerte de Tantailepoa.* / *San Juan de Sagarzasu. Suerte de Tantailepokoak.* / *San Juan de Sagarzasu. Suerte de Tantailepokoak.* / *Tantailepoa lo de Goizariñ.* / *Tantailepokoak.*

**Telleria** (Arano): *Suerte de Telleria lo de Arano.*

**Tintopolo** (Arano): *Itxola bat ekarria Tintopoloko suertetik Arranbidera, Gregorio Apezzenekoarena.* / *Itxola bat eramana Arranbidetik Tintopoloko suertera.* / *Martxaren suña. Suerte de Tintopolo, lo de Arano.* / *Mitxelenekoa. Suerte de Tintopolo, lo de Arano.*

**Txorikantaria, Txorikantariaga** (Txorikantari orain; Artikutza): *Moxok eta bere anaie Josepek Txorikantarian egiñ dituzten mea guziek dirade...160 quintales, 1 arroba.* / *Txorikantaria meatzean aranaztarrak egiñak...2 quintales, 3 arrobas.* / *Txorikantariaga (JBM).* / *Txorikantarian aranaztarrak egiñak...2 quintales, 5 arrobas.* / *Txorikantarian bi anaie*



*horiek erdi bana edo partiduan egiñ dituztenak dituzte...26 quintales, 5 arrobas.*

**Ubarritzeta** (Arano? Goizueta?): *Hoietaz gañera, baditu Gorriolako ubaldean, Ubarritzetan, egiñtako meak...8 quintales, 5 arrobas.<sup>5</sup> / Ignazio de Erbitik Urraiden, Ubarritzetan, egin dituen meak dirade 9 quintales, 2 arrobas. / Juan Josepe Arrantxalekoaren beraren meak, bere propioak, Ubarritzetan eta Karamalkatan egin dituen guziak dirade...85 quintales, 2 arrobas. / Juan Josepe Arrantxalekoaren meak Ubarritzetan. / Juan Josepe Arrantxalekoarenak Ubarritzetan egiñak. / Juan Pello Bexinok Ubarritzetan, Azkoteko ubaldean eta Urraiden egiñ~~ta~~ (sic) dituen meak. / Tiki Añarbeoaren meak Ubarritzetan egiñak eta Añarbetik ekarriak. / Ubarritzetan, Urraiden eta Azkoten eginak.*

**Unzin** (Arano): *Itxola eramana Arranbidetik Unziño suertera, Mitxeleneoari. / Itxola eramana Etxeberria zarrari, Olzorrozko suertetik Unziño suertera. / Itxola eramana Presaburutik Unzingo suertera, Jose Olaizola Marzaneokoari.*

**Uralperra** (Elama aldeko aurkintza zatekeen, Artikutzakoa): *Hoietaz gañera, baditu haxiak Uralperreañ egiñak.....1 quintal, 3 arrobas.*

**Urraide** (Oiarzungo baserria da, baina aurkintza ere bai; cfr. Añarbe). *Juan Pello Bexinok Ubarritzetan, Azkoteko ubaldean eta Urraiden egiñ~~ta~~ (sic) dituen meak. / Ubarritzetan, Urraiden eta Azkoten eginak.*

**Urriztixabal** (Arano): *Anbrusio Arotzandia. Suerte de Urriztixabal lo de Arranbide. / Idiak bial bitza larunbatean, Urriztixabalen eta Gorriolan izanen dira zurak. / Urriztixabalko suertetik ekarriak bi karga ziri.*

**Yakomeaka** (nongo aurkintza?): *Bergak Yakomeakara eramanak 3 quintales, 2 arrobas. / Derecho por menas Yakomeaka...4 quintales, 2 arrobas. / Derecho por menas Yakomeakakoak. / Fermin Josepe de Ubitzi Moxo zarrak Yakomeakan egin dituen meak. / Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku Errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½.*

**Zamiola** (Arano): *Suerte de Zamiola, lo de Arano.*

<sup>5</sup> Ez dakigu izen arrunta ere ez ote den, hots, «Gorriolako ubaldean, ubarritzetan» ez ote den ulertu behar. Osagaiak argiak dira: *ubarri* ‘errekaria’ eta *-tz(e)* edo *-tza* leku ugaritasunezko atzizkia. Toponimo bihurtzeko —toponimoa bada behintzat— *-eta* lekuzkoa gehitu zaio, inesiboaren hondarki horrekin erabiltzearen bortxaz, berranaliziz: *ubarritzetan* -> *Ubarritzeta*.

## 7. HIZTEGIA

Hemen Ignazio Bergarak gutunetan erabiltzen dituen hitzak biltzen ditugu. Dituen guzi-guziak jasotzea izan da gure nahia, baina seguruenik bakarren bat itzuri izanen zaigu. Gainera, hiztegiak ez garenondako maiz zail gertatzen da, hitza bakuna ez bada, gauzak nola diren argi ikustea, adibidez «*larunbatean meza enzuteko jaia da*» esaldian *meza enzun* eta *jai* sarrera banatan sailkatu behar diren edo *meza enzuteko jai* bakarra besterik ez den eman behar. Kasu honetan, hutsik ez egiteko, bai bata eta bai bestea jaso ditugu. Hitzaren kategoriarekin ere lanik aski ukan dugu zenbait aldiz eta, JRMren lanean egin genuen moduan, beti Euskaltzaindiaren Hiztegiari jarraiki gatzazkio: hark zer esaten duen eta hura onetsi dugu guk, gutiz gehienetan bederen.

Ignazio Bergara goizuetarra zen, baina Aranoko Arranbide burdinolako arduraduna ere bai. Gutunetan ikusten den eran, inguruetako leku anitzetako jendeekin zituen harremanak, eta ez dago zalantzarik horrek eragin ziola. Toki askotako meakari, karraiadore, itzain, mandazain, maisu, berotzaile, igele, meale eta besterekin ere izanen zituen mota bateko edo besteko negozio hartu-emanak, eta menturaz horregatik aurkitzen dugu frantseseko *loin* ‘urrun’ eletik datorren *luen* mailegua ondoko pasarte honetan: «*Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz*». JRMk ere badu Iparraldekoekiko tratuen ondorio bide diren hitzak, *malura* konparaziorako, eta, beraz, ez da mirestekoa holakoren bat IBren gutunetan ere ager dadin.

JRMren lanetan jokatu genuen bezala jokatu dugu berriro ere: ele ohiko eta arruntak, edozeinendako argiak direnak ez ditugu definitu, ez diegu adierarik eman, deus berezirik ez bazuten segurik. Ordea, bestelakoak, berezitasun zerbait dutenak, antzinako diruak izendatzen dituztenak edo burdinolako jarduera eta jardunarekin zerikusia dutenak azaltzen ahaleginak egin ditugu, eta horretarako, aurrekoan egin genuen moldean, irakurlea frankotan A. M. Mitxelenaren *Goizueta inguruko burdinolak* lan ederrera bidali dugu, komunzki (gaztelaniaz) esaten den bezala, irudi batek mila hitzek baino gehiago balio baitute.

Bai orain argia dakusaten IBren gutunok eta bai duela urte pare bat karrikaratu genituen JRMrenek gauza bat dute amankomunean: Goizueta inguruko burdinolen mundua azaltzen zaigu, orain arte, euskaraz bederik, arrunt guti azaldu zitzaiguna (Zulaika, 2022: 62). Hamaika hitz tekniko

darabiltzate JRMk ea IBk, baina, zorigaitzez, ez burdinoletan ibiltzen ziren guziak, beste iturrietatik ikusteko aukera izan dugunez.

Hona hemen Ignazio Bergararen hiztegia:

- abere** iz. Etxe aberea da Goizuetan, asto, behor, mando, behi eta holako. *Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere. / Eta Ereñezutik ere mea pixka bat erakarri nahi nuke, baña hemen abere gutxi dago, nahiagatik ere. / Eta horien portea egin beza abere baten jornala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat. / Hoiek ere, eta nahi badu bere mandoak bial ditzala, bederatziña artoa eramateko ez dirala honen abereak gauza. / Lohietan gauza den abere bat iñork ez dauka ere, konparezioa[n]. Erremoni ere zaldi bat hill omen zaio. Astiarragako abereak ya ahitu dira orañtxe.*
- abisatu** *du* ad. Gehienetan bi argumentuko aditza da. *Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela, kargatu badere egin baledi! / Arren eta arren beurri gaztigatzeko abisatu dit, eta errespuesta bialduko dio. / Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala. / Batzuek beñzat gabaz etorriko zirala esan zuten, eta besteak ere abisatuak dira goiz etorzeko. / Egun ez dakik (sic) noiz akabatuko diran haxi eta zakar hoiek, eta abisatuko dut. / Eta yonen naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Etorzen bada aste honetan abisatuko nauela, eta berarekiñ egonen naizala. / Ikus gaztigatu sarrera.*
- abonatu** *du* ad. *Ordaindu. Enfin, konponduko al dira edo abonatu al diote gastu hori.*
- abuztu** iz. *Hoiek dira Murgioko bi itzai horiek, abuztu joan denean urtebete ezkerro, hemen hartu dituzten diruak. / Taia txikiko ardoak ditu, hasialdi honetakoak, abuztutik hasi eta honarañokoak 7½ pintas.*
- aditu** *du* ad. 1. *Entzun. Bigar ageriko da, Olet juaten bada, eta adituko degu zer esaten duten. / Eta oran garbitzen ari diran meatze hark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean. Proga bitza eta zer esaten dioten adituko diote. / Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den. / 2. Ulertu (ez da segurua, ‘entzun’ ere izan daitekeelako, gutuna goraki irakurriz gero). Horra, adituko du karta horretan zer esaten dion, eta daritzana egiñen du. // Behin edo beste tarteko adiera duela dirudi, hori posible bada behintzat: Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut, eta zenbat duen ziertorik ez dut aditzen, baña beurri gaztigatuak izanen dira, jakiñen du beurrek bada.*
- aditzera eman** *du* ad. *Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. Esan diot beurrek gaztigatu didan bezala. Ongi dela esan dit, aditzera emanen diotela lagunai.*

- ageri da** ad. *Bigar ageriko da, Olet juaten bada, eta adituko degu zer esaten duten. / Egun goizean berantetsi eta inor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da. / Enfiñ, ageriko da zer egiten duen. / Porfiñ, nere jubizioa hau egiten dut honela, eta ageriko da.*
- agertu da** ad. *...eta baldin egia bada, naturalmente izan laiteke horrara agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea. / Bigar edo etzi agertuko zazkio eta egonen dira. / Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarririk dirurik. / Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara.*
- agertu bat egiñ du** ad. *Agerraldia egin, ikusi bat egin, sar-atera bat egin. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du, eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek.*
- agindu, agiñdu du** ad. 1. *Manatu. Hoietaz ganera (sic), Juakiñtxok agindurik [go]nbitetan gastatuak, bi ogi eta 9 pinta ardo...8 reales. / 2. Prometatu, hitzeman. Eta egondu naiz Ubitziren seme zarrarekiñ eta esan dit Belaundiak abisatua daukala, santiagoak pasatu artea inori ez agiñzeko. / Itzai kondenatu hoiek agiñzen dute guziak, eta erdiak ez etorri gaur. // Kasuren batean ez dakigu bi adietarik zein dugun: Nik agiñze[n] dut, eta egiten dut egiñ al dezakedan guzia; ez dezaket nik gehiago egiñ egiten dudana baño.*
- agoa iz.** *Urtzaileak burdinolako sutegi handian lortzen duen burdina edo zamarra; A. M. Mitxelena (2020: 127) Goitzaringo dokumentazioko aipu hau dakar: «11 - La masa o agoa que existe en dicha herrería, y que es la última fundición de la época en que paró dicha herrería». Gutunetako lekukotasunak: Atzo olaxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten. Galdu zituzten bi agoa.*
- agoa egin, agoa egiñ du** ad. *Aste honetan Manuel Juakin Elamakoak egiñ zituan agoa bat eta erdi hoiena; Ferman urzalleak gutxiago behar du. / Aste honetan Nolbertoren partez Perrazelaikoak egin zituan zazpi agoa. / Franzisku Antonio Makatzenak Manuel Antonioren partez Arranbiden egin dituen agoak dirade [...] / Gregoriotxo de Olaizola Elamako igeleak Nolbertoren partez hemen sartu dituen egunak eta egiñ dituen agoak dirade [...] / Hoietatik Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako jorna, bi erreal. / Kaperoren partez egiñak zazpi agoa.*
- agoa jornal iz.** *Gelditu behar diozka Nolbertori Perrazelaikoaren zat zazpi erreal, agoa jornalak.*
- agur interj.** *Agur. Geldi bedi ongi.*
- ahitu da** ad. *...eta ardoa ere beharko da bigarko, eta baba ere ahitu da. / Astiarragako abereak ya ahitu dira orañtxe. / Despatxu mandazai honek entregatu ditu bi ogi eta zorzi karga mea. Bialdu dut tobera zarra; bigar goizean bial bezate al dutena. Baba ere ahitu da. / Gaztigatu nion*

*Buruzuriak anega bat baba nola eman zidan; ahitu da guzia, ez dago lakadi bat besterik. / Orañ ari diran goiko meatzea ia ahitu zaiote, ez dute han mea askorik egiñen.*

- aita-sume** iz. *Hoiek dituzte aita-semblean artean egiñ dituzten ika[tz] guziek. / Hoietaz ganera, baditu presako nazan sartuak aita-semblean artean...9 días. / Hoietaz gañera, bideak egiten aita-sembleak egun bat.*
- aitzakia** iz. *Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.*
- ajustatu** du ad. *Egokitu, doitu. Horiek dira leneko kontua nik egiñ ezker hartu ditudan diru guziek. Eta kontu guzia ajusta beza, alabarena eta guzia beurrek deritzan bezala.*
- akabatu** da/du ad. *Bukatu. Arotzak gaur ez[t]ute akabatuko hemengo lana. / Egun ez dakik (sic) noiz akabatuko diran haxi eta zakar hoiek, eta abisatuko dut. / Eta janean naiz daritzadan moduan dirua repartituz, lana egiñaren konforme. Eta emanen diot, hilla akabatzen denean, guzian kontua. / Gaur akabatzeko deseoa nuen heme[n]go lana.*
- akordatu** da ad. *...akorda dediela zeñekin bialdu zituan, eta bi[al] ditzala al duen lasterrena, hau horrara ebilli gabe. / Paskual Insauspe honek esan dit akorda dediela lau urretxiki haiek norekiñ bialdu zio[z]kan. / Ikus oroitua sarrera.*
- al ahal**, partikula modala. *...eta bolborak nik ez dakit zenbat libra dituzten; hor jakiñen al dute! / Añarbekoak berak badute ikatza franko, eta ez al dute esparik izanen! / Aranoar hoiek badira egunero zazpi edo zorzi karretero, eta itzaiak ere etorriko al dira! / Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da, ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor! / Dirua hartuak horr asentatuak al dauzki, noski! / Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira! / Enfin, konponduko al dira edo abonatuako al diote gastu hori.*
- al izan** du ad. (baita **-tu al \*edin**, **-tu al \*ezan** ere). *...baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela, iñor<sup>1</sup> al badu kuarto batzuek berak emanen batiozte ere. / Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit iñor ideroko ote duen. / Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. Bada, ustelenak edo galduenak badere, gogortuxe beharko dute, al den bezala. / Badira, bada, hiru itzai, eta bigar eta etzi bialduko al ditugu. / Baldiñ zakurik badu, behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena. / Halere esan dit beurri gaztigatzeko ola haundian, hemen, atere al baditezke. / Nik agiñze[n] dut, eta egiten dut egiñ al dezakedan guzia; ez dezaket nik gehiago egiñ egiten dudana baño. / Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara, agertu hobeko dut norbait erakarri al baneza. /*

<sup>1</sup> Inor errepikatu hau sobran da.

*Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerok jakiñen al du. / Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanzen du honek egi[te]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke. / Pasaiaarako burni hoietan hasirazi ditut, eta bialduko ditugu al dugun lasterrena. / Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*

**ala** iz. Gabarra txikia. *Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterareztzeko modua har dezadan len baño len. / [Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den].*

**alaba** iz. Egondu naiz Jaunsaratsen alabarekiñ eta esan dit egunero dagoela esperoan, ez dakiela noiz etorriko den. / Horiek dira leneko kontua nik egiñ ezkerok hartu ditudan diru guziek. Eta kontu guzia ajusta beza, alabarena eta guzia beurrek deritzan bezala.

**aldamanean** adb. Ondoan. *Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*

**aldatu du** ad. *Olatxoko kabia eta ingu[d]jeak aldatzen...1 día.*

**alde** iz. 1. Aieka, ingurua. *Arano aldeko Goiko mendian egiñak. / Aranoar hoiek badabillza, baño nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke iñork eraman gabe. / Aranobasotakoak, Isillis aldean [...] / Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak... / Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. / Hoiek dira Epeleko eta Alzate aldeko ikatz guziak. / Salvador Mitxelena horrek ditu ikatzak, bere propioak, borda aldean egiñak [...] / Urraide aldetik ekarria. / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu. // 2. da ad. (adlatiboarekin). *Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago, eta zertatik hasi behar den gaztigatu beza.**

**alde batera** adb. Destajuan, hitzartutako prezioan. *Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean lau laguneko partidukoan egiñ zituzten meak ziraden [...].*

**alde batera...bestera** adb. *Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera.*

**alderako** (genitiboarekin) adb. -en truke, -en ordainetan. *Ikatz hoien alderako hemen hartu dituena[k] dira...espensak 3.*

**alderdi** iz. *Alderdi guzietatik ez dago gastua besterik. / Horra beste alderdian Antonio de Arotzena Atanasioren semeak leneko kontua egiñ ezkerok Arranbiden egiñ dituen lanak, astean astekoak, beren espensakiñ.*



- aldi** iz. Txanda. *Esan behar dio leneko meatzean egin dezala mea ona; bestela, hobe du mearik batere ez harzea. Mea txarrak egiten ditu orañ aldi honetan. / Fermin Josepe Moxorenak Yakomeakan lenbiziko pisatualdian zituan meak dirade 03 marzo...38 quintales, 1 arroba ½. Bigarren aldikoak 08 abril...25 quintales, 1 arroba. Hirugarren aldikoak zituan bereak [...]* / *Lenagoko aldian Aragoara balaxe juan ziran. / Olaundiko sutegia konponzen, bi aldietan...4 días.*
- alegiñ** iz. *Egun baziran hiru itzai; bialdu ditut hamabi barra, eta gelditu dira hamalau barra, eta hoiek egiñen dut bialzera alegiñ guziaz.*
- alero** iz. *Ala edo gabarra gidatzen duena. Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten 102 reales, eta haienak eta bere mandoan jornalak 18 pesos, 7 reales, 18 maravedís. / Orañ esaten diot larunbatean hemen izandu zela Pikoagako aleroa.*
- alkandora** iz. *Eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia.*
- alkate** iz. *Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria ez ematekotan, ez dutela baso beharrik. / Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. Esan diot beurrek gaztigatu didan bezala. Ongi dela esan dit, aditzera emanen diotela lagunai. / Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ porsio kaso juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearenzat edo gamondar haienzat. / Pepe Exurrenekoak, alkateak, esan dit Santiago hori (sic) harzeko duela, bi ezku[tu].*
- allegatu da** ad. *Iritsi. Hoi en laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira. / Iruñerako burni hoiek ez dira allegatuko hogeita bat kiñtalera, falta izanen dira hiru edo lau kintal. / Karta hau egiñ ezkerro allegatu da mutill hau; entregatu ditu hamalau ogi.*
- almuda axal** iz. *Bururdi axala. ...eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia; eta lau almuda axalen gaia, telazkoak. / Ikus buruko azal sarrera.*
- alper biajea egiñ** ad. *Alferreko itzulia egin. Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaia hemen izandu da, nahi lukeala jakin kontuak egitera noiz etorriko den, egun bat siñala diozala eta etorriko dela orduan, alper beajerik egiñ gabe, nahi litukeala kontuak garbitu.*
- altxatu du** ad. *Goratu. Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarrak eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.*
- anaie** iz. *Anaia. Anaieari eman diozkat beurrek bialdu zitidan hemeretzi urretxikiak. / Eta horren anaie Premin horrek Kaperoren partez pasatu zituen denborakoak dirade burniak [...]* / *Manuel Antonio honen anaieak [...]* / *Patxiku Malet beratar horrek eta bere anaieak Erbizaño errekan*

*egin dituzten meak dirade [...] / Pello Haundiarenak eta bere anaie Pello Tikik Epelan egin eta honara ekarriak.*

**andoaiñdar** iz. Razón de los carbones *Bauptista de Ubitzi* y su compañero *Manuel andoiñdarrak*, suerte de *Elamagoieneko lantegikoarenak*.

**andre** iz. *Eta orañ bialdu dituenak entregatuko diozkat erretorari bi, eta Estartako andreari hogei eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuerteak, esaten didan bezala.*

**anega** iz. Edukiera neurria (erdaraz *fanega* agertzen da gutunotan). A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), Gipuzkoakoak 55 litro zituen. *Bi anega baba hartu dituela dio. / Donostiatik bi anega baba ekarriak. / Saldagarbiren babaren txartela eta Goierrirentzat anega biren bial dezala horrekin. / Jose Olaizola Marzanekoak eskatzen du anega bat babaren txartela, jateko babatik.*

**animo** iz. *Atzoko eguna sartu dute lanean, eta nik zer esan dezaket? Berak badute animoa franko.*

**antapara** iz. Errota edo burdinola urez hornitzen duen depositua.<sup>2</sup> *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. / Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarrak eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak.*

**añadimentu** iz. Gehigarria. *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik inondik ez ematekotan.*

**añaditu du** ad. Erantsi (*eratsi, eraitsi* ere badarabil IBk), gehitu. *Orañ inori ez porterik añaditu, bestela guziek hala nahiko lukete. / Ikus eratsi sarrera.*

**añarbear** iz. Añarbekoa (Oiartzun - Errenteria - Goizueta). *Añarbear boiei esatea nahi duen edo In[...].*

**apalogi** iz. Afari ogia. *Ogiak eskas ditugu apalogitako, eta bialdu bitzate ogi batzuek mutill horrekin.*

**aparte** adb. *Hoietaz gañera, baditu Juan Franzisku Korroxxakoak, baditu berak aparte, lagunik gabe egiñak, bere propioak, 7 kintal, 2 arroa. / Horra karretoko asentua hillean hillekoa, aparte nahi badu ere. Ez dute hill honetan mea gehiago izanen. / Patxiku Errotariak bere semearekin aparte egiñak baditu 28 diciembretik hasi eta 30 eneroraño: 14 quintales, 0 zabal.*

---

<sup>2</sup> Goizuetako dokumentazioan behin baino gehiagotan ateratzen da *antepara* aldaera, betiere burdinolekin loturik. Hau *Zibola*-rekin (1706, NEAN, 15605, 3, 12; lodia gurea da): «...las dos Vurucoas del uso mayor son nuevas = como tambien las dos Aldabarras del Mazo [...] las Vurucoas de la Barquinera se allan buenos y la antepara al presente se alla buena [...] dicha Herreria de Ziuola». Beste hau Goizuetako *Olaberria*-rekin: «Ytten un castañal en el prado de Yeraga que afronta con [...] de Juan de Aranoenea Ytten otro castaño Yllaluzea junto a la antepara de la Erreria de Olaberria» (1709, ibid., 6, 14). Nolakoak ziren jakiteko, ikus bitez A. M. Mitxelenak (2020b: 19-25) dakartzan marrazkiak. IBk ere *antapara* ibiltzen du.



- aparteko** adj. *Bada, horiek guziak, eta illeak, eta punzio honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentua aparteko batean; eta dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak.*
- apenaz** adb. *Nekez, doi-doiatarik. Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealle honek; Santiagok apenaz jango zuen bada.*
- apirill** iz. *Apirillean leneko hillean huts egiñak...05.*
- aranaztar** adj./iz. *Aranazkoa, Arantzakoa. Aranaztar Danboliñaren meakari horiek. / Atzo aranaztarrak babarekiñ ekarri zuten kostala, eta mealleak ekarri zuen zakutxo. / Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere. / Horra aranaztar karreteroan asentua [...] / Santiago de Ubitzi aranaztarrarena...10. / Txorikantaria meatzean aranaztarrak egiñak...2 quintales, 3 arrobak. / Txorikantarian aranaztarrak egiñak...2 quintales, 5 arrobak.*
- aranoar** adj./iz. *Aranokoa. ...eta Pikoagatik aranoar karraiadore hoiekiñ ekarri al baganazake! / Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke inork eraman gabe. / Aranoar hoiek badira egunero zazpi edo zorzi karretero, eta itzaiak ere etorriko al dira! / Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan. / Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekiñ beñere konportarik eziñ bete dezaketenak.*
- arbazta** iz. *Adar xehea. Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen. / Orañdik arbazta lotzekoa dago gehiena, eta ekarzekoa. Enfiñ, mearik aski bada, kargatuta egonen da.*
- ardamandazai** iz. *Ardo garraioan ibiltzen zen mandazaina. Horra Patxiku ardamandazaiaren ardoan asentua. / Patxiku ardamandazaiak Arranbidera ekarri dituen ardo guziak dira [...] / Patxiku ardamandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria. / Sebastian de Etxeberriak, Aranoko ardamandazaiak Arranbidera ekarri dituen ardoak dirade [...] / Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaiaren hemen izandu da.*
- ardatz** iz. *Olako hauspotegiko edo gabitegiko peza baten izena (zinguzangua-k ere bazuen ardatz; ikus A. M. Mitxelena, 2020: 31, 37, 40, 41, 263). Larramendik (1882: 71) gabiardatz deitzen dio gabitegikoari. IBren gutunetan ditugunak olakoa eta olatxokoa dira: Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziranekoak. / Karrettok berak olatxoko ardatzaren ondoko pareta egiten...3 días. / Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. / Olatxoko ardatza eta erruda konponzen Anbrusiok, Olasokoak...6 días. / Olatxoko ardatza ustaitzen gastatu ziran burniak dira...8 quintales.*

**ardatza sartu du** ad. *Haspategiko goiko ardatza sartu zenean ola konponzen...1½ día.*

**ardi** iz. *Ardiaren dirua bost erreal kuarto.*

**ardizar** iz. *Jaten den ardi zaharra. Ardizar[r]a jantakoa sei pezeta. / Derecho más ardizar bat jana...05 pezetas. / Derecho má[s] ardizarra jana...05 pezetas.*

**ardo** iz. *Eta ardoak, tai txikian dituenak, zorzi pinta. / Eta taia txikiko ardoak ditu 11½ pintas. / Hoiek dira hemen daudenak, eta tai txikiko ardoak ditu 8 pinta. / Honek badu gehiago pinterdi bat ardo. / Patxiku ardamandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria.*

**aretzedun** adj. *Aratxea, zekorra duena. Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*

**argigarri** iz. *Lumera, argi egiten duen gaia. Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik. / Ikus lumera sarrera.*

**ari (izan), aritu** da ad. *...eta ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat. / Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Bergamazoiako pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera. / Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olio, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe. / Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat. / Manuel Antonio urzallearen partez Ferman Iberon aritzen de[n] urzalleak hemen pasatu zuen aste bat. / Orañ ari diran goiko meatzea ia abitu zaiote, ez dute han mea askorik egiñen. / Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes. Mealle irundarra aritu zen Lukes horren partez. Zazpi aste hoietan ez Lukes horrek, ez burnirik eta ez deus ere.*

**arialdi** iz. *Lanaldia, saialdia. Hau da oraño horren arialdikoa. Lenekoa ema[n] nion; hor izanzen du kontua, garbitu ezpazion.*

**arkitu** du ad. *Hori da horren kontua, nik hemen arkitzen dudana. / Hemen ez dut arkitzen gehiago. / 7 enerotik hasi eta 1803 hasta 26 eneroraño 75 quintales, 4 arrobak daude hemen, orañ arkitzen dudana. / Ikus billatu eta idero sarrerak.*

**arku** iz. *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eramam diozka. / Ikus arragoako arkua sarrera.*

**arku harri** iz. *Eraikuntzan, arkuak egiteko erabiltzen den harria (arragoakoak hain segur). Arku harriak Goizariña ekarriak...2 cargas.*

- armazio** iz. Enkofratua edo. *Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu.*
- arotz** iz. Zurgina. *Arotzak gaur ez[t]jute akabatuko hemengo lana. / Arotzandia onimoan erre azaltzen da.*
- arrago, arragoa** iz. Burdinoletan, mea erretzen den aparteko eraikina (ikus bedi A. M. Mitxelena, 2020: 26-27, 30, 65, 233). *Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. / Eta bialdu beza al duen diru guzia, eta bilduko da beste arragoaren mea laster. / Hiru lagun hoiek partiduan egiñ dituzten meak dirade, itzaiak ekarriak eta Elaman arrago aldean pisatuak. / Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu. / Tranparenzat egurretan arragorako sartuak...3 reales.*
- arrago erretzalle** iz. *Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela, kargatu badere egin baledi!*
- arragoa erre du** ad. *Arragoa barnean sartu den mea erre. Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nahi badu. / Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen. / Bigar bial bitzate ogiak, eta etzi bial beza Juakintxo, arrago hau erre dediñ. / Jai ondoko astean erre beharko degu arragoa. / Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun.*
- arragoako arkua** iz. *Arragoako arkuak egiten eta bularrak konponzen...14 días.*
- arraso** adb. *Guziz, erabat. Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakintxo Leonet, ekusi ditu guziek. Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka.*
- arrats** iz. *Bada, honela arratseko etorritzen badira, espensa doblea behar dute. / Bial bitza mutill horiek; arratseko trunkada ya eraman du arragoak. / Hemen arratseko diña ogi dut, eta gaur ezpadituzte bialzen, bigar goizean goiz bialdu behar dituzte ogiak.*
- arratsalde** iz. *Arratsaldean bialdu behar dituzute ogiak. / Ostiral arratsaldean joan nintzan Astiarragara, eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean.*
- arrazoi** iz. *Zergatia, azalpena, kontua. Nik gaztigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.*
- arren** adb. *Mesedez. Igandean, iñolaz ere al badu, bialdu behar dizkit hogeni eta hamar ezkutu, arren. Lotsatua nabill zorrakiñ. / Paskual de Loperena Itxazurikoak esan dit ez dutela artorik batere eta, arren, egiñ diozala arto pixka baten txartela.*

**arren eta arren** adb. Mesedez eta mesedez, otoi eta otoi. *Arren eta arren beurri gaztigatzeko abisatu dit, eta errespuesta bialduko dio.*

**arrimatu da/du** ad. Hurbildu, hurreratu. *Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*

**arroa** iz. Pisu neurria; irudi duenez, hogeita bost librak osatzen zuten arroa. Eskuarki laburtzapena ibiltzen du IBk eta, beraz, neke da jakitea *arroa* ala *arroba* den azpiko forma, txanda bakoitzean. *Arrantxaleren suñak eta Juan Franzisku Korroxxakoak Arritxurietan erdi bana egiñ dituzten meak dirade 108 kintal, 2 arroa. / Eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun; eta joan den urtean egiñak ere bai, zazpi arroa, haxiak. / Hoiek ere, eta nahi badu bere mandoak bial ditzala, bederatzia arroa eramateko ez dirala honen abereak gauza. / Paskual de Iribarren horrek leneko kontua egin ezkeron, urte honetan egiñ dituan meak dirade...140 kintal, 5 arroa. / Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreel eta erdi baño berago. / Urte honetan Baratzurik eta bere lagunak egiñ dituzten meak dirade...92 kintal, 0 arroa ½. / Zaparrok eta errotariak orañ Iturruan, Urdiñolako suertean, egiñ dituzten meak dirade 73 kintal, 5 arroa ½.*

**arte, artean** menderag. *Artean, arte, bitarte, bitartean. Eta egondu naiz Ubitziren seme zarrarekiñ eta esan dit Belaundiak abisatua daukala, santiagoak pasatu artea iñori ez agiñzeko. / Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño. / Mandoren batzuek paratu artean ezker a baliatuko.*

**arte, artean, arten** postpos. *Bart arratseko edo goizeko anaiea ekarriko zutelakoan atzo gelditu niñzan, baña ez da iñor ere agertu egun bederatzia arten (sic). / Bergamazoiako pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera. / Guzien artean atzo eta egun karri dituzten mea erreak dirade 27 kintal eskasxeak. / Hoiek dirade eguerrietatik pazkoak artean egiñak. Ez du hemen beste lanik. / Hoiek dirade hiruan artean mealle sartu dituzten egunak. / Hoietaz gañera, Lorentxio Trabujorenak bere semearekiñ eta Baratzurik eta Zarrukok eta lauen artean egiñ dituzten mea guziak dirade [...] / Lukas de Zabala aranoar igele honek Samigel artea Arranbiden egiñ dituen burniak dirade [...] / Samigeletatik eguerriak artea Lorentxiok Elaman pasatu dituan egunak [...] / Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½.*

**arteko** adj. *Hemengo mea, olan zagoena, larunbat goiz artekoa eskasa da. / Horra bada Eguerri artekoak, guzienak, Sidrorena eta Manuel Antoniorena eta Xarbiderena eta Mikolas Gazterena. / Orañ hemen bigar arteko diña mea da, eta kuadro hoiek tiratzen zeñek hasi behar duen edo nola hasi behar den gaztigatu beza.*

- arto** iz. *Paskual de Loperena Itxazurikoak esan dit ez dutela artorik batere eta, arren, egiñ diozala arto pixka baten txartela. / Sebastian Etxeberriak esan dit artoak eman ziozkatela: Arotzandikoari...6 errugu, Sebastian Artxaiaari...8 errugu, eta Juan Antonio de Iribarreni...40 errugu.*
- arto labe** iz. *Eta bi arto labeko gehiago.*
- arzai** iz. *Artzaina. Horr arzai izanduari emateko zirala, Dunburen semeari emateko zituela. / Leoneten arzaiagandik Abisaistiko suertetik karga bat ikatz.*
- ase da** ad. *Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olioa, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe. / Orañ iñor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz.*
- asentatu du** ad. *Apuntatu, erregistratu, kontabilizatu. Nik ez dakit egun hoiek Patxikuk hor asentatu baditu ere. Pa[t]xikuri galdutuko dio. / Taia txikiko ardoak baditu, guzitara, bost pinta ardo, baña hor asentatuak omen ditu. / Taia txikiko ardoak hor asentatuak omen ditu.*
- asentu** iz. *Erregistroa. ...eta horrara bialdu niozkan hiru hillabeteko asentua. / Eta horko asentuan ekusiko du zer duen gehiago. / Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu [...] / Horra hemendik hartu dituan diruan asentua. Paper txiki horretan, hor ditu presako nazako eta Urraidetako basoa bota zaneko asentua. / Horra itzaian asentua eta karraiadoreana, leneko hillekoa. / Itzai honen asentua hor da, beste itzai guzienenkiñ. / Itzaien leneko hilleko asentua kuadreno berrian paratu dut. / Sebastianen leneko urteko asentua.*
- asentuan paratu du** ad. *Asentatu. Bada, horiek guziak, eta illeak, eta punzio honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentu aparteko batean. / Beste lau karga horiena hilleko asentuan paratua da. / Eta ez daki[t] horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere, eta bi partidatan badago asentu horretan, hoiek izanen dira batean. / Eta mea hoietatik ez dakit febreroko hilleko asentuan paraturik ote den. Porfiñ, ekusi beza febreroko hilleko asentuan paraturik ote den Paskoal horrenik, eta baldin paraturik bada ezpada, orañ hemen paratuak izanen dira guziak. / Hoiek dira hor[r]jen ikatzak, eta hoien karretoa[k] hilleko asentuan paratuak dira.*
- aski** zenbtz./adb. *Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela, kargatu badere egin baledi! Mea aski izaten bada. Orañdik arbazta lotzekoa dago gebiena, eta ekarzekoa. Enfiñ, mearik aski bada, kargatuta egonen da. / Bada, ara[...] aski galdu zazkigu eta txol galduko [...] / Egin biozate kontua. Askiz dira horrelako batzuek iñoren kredita erabillzeko. / Nik gaztigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.*
- asko** zenbtz./adb. *Orañ ari diran goiko meatzea ia abitu zaiote, ez dute han mea askorik egiñen.*

- asmoan egon da** ad. (destinatiboarekin). *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian.* / JRMk ere (II, 225) «guretzat asmoan dago» dauka.
- aspaldian** adb. *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian.*
- aste** iz. *Aste honetan Nolbertoren partez Perrazelaikoak egin zituan zazpi agoa. / Datorren astean egiñen duela beste jorrada bat esan du. / Horra beste alderdian Antonio de Arotzena Atanasioren semeak leneko kontua egiñ ezkerro Arranbiden egiñ dituen lanak, astean astekoak, beren espensakiñ. / Horra Jaimeren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak. / Leneko kontua garbitu ezkerro Patxiku Kaperok Arranbiden pasatu du aste bat.*
- astearte** iz. *Asteartean Agustiñ Ubitzik entregatu zituan lau ogiak, eta horra haiekiñ ekarri zuen zakua eta olio txarroa. / Hemengo mea, olan zagoena, larunbat goiz artekoa eskasa da, gehiago izanen zela uste genduen, eta asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea.*
- asteezken** iz. *Eta gaztigatu beza asteartean edo asteezkenean olak hasi behar duen. / Eta Josepe de Bearrak ere eskatzen du, leneko hillean eta hill honetan dituen lana egiñaz gañera, bost ezkutuko bat gehiago bial diozala asteezkeneko. / Franzisku Ignazio de Treku itzaiak bial diozala best[e] ezkutuko bat, asteezkeneko behar duela.*
- astelen** iz. *Bada Nolberto bialdutut (sic), baldiñ entregatu ezpadituzte entrega ditzatela astelenean faltarik gabe. / Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olio, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe. / Eta Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara.*
- astiarragatar, astiarratar** iz/adj. *Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da, ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor! / Gaztigatu beza burni hoiek Errenteriara behar duten. Hara beharko dutela ustean egun baziran lau itzai astiarragatarrak.*
- atera, atere** da/du ad. ...*Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko. / Atere bitza kontuak eta gaztigatu beza olan zeñ egunez hasi behar den. / Eta Iruñerako atererik dauden garrobandak dirade... 3 quintales, 16 barras. / Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako, eta halere esan dit beurri gaztigatzeko ola haundian, hemen, atere al baditezke. / Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. / Iruñerako atere diran garrobandak dirade 3 quintales, 16 barras. / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*



- aterarezi** *du* ad. Aterarazi. *Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterarezitzeko modua har dezadan len baño len.*
- atere** adj./adb. Ateraia. *Bigar goizean bialdu, bada, ogiak. Ateera egonen da burniñtxoa.*
- atrebitu** *da* ad. Ausartu. *Bergamazoiako pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera.*
- atzera** adb. 1. Gibelera. *Egun goizean berantetsi eta iñor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da.* / 2. Berriz. *Ez dakit deusen berrifri[k]; ekarzen badute nahi nuke ekusi, eta arratseko juane[n] naiz itxera. Etorriko naiz bigar atzera.*
- atzera gelditu** *da* ad. Atzera egin. *Maisu hau atzera gelditu da; ez dihoa lagunakiñ, zer pensamentu baitu ere.*
- atzo** adb. *Atzo ere hemen ez da itzairik agertu, eta ni banoa Astiarragara, iñor erakarri al badezat.* / *Atzo ez ninzan oroitu esatea, eta egiñik ezpada har dazake (sic) egiteko modua.* / *Atzoko eguna sartu dute lanean, eta nik zer esan dezaket? / Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajean.*
- aunitz** zenbtz. Anitz, asko. *Hau da niri esan didana, eta len baño len egiñ gogo badu, egiñ egiñ behar du denbora aunitz luzatu gabe, al duen lasterrena.* / JRMk (II, 215-216) *anitz* eta *anitzetan* darabiltza. Honetaz Camino (2022: 113-116) ikus daiteke orain.
- aurreko** adj. *Honen aurreko urtekoa hor du, eta bi urte horietako kontua garbitu beza; istante batean egiñen du beurrek, eta etorriko naiz bigar goizean.*
- aurrera** adb. *Batzuek irabaziak eta aurrera, gehiago aurrera emanta lana egiñ behar dute.* / *Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziai ura dariote.* / *Nik hemen dauzkidaleko, bada, Martin Labañi esa[n] nion, haren aurrera deiturik, hark emanen ziozkala 60 pezeta eta 5 kuarto.*
- aurrerako** adb. Geroko. *Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu. Gaur gehiago gaztigatu al diote eza, edo baia, aurrerako bada.*
- aurretik.** Ikus *orañ aurretik.*
- aurten** adb. Urte honetan. *Aranoko baso aurten esamiñatu duten Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut.* / *Kabillak aurten orañaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobas, 1.110 barras.*
- aurtengo** adj. Urte honetakoa. *Aurtengo basotako plazeriak dir[a] [...] / Aurtengo ikazgillean plazeriak izanen dira [...] / Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*
- azal** iz. *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogei eta zazpi kana kotoña.* / *Ikus buruko azal, kosna azal eta almuda axal sarrerak.*

**azeki** iz. Azekia, erretena. *Peonzan sartuak presako ura gelditzen eta azekiak garbitzen sartuak [...] / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*

**azierto** iz. *Iñola ere aziertorik ez dago.*

**azken** iz. Bukaera. *Ni etorri niñzan Elamara 1804an maiatzaren azkenean, eta 1805 1 de junioraño lenbiziko urtean egiñ nuen espensa zen [...].*

**azkeneko** adj. *Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka jua-ettorrian. / Azkeneko meak etorri diranak dirade [...] / Eta hoietaz gañera, tokatzen zaio Gregorio igeleari azkeneko aste honetan egiñ diran burnian kintalajea [...].*

**azpi** iz. *Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko biabiaren azpian ez dirala onak aterako.*

**aztu** zaio ad. *Hau aztu zait kartan paratzea. / Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan. / Leneko aste batean aztuak, huts egiñak...2 quintales, 1 arroba. / Orduko fetxa paratzea aztu zizadan. Beurrek horr izanen du; ez dago inporterik horretan.*

**ba** lok. *Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan. / Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik inondik ez ematekotan.*

**ba** menderag. *...eta bialduko dut, bigar etorri nahi badu.*

**ba** partikula. *Ikus bai.*

**baba** iz. *...eta hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio. / Arotzandiko Anbrusioren semeak entregatu zuen gaitziru baba. / Santiagok ekarri ditu hamalau ogi eta bigarko beharko dira berriz ogiak, eta ardoa ere beharko da bigarko, eta baba ere abitu da. / Santiagok ekarri ditu hamalau [o]gi eta gaitzuru bat baba.*

**bada** lok. *Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealle honek; Santiagok apenaz jango zuen bada. / Bada, hori da hemengo taiekoa, eta ekusiko du horko asentua nola dagoen. / Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala. / Badira, bada, hiru itzai, eta bigar eta etzi bialduko al ditugu. / Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik. Bada, hemen kontatzen ditudanak dirade, ezpadut huts egiten,...245½ cargas.*

**badere.** *Menderagiluaren (ba...ere) eta lokailuaren (bederik, bederen) arteko zerbait da, noiz nola. Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. Bada, ustelenak edo galduenak badere, gogortuxe beharko dute, al den bezala. / Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den lehorrik sartu nahi ganituke (sic), batzuek badere. / Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela, kargatu badere egin baledi! / Eta horretarako ere horiek jornala nabiko*



*dute, biña erreal badere. / Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere.*

- bage** (gutxitan) postpos. *Gabe. Eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage egiña izanen duela gogoan jarria daukat. / Hoiek guziak llebarik bage pisatuak dira. / Horra horiek egin dituzten mea guziak, eta horien kontua, nahi duenean garbi dezagun, eta guziak llebarik bage pisatuak dira. / Ikus gabe.*
- bai, ba-** (aditz trinkoekin) partikula. *Aranoar hoiek badira egunero zazpi edo zorzi karretero, eta itzaiak ere etorriko al dira! / Bai, ola hobeko degu hasi [Ur]terri goizean, egun batengatik! Enfiñ, beurrek nahi duena edo deritzena gaztigatu beza. / Etziko beharko ditugu olio eta katza, eta baba ere bai, laster. / Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu [...] / Laguna zeñ zuen nik ez dakit, baña dirua hartua badu Patxiku Malet horrek [...] // bai iz. Gaur gehiago gaztigatu al diote eza, edo baia, aurrerako bada.*
- baietz** partikula. *...eta esan dit baietz,<sup>3</sup> ez zela inporta (sic), zenbat ziran [...]<sup>4</sup> ezkerero. / Eta esan zidan baietz. / Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz.*
- bajatu** du ad. *Apaldu, jaitsi. Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n], ura bajatzera ezagunen da.*
- bakar** adj. *Bigar etorriko bide dira itzaiak; gaur orañdik ez da etorri Kosme bakarra besterik. / Eta ikazgille horiekin bial bitzate olio, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.*
- bakarrik** adb. *Eta Patxiko Jai[n]koaren lagunak berak bakarrik Erbizaño errekan egiñak ditu bere propioak... 13 quintales, 5 arrobas ½.*
- bakoitz** adj./izord. *Bakoitzak zenbat oso eta zenbat otsabeharri, eta zenbat lepalotu dituzten, horietatik egiñen diote kontua, heldu zaionari.*
- baldin...ba, baldiñ...ba** menderag. *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik inondik ez ematekotan. / Orañ Manuel honek eskatzen ditu tokatzen zazkionak, nahi litukela berela, baldiñ bialzen badiozka. / Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekin, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada. / Ikus porsiokasoa sarrera.*
- baliatu** da ad. *Burutzia egin-edo. Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer egi[n] dezakedan. Mandoren batzuek paratu artean ezker a baliatuko.*

<sup>3</sup> Testuan *bayez* dugu.

<sup>4</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d-*z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

**balio izan du** ad. *Brunok niri esan dit presan gastatu ziran burniak zenbat ziran, eta zenbat balio zuten. Nik esan diot zenbat diran, baña zenbat balio duten ez dakidela (sic).*

**bana** banatz. *Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria ez ematekotan, ez dutela baso beharrik; eta baldiñ pezeta bana ema[n] nahi badiote, egiñen dutela. / Bigar ere bial bitza itxeko mandoak mea errearekiñ, eta etzi oiarzuarrai guziei eragiñ behar dite jorrada bana mea errearekin. / Buruzuriak kiñtal bana burnia eramanen dutela, denbora onzen badu. / Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderoak zakurik ez daukate batere gauza denik, eta baldiñ zakurik badu, behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena. / Ikus erdi bana sarrera.*

**bana beste** adb. Batez beste (Iparraldeko forma, EHren arabera). *Hoi en laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira.*

**baña** junt. *Baina. Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela. / Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziai ura dariote.*

**baño** junt. *Baina. ...eta esan dit baietz, ez zela iñporta, zenbat ziran [...] <sup>5</sup> ezkerok, dirurik izan ezagatik, baño nahiago dira noski di[ruak].*

**baño** konp. *Baino. Hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu.*

**baño len, baño lenago** menderag. *...Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko. / Naturalmente izan laiteke horra agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea.*

**baratzuri** iz. *Baratzuria; Goizuetan oraino hola. Izengoitizat agertu zaigu eskutitzetan: Zarrukok eta Baratzurik eta Zurmioren semeak egiñ dituzten mea zuriak.*

**barra** iz. *Olan egiten zen burdinazko peza. Egun baziran hiru itzai; bialdu ditut hamabi barra, eta gelditu dira hamalau barra, eta hoiek egiñen dut bialzera alegiñ guziaz. / Entregatu ditu hamar ogiak, daramazki sei barra burñintxo eta hamaika puska errekusak. / Kuadro barra bat [...] / Orañ kontatu ditut barrak, eta 47 barra dira. / Ostiral arratsaldean joan ninzan Astiarragara, eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean.*

---

<sup>5</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

- bart** adb. *Karta hori bart hemengo mandazaiak ekarri zuen Goizuetatik; ez dakit zeñena den. / Lorenzo bart etorri zen honara; horrek esanen diozka guziek nola dauden. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du.*
- bart arrats** iz. *Bart arratseko edo goizeko anaiea ekarriko zutelakoan atzo gelditu niñzan, baña ez da iñor ere agertu egun bederatziak arten (sic).*
- baso** iz. *Aranoko baso aurten esamiñatu duten Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. / Niri esan dit igande jua den honetan gaztigatu diola Oletek basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean eta hitz egiñen dutela. / Perrazelaikoaren basoan Paulo de Zabalak, Maisunekoak, egiñ dituen ikatzak dirade [...] / Santiago de Alzubidek Tranparen eta Pepe Exurrenekoaren Gorriolako basoan egiñ dituen ikatz guziak dirade [...] / Sebastian de Iribarrenen basoan, Makutsulan, Domiño Estartako horrek egiñ duen ikatza da [...].*
- basoa bota du** ad. *Hoiek dira basoa botatzeko jornaleroan egunak. / Hoietaz ganera, izanen ditu presako nazan pasatua[k] zazpi egun, eta espensak hamar eta erdi. Eta Urraideko basoa botatzen, egun bat. / Jose Domingo de Iribarrenen Urraideko basoa botatzen jornalean sartu dituzten egunak dituzte [...] / Jose Domingo Teresenakoaren Urraideko basoa bota zen jornaleroan egunak dirade [...].*
- basoa botatzeko sari** iz. *Ikatz hoietatik guzietatik Tranpak eta Pepek egurra egiteko saria eta basoa botatzeko sariarenzat geldi ditzala buerrek (sic) hoién konturako hogeí eta sei karga ikatzen kontua.*
- basoa libratu du** ad. *Basoa (ez) bota? Egin bitza letra batzuek alkatearenzat edo gamondar haienzat, Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean.*
- bat** zenbtz. *Aleroak atef[ra] zuten mea, ehun bat kintal iragoa. / Erakutsi bioza hartako den gizon bati. / Eta horien portea egin beza abere baten jornala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat. / Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera. / Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun.*
- batean** adb. *Batera. Jose Antonio Beloki horrek lenako kontua garbitua duela dio, eta Jose Antonio Aroztegi horrena ere hor da, itzai guziena batean, eta orañ urte honetakoak dituzte.*
- batere** adb. 1. *Deus ere. Batere txartelik gabe purrustan heldu ziran, eta eman egin diotet. / Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen. / Eta ez dut oliorik batere, eta ogirik ere ez dut laurden bat besterik. Bial bitzate horrekiñ hononzean batzuek. / Etorriko dira bihar, eta ogi batzuek bialdu bitza bigar goizean goiz; ez*

*degu batere. / Ez da orañ gelditu meatzean mea gehiago batere. / Ez degu batere. Fundamentuz bial bitzate ogiak. Horra igandean Nolbertok zorzi ogirekiñ ekarri zuen zakua. / Ogiak eta olioaz ezpadira bidean, bere-berela bial bitzate, ez dago batere.*

**batzuak** zenbtz. (behin) ...*eta hoietarako Dixiduko ubalde honetan egiñ zituen mea pixka batzuak.*

**batzuek** zenbtz. (arruntean) ...*baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela inor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela, inor al badu kuarto batzuek berak emanen batiozte ere. / ...eta honela heldu diranenzat bialdu beharko ditu erreale batzuek. / Batzuek irabaziak eta aurrera gehiago aurrera<sup>6</sup> emanta lana egiñ behar dute. / Hoietaz gañera, baditu hemen pasatuak sutegia konponzen eta beste matxura batzuetan sartuak 4 días. / Mandoren batzuek paratu artean ezkerre baliatuko. / Ogi batzuek bialdu bitza berela mealle horrekin, eta bigar goizean gehiago.*

**batzuek eta besteak** zenbtz. *Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz, zazpitako etorriko zirala; batzuek beñzat gabaz etorriko zirala esan zuten, eta besteak ere abisatuak dira goiz etorzeko.*

**bazter** iz. *Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du, eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek.*

**beaje** iz. *Bidaia. Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beaje. / Ikus alper beaje egiñ sarrera.*

**bederatzi** (eskuarki), **bederetzi** (behin) zenbtz. *Bart arratseko edo goizeko anaiea ekarriko zutelakoan atzo gelditu niñzan, baña ez da inor ere agertu egun bederatziak arte (sic). / Entregatu ditu bederatzi ogi. / Haiekiñ bialdu ditut bederatzi kiñtal eta erdi burnia. / Iruñerako Artantxurenzat diran burni hoietatik badaude bederetzi kintal bezala, eta gaztigatu beza Goizuetara bialzea nahi duen, edo horrara bialzea nahi duen.*

**bederatziña** banatz. *Hoiek ere, eta nahi badu bere mandoak bial ditzala, bederatziña arroa eramateko ez dirala honen abereak gauza.*

**begi**. *Ikus burnintxo moxbegidun eta burniñtxo begidun sarrerak.*

**behar izan du** ad. *Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko. / Elduiñ itzaiak eskatzen du hogei ezkutu behar lukeala. / Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala (sic), eta bealdu beza gizon horrekin. / Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean. // Partizipioarekin: Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu*

---

<sup>6</sup> Aski nahasia da pasartea; *aurrera* bi aldiz idatzi du, itxuraz aldi bakar batez izkiriatu behar bidean.

*behar nau berehala. / Behar dute izan kontu honeterako (sic). / Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut.*

**beharra izan** *da/du* ad. (partizipioarekin edo izen batekin).<sup>7</sup> *Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen. / Hoietaz gañera, baditu Ignazio igeleak ondu beharrak...18 reales. / Hoietaz gañera, meatzean omen dute ekarzekoa...10 quintales pasaturik pisatu beharra; hala esan dute.*

**beharri** iz. Bakarrik zaku baten izena den *otsabeharri* izenean ediren dugu. Nolanahi ere, Goizuetan, egun, *belârri* esaten da.

**behatz** iz. Gabiaren puska bat zela iduri du. *Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den.*

**behi** iz. *Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*

**beko** adj. *Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldekoko mutillak eta Patxiku errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½. / Ondoko hau toponimoa izanen da: Hoietaz gañera, Yakomeakan eta Beko Patarroan, bi lekutan egiñak.*

**beldur** iz. ...*eta esamiñ[a] txarra non (sic) izanen den beldurrarekin gaztigatzen diozkat.*

**beldurrak egon da** ad. *Tobera galdurik dago txol; beldurrak nago aste honetan iraun ez dezan ere.*

**belz** adj. Beltza. *Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan, eginak dituzte [...]. / Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu. / Ikus mea belz sarrera.*

**beñere ez** adb. Sekula ez. *Aranoar karreteroak, gebiena eskas dabilzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekiñ beñere konportarik eziñ bete dezaketenak. Hoiien laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira. / Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian, eta beti ni eskeñzen nition eta ez ditu beñere hartu. / Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik.*

<sup>7</sup> Edo partizipio rola duen adlatiboarekin. Ikus tankera honetakoez aditz morfologiari buruzko kapituluaren dioguna.

**beñzat** lok. *Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz, zazpitako etorriko zirala; batzuek beñzat gabaz etorriko zirala esan zuten, eta besteak ere abisatuak dira goiz etorzeko.*

**bera** det./izord. *Etorzen bada aste honetan abisatuko nauela, eta berarekiñ egonen naizala. / Hau bera bezala izanen da, eta lenago gaztigatu zidan kontua garbitu eta bialzeko. / Hogei ezkutuko Ansaneakoarekiñ bialdu zuen hura utzi nion Ansaneakoari berari. / Hoiek dira Sebastian Iribarren horren berarenak / Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian bere propioa, berak egiña [...].*

**bera** adb. *Behera. Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago, ez ditzakeala berago eraman, eta gaztiga beza honetan emanen zazkion. / Ikus gorabera, gutxi gorabera sarrerak.*

**berantetsi** du ad. *Egun goizean berantetsi eta iñor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da.*

**beratar** adj./iz. *Berakoa. Beratar meakari hoiek beti bondade haundia dute, eta mea gutxi egin. / Beratar meakari horiek Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak dirade 64 quintales, 3 arrobas ½. / Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri. / Patxiku Malet beratar horrek eta bere anaieak Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak dirade [...] / Patxiku Malet beratarak eta bere suñak, Paskual de Insauspek, Erbizango maldan egiñ zituzten meak, Burugorriak lagun bateki[n] orañ berezi dituan meak, dirade... 9 quintales, 2 arrobas.*

**bere, beren** adj. *Espensa nola behar duen gaztigatu behar du, edo olako taiean jan behar duen edo berak bere taiera jan behar duen. / Horra igele horren denborako burniak beren espensakiñ. / Horra Lorenzoren partida joan den asterañokoa, eta orañ geldituko dira joan den asteko burniak gehienak, eta aste honetan egiten diranak beren espensakiñ.*

**bere propio** (eskuarki), **beren propio** (behin) adj. *Berea, bere-berea, berak bakarrik egina. Ardo horitaz gañera baditu ikatzak honara ekarriak, bere propioak [...] / Bordaxarkoak beren bordapean egiñ duten ikatza dute, beren propioa [...] / Eta nahi badiozka kontuak egiñ, baditu olako lanetaz kanpora ikatz egiñak, bere propioak, berak egiñak [...] / Eta Patxiko Jai[n]koaren lagunak berak bakarrik Erbizañgo errekan egiñak ditu bere propioak... 13 quintales, 5 arrobas ½. / Hoietaz gañera baditu ikatzak bere propioak [...] / Juan Josepe Arrantxalekoaren beraren meak, bere propioak, Ubarritzetan eta Karamalkatan egin dituen guziak dirade... 85 quintales, 2 arrobas. / Salvador Mitxelena horrek ditu ikatzak, bere propioak, borda aldean egiñak [...].*

**bere-berela** adb. *Bere-berehala. Ogiak eta olioia ezpadira bidean, bere-berela bial bitzate, ez dago batere.*



- berela, berehala** adb. *Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala. / Ereñezun dagoan mea hura ekarriko luketela berehala. / Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz. / Mea egiten berela ere hasiko dirala diote, erremientak ekarrita. / Orañ etorriko denak dirua berela nahiko du. / Orañ Manuel honek eskatzen ditu tokatzen zazkionak, nahi litukela berela, baldiñ bialzen badiozka.*
- beren gañ** adb. Beren gain, beren kontura. *Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean lau laguneko partidukoan egiñ zituzten meak. / Bi partida horiek dira Moxok eta bere lagunak jornamean eta beren gañ egiñ dituzten mea guziek, ni honara etorri ezkerro. / Eta berak beren gañ eguiñ dituzten meak dituzte...111 quintales, 1 arroba ½. / Hoiiek dirade horien mea guziek beren gañ egiñ dituztenak.*
- berezi du** ad. Bereizi. *Patxiku Malet beratarrak eta bere suñak, Paskual de Insauspek, Erbizango maldan egiñ zituzten meak, Burugorriak lagun bateki[n] orañ berezi dituan meak, dirade...9 quintales, 2 arrobas. / Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat. // adj. Berezi. Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik. / Ikus mea berezi sarrera.*
- berga** iz. 1. Iltze gaia, iltzeak egiteko burdina mehetua. *Bergak Goizariña eramanak...2 quintales. / Bergak Yakomekara eramanak 3 quintales, 2 arrobas. / 2. Kana, luzera neurria (ikus EH, OEH). Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hogeia eta bi berga; horra kamaren muestra. / Honetaz ikus Zulaikak (2022: 75) bergategi-ren adiera aztertzean dioena.*
- bergamazoia** iz. Burdinolatan egoten zen pareta, hauspotegiko hauspoak ondoko sutegiko berotasunetik babesteko. *Bergamazoia pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera. / Hoietaz gañera, baditu Buruzuriak olatxoko bergamazoia garbitzen, Buruzuriak berak...1 día, honen seme Manuelek...1. / Honetaz ikus Zubiaurre (1960: 98, 102), OEH (bergamailu eta bergamazo sarrerak), A. M. Mitxelena (2020: 238) eta Zulaika (2022: 75).*
- \*berori**. Begirunezko trataeran erabiltzen den izenordaina. IBren gutunetan ez dugu sekula absolutiboan kausitu. Beste kasuetan *beur-* itxura dauka: *...beurren kontura hartuak. / ...edo beurri daritzan bezalakoa. / ...eta baldin huts egin bada, kontatuko ditu beurrek ere. / ...konponduko dirala beurrekin. / Peskiza horretan egon gabe, konponzen badira, etorriko litzakeala beurrengana.*
- berozalle** edo **berotzalle** iz. Burdinolako lanbidea, burdina mailukatzeko berotzen zuena (ustez). A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), olatxoko langilea zatekeen, eta gutunotan olatxoan aritzen zela ikusten da. *Juan Esteban de Urdanobia olatxoko berozalleak Elaman, olatxoan sartu dituan egun guziek ditu [...]* / Ikus JRM (I, 30).

- berrehun** zenbtz. *Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera.*
- berri** adj. *Antokoren seme horko urzalle berriak Arranbiden pasatu dituen denboran (sic) egiñ diran burniak dirade [...] / Haspategiko goiko ardatza berria sarzen pasatu zituzten egunak dirade [...] / Itzaien leneko hilleko asentua kuadreno berrian paratu dut; horra zarra ere. / Orañ esaten diot: egun etorri da itzai berri bat, eta honek nahiko du dirua.*
- berri jakin du** ad. (genitiboarekin). *Zerbaiten gaineko informazioa izan. Ez dakit deusen berri[ri]k; ekarzen badute nahi nuke ekusi, eta arratseko juane[n] naiz itxera. Etorriko naiz bigar atzera.*
- berriz** adb. *Berriro. Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera. / Santiagok ekarri ditu hamalau ogi eta bigarko beharko dira berriz ogiak.*
- berrogei** zenbtz. *Hoietaz gañera, baditut beste berrogei ezkutu fuerte hartuak Pello Bergarangandik, baña ez dakit<sup>8</sup> zeñ egunez hartu nituan. / Ttiki Añarbekoak esan dit badituela berrogei karga ikatz eta mandoak bialzeko.*
- berrogei eta hamar** zenbtz. *Honek lana egiña du berrogei eta hamar kiñtal bezala guzia, eta diru hartua bi urretxiki.*
- bertan** adb. *Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*
- beso** iz. *Luzera neurria. A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), bi oin zituen besoak. Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean.*
- beste** ...*eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan. / Alderdi guzietatik ez dago gastua besterik. / Atzo Saldagarbirena izandu zen, eta besterik iñor izandu ez da. / Bigar etorriko bide dira itzaiak; gaur orañdik ez da etorri Kosme bakarra besterik. / Eta beste guziak joan ziran larunbat goizean Donostiara.*
- bestela** lok. *Egun ez dakik (sic) noiz akabatuko diran haxi eta zakar hoiek, eta abisatuko dut, edo bestela k[arraiadoreak] etorzen diranean bialduko ditut hor[ara]. / Eman hobeko zaiote pezeta, horien miñgañetik ez da libre izanen bestela. / Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada.*
- bete** da/du ad. *Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekiñ konportarik betetzea. / Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen*

---

<sup>8</sup> Originallean *daquiq* dago.



*guziak.* / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurrez eta zakarrez bete ditu. // adb. (edo). *Eta ikazgille horiekin bial bitzate olioa, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.*

**beti** adb. *Beratar meakari hoiek beti bondade haundia dute, eta mea gutxi egin.* / *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian, eta beti ni eskeñzen niton eta ez ditu beñere hartu.*

**bezala** 1. alderaketako menderag. *Hau bera bezala izanen da, eta lenago gaztigatu zidan kontua garbitu eta bialzeko.* / 2. moduzko menderag. *Nolbertok ekarri zituen hiru hogeiz ekzutuko haiek utregatu niozkan Gregorio Ansari bi, eta bestea esan zuen bezala.* / *Saiatuko naiz lantegiaz beurrek gaztigatzen didan bezala.* // 3. adb. *Goiti-beheiti. Honek lana egiña du berrogei eta hamar kiñtal bezala guzia, eta diru hartua bi urretxiki.* / *Horra carretero Auntxaiaaren horien leneko asteko asentua eta hemen den meagalbaia, eta orañ hemen bi kiñtal burnia bezala gelditzen dira.* / *Iruñerako Artantxurenzat diran burni hoietatik badaude bederetzi kiñtal bezala.* / *Leneko hilleko asentua hor da, eta hill honetan izanen ditu meak hogeiz eta bi kiñtal bezala.*

**bezalako** adj. *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogeiz eta zazpi kana kotoña, edo beurri daritzan bezalakoa, eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalakoa.*

**bezañ** menderag. *Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik.*

**bi** zenbtz. *Izenaren aurretik azaltzen da gehien-gehienetan, baina inoiz atzetik ere bai.* *Bi anega baba.* / *Bi egun* / *Bi eguneko jornal.* / *Bi erreal.* / *Bi itzai horiek.* / *Bi pezeta.* / *Bi pinta ardo.* / *Bi pinta eta txiki bat.* / *Bi urretxiki.* / *Murgioiko itzai horiek biek kontua garbitu nahi dutela diote.* / *Horiei biai.* / *Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi.* / *Saldagarbiren babaren txartela eta Goierrirenzat anega birena bial dezala horrekin.* // *Juntaduran, bigarrenaren izenaren ordainetan erabilia ere kausitu dugu: Hoietaz gañera badituzte Ignazio Predo Zubinekoak eta biak Iraurgiko ondoan egiñak... 43 quintales, 1 arroba ½.* / *Suñak eta biak erdi bana dituztenak.*

**bialdu** (eskuarki), **bealdu** (behin), **bigaldu** (behin) *du ad.* *Bidali, igorri.* *Horra!* *Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan.* / *Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik.* / *Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala, eta bealdu beza gizon horrekin.* / *Saldagarbiren babaren txartela eta Goierrirenzat anega birena bial dezala horrekin.*

**bide** iz. 1. *Bidea.* *Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut.* / *Egun goizean berantetsi eta inor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da.* / *Orañ*

*kontatu ditut barrak, eta 47 barra dira, eta gutxi gorabera izanen dira 13 quintales, 2 arrobas, baña hoienzat beti beharko dira lau uztarri, zergatik bide gaiztoak egonen diran. // 2. Aditz partikula. Bigar etorriko bide dira itzaiak; gaur orañdik ez da etorri Kosme bakarra besterik. // Toponimian ere agertzen da: Arpide, Arranbide.*

**bide(ak) egin du** ad. *Hoietaz gañera, baditu bide egiten sartuak 3 días. / Hoietaz gañera, badituzte hiru lagun hoiek hiruna egun bide egiten sartuak. / Hoietaz gañera, badu bideak egiten sartua...1 día berak jana duela. / Hoietaz gañera, bideak egiten aita- semeak egun bat.*

**bidean izan da** ad. *Ogiak eta olioa ezpadira bidean, bere-berela bial bitzate, ez dago batere.*

**bigar** (arruntean), **bihar** (inoiz). adb. *Bihar. Eta biga[r] Elduiñ etorriko da. / Etorriko dira bihar, eta ogi batzuek bialdu bitza bigar goizean goiz; ez degu batere. / Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara. / Santiagok ekarri ditu hamalau ogi eta bigarko beharko dira berriz ogiak, eta ardoa ere beharko da bigarko.*

**bigarren** ord. *Bigarren urte honetakoa da 1805an 1 juniotik hasi eta 1806ean 1 de juniorañoakoa [...].*

**bildu du** ad. *Jaso, batu. Eta bialdu beza al duen diru guzia, eta bilduko da beste arragoaren mea laster.*

**billatu du** ad. *Bilatu. Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit inor ideroko ote duen. / Ikus arkitu eta idero sarrerak.*

**biña** banatz. *Eta hoietaz gañera, bide egiten bi lagunek badituzte biña egun...04 jornales. / Eta horretarako ere horiek jornala nahiko dute, biña erreal badere.*

**bioladura** iz. *Mandiadura, antaparan paratzen ziren mandio edo oholek, tabloiek, osatzen duten egurrezko pareta modukoa (A. M. Mitxelena, 2020: 21). Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. / Ikus mandio sarrera.*

**bitarte** iz. *Tartea. Larunbatean meza enzuteko jaia da eta astelenean ere bai. Bitarte honetan hasi geldian, jan eta lanik ez egiñen da (sic) hementxeñ.*

**bitartea, bitartean** adb. 1. Arte, 2. Bizkitartean. *Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen. / Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada. // menderag. Arte. Zarrukok eta bere anaie Baratzurik meatzeko harria pasatzen hasi ziranetik, Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean, bi anaieak egin dituzten mea guziak.*

**bitarteko** adj. *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso,*

*eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guzietek eraman diozka.*

**boba** iz. Gabia mugitzeko olako peza, uztaiaren edo eraztunaren antzekoa, gabi igunean sartua zegoena (gaztelaniaz *boga* deritza; ikus A. M. Mitxelena, 2020: 240). *Olaundiko boba egiten... 1½ días.*

**bolbora** iz. *Hoietaz gañera, badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba, eta liberdi bat olio, eta borra bat hemen egiña, hamairu librakoa, eta bolborak nik ez dakit zenbat libra dituzten.*

**bondade** iz. Borondatea. *Beratar meakari hoiek beti bondade (sic) haundia dute, eta mea gutxi egin.*

**borda** iz. *Bordaxarkoak beren bordapean egiñ duten ikatza.*

**borra** iz. Mailu handia. *Badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba, eta liberdi bat olio, eta borra bat hemen egiña, hamairu librakoa, eta bolborak nik ez dakit zenbat libra dituzten. / Hemen badituzte hartuak mea ho[?]jetarako palanketa bat 9 libras eta bi borra...46 libras. / Horiek badituzte meatzerako hartuak borra bat ta palanka-ziri baten gaia.*

**bost** zenbtz. *Datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzaizkela, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Eta sartu gabeak badira, bost hillabete horitakoak izanen ditu.*

**bost ezkutuko** iz. Diru baten izena. *Entregatu ditu 65 urretxikiak eta hiru bost ezkutukoak, eta lau ogi eta baba. / Eta Josepe de Bearrak ere eskatzen du, leneko hillean eta hill honetan dituen lana egiñaz gañera, bost ezkutuko bat gehiago bial diozala astezkeneko. / Ignazio Loidikoak entregatu zituan sei bost ezkutuko, eta zorzi urretxiki eta bi pezeta, eta dezitxano bat, eta bost ogi. / Ikus ezkutu, hamar ezkutuko eta hoge ezkutuko sarrerak.*

**bost pezetako** iz. Diru baten izena. *...eta Belokik eskatzen duena 5 pezetako bat.*

**bota** *du* ad. Moztu (basoa, egurra, zuhaitza). *Eta basoa botatzeko sariarenzat geldi ditzala buerrek (sic) hoiien konturako hoge eta sei karga ikatzen kontua. / Hoietaz gañera, badituzte leneko arragoa erre ezkerre, arragorako egurrak botatzen eta ikatza sarzen-eta, guzitara [...] / Jose Domingo de Iribarrenen Urriaideko basoa botatzen jorrialean sartu dituzten egunak dituzte [...] / Paper txiki horretan, hor ditu presako nazako eta Urriaideko basoa bota zaneko asentuak.*

**botilla** iz. *Eta horra botilla leneko astean libra bat eta erdi oliorekiñ bialdu zutena.*

**bular** iz. Paretako bularra. *Arragoako arkuak egiten eta bularrak konponzen... 14 días. / A. M. Mitxelenak (2020: 228) anteparabular jasotzen du, baina gure testuan bularrak arragoako paretakoak dira, ez antaparakoak.*

**burni tiratu** *du* ad. Ikus *tiratu* sarrera.

**burni zabal** iz. Ematen du burdina mota bat dela, baina ez da segurua. *...lenbiziko lau astetan trexuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan.*

- burnia, burni** iz. *Burdina. Aste honetan etzen burnirik joan. / Aste honetan ez da burnirik pisatu. / Burni errekusak...01 quintal, 3 arrobas. / Burni hoiien eske etorriko zela esan zidan aste honetan. / Burnia guziak. / Buruzuriak kiñtal bana burnia eramanen dutela, denbora onzen badu. / Eta burnia eramanak ditu [...] / Eta yonen naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Haiekiñ bialdu ditut bederatzi kiñtal eta erdi burnia. / Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira! / Horra Lorenzo igelearen partida astean astekoak, joan diran moduan, burniak beren espensakin. / Pasaiarako burni hoietan hasirazi ditut.*
- burniak egiñ du** ad. *Aste hartan egiñ ziran burniak dirade [...] / Manuel Antonioren partez Patxiku San Antongoak Elaman egiñ dituan burniak [...] / Olaundian egiñ dituzten burnian gañera erremienta egiteko egunak [...].*
- burnintxo, burniñtxo, burñintxo, burñitxo** iz. (*hierro menudo* erdaraz). *Olan egiten zen burdina meharra (ikus A. M. Mitxelena, 2020: 159, 240). Bigar goizean bialdu, bada, ogiak. Aterea egonen da burniñtxoa. / Entregatu ditu hamar ogiak, daramazki sei barra burñintxo eta hamaika puxka errekusak. / Hoiek dira burnintxoan olatxoan sartuak. / Hoietarako hartuak baditu burniñtxoak...5 quintales, 1 arroba. / Horra Patxiku ardamandazaiaren ardoan asentua, eta hemen hartu duen burniñtxoarena. / Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira, eta baldin honela ona heldu bada, egiñen degu burniñtxoa, eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa, baña burñitxo Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanen. / Patxiku ardamandazaia horrek ekarri zituen ardoan eta hartu zituen burniñtxoan asentua bialdu nion noviembrean. / Perra egiteko burñintxo, 15 noviembre...11 arrobas.*
- burnintxo moxbegidun** iz. *Burdinatxo motx eta xuloduna. Atzo bialdu nituen burniñtxo moxbegidunak.*
- burniñtxo begidun** iz. *Burdinatxo xuloduna, begiduna. Burniñtxo begidunak dirade...40 quintales, 0 arroba ½, 133 barras.*
- burniñtxo begiduna egin du** ad. *Hoietaz gañera, olatxoan burniñtxo begiduna egiten sartuak ditu [...].*
- burniñziri** iz. *burdin ziria. Ardo horietaz gañera, baditu harpiko baten gaia eta bi burniñziri txiki eta paleta bat sukaldarako. Guzitara 18 libras. / A. M. Mitxelenak (2020: 109, 241) Elamako dokumentazioko hau dakar: «tres barritas o burnincirias». JRMk (II, 247-248) burni ziri darabil.*
- buru** iz. *Burugorri(a), Buruzuria eta Presaburua onimoetan aurkitzen dugu. Ikus orobat buruko azal eta buruko zapi sarrerak.*
- buruko azal** iz. *Burko azala, bururdi azala. Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogeitaz zazpi kana kotoña, edo beurri daritzan bezalakoa, eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalakoa; eta buruko azal baten gaia, kosna azalak egiten diran hartatik. / Ikus azal, kosna azal eta almuda axal sarrerak.*

- buruko zapi** iz. *Eta hiru buruko zapiak eta bi pañuelo, franzes pañueloak, eta bat txuria.*
- busti da** ad. *Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. Hartu ditu urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.*
- buztandu** iz. *Buztandutako burdina, burdinolan egiten zen peza baten izena, plantxuela, tretxua edo txabala bezala; uste izatekoa da luzekara zela, izenagatik. Eta buztandu hoiek pisatuko diran edo nola egiñ behar duten ere bai.*
- dañu** iz. *Kalte. Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke.*
- delako** adj. *Izenekoa. Burugorri edo Tantailepo delako hartatik Mariolaren seme horrenak dirala ekarri dituztenak.*
- demanda** iz. *Eztabaida, desadostasuna. Bakarrik Demandako meatzea onimoan ageri zaigu.*
- dena** izord. *Ziargillza, presakoa, dena bere zur guzietan atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du.*
- denbora** iz. 1. *Garaia, tartea, unea. Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas. / Horra Jaimeren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak. / Horra Jose Antonio Arakiñenekoaren partez Dendariren senar Premiñ horrek edo horren denboran egin diran burniak beren espensakiñ. / Juan Antonio de Belasko difuntuaren denboran leneko kontua egiñ ezkerro, 25 de abril ezkerro, egiñ dituzten meak dirade...244 quintales, 4 arrobas. / Paskoal Haundiaren denboran Arranbiden egiñ diran burniak dirade [...] / 2. Eguraldia. Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranparen eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite. Hoiek denbora onetan zerbait hurranzen dira neurrian, baña denbora txarretan ez du iñork ere konporta hau beteko. / Buruzuriak kiñtal bana burnia eramane dutela, denbora onzen badu. / Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut. / Egiñen degu tellatuan egiñ dezakeguna igandean ola hasitzeko, baña ikatza ekarzeak lanak emanen ditu denbora hau honela bada. / Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño. / Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun. // -en denboran menderag. Dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak. / Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat.*
- denbora ona / txarra izan da** ad. *Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.*
- dendari** iz. *Jostuna (ustez). IBreanean izen berezia da: Dendariren senar Premiñ horrek [...].*

**dermio** iz. 1. Aurkintza. 2. Udalerrria (ustez). *Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan, eginak dituzte...20 quintales, 3 arrobas y ½. / Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, Suruako ondoan egiñ dituen meak, bere propioak baditu...5 quintales, 2 arrobas ½.*

**deseo izan du** ad. *Gaur akabatzeko desoea nuen heme[n]go lana.*

**deskalzo** adj. Oinutsa. *Olakoak esan didate Karmengo fraide deskalzo horri emateko.*

**deskontentu** iz. Desadostasuna. *Horra atzo nik gaztigatze[n] niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak!*

**despatxu** iz. Txostena, ebazpena. *Despatxu mandazai honek entregatu ditu bi ogi eta zorzi karga mea.* Halarik ere, iduri du izengoitia dela hemen, ez dela mandazai mota berezia.

**deus besterik ez izord.** *Ez du deus besterik.*

**deus (ere) ez izord.** *Ez du aste honetan deus ere. / Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sopra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke. / Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes. Mealle irundarra aritu zen Lukes horren partez. Zazpi aste hoietan ez Lukes horrek, ez burnirik eta ez deus ere.*

**dezitxano** iz. Diru baten izena, pezeta baino txikiagoko batena. Erdarazko *dieciocho* ‘hemezortzi’ zenbatzailea dago oinarrian, zehazkiago esan, haren *dieciocheno* eratorria. IBren lekukotasuna: *Ignazio Loidikoak entregatu zituan sei bost ezkutuko, eta zorzi urretxiki eta bi pezeta, eta dezitxano bat, eta bost ogi. / Perurenak (2010: 84, 85), Goizuetako Trabuko famatuaren kontuez eta diru faltsuaz ari delarik, «fabricadores de dieciochenos» eta «fabricar monedas de dieciochenos» biltzen ditu.<sup>9</sup>*

**difuntu** adj. Zena. *Eta honen anaie difuntuak zituan, berak jana zuela...5½ días. / Hoiek dirade Juan Antonio difuntuaren partidukoak. / Juan Antonio de Belasko difuntuaren denboran leneko kontua egiñ ezkerro, 25 de abril ezkerro, egiñ dituzten meak dirade...244 quintales, 4 arrobas. / Lorenzo igele difuntuak...03 días. / Martin Antonio Lizartxikito difuntuaren eta*

---

<sup>9</sup> Lan berean, M. Ibañezek *Oiartzun* urtekarian (1999: 27) argitaratutako batzuk biltzen ditu: «El origen de la masiva entrada de la moneda valenciana denominada “dieciocheno” en Navarra hay que buscarla en la Real Pragmática de 16 de Mayo de 1737 que establece las equivalencias de las diferentes monedas que se acuñaban y circulaban en los diferentes reinos peninsulares como la sobrevaloración de dieciochenos valencianos en Navarra. Entre 1744 y 1747 se suceden las quejas debido a que estas monedas suelen estar cortadas o cercenadas» (*apud* Perurena, 2010: 96-97), «El “dieciocheno” que circulaba en Navarra es la pequeña moneda de plata acuñada en Valencia a finales del siglo XVII. Este “dieciocheno” es equivalente al real de plata acuñado en Valencia en tiempos de Carlos II y que siguió circulando posteriormente, se introducía en Navarra en grandes cantidades debido a que en este reino estaba más cotizado que en otras partes» (*apud* Perurena, 2010: 146-147).



*Juan Josepe de Altamiraren eta Axtiarraga meakariaren, hiru lagun hoiek partiduan egiñ dituzten meak. / Migel difuntuaren semearenak.*

- diña** menderag. Adina, bezainbeste (-en, -ko edo -tako-rekin). *Gaur akabatzeke deseo a nuen heme[n]go lana, baña ez degu akabatuko, izanen da asteleneko diña lan ere. / Hemen arratseko diña ogi dut, eta gaur ezpadituzte bialzen, bigar goizean goiz bialdu behar dituzte ogiak. / Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten. / Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu. / Sebastianek bialdu ditu txartel horiek. Ogiak badira hiru egun hoietako diña.*
- diru** iz. (maiz pluralean). *Eta bial bitza itzai horien kontua eta diruak; hemen dirurik ezpadago etzaku inor etorriko, eta bial beza horien kontua, eta dirua zerbait gehiago honara. / Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu [...] / Jose Antonio Olaizola horrek ez du hemen diru harturik.*
- dixidu** iz. Herri lurra, lantzen ez dena, herriko aziendak biltzeko ibiltzen dena. *Eta orañ dixiduan egiñ dituenak pisatu ditugu...31 quintales. / Olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio, eta guzietara 5 reales, eta hoietarako Dixiduko ubalde honetan egiñ zituen mea pixka batzuak. / Ikus 1793.09.18ko gutunean dioguna.*
- doble** adj. *Bada, honela arratseko etorritzen badira, espensa doblea behar dute.*
- dozena** iz. *Sebastian Etxeberria karraiadoreak esan du bial diozala dozena bat ezkutua.*
- ea** zehar-galdera hitza. *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[se]i ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egiteaz. / Eta oran garbitzen ari diran meatze hark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean.*
- ebilli** da ad. *...baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas. / Txarkerian ez ebillzeagatik beurrekiñ bi urretxiki galduko dituela, baña ez dituela lau urretxikiak galduko.*
- edan** iz. *Orañ inor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz.*
- edo** junt. *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala. / Burugorri edo Tantailepo delako hartatik Mariolaren seme horrenak dirala ekarri dituztenak.*
- egia** iz. *...eta baldin egia bada, naturalmente izan laiteke horrara agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea.*
- egin, egiñ** du ad. 1. *Ekoiñ. Gorgorio Arotzandikoaren ikatzak, gaztañadian eginak. / Mundragoren semeak ekarri zuen Añarbetik karta hori eta ni egondu naiz kontu harzallearekin, eta honek ez du esaten ez hoien egurrekin egiña dela ikatza, eta ez ez dela. / 2. Dirua eman, utzi.*

*Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hogseji ezkutuko bat. / Eta etorriko naiz larunbat goizean, eta ehun ezkutu horiek, inñolaz ere al badu, egiñ behar dizkit / 3. Konpondu. Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egiñte]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke. / 4. Idatzi (letra izenarekin batean). Letra hoiek egin ezkerro, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak. / Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, Buruzuriaren baldian badere, eta baldiñ porsiokasoa juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearenzat edo gamondar haienzat. / 5. Aditza galdegaitzekoa. Beste urte batean ere holako lana eskatzen badiote, eman egin behar diote horiei, berak nahi dutenean juateko. / Horra! Atzo kartan bialzen nuela gartzigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajejan.*

**egiñalak egin du** ad. *Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekiñ konportarik betetzea.*

**egiteko iz.** *Eginkizuna, eginbearra. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du, eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek. Hemen egiteko txarrak daude. / Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egiñte]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke.*

**egon, egondu da** ad. *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik inñondik ez ematekotan. / Bigar edo etzi agertuko zazkio eta egonen dira. / Hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olioa. / Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat. / Mundragoren semeak ekarri zuen Añarbetik karta hori eta ni egondu naiz kontu harzallearekin.*

**egosi du** ad. *Aranoko erregimentuak bialdu digu baba, haiek etorri orduko egosi dezagula.*

**eguerri iz.** *Hoiet dirade eguerrietatik pazkoak artean egiñak. Ez du hemen beste lanik. / Manuel Antoniok esan dit olakoan hasaldi honetako asentuak bialzeko esan ziola. Horra bada Eguerri artekoak, guzienak, Sidrorena eta Manuel Antoniorena eta Xarbiderena eta Mikolas Gazterena. / Samigeletatik eguerriak artea Lorentxiok Elaman pasatu dituan egunak [...].*

**egun iz.** *Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Bizente Kristok hemen mealle sartu dituan egunak dirade [...] / Eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun; eta joan den urtean egiñak ere bai, zazpi arroa, haxiak. //*



- adb. Gaur. *Egun bazira[n] lau itzai. Hemen diran burniak ya juan dira. / Egun goizea eman tiot Barberoari atzoko diruak. / Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean. / Orañ esaten diot: egun etorri da itzai berri bat, eta honek nabiko du dirua. / Ostiralean ekarri zituen Tranpak zorzi ogi, eta egun ekarri ditu Josepe Ignazio horrek hoge eta hamaika ogi.*
- egunero** adb. *Aranoar hoiek badira egunero zazpi edo zorzi karretero, eta itzaiak ere etorriko al dira! / Egondu naiz Jaunsaratsen alabarekiñ eta esan dit egunero dagoela esperoan, ez dakiela noiz etorriko den.*
- egur** iz. *Ziargillza, presakoa, dena bere zur guzietan atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*
- egurra egin du** ad. *Ikatz hoietatik guzietatik Tranpak eta Pepek egurra egiteko saria eta basoa botatzeko sariarenzat geldi ditzala buerrek (sic) hoién konturako hoge eta sei karga ikatzen kontua.*
- egurra egiteko sari** iz. *Ikatz hoietatik guzietatik Tranpak eta Pepek egurra egiteko saria eta basoa botatzeko sariarenzat geldi ditzala buerrek (sic) hoién konturako hoge eta sei karga ikatzen kontua.*
- egurra karraiatu.** *Ikus karraiatu sarrera.*
- egurrak bota du** ad. *Hoietaz gañera, badituzte leneko arragoa erre ezkerro, arragorako egurrak botatzen eta ikatza sarzen-eta, guzitara [...].*
- egurretan** adb. *Egur lanetan, egurra egiten. Arragoarako egurretan sartuak bi mandorekiñ egun erdi bat, media día. / Arragoarako egurretan zaldi batekiñ...1½ días.*
- ehun** zenbtz. *Aleroak ate[ra] zuten mea, ehun bat kintal iragoa. / Hoietaz gañera, Arzaiak egin zituen bi ikaztogi, gehienaz ere ehun karga.*
- ekarri** (eskuarki), **karri** (behin) *du* ad. 1. *Ekarri. Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Elduiñ itzaiak eskatzen du hoge ezkutu behar lukeala. Bada, honen lana egiña: haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Guzien artean atzo eta egun karri dituzten mea erreka dirade 27 kintal eskasxeak. / 2. *Kostatu. Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten 102 reales, eta haienak eta bere mandoan jornalak 18 pesos, 7 reales, 18 maravedís.**
- ekusi** *du* ad. *Eta horko asentuan ekusiko du zer duen gehiago. / Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. / Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerro jakiñen al du.*
- eliza** iz. *Elizalde eta Elizondo onimoetan baizik ez da ageri.*
- elkar** izord. *Eta nik ez dakit zer diran horiek ere, itzai guziek oro orobat elkarren lagunak dira gehienak. / Horra Arotzandiko haren asentua, larunbateko guziak elkarri eraitsi nahi badiozka.*

- elzaburni** iz. Eltze burdina. *Hoietarako hartua du piñterdi bat ardo. Eta elzaburni baten gaia...3 libras ½. / Ikus sulla burni eta talo burni sarrerak.*
- eman du** ad. Eman. *Anaieari eman diozkat beurrek bialdu zitidan hemeretzi urretxikiak. / Egun goizea eman tiot Barberoari atzoko diruak. / Eta honetan esan dit niri, len ere honi ematen ziola bi pezeta. / Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira. / Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko.*
- emazte** iz. *Eta Patxiku Antonioren gana izandu niñzan; ez nuen itxean topatu, baña esa[n] nion emazteari, baña ez da neregana iñor agertu.*
- enbargu** iz. Enbargoa, bahitura. *Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.*
- enbuto** iz. Inbutua, onila. *Ardoa neurritzeko enbuto bat...1½ reales fuertes.*
- enfin, enfiñ** lok. ...*baña burñitxo* Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanean. *Enfiñ, nik esanen diotet. / Bai, ola hobeko degu hasi [Ur]terri goizean, egun batengatik! Enfiñ, beurrek nabi duena edo deritzena gatzigatu beza. / Enfin, hill horretako asentuan jakiñen du. Beste lau karga horiena hilleko asentuan paratua da. / Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas. / Ez da bada, noski, beurri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu eta zorra bizi ote den nago. Enfiñ, beurrek jakiñen du hobeki nola dagoan. / Horra atzo nik gatzigatz[e]n niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak! Enfiñ! Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hogeit eta hamabi kua[r]to eskeña ere. / Mea egiten berela ere hasiko dirala diote, erremientak ekarrita. Enfin, adituko ditu zer esaten dioten.*
- enganio** iz. Engainua. *Eta orañoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*
- enkargatu du** ad. Agindu, gatzigatu. *Enkarga bitza espensa libre emanen diotela eta datozela; igoal etorriko dira. / Eta Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara.*
- enkargu eman du** ad. Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz.
- entregatu du** ad. 1. Entregatu. *Haiek entregatuko ziran larunbatean. / Mealleak entregatu ditu zorzi ogiak. Horra haiekiñ ekarri duen zakua, eta Nolbertok igandean ekarri zuena. / 2. Ekarri. Arotzandiko Anbrusioaren semeak entregatu zuen gaitziru baba. / Entregatu ditu mandazaiak beurrek esaten didan eta bialzen dituen diruak. / 3. Eraman. Erreteriarako burni hoiek hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena. / Ez diotet burnirik eman, Erreterian, nola mearik ez dagoan, ez dituztela entregatuko. / Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara. / Ostiral arratsaldean joan ninzan Astiarragara, eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura. / 4. Ordaindu. Entregatu zituen maisu honek sei hogeit ezkutukoak. Barberoa*

*Oiarzunan da eta entregatuko diozkat datorrenean. / Nolbertok ekarri zituen hiru hogei ezkutuko haiek entregatu niozkan Gregorio Ansari bi, eta bestea esan zuen bezala. Eta orañ bialdu dituenak entregatuko diozkat erretorari bi, eta Estartako andreari hoge eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuerteak, esaten didan bezala. / Tranpak entregatu ditu beurrek gaztigatu duen diruak eta sei ogi. Gaztigatu diot Gregorio igeleari etorzeko; entregatuko diozkat gaur.*

**enzun.** Ikus meza enzun sarrera.

**erabili du ad.** (izena) zikindu. Egin biozate kontua. Aski dira horrelako batzuek inoren kredita erabillzeko.

**eragin, eragiñ du ad.** Eginarazi. Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzaieala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Leontxo de Zabalak Aranoko errotari Juan Antonio de Tellitxeari Arolako ondoan, gaztañadian, eragiñ dion ikatza da [...] / Presarako Brunok hemen eragiñ dituen burniak dirade guzitara 1 quintal, 4 arrobas, 7 libras.

**erakarri du/dio ad.** 1. Ekarrarazi. Letra hoiek egin ezkerro, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak. / Liberdiko olio neurria Iruñetik erakarri...1½ reales fuertes, 9 maravedís. / Orañ gaztiga beza erakarriko dudan edo zer egiñen dudan. / Patxiku ardamandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria. / Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat. // 2. Etorrarazi. Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara, agertu hobeko dut norbait erakarri al baneza.

**erakutsi du ad.** Eta orañoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.

**eraman du ad.** ...eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa, baña burnitxoa Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanen. / Bial bitza mutill horiek; arratseko trunkada ya eraman du arragoak. / Haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal, eta burniak Donostiara eramanak 50 kintal.

**eratsi, eraitsi** (grafia kontua?) **du ad.** Erantsi. Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera. Hor elkarri eratsiko diozka. Zenbat karga osatzen diran, guziek. / Horra Arotzandiko haren asentua, larunbateko guziak elkarri eraitsi nahi badiozka. / Moxok esan dit kontu horiek elkarri erasteke, ostegun goizean etorriko dela. / Ikus añaditu sarrera eta grafari eskaini atala. Badaiteke IBk eraisi izkiriitzen duena eraitsi ez, baizik eratsi irudikatzeke bidea besterik ez izatea.

**eratsundar iz.** Eratsungoa. Cuenta Patxiku eratsundarrarena tirador. / Patxiku eratsundarra tirador. / Tirador Patxiku eratsundarrarena.

- erdi.** iz. *Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealle honek. / Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko: hamazazpi kuarto eta erdi. / Haiekiñ bialdu ditut bederatzi kiñtal eta erdi burnia. / Itzai kondenatu hoiek agiñzen dute guziak, eta erdiak ez etorri gaur. / Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago.*
- erdi bana** banatz. *Bada, Erbizañgo errekan bi lagunak erdi bana egin zituzten mea guziak dirade [...] / Eta Paulo de Ansa Artetxeko horrekiñ erdi bana, biek horren basoan, Makutsulan, egiñ dituzten ikatzak dirade [...] / Hau da horiek biek erdi bana egiñ dutena. / Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan, eginak dituzte...20 quintales, 3 arrobas y ½. / Leneko kontua egiñ ezkerero, Zapparok eta Patxiku Errotariak erdi bana egiñ dituzten meak dirade 17 quintales, zabalak. / Suñak eta biak erdi bana dituztenak. / Txorikantarian bi anaie horiek erdi bana edo partiduan egiñ dituztenak dituzte...26 quintales, 5 arrobas.*
- ere** adb. (batzuetan indartzailea). *...baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Diru hartuak ere baditu [...] / Orañ egin du. Hogei bat karga ikatz omen du gebiago egitekoa ere. / Tobera galdurik dago txol; beldurrak nago aste honetan irauñ ez dezan ere. / ere bai. Geroztik ere bai. / Horra, arragoa honetan egiñ dira[n] burnia guziak hor dira eta espensak ere bai. / Orañ hemen bigar arteko diña mea da, eta kuadro hoiek tiratzen zeñek hasi behar duen edo nola hasi behar den gaztigatu beza. Eta buztandu hoiek pisatuko diran edo nola egiñ behar duten ere bai. / Ikus joskeraren inguruko kapituluan dioguna, juntaduran.*
- erosi** du ad. *Errugu erdi bat katza erosia... 1½ pezetas... 8½ cuartos.*
- erraja** iz. *Errebaja, merkatzea. Honek badu erraja errugu bat baba gebiago.*
- erraja eman** du ad. *Errebaja egin, merkatu. Honek badu erraja errugu bat baba gebiago. Ez dute iñork beste errajarik nik emanik. / Ikus errebaja egiñ sarrera.*
- erraja izan** du ad. *Errabaja eduki.. Honek badu erraja errugu bat baba gebiago. Ez dute iñork beste errajarik nik emanik.*
- erre** da/du ad. *...eta ikatza[k] erre zirana[k] dira 9 cargas. / Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nahi badu. / Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun.*
- erreal** iz. *Diru baten izena. Bi erreal. / Beste guzienzat usatzen dena, erreal bana. / Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baño esan du prezio motxa dela. / Eta horien portea egin beza abere baten jorñala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat. / Gelditu behar diozka Nolbertori Perrazelaikoarenzat zazpi erreal, agoa jorñalak. / Gregoriotxorentzat...erreal bat. / Hoietaz gañera,*

*baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun.*

**erreal fuerte** iz. *Eta orañ bialdu dituenak entregatuko diozkat erretorari bi, eta Estartako andreari hogeï eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuerteak, esaten didan bezala. / Olaundikoak eta olatxokoak Karmengo fraide horri emateko esan dute guzienzat erreal fuerte bana, eta neretzat ere bai.*

**erreal zinzilu** iz. Diru baten izena. *Hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu. Cfr. 15 pesos zinzillus.*

**errebaja egiñ du** ad. *Hortxe beurrek deritzan errebaja egiñen diote. / Ikus erraja eman sarrera.*

**erregimentu** iz. Ez dakigu soldadu errejimentua den (gerla garaia zen hau), Aranoko udalbatza edo beste zer bait. *Aranoko erregimentuak bialdu digu baba, haiek etorri orduko egosi dezagula.*

**erreka** iz. 1. Ugalde txikia. *Bada, Erbizañgo errekan bi lagunak erdi bana egin zituzten mea guziak dirade [...] / Derecho itxola eta iduriak eramana Artxaizarrari, Olzorrozko suertetik Gañzi[n]go erre kara.*

**erreka egin du** ad. Ebakia, erretena, arrakala egin. *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten.*

**errekatu du** ad. Ebakia egin. *Olatxoko kabia eta ingudea errekatzen eta pasatzen...3 días.*

**errekus** adj. Akastuna. *Burni errekusak...01 quintal, 3 arrobas. / Estartako andreari hogeï eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuerteak, esaten didan bezala. Entregatu ditu hamar ogiak, daramazki sei barra burniñtxo eta hamaika puska errekusas. / JRM (II, 262, 264) errekus eta erreus darabiltza.*

**erremedio gabe** adb. Nahitaez. *Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko.*

**erremienta** iz. Lanabesa. *Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun. / Ola haundiko erremie[n]ta egiten [...].*

**erremienta egin du** ad. *Erremienta egiten eta hemen sartu dituzten egun guziak hor dira, solamente atzokoa ez dut paratu. / Erremienta egiten sartuak [...] / Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun. / Hoietaz gañera, baditu olaundiko kabia edo erremienta egiten...3 días. / Ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat. / Olaundian egiñ dituzten burnian gañera erremienta egiteko egunak [...].*

**erremienta paratu du** ad. Lanabesak prestatu, konpondu. *Olatxoko erramienta paratzen 1 día.*

**errespuesta bialdu du/dio** ad. *Agustin horrekin errespuesta bialzeko alkateak. / Arren eta arren beurri gatzigatzeko abisatu dit, eta errespuesta bialduko dio.*

**erresulezio eman du** ad. Erabakia hartu. *Juan Franzisku Galtxadarekin ere egondu naiz, eta esan dit ez duela orañdik inon hitza emanik, baña ez du erresuleziorik ematen, egonen garala esan dit.*

**erretora** iz. Erretorea? (*Errotaria* seguruenik) *Eta orañ bialdu dituenak entregatuko diozkat erretorari bi, eta Estartako andreari hogei eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuertek, esaten didan bezala.*

**erretzalle**. Ikus *arrago erretzalle*.

**errezelo** iz. Mesfidantza. *Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiek ordañzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten errezelarik.*

**errezio** iz. *Errezio hoietaz gañera, hiru txiki ardo. / Errezio hoietaz gañera, pinta bat ardo. / Errezio hoietaz gañerako ardoak ditu...2 pintas. / Errezioaz gañerako ardoak 1½ pintas. / Errezioaz gañerako ardoak...7 txiki.*

**errotari** iz. *Errotaria, Xurmioren senarrarenak...35 quintales. / Leontxo de Zabalak Aranoko errotari Juan Antonio de Tellitxeari Arolako ondoan, gaztañadian, eragin dion ikatza da [...] / Patxiku Errotariak aurtengo urte honetan Epelean egin dituenak guzitara ditu 75 kintal, 0 arroa ½. / Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku Errotariak eta bere semeak, lauen artean, egin dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½. / Zaparrok eta Errotariak orañ Iturruan, Urdiñolako suertean, egin dituzten meak dirade 73 kintal, 5 arroa ½. / Zurmioren senar Errotariarena...1 quintal, 4 arroas.*

**erruda** iz. Urak mugitzen dituen burdinolako gurpilak, hauspotegikoa (hauspoei eragiten diena) nahiz kabitegikoa (gabi igunari eta, beraz, gabiani berari eragiten diena). *Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarrak eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. / Olatxoko ardatza eta erruda konponzen Anbrusiok, Olasokoak...6 días.*

**errugu** (arruntean), **erru** (behin) iz. Erregua, labore eta egoskarien neurria. *Anbrusio Ansusarobekoak...36 cuartos eta errugu bat baba. / Donostiatik errugu erdi bat katza...2 pezetak. / Errugu bat eta erdi katza pagatua 5 pezetak. / Errugu bat katza pagatua...5 pezetak. / Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa. / Honek badu erraja errugu bat baba gehiago. / Sebastian Etxeberriak esan dit artoak eman ziozkatela: Arotzandikoari...6 errugu, Sebastian Artxaiari...8 errugu, eta Juan Antonio de Iribarreni...40 errugu.*

**errugu erdi** iz. Erregu baten erdia hartzen duen neurria. *Errugu erdi bat katza erosia...1½ pezetak, 8½ cuartos. / Eta igandean mealleak eta urzalle berriak entregatu zituzten hamabi ogi eta errugu erdi bat baba.*



- esamiña** iz. Tasazioa. *Eta orañoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*
- esamiña haundia izan du** ad. Asko balio izan. *Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut. / Eta orañoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*
- esamiñadore** iz. Tasatzailea. *Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*
- esamiñatu du** ad. Tasatu baino lehen, baso edo mendi puska baten azterketa egitea, zenbat karga atera daitezkeen finkatzeko. *Berez zentzu zabalagoa du aditzak, belar-soroak, etxeak, metak eta beste ere etsamina daitezkeelako. Aranoko baso aurren esamiñatu duten Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut.*
- esan du** ad. 1. Esan. *Hori esanen dio berak. / Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala (sic), eta bealdu beza gizon horrekin. / 2. Galdetu. Brunok niri esan dit presan gastatu ziran burniak zenbat ziran, eta zenbat balio zuten. Nik esan diot zenbat diran, baña zenbat balio duten ez dakidela (sic). // iz. Norbaitek esan duena. Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri, eta haien esanarekin eziñ fiatu dirala, eta gatziga diozabela konturik eman dioten.*
- eskas** 1. adj. Txarra, txikiegia. *Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekin beñere konportarik eziñ bete dezaketanak. / Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekin konportarik betetzea. // 2. adb. Hemengo mea, olan zagoena, larunbat goiz artekoa eskasa da, gehiago izanen zela uste genduen, eta asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea.*
- eskas egon da** ad. *Niri esan dit igande jua den honetan gatzigatu diola Oletek basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean eta hitz egiñen dutela.*
- eskas izan da/du** ad. Falta izan. *Bigarko ogiak eskas ditugu eta gizon horrekin bial bitzate ogi batzuek.*
- eskastu da** ad. Eskas izan, falta izan, gutxiegi izan. *Astearte goizean ola hasitzekotan, mea eskastuko da, iñork ez ekartzekotan.*
- eskasxe** adj. *Guzien artean atzo eta egun karri dituzten mea erreak dirade 27 kintal eskasxeak. / Meatzean baditu egiñak, gutxi gorabera, lau gurdi eskasxeak.*
- eskatu du** ad. *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[er]i ezkutuko bat. / Elduñ itzaiak eskatzen du hogeit ezkutu behar lukeala. / Eta Belokik eskatzen duena bost pezetako bat. / Sebastian Etxeberriak Urteberri egunetik honaraño*

- dituen ardoan kontua eskatu dit, eta Urteberritik honararño dituen ardoak ditu [...].*
- eske** adb. (genitiboarekin). *Burni hoi en eske etorriko zela esan zidan aste honetan.*
- eskeñi du** ad. Eskaini. *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian, eta beti ni eskeñzen nition eta ez ditu beñere hartu. / Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hogezi eta hamabi kua[r] to eskeña ere.*
- eskribitu du** ad. Idatzi. *Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau zenbat kosta den ezpaitu galdatzen.*
- eskupulario** iz. *Lukel (sic) igelearena orobat izanen da noski. Urzalle berriarena ere bai. Utzi ditu eskupularioak guzienzat. Gregori[o] Danborenak orobat.*
- espa** iz. Liskarra. *Añarbeakoak berak badute ikatza franko, eta ez al dute esparik izanen!*
- espensa** iz. Gastua (*expensa* gaztelaniaz). *Esteban Ansaren espensak dira, taia honetan daudenak...1805. / Eta espensak taia honetan daudenak...140. / Ez du espensarik. / Gregorio Eskudero Lorenzoren partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin. / Hoiek dira tretxuak, eta beste hoiek, sei lagunekoak, izanen dira espensak. / Itzaiak esan zidaten niri mearik etzuten jorradetan espensa libre beharko zutela; esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran.*
- espensa egin du** ad. Gastua egin. *Eta hoietan egiñ den espensa da...190 reales. / Hau da bigarren urte honetako espensa nik egiñ dudana. / Ni etorri niñzan Elamara 1804an maiatzaren azkenean, eta 1805 1 de junioarño lenbiziko urtean egiñ nuen espensa zen [...] / Urte jua den horretan Elaman nik egiñ dudana espensa da [...].*
- espensa hartu du** ad. *Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri. / Hau da lendabiziko urteko espensa nik Elaman hartu nuen.*
- espensa pagatu du** ad. Gastua ordaindu. *Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak.*
- espensa(k) sartu du** ad. *Eta kontua geronakoan espensak sartuak baditu, orañ hiru hillabetekoak sarzeko izanen ditu, eta sartu gabeak badira, bost hillabete horitakoak izanen ditu.*
- esperanza** iz. IBrean genitiboaren lagun ere aurkitzen dugu, ‘-en esperoan’, ‘-en mendean’ adieraz-edo. *Egiten diran ikatz pixkak ekarri al baganitz, hemengo karreteroan esperanzan ez degula zer egonik. / Itzaiak esan zidaten niri mearik etzuten jorradetan espensa libre beharko zutela; esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran.*
- esperoan egon da** ad. *Egondu naiz Jaunsaratsen alabarekiñ eta esan dit egunero dagoela esperoan, ez dakiela noiz etorriko den.*



- estanka** iz. Uharkatik ura ateratzeko atea da, ireki eta ixten dena, erdarazko *compuerta* bera. *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi.*
- estimatu du** ad. Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]zi ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egiteaz.
- estolda** iz. Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak.
- eta** (gehien-gehienetan), **ta** (behin) junt. ...*eta mutill horrekin gaur bial bitza hiru edo lau ogi, eta bigar goizean besteak, baba ta olioa. / Eta espensak taia honetan daudenak...140. / Eta horra Ferminen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin ezkerokoak. / Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeco: hamazazpi kuarto eta erdi. / Mutill horrek entregatu ditu hamar ogi, eta ardoa, eta tobera, eta baba.*
- etorraldi** iz. Jose Juakiñ Iganzioko igele horrek orango etorraldi honetan Elaman egiñ dituen burniak dirade beren espensakiñ [...] / JRMk (II, 270) etorrialdi du. Ikus bedi, hemen berean, IBren *hasaldi* - *hasialdi* pareta.
- etorri da** ad. 1. Etorri. Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juañ-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Bada, honela arratseko etorritzen badira, espensa doblea behar dute. / Haspagilleak esan dit etorriko dela astelen datorrenean zorzi goizean, beurrek esan bezala. / Letra hoiiek egin ezkeroko, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak. / 2. Joan. ...bost ezkutuko bat gehiago bial diozala asteezkeneko, bestela horrara etorri beharko duela. / Eta etorriko naiz larunbat goizean, eta ehun ezkutu horiek, inñolaz ere al badu, egiñ behar dizkit. / Honen aurreko urtekoa hor du, eta bi urte horietako kontua garbitu beza; istante batean egiñen du beurrek, eta etorriko naiz bigar goizean. / Moxok esan dit mea horien eta bestean kontua egiñ nahi luketela, eta gatziga dezala, lekurik badu, noiz etorri,<sup>10</sup> edo bestela Moxorenzat dirua bial dezala honara, eta beste lagunak etorriko dirala horrara.
- etxe.** Ikus *itxe* sarrera.
- etzi** adb. *Badira, bada, hiru itzai, eta bigar eta etzi bialduko al ditugu. / Bigar edo etzi agertuko zazkio eta egonen dira. / Etzi bial bitza mutill horiekiñ ogiak eta baba. / Etziko beharko ditugu olioa eta katza, eta baba ere bai, laster.*
- eulz** iz. Eultze, erlauntza, erle kofoina. *Perrazelaikoari lau eulz pagatuak...5 pezetas.*
- euria izan da** ad. Euria egin. Astiarragako itzaiak denbora ona denean *enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena.*

<sup>10</sup> Noiz joan daitezkeen horra, Goitzarina.

**ez** partikula. *Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit inor ideroko ote duen. / Aste honetan etzela posible. / Hoiek ez dira, ez, merkeagoren zale izanen, noski. / Mandoren batzuek paratu artean ezkera baliatuko. // iz. ...eta esan dit baietz, ez zela inporta, zenbat ziran [...] <sup>11</sup> ezker, dirurik izan ezagatik, baño nahiago dira noski di[ruak]. // iz. Gaur gehiago gaztigatu al diote eza, edo baia, aurrerako bada.*

**ezagun izan du** ad. Nabari izan, nabaritu, ikusi. *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n], ura bajatzera ezagunen da.*

**ezik** menderag. *Eta orañ esaten diot ezik itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian.*

**ezin, eziñ da/du** ad. Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer egi[n] dezakedan. / *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n], ura bajatzera ezagunen da. / Orañ inor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz. / Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala arroako erreal eta erdi baño berago.*

**ezker** adj. Ezkerra izengoitian baizik ez dugu ediren. Ikus onomastikari eskaini atala.

**ezkero** 1. adb. *Hoiek dira Murgioke bi itzai horiek, abuztu joan denean urtebete ezker, hemen hartu dituzten diruak. / 1792an agosto ezker hartuak [...] / Pelizek 13 de junio ezker hemen sartu dituen egunak ditu [...] / Samigelek ezker Nolbertoren denboran hemen Arranbiden egiñ diran burniak dirade [...] / Sidro iganziar igeleak Samigel ezker egiñ dituanak. // 2. menderag. -**en ezker**. *Eta esan dit baietz, ez zela inporta (sic), zenbat ziran [...] <sup>12</sup> ezker. / -**tu ezker**(z). *Eta geroztik, ubelde haundi hura egiñ ezker —1800, 22 noviembre ezker— presako ziargilzan pasatuak [...] / Horrek honara etorri ezkeroz hemen taia txikira hartu dituen ardoak dirade [...] / Letra hoiek egin ezker, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak. / Olatxoko maisu hori etorri ezker egiñ diraden burniak dir[a]de [...].***

**ezkutu**. iz. Diru baten izena (erdarazko peso-ren balio bera zeukan). / *Elduiñ itzaiak eskatzen du hogezi ezkutu behar lukeala. / Eta etorriko naiz larunbat goizean, eta ehun ezkutu horiek, inolaz ere al badu, egiñ behar dizkit. / / Eta Juan Kruz de Ipuik ere, irabazia duenaz gañera, hogezi eta hamar ezkutu eskatzen ditu, pagatuko diozkala. / Pepe Exurrenekoak, alkateak, esan dit Santiago hori harzeko duela, bi ezku[tu] [...] hogezi eta sei karga ikatz horien gañera geldi dizikiola bi ezkutu horiek ere, konponduko dirala beurrekin. / Ikus bost ezkutuko, hamar ezkutuko eta hogezi ezkutuko sarrerak.*

<sup>11</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

<sup>12</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

- ezkutu fuerte** iz. Erdarazko *peso fuerte*-ren baliokidea dela dirudi, baita JRMk (II, 272) darabilen *ezkutu lodi*-rena ere. *Pello Bergaragandik hartuak...50 pesos fuertes. Hoietaz gañera, baditut beste berrogei ezkutu fuerte hartuak Pello Bergaragandik, baña ez dakit zeñ egunez hartu nituan.*
- falta gabe, faltarik gabe** adb. Oroiki. *Bada Nolberto bialdutut (sic), baldiñ entregatu ezpadituzte entrega ditzatela astelenean faltarik gabe. / Eta Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara. / Gau[r] falta gabe entregatzeko esa[n] nioten.*
- falta izan da** ad. *Iruñerako burni hoiek ez dira allegatuko hogeita bat kiñtalera, falta izanen dira hiru edo lau kintal.*
- febrero** iz. *Eta mea hoietatik ez dakit febreroko hilleko asentuan paraturik ote den.*
- fetxa** iz. *Hoietaz gañera, baditut beste berrogei ezkutu fuerte hartuak Pello Bergaragandik, baña ez dakit zeñ egunez hartu nituan. Orduko fetxa paratzea aztu zizadan. Beurrek horr izanen du; ez dago inporterik horretan.*
- fiatu da** ad. *Fidatu. Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri, eta haien esanarekin eziñ fiatu dirala, eta gaztiga diozatela konturik eman dioten.*
- fraide, fraile, praide** iz. *Hoietarako baditu Karmengo bi fraideri emanak...2 reales. / Hoietarako badu piñta bat ardo eta Aranzazuko praideari emana...1 pezeta. / Karmengo fraideari emanak...2 reales. / Olakoak esan didate Aranzazuko fraide horri emateko [...] / Olakoak esan dute Aranzazuko fraile horri emateko [...] / Praide horri emateko [...].*
- franko** zenbtz. (izenak *-a* ohi darama). *Añarbekoak berak badute ikatza franko, eta ez al dute esparik izanen! / Atzoko eguna sartu dute lanean, eta nik zer esan dezaket? Berak badute animoa franko. / Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta. / Olatxoko kabia behatsetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]jko franko.*
- frankotan** adb. *Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta.*
- franzes** adj. *Eta hiru buruko zapiak eta bi pañuelo, frances pañueloak, eta bat txuria.*
- fundamenturik ez egin du** ad. *Gauzak behar bezala ez egin. Maxter honek ez duela fundamenturik egiñen jakina da.*
- fundamentuz** adb. *Ausarki, ugari. Bialdu bitzate ogiak fundamentuz. / Eta bial bitzate ogiak eta baba eta olioa fundamentuz. Horra Lukusak (sic) ogikiñ ekarri zuen zakua. / Ez degu batere. Fundamentuz bial bitzate ogiak. Horra igandean Nolbertok zorzi ogirekiñ ekarri zuen zakua.*
- fundamentuz ebili da** ad. *Zintzo ibili. Eta itzaiak etorriko dira bigar edo etzi; esanen diotet dabillzala fundamentuz, izanen dela dirua.*

**gabe** (gehienetan) adj./postpos. *Eta kontua geronakoan espensak sartuak baditu, orañ hiru hillabetekoak sarzeco izanen ditu, eta sartu gabeak badira, bost hillabete horitakoak izanen ditu. / Hoiiek guziak llebarik gabe pisatuak dira. / Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun. // menderag. Aranoar hoiiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiiek sartu nahi nituke iñork eraman gabe. / Ikus denborazko perpausei eskaini puntua, joskera atalean, eta bage sarrera.*

**gai** iz. Ekaia. ...*eta buruko azal baten gaia, kosna azalak egiten diran hartatik. eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia, eta lau almuda axalen gaia, telazkoak. / Ardo horietaz gañera, baditu harpiko baten gaia eta bi burniñziri txiki eta paleta bat sukalderako. Guzitara 18 libras. / Horiak badituzte meatzerako hartuak borra bat ta palanka-ziri baten gaia. / Hoietarako hartua du piñterdi bat ardo. Eta elzaburni baten gaia...3 libras ½.*

**gaitziru, gaitzuru** iz. Gaitzerua (pisu neurria). *Arotzandiko Anbrusioeren semeak entregatu zuen gaitziru baba. / Eta leneko astean gaitziru bat babarekiñ bialdu zutena zaku txiki bat. / Gaitziru bat katza pagatua...1 pezetas. (sic) / Santiagok ekarri ditu hamalau [o]gi eta gaitzuru bat baba.*

**gaizki** adb. *Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer egi[n] dezakedan. / Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat.*

**gaizki esan** iz. *Gaizki esatea, haserre ematea-edo. Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer egi[n] dezakedan.*

**gaizto** adj. *Eta bialdu behar ditu hoién diruak. Lotsagabe gaiztoak ez dabillza! / Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziai ura dariote. / Orañ kontatu ditut barrak, eta 47 barra dira, eta gutxi gorabera izanen dira 13 quintales, 2 arrobas, baña hoienzat beti beharko dira lau uztarri, zergatik bide gaiztoak egonen diran.*

**galar** iz. *Elama galarra* toponimoan baizik ez da azaltzen gutunotan (ikus onomastikari eskaini atalean eta 1807.10.29ko gutunean dioguna). Azpirozek (1967: 11) eta Olanok (2005: 175) Leitzako *galarzulo* ‘landare ikatza egiteko lurrian egiten zen zulo handia’ dakarte, eta lehen autoreak (1981: 242) herri bereko *galarreta* ‘elurretan ez barnatzeko oinetakoen azpian paratzen diren oholtxoak’ ere jasotzen du. 1774an «carbón fresco, despojos, galarra y leña» dugu, eta berdin(tsu) hurrengo urteetako agiritan (Melo, 1999: 736 eta hur.). Etxeberriak (1988: 92) Goizuetako *Galarzuri* toponimoa biltzen du aurrena, eta *Galarre korta* eta *Galar zuri* geroxeago. Goizuetan berean *Galarregui* lekukotzen da 1692an, *Galardegi* orain (NTEM 47: 92, 185). Lan honetan egungo *Galargoizko iturria*,

*Galarrekorta eta Galarzuriko borda ere biltzen dira, baita Galartzuriko erreka eta Galartzuriko hartxuriak ere. Perurenak (2010: 353) auzi bateko hitz hauek biltzen ditu: «Que en todo su tiempo el testigo ha visto hacer carbón llamado Galarra con pies y despojos de árboles y otros que por viejos los echa el aire en toda Anizlarrea, incluso en Eliberria, y venderlos para herrerías y fabricas de herreros».*

**galbai.** Ikus *ikazgalbai* eta *meagalbai* sarrerak.

**galdatu** *du* ad. Galdetu. *Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau zenbat kosta den ezpaitu galdatzen. / Nik ez dakit egun hoiek Patxikuk hor asentatu baditu ere. Pa[t]xikuri galdatuko dio.*

**galdu** 1. *da/du* ad. Zerbaitez gabetua gertatu. *Bada, ara[...] aski galdu zazkigu eta txol galduko [...] / Galdu zituzten bi agoa. / 2. Hondatu, erre, usteldu. Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. Bada, ustelenak edo galduenak badere, gogortuxe beharko dute, al den bezala. / Tobera galdurik dago txol; beldurrak nago aste honetan iraun ez dezan ere.*

**gamondar** *iz.* Gamon deitura duena. *Nik bigar goizean jua nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ porsio kaso jua ten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearen zat edo gamondar haien zat.*

**gañ.** Ikus *beren gañ* sarrera.

**gañera** *lok.* *Gañer[a] gurbill bat ardo. // -en gañera* postpos. ‘-ez gainera’. *Eta hemen daude bost pezetako urrea [eta] hog[ei] kuartoak, hoi en gañera kontua garbitu [...] / Eta nahi badu hoi en gañera edo zer nahi du en gatzigatuko du. / Hoge i eta sei karga ikatz horien gañera geldi dizikiola bi ezkutu horiek ere, konponduko dirala beurrekin. / Olaundian egiñ dituzten burnian gañera erremienta egiteko egunak [...] // -z gañera* postpos. *Eta Juan Kruz de Ipuik ere, irabazia duenaz gañera, hoge i eta hamar ezkutu eskatzen ditu, pagatuko diozkala. / Hoi etaz gañera, badira lau gurbill ardo. / Hoi etaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun. / Hoi etaz gañera, badu gaztañadian egindako ikatza. / Manuel Arpiderenak esan dit, lana egiña duenaz gañera, hoge i ezkutuko bat bial diozala, pagatuko diola.*

**gañerako** *adj.* (instrumentalarekin beti IBren gutunetan). *Errezio hoi etaz gañerako ardoak ditu...2 pintas. / Errezioaz gañerako ardoak...7 txiki. / Errezioaz gañerako txiki ardoak...9 txiki.*

**garaiko** *adj.* Goikoa. *Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*

**garbi** *adj.* Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. *Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera*

- garbitu** *du/da* ad. 1. Garbitu. *Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean lau laguneko partidukoan egiñ zituzten meak. / Hoietaz gañera, baditu Buruzuriak olatxoko bergamazoia garbitzen, Buruzuriak berak...1 día. / Peonzan sartuak presako ura gelditzen eta azekiak garbitzen sartuak [...]* / 2. Argitu, kitatu. *Hau da oraño horren arialdikoa. Lenekoa ema[n] nion; hor izanen du kontua, garbitu ezpazion. / Horra horiek egin dituzten mea guziak, eta horien kontua, nahi duenean garbi dezagun. / Kontua garbitua dago. / Ikus kontua(k) garbitu sarrera.*
- garrobanda** iz. Burdinazko gurdi banda. *Burni hartuak, garrobandak [...]* / *Eta Iruñerako atererik dauden garrobandak dirade... 3 quintales, 16 barras. / Hoietaz gañera, baditu urte honetan hartuak burnia garrobandak [...]* / *Iruñerako atere diran garrobandak dirade 3 quintales, 16 barras. / (Patxiku ardamandaziak) garrobanda hartu duen burnia...8 arrobas, 18½ libras.*
- gastatu** *du* ad. *Ez da bada, noski, beurri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu edo zorra bizi ote den nago. / Larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez ebilzeagatik, beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik sobratuatik (sic) eman nition hiru pezeta. / Olatxoko ardatza ustaitzen gastatu ziran burniak dira...8 quintales.*
- gastu** iz. Alderdi guzietatik ez dago gastua besterik. / *Guzien kontua edo gastua, gauza gutxi-gorabera batean paratuko du, beurrek deritzan bezala. / [Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den].*
- gastua abonatu** *du* ad. *Enfin, konponduko al dira edo abonatu al diote gastu hori.*
- gau** iz. (*gaba*, artikularekin edo instrumentalarekin) *Batzuek beñzat gabaz etorriko zirala esan zuten, eta besteak ere abisatuak dira goiz etorzeko. / Hemen gaba irago zuten.*
- gaur** adb. 1. Egun. *Aste honetan ez da itzairik izandu, gaur etorriko dirala uste dut, mearik badute. / Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da, ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor! / Gaur akabatzeke deseoa nuen heme[n] go lana, baña ez degu akabatuko, izanen da asteleneko diña lan ere. / 2. Gaur gauean? Bigar goizeko olakoanzat ez da ogirik gelditzen gaur, eta mutill horrekin gaur bial bitza hiru edo lau ogi, eta bigar goizean besteak, baba ta olioia. / Ikus egun sarrera.*
- gaurdaño** adb. *Gaur arte. Eta hoietaz gañera, sei laguneko partiduan egiñ dituzten meak gaurdaño etorriak (sic) dituzte hasta 7 diciembre...376 quintales, 4 arrobas.*
- gaurko** adj. Egungoa. *Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera.*
- gauza** iz. *Eta suerte horri disekelela, emateko gauza haundirik ez dela nago. / Gauza guzian kontua eman diotela beurri. / Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiiek ordañzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten*



*errezelarik. / Nagusiaren partez Ignazio de Bergarak bere diruetatik pagatu dituen gauzak izanen dira hoiek.*

**gauza gutxi gorabera** adb. Goiti-beheiti. ...*eta guzien kontua edo gastua, gauza gutxi-gorabera batean paratuko du, beurrek deritzan bezala. / Eta meatzean badituzte hamar gurdi mea, gauza gutxi gorabera. / Ikus gutxi gorabera sarrera.*

**gauza izan** da ad. 1. Balio izan. Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskudero *zakurik ez daukate batere gauza denik. / 2. Gai izan. Hoiek ere, eta nahi badu bere mandoak bial ditzala, bederatziña arroa eramateko ez dirala honen abereak gauza. / Lohietan gauza den abere bat inork ez dauka ere, konparezioa[n].*

**gauza onik ez egon** da ad. Hemen ez dago gauza onik. *Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek.*

**gaztañadi** iz. Gorgorio Arotzandikoaren *ikatzak, gaztañadian eginak. / Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian, Arolako ondoan, egiña bere propioa [...]. / Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian bere propioa, berak egiña [...]. / Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian egiñ duen ikatza, bere propioa [...]. / Manuel Etxeberriak bere gaztañadian egiñ zuen ikatza da beren propioa [...]. / Santiago de Alzubidek bere gaztañadian egiñ zuen ikatza da, kontua egiñ ezker, 1798an.*

**gazte** adj. Bakarrik *Mikolas Gazte* deizioan kausitu dugu. JRMk (II, 278-279) *gazde* eta *gazte* darabiltza. Hor genioenaren kontra, IBk aipatu dugun *Mikolas Gazte* horretaz besterik ez du.

**gazitatu** du ad. Jakinarazi, esan, abisatu. ...*eta lenago gazitatu zidan kontua garbitu eta bialzeko. / Atzo kartan bialzen nuela gazitatu nuen txartela aztu egin zizadan. / Gazitga beza ola haundiko kabiaz zer egiñ behar den. / Gazitatu diot Gregorio igeleari etorzeko; entregatuko diozkat gaur. / Ikus abisatu sarrera.*

**gehiago** zenbtz./adb. *Honek badu gehiago pinterdi bat ardo. / Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu [...]. / Orañ egin du. Hogei bat karga ikatz omen du gehiago egitekoa ere.*

**gehien** zenbtz./adb. (artikuluarekin azaltzen da). *Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekiñ beñere konportarik eziñ bete dezaketanak. / Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten. / Eta nik ez dakit zer diran horiek ere, itzai guziek oro orobat elkarren lagunak dira gehienak. / Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira! / Orañ geldituko dira joan den aste ko burniak gehienak, eta aste honetan egiten diranak beren espensakiñ.*

**gehienaz ere** adb. Gehienez ere. *Hoietaz gañera, Arzaiak egin zituen bi ikaztogi, gehienaz ere ehun karga.*

**geldialdi** iz. ...*eta hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio.*

**gelditu** *da/du* ad. *Agur. Geldi bedi ongi. / Geldi ditzala buerrek (sic). / Hoiek gelditu eta sobra heldu dirala...4 pezetas. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. Hori geldituko dio, ordaña, edo kostatzen zaiona pagarazi. / Lenagoko hor izandu ninzanean, Migel Josepe de Ezeizabarrena itzai baten kontua garbitu baitzidan hor, haren kontuan gelditu ziran hogeit hamar sobra. / Librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igel[e]n zat. / Marti[n] de Tellitxeari emateko 60 pezeta eta 5 kuarto, eta Ansaneokak berak geldi zitza 20 pezeta eta 5 kuarto.*

**gero** adb. ...*Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko.*

**geronako** adj. *Geroenekoa, azkenekoa. Eta kontua geronakoan espensak sartuak baditu, orañ hiru hillabetekoak sarzako izanen ditu. / Martin Tellitxeak geronako kontua bi hillabetekoa egiñ behar zuen.*

**geroztik** (arruntean), **gerozdik** (behin) adb. *Ordutik, harrezkero. Antokoren seme horko urzalle berri horren kontua bialdu nion, lenago hemen izandu zuena, eta geroztik hemen horren denboran egiñ diraden burniak dirade, beren espensaki[n] [...] / Eta geroztik, ubelde haundi hura egiñ ezker —1800, 22 noviembre ezker— presako ziargilzan pasatuak [...] / Eta geroztik Arranbidera ekarri dituzten ikatzak dituzte [...] / Ez du honek gerozdik (sic) deus ere, honen kontua egiña badu. / Lenago, hemendik bialdu nion txartel batean [dago] lenago zutena, baño asentu honetan daude lenago ziranak eta geroztik egiñ dituztenak, guziak. / 1786, hasta 13 de mayo...84 cargas. Geroztik ere bai. Derecho hasta 22 julio...38 cargas de 1786. Orañ geroztik eginak Suruan baditu [...] / Ikus orañ geroztik sarrera.*

**geroztik honara** adb. *Ordutik orain arte, harrezkero. Eta geroztik honara bialdu dituen ardoak dirade, Urraiden utzia [...].*

**gisa** iz. *Modua. Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterareztzeko modua har dezadan len baño len. / Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas.*

**gizon** iz. *Eta orañgoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik. / Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala (sic), eta bealdu beza gizon horrekin. / Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta.*



- gogo** iz. Asmoa (aditz partizipioekin): *Hau da niri esan didana, eta len baño len egiñ gogo badu, egiñ egiñ behar du denbora aunitz luzatu gabe, al duen lasterrena.*
- gogoan ez egon** da ad. Gustukoa ez izan. *Ba aurtengo esamñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*
- gogoan jarria eduki** du ad. Irudipena izan. *Eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage egiña izanen duela gogoan jarria daukat.*
- gogortuxe** adb. Gogortukara, gogortu antza. *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. Bada, ustelenak edo galduenak badere, gogortuxe beharko dute, al den bezala.*
- goierriar** iz. Goierriarrak dute...36 cuartos.
- goiko** adj. *Haspategiko goiko ardatza berria sarzen pasatu zituzten egunak dirade [...] / Haspategiko goiko ardatza sartu zenean ola konponzen...1½ día. / Hoietaz gañera, Aranoko goiko mendian bi lagunak erdi bana egin dituzten guziak dirade [...] / Orañ ari diran goiko meatzea ia ahitu zaiote, ez dute han mea askorik egiñen.*
- goiz** iz. *Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajean. / Egun goizea eman tiot Barberoari atzoko diruak. / Egun goizean izandu naiz Arteskiñetako hartan ere. / Eta beste guziak joan ziran larunbat goizean Donostiara.*
- goizean goiz** adb. Hagitz goiz. *Etorriko dira bihar, eta ogi batzuek bialdu bitza bigar goizean goiz; ez degu batere. / Etzi bialdu behar dituzte ogiak eta baba eta olio goizean goiz. / Hemen arratseko diña ogi dut, eta gaur ezpadituzte bialzen, bigar goizean goiz bialdu behar dituzte ogiak. / Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz (sic), zazpitako etorriko zirala.*
- gonbenienzia** iz. *Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere. Egiten diran ikatz pixkak ekarri al baganitza, hemengo karreteroan esperanza ez degula zer egonik, guziek beren lanetan eta gonbenienzietan dabillza.*
- gonbidatu** du ad. *Hoietaz gañera, baditu olakoak gonbidatzeko hartuak bi pinta ardo.*
- gonbite** iz. *Gonbita. Hoietaz ganera (sic), Juakiñtxok agindurik [go]nbitetan gastatuak, bi ogi eta 9 pinta ardo...8 reales. / Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta.*
- gora** adb. *Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. Hartu ditu urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.*
- gorabera** adb. *Gutxi gorabehera. [Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den].*
- gorri** adj. *Bakarrik bi onimotan agertzen da, Burugorria-n eta Gorriola-n.*

- gozatu** da ad. Bigundu. *Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago, eta zertatik hasi behar den gaztigatu beza. Burnia oran hasi da pixka bat gozaten.*
- grano** iz. Pikorra, bihia. Ezezko esaldi honetan ageri da: *Igande arratsean Lukes Iraolak entregatu zituan zorzi ogi, eta orañ hemen ez dago ez ogirik, eta ez babaren granorik, eta ez olioaren tantarik.*
- gurbill** iz. Hamasei bat litroko pegarra. *Gañer[a] gurbill bat ardo. / Hoietaz gañera, badira lau gurbill ardo.*
- gurdi** iz. Gurdikada, orgatara. *Eta meatzean badituzte hamar gurdi mea, gauza gutxi gorabera. / Gurdi burnia bazuen hartua, 9 octubrean, 4 arroa. / Meatzean baditu egiñak, gutxi gorabera, lau gurdi eskasxeak.*
- gutxi** zenbtz./adb. Beratar meakari hoiek beti bondade haundia dute, eta mea gutxi egin. / *Eta Ereñezutik ere mea pixka bat erakarri nahi nuke, baña hemen abere gutxi dago, nahiagatik ere. / Ikus iñor gutxi sarrera.*
- gutxi gorabera** adb. *Eta meatzean daudenak gutxi gorabera dirade...003 quintales, 0... Haiek llebarik gabe pisatuak. / Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera. / Meatzean baditu egiñak, gutxi gorabera, lau gurdi eskasxeak. / Nik beurri gaztigatu nion gutxi gorab[e]ra hamabost kiñtal kabilla izanen zirala, baña ez dira izanen. / Orañ kontatu ditut barrak, eta 47 barra dira, eta gutxi gorabera izanen dira 13 quintales, 2 arrobas, baña hoienzat beti beharko dira lau uztarri, zergatik bide gaiztoak egonen diran. / Ikus gauza gutxi gorabera sarrera.*
- gutxiena** adb. Gutxienez. *Errenteriarako burni hoiek hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena.*
- guzi** zenbtz. *Ardo hoietan guzitan dirade Goizuetatik Tranpak ekarriak hiru zagi, eta Txurdankikoak Urraidetik ekarria zagi bat. / Bihar bialdu beharko ditu hoiek guziak. / Egun hoietan guzietan hemen izandu dute jana. / Eta yonen naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas. / Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa. / Hoietarako guzietarako taia txikiko ardoak ditu...17 pintas. / Ikatz hoietatik guzietatik.*
- guzitara** (eskuarki), **guzietara** (behin) adb. *Denetara. ...eta hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio, eta guzietara 5 reales. / Elduiñ itzaiak eskatzen du hogei ezkutu behar lukeala. Bada, honen lana egiña: haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Eta Barberoaren semeak Pikoagan egin zituen hasiak ziran guzitara 28 quintales zabalak. / Horietaz gañera, presan ura gelditzen, gonbitetan gastatuak, ogiak eta ardoak, guzitara egiñak...4½ pezetarenak. / Patxiku errotariak aurtengo urte honetan Epelean egiñ dituenak guzitara ditu 75 kintal, 0 arroa ½.*

- hagitz** adb. Arras, oso, asko. *Bergamazoiako pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera. / Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. Hartu ditu urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.*
- haiek** det./izord. Atzo ekarri zituan Kristok bost ogi, eta horra haiekin ekarri zuan zakua. / *Eta meatzean daudenak gutxi gorabera dirade...003 quintales, 0... Haiek llebarik gabe pisatuak. / Haiekiñ bialdu ditut bederatzi kiñtal eta erdi burnia. / 24 linea zabal eta 3½ linea lodi ziran txabal haietatik juan ziran 82 quintales, 5 arrobas, 940 barras.*
- haizarka** iz. Haize arka, hauspoaren eginkizun bera duen oholez egindako burdinolako peza. Ikus bedi A. M. Mitxelena (2020: 43, 106). Derecho más *haizarka konponzen...1 día.*
- hala** adb. *Eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage egiña izanen duela gogoan jarria daukat, eta ekusi beza hala den. / Hala egiñ beharko du; nik hoi en kontua lenago bialdu niola nago. / Hoietaz gañera, meatzean omen dute ekarzekoa...10 quintales pasaturik pisatu beharra; hala esan dute.*
- halaxe** adb. *Lenagoko aldian Aragoara halaxe juan ziran.*
- halere** lok. ...*baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiaturko dela. / Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako, eta halere esan dit beurri gaztigitzeko ola haundian, hemen, atere al baditezke.*
- hamabi** zenbtz. *Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak.*
- hamabost** zenbtz. *Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun.*
- hamahiru** zenbtz. *Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak.*
- hamaika** zenbtz. *Entregatu ditu hamar ogiak, daramazki sei barra burñintxo eta hamaika puska errekusas.*
- hamalau** zenbtz. *Santiagok ekarri ditu hamalau ogi eta bigarko beharko dira berriz ogiak. / Santiagok ekarri ditu hamalau [o]gi eta gaitzuru bat baba.*
- hamar** zenbtz. *Entregatu ditu hamar ogiak, daramazki sei barra burñintxo eta hamaika puska errekusas. / Eta meatzean badituzte hamar gurdi mea, gauza gutxi gorabera.*
- hamar ezkutuko** iz. Diru baten izena. *Juan Domiño Fundidor ikazkilleak esan dit bial diozala hamar ezkutuko bat. / Ikus bost ezkutuko, ezkutu eta hogezi ezkutuko sarrerak.*
- hamasei** zenbtz. ...*eta hoietarako beurrek, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki, eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sobra zela, eta pezeta hura orañdik ez du bialdu.*

**hamazazpi** zenbtz. *Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko: hamazazpi kuarto eta erdi.*

**han** adb. *Orañ ari diran goiko meatzea ya abitu zaiote, ez dute han mea askorik egiñen.*

**handi** adj. *Arotzandia onimoan ageri da. Ikus haundi.*

**hañbeste** adb. *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[er]e ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egiteaz. / Itzai kondenuatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz.*

**hara** adb. *Gaztigatu beza burni hoiek Errenteriarra behar duten. Hara beharko dutela ustean egun baziran lau itzai astiarragatarrak.*

**haragi** iz. *Derecho más iñoteko haragitako emanak...05 pezetas. / Haragitako sei pezeta. / Iñotetako haragitako emanak...10 pezetas. / Iñotetako haragitako hartuak...10 pezetas.*

**hare** iz. *Harea. Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak.*

**hargiñ** iz. *Karretoko hargiñak hemen sartu dituen egunak dira [...].*

**haritz** iz. *Aritzederreta toponimoan daukagu.*

**harpiko** iz. *Zintzela. Ardo horietaz gañera, baditu harpiko baten gaia eta bi burniñziri txiki eta paleta bat sukalderako. Guzitara 18 libras.*

**harri** iz. *Ikus arku harri eta harria pasatu sarrerak.*

**harria pasatu** du ad. *Harria iragazi? Hoiek dira harria pa[s]tzen hasi ezkerro Zarrukok eta Baratzurik eta bi anaie horiek egiñ dituzten meak guziak. / Zarrukok eta bere anaie Baratzurik meatzeako harria pasatzen hasi ziranetik, Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean, bi anaieak egin dituzten mea guziak dira [...]. Harria pasatzen eginak...6 quintales, 1 arroba ½.*

**hartu** du ad. 1. Hartu. *Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko. / Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu [...]. / Nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterareztzeko modua har dezadan len baño len. / 2. Edan, jan. Bost pinta ardo eta ogi bat hartu zituzten, eta gehiago ere nahi zuten. Orañ iñor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz. / Hoietarako hartua dute pinta bat eta erdi ardo. / 3. Harrapatu. Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. Hartu ditu urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.*

**hasaldi, hasialdi** iz. *(Olako) lanen hastapena. Horra guzienak, hasaldi honetakoak. / Manuel Antoniok esan dit olakoan hasaldi honetako asentua bialzeko esan ziola. / Patxiku Malet horrek eta Paskual de Insauspek Erbizango errekan hasialdi bitan<sup>13</sup> egiñ zituzten meak dirade*

<sup>13</sup> Hasmentan *vatean* idatzi du IBk (*Asialdi vatean*), eta gero zuzendu eta *vitan* (*Asialdi vitan*) utzi.

- [...] / *Taia txikiko ardoak ditu, hasialdi honetakoak, abuztutik hasi eta honarañokoak 7½ pintas.*
- hasi da/du** ad. ...*Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko. / Ez da posible izanen datorren astean honekin hasitzea. / Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago, eta zertatik hasi behar den gaztigatu beza. / Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño.*
- hasi geldian** adb. Hasi-geldituka. *Larunbatean meza enzuteko jaia da eta astelenean ere bai. Bitarte honetan hasi geldian, jan eta lanik ez egiñen da (sic) hementxeñ.*
- hasirazi du** ad. Hasarazi. *Pasaiaarako burni hoietan hasirazi ditut, eta bialduko ditugu al dugun lasterrena.*
- haspagille** iz. Hauspogilea (*barquinero* gaztelaniaz). *Haspagilleak esan dit etorriko dela astelen datorrenean zorzi goizean, beurrek esan bezala.*
- haspategi** iz. Hauspotegia, burdinolako hauspo handiak dauden tokia. «*El puesto donde se colocan los barquines, llamado aspoteguia*» (A. M. Mitxelena, 2020: 124; ikus, orobat, 261. or.). *Haspategiko goiko ardatza berria sarzen pasatu zituzten egunak dirade [...] / Haspategiko goiko ardatza sartu zenean ola konponzen...1½ día. / Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziranekoak, eta zubia konponzen sartu zituzten egun guzietan, zenbat diran guzien egunak. / Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu.*
- haspo** iz. Hauspoa. *Olako errudak eta ardatzak eta estolda guzietan beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.*
- hau** det./izord. *Aste honetan Nolbertoren partez Perrazelaikoak egin zituan zazpi agoa. / Honetarako badu ola haundiko kabiguña sartua. / Maxter honek ez duela fundamenturik egiñen jakina da.*
- haundi** adj. *Horiek dira ubelde haundi hura egiñ ezkeroko guzietan. / Ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat. / Orañgoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik. // Baina handi duten Arotzandia eta beste ere azaltzen dira.*
- hautsi da** ad. *Olatxoko iñgudea hautsi eta gelditu ziranean...02 (días). / Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]ko franko.*

**haxi**<sup>14</sup> iz. Burdin pezak egiteko tenorean soberakin diren zatiak, peza horietatik kentzen, mozten direnak dira *haxiak*, nolabaiteko txatarra (ikus A. M. Mitxelena, 2020: 28). *Elduin itzaiak eskatzen du hogeiz ezkutu behar lukeala. Bada, honen lana egiña: haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Hoietaz gañera, baditu haxiak Uralperreañ egiñak....1 quintal, 3 arrobas. / Hoietaz gañera, baditu haxiak zepadiatz kanpoan egiñak....3 quintales, 1 arroba.*

**haxidun** iz. Hasiak erosten eta saltzen dituen. *Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean.*

**hegi** iz. Mendi gailur luzekara edo mendi mazela. *Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½.*

**heldu** da ad. Etorri. *...eta hoietarako beurrek, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki. / Batare txartelik gabe purrustan heldu ziran, eta eman egin diotet. / Dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak. / Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira, eta baldin honela ona heldu bada, egiñen degu burniñtxoa, eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa. / Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada.*

**hemen** adb. *Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik. / Hoiek dira hemen daudenak, eta tai txikiko ardoak ditu 8 pinta.*

**hemengo** adj. *Horiek dira horren hemengo kontuak.*

**hementxe** ad. *Eta diru haietan geldituak hementxe daude bi urretxi[ki].*

**hementxeñ** adb. Hementxe. *Larunbatean meza enzuteko jaia da eta astelenean ere bai. Bitarte honetan hasi geldian, jan eta lanik ez egiñen da (sic) hementxeñ. / Egun Goizuetan eméntxe eta eméntxen ibiltzen dira.*

**hemeretzi** zenbtz. *Anaieari eman diozkat beurrek bialdu zitidan hemeretzi urretxikiak.*

**hemezorzi** zenbtz. *...eta hoietarako beurrek, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki, eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sopra zela, eta pezeta hura orañdik ez du bialdu.*

**herenegun** adb. *Pelizek ekarri zituen herenegun 12 panes, eta Arzaiak orañ ekarri ditu 16 panes.*

**herri** iz. Bakarrik *Goierri* izengoitian eta toponimoan oinarritu *goierriarrak* izenean daukagu.

---

<sup>14</sup> Hasieran *b-* idazteko dagoen edo dagokeen arrazoi bakarra menturaz Iparraldeko *haxi* ‘haragi txikitua’-rekin erlazionatua egotea da, baina ez dakigu lotura hori onetsi beharrekoa den.



- hill** *da ad.* Erremoni ere zaldi bat hill omen zaio. / Juan Antonio de Belasko itzaiarena. Hill ezkeru, 27 de mayo ezkeru [...].
- hill** *iz.* Hilabetea. Enfin, hill horretako asentuan jakiñen du. Beste lau karga horiena hilleko asentuan paratua da. / Hoiek dira hor[r]jen ikatzak, eta hoi en karreto[a]k hilleko asentuan paratuak dira, eta espensak ditu [...] / Horra karretoko asentua hillean hillekoa, aparte nahi badu ere. Ez dute hill honetan mea gehiago izanen.
- hillabete** *iz.* Eta kontua geronakoan espensak sartuak baditu, orañ hiru hillabeteakoak sarzeco izanen ditu. / Horrara bialdu niozkan hiru hillabeteako asentua. / Martin Tellitxeak geronako kontua bi hillabeteako egiñ behar zuen.
- hiru** *zenbtz.* Hoiek dirade hiruan artean mealle sartu dituzten egunak. / Martiñ Antonio difuntuaren partidukoak eta Juajosepe de Altamiraren partidukoak eta Martiñ Josepe de Belaskoren partidukoak, hoi en hiruren partiduko meak dituzte hoiek [...] / Orañ hiru hillabeteakoak sarzeco izanen ditu. / Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi.
- Hiru Erregean egun** *iz.* Niri esan dit igande juan den honetan gaztigatu diola Oletek basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean eta hitz egiñen dutela.
- hirugarren** *ord.* Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka.
- hiruna** *banatz.* Hoietaz gañera, badituzte hiru lagun hoiek hiruna egun bide egiten sartuak.
- hitz egin** *du ad.* Niri esan dit igande juan den honetan gaztigatu diola Oletek basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean eta hitz egiñen dutela.
- hitza eman** *du ad.* Juan Franzisku Galtxadarekiñ ere egondu naiz, eta esan dit ez duela orañdik iñon hitza emanik, baña ez du erresuleziorik ematen, egonen garala esan dit. / JRMk (II, 291) hitzeman dauka.
- hobe izan** *du ad.* Esan behar dio leneko meatzean egin dezala mea ona; bestela, hobe du mearik batere ez harzea. Mea txarrak egiten ditu orañ aldi honetan.
- hobeki** *adb.* ...Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko. / Enfiñ, beurrek jakiñen du hobeki nola dagoan.
- hobeko izan** *da/du ad.* Bai, ola hobeko degu hasi [Ur]te[be]rri goizean, egun batengatik! Enfiñ, beurrek nahi duena edo deritzena gaztigatu beza. / Eman hobeko zaiote pezeta, horien miñgañetik ez da libre izanen bestela. / Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olioa, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola

*bete lagun asetzen iduki gabe. / Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara, agertu hobeko dut norbait erakarri al baneza.*

**hobexe** adj. Pittin bat hobe. *Bada, horri eman ezkeru, Juan Antoniok, Alkatezar[r]jak ere nabiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du.*

**hoge** zenbtz. *Elduiñ itzaiak eskatzen du hog[e]ji ezkutu behar lukeala. / Haren kontuan gelditu ziran hoge kuarto sobra.*

**hoge eta bi** zenbtz. *Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hoge eta bi berga; horra kamaren muestra.*

**hoge eta hamabi** zenbtz. *Enfiñ! Neroni ere urrikitu zait konzienziak ere hoge eta hamabi kua[r]to eskeñia ere.*

**hoge eta hamaika** zenbtz. *Ostiralean ekarri zituen Tranpak zorzi ogi, eta egun ekarri ditu Josepe Ignazio horrek hoge eta hamaika ogi.*

**hoge eta hamar** zenbtz. *Eta Juan Kruz de Ipuik ere, irabazia duenaz gañera, hoge eta hamar ezkutu eskatzen ditu, pagatuko diozkala.*

**hoge eta sei** zenbtz. *Hoge eta sei karga ikatzen kontua.*

**hoge eta zazpi** zenbtz. *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hoge eta zazpi kana kotoña.*

**hoge ezkutuko** iz. Diru baten izena. *Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]ji ezkutuko bat. / Beste hoiek ere nabiko dute zerbait. Bernardo Karredak ere hoge ezkutuko bat behar zuela zion. / Entregatu zituen maisu honek sei hoge ezkutukoak. / Hoge ezkutuko Ansanekoarekiñ bialdu zuen hura utzi nion Ansanekoari berari. / Manuel Arpiderenak esan dit, lana egiña duenaz gañera, hoge ezkutuko bat bial diozala, pagatuko diola. / Pello Maisuak esan dit larunbatean etorriko dela, nahi dituela kontuak egiñ, eta behar dituela larunbatean hiru hoge ezkutuko. / Ikus bost ezkutuko, ezkutu eta hamar ezkutuko sarrerak.*

**hogeita bat** zenbtz. *Iruñerako burni hoiek ez dira allegatuko hogeita bat kiñtalera, falta izanzen dira hiru edo lau kintal.*

**hoiek** det./izord. (Lehen gradukoa; ikus izen morfologian dioguna). *Eta mea hoietatik ez dakit febreroko hilleko asentuan paraturik ote den. / Sebastianek bialdu ditu txartel horiek. Ogiak badira hiru egun hoietako diña.*

**holako** adj. *Beste urte batean ere holako lana eskatzen badiote, eman egin behar diote horiei, berak nabi dutenean juateko. / Ikus horrelako.*

**honara** adb. *...eta bial beza horien kontua, eta dirua zerbait gebiago honara. / Ardo horitaz gañera baditu ikatzak honara ekarriak, bere propioak [...] / Fermin de Zubeldia Tranpa horrek Berdabioko ondoan egin dituan ikatz guziek dirade honara etorri diranak [...] / Horrek honara etorri ezkeroz hemen taia txikira hartu dituen ardoak dirade...*

**honaraño** adb. *Leneko kontua egiñ ezkeru, Zaparrok eta Patxiku Errotariak erdi bana 10 de ma[r]zotik hasi eta honaraño egiñ dituzten meak dirade,*



- hemen pisatuak, 55 quintales, 4 arrobas ½. / Taia txikiko ardoak ditu, basialdi honetakoak, abuztutik hasi eta honarañokoak 7½ pintas.*
- honela** adb. *Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira! / Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ denbora hau honela deño.*
- honelako** adj. *Gaztigatu nioten ez gehiago egiteko, ez nuela ekarriko gehiago honelako mearik.*
- hononzean** adb. *Honatakoan. Eta ez dut oliorik batere, eta ogirik ere ez dut laurden bat besterik. Bial bitzate horrekiñ hononzean batzuek.*
- hor** (arruntean), **horr** (behin edo beste) adb. *Dirua hartuak horr asentatuak al dauzki, noski! / Jose Antonio Beloki horrek lenako kontua garbitua duela dio, eta Jose Antonio Aroztegi horrena ere hor da, itzai guziena batean, eta orañ urte honetakoak dituzte. / Nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden.*
- hori** det./izord. *...eta bealdu beza gizon horrekin. / Hoi en kontua bialdu nion, Moxo horrekiñ berarekiñ. / Hori da horren kontua, nik hemen arkitzen dudana.*
- horiek** det./izord. *Bigar goizean bialdu bitza itzai horienzat nahi dun dirua, zerbait, deritzena. / Hoiek dira horien mea guziek, Yakomeakan egiñ zituztenak. / Ikus izen morfologiaren gaineko atalean dioguna.*
- horko** adj. *Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu [...].*
- horra** 1. *Aurkezpen hitza, horra hor. Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajeanean. / Horra. Horiek dira horren lana eginak eta diru hartuak...38. / Horra Jaimeren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak. // 2. adb. (= horrara, behin). *Larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez eabilzeagatik, beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik sobratuatik (sic) eman nition hiru pezeta.**
- horrara** adb. *Horra. ...eta horrara bialdu niozkan hiru hillabeteko asentua. / Larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez eabilzeagatik, beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik sobratuatik (sic) eman nition hiru pezeta. // Adiztako ere erabil daiteke, beste adlatibo batzuk bezala: *Eta Lubis maisua ere horrarako da noski.**
- horrelako** adj. *Aski dira horrelako batzuek iñoren kredita erabillzeko. / Ikus holako.*
- horrengatik** lok. *Hala ere. Horra atzo nik gaztigatze[n] niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak!*
- hortxe** adb. *Hortxe beurrek deritzan errebaja egiñen diote.*
- hura** det./izord. *...eta pezeta hura orañdik ez du bialdu. / Aste hartan egin ziran burniak. / Burugorri edo Tantailepo delako hartatik Mariolaren seme horrenak dirala ekarri dituztenak. / Nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki. / Nik hemen dauzkidaleko, bada, Martin Labañi esa[n] nion, haren aurrera deiturik, bark emanen ziozkala 60 pezeta eta 5 kuarto. /*

*Orañoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*

**hurrandu** *da* ad. Hurbildu. Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranparena eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite. Hoiek denbora onetan zerbait hurranzen dira neurrian, baña denbora txarretan ez du iñork ere konporta hau beteko.

**huts egin** *du* ad. Bada, hemen kontatzen ditudanak dirade, ezpadut huts egiten,...245½ cargas; eta baldin huts egin bada, kontatuko ditu beurrek ere. / El mes de abrillean huts egiñak...06. / Kabillak aurten orañdaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobas, 1.110 barras. Nik huts egiten badut ezpadut, horiek sumatzen ditut. Ongi ez dakienak ez dezake eman satisfaziorik. / Leneko aste batean aztuak, huts egiñak...2 quintales, 1 arroba. / Leneko hillean huts egiñak...06. Hill honetakoak...02.

**hutsik** *adb.* Itzaiak esan zidaten niri mearik etzuten jorradetan espensa libre beharko zutela; esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran.

**idero** *du* ad. Ediren. Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit iñor ideroko ote duen. / Ikus arkitu eta billatu sarrerak.

**idi** *iz.* Idiak bial bitza larunbatean, Urriztitxabalen eta Gorriolan izanen dira zurak. / Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta.

**iduki** *du* ad. Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderoz zakurik ez daukate bat ere gauza denik. / Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.

**iduri** *iz.* 1. Ikatz xehea (*ciesgos, cisgos* gutunotan erdaraz, pluralean beti). Baztanen ‘ikatz xehea’ da, *cisco* gaztelaniaz (Izeta, 1996: 95), Bergaran (Elexpuru) ‘ikatz xehea’, ‘ikatz hondar bezala gelditzen dena’ dugu, eta Oñatin (*idurixa*) ‘ikatz xehea’ (Izagirre, 1994: 128) / 2. Gaztaina, gaztainondo mota bat. *Agustin de Ubitziri Basoberriko iduriak emateko portea...1½ reales. / Anton Paradisu honen basotik olarako, sutegirako ekarria karga bat iduri. / Derecho iduriak emana (sic) Juan Fermín Iribarreni. / Derecho itxola eta iduriak eramana Artxaizarrari, Olzorrozko suertetik Gañzi[n]go erre kara. / Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak. / Iduriak emanak Martin Okerrari eta... Artxaizarrari Olzorrotza... / Ikus JRM (II, 297).*

**iduritu** *du* ad. *Eta oran garbitzen ari diran meatze hark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean. / Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi.*

**igande** *iz.* *Eta honetan esan dit niri, len ere honi ematen ziola bi pezeta, eta orañ ere orobat bi pezetan emanen dituela, eta igandeko beharko dituela diruak. / Ez degu batere. Fundamentuz bial bitzate ogiak. Horra igandean Nolbertok zorzi ogirekiñ ekarri zuen zakua. / Igande arratsean Lukes*

*Iraolak entregatu zituan zorzi ogi, eta orañ hemen ez dago ez ogirik, eta ez babaren granorik, eta ez olioaren tantarik.*

**iganziar** adj./iz. Igantziarra. Predo Antonio *iganziar maisuak olaunditik olatxoan sartu dituen egunak ziraden [...]* / *Sidro iganziar igeleak Samigel ezkeru egiñ dituanak.* / *Sidro iganziar igelearena.* / JRMk (II, 185, 296) *ianziar* darabil.

**igele** iz. Ijelea (erdaraz *tirador*), burdinolako lanbidea, burdina moldatzen, luzatzen, xaflatzen zuena. Azkeneko arrago *honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian.* / *Gaztigatu diot Gregorio igeleari etorzeko; entregatuko diozkat gaur.* / *Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin.* / *Gregoriotxo de Olaizola Elamako igeleak Nolbertoren partez hemen sartu dituen egunak eta egiñ dituen agoak.* / *Lukas de Zabala aranoar igele honek Samigel artea Arranbiden egiñ dituen burniak dirade.* / *Lukel (sic) igelearena orobat izanen da noski.* / *Martin Goizaringo igeleak...17.*

**igoal** adb. *Enkarga bitza espensa libre emanen diotela eta datozela; igoal etorriko dira.* / JRMk *igual* darabil.

**ikatz** iz. Aranoar hoiek *badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke inork eraman gabe.* / *Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz.* / *Zubietako menditik ekarri dute ikatza.*

**ikatz ito** iz. Ikatz mota bat. *Alzateko ikatz itoak...01.*

**ikatz zaku, ikatzaku** iz. *Horra. Olio txarroa eta hamasei ogirekiñ mealle honek ekarri zuen ikatz zakua.* / *Horra zaldalearekiñ ekarri duten ikatzakua berria.*

**ikatz egiñ du** ad. *Angel de Martiarenak emantako basoan Santiago de Elizalde egiñ dituan ikatz guziek dirade [...].*

**ikatz sartu du** ad. *Hoietaz gañera, badituzte leneko arragoa erre ezkeru, arragorako egurrak botatzen eta ikatza sarzen-eta, guzitara [...].*

**ikazgalbai** iz. Ikatza bahetzeko galbahea. *Ikazgalbai bat eta meagalbai bat...5 pezetas.*

**ikazgille** (eskuarki), **ikazkille** (behin edo beste) iz. *Aurtengo ikazgillean plazeriak.* / *Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak.* / *Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olio, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jai da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.* / *Horra leneko kontuak garbitu ezkeru ikazgilleak egiñ dituzten ikatzak.* / *Juan Domiñgo Fundidor ikazkilleak esan dit bial diozala hamar ezkutuko bat.* / *Txaradiko ikazgille bati iduriak emateko portea...6 reales.*

**ikaztogi** iz. Ikatza egiteko lekua, ikaztobia, txondorra (ikus Olanok [2005: 199] honetaz dioena). *Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute*

- bigaldu beñere tairik. / Hoietaz gañera, Arzaiak egin zituen bi ikaztogi, gehienaz ere ehun karga.*
- ille** iz. *Artilea. Bada, horiek guziak, eta illeak, eta punzio honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentu aparteko batean.*
- illoba** iz. *Domingo de Iribarren Soldaduarien illoba Estartakoak...36 cuartos.*
- ingude, iñgude** iz. *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten. / Olatxoko iñgudea hautsi eta gelditu ziranean...02 (días). / Olatxoko kabia eta ingu[d]jeak aldatzen...1 día.*
- ingude egin, iñgudea egin** *du* ad. *Ola haundiko ingudea egiten...2 días. / Olatxoko ingudea egiten...1 días (sic). / Olatxoko iñgudea egiten...2 días. / Olaundiko iñgudea egiten...3 días.*
- ingudea errekatu** *du* ad. *Ingudeari erreka, ebakia egin. Olatxoko kabia eta ingudea errekatzen eta pasatzen...3 días. / Ikus erreka, erreka egin, errekatu sarrerak.*
- ingudea pasatu** *du* ad. *Errepatatu? Findu? Olatxoko kabia eta ingudea errekatzen eta pasatzen...3 días.*
- ingudeari erreka egin** *du* ad. *Ingudea errekatu. Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten. / Ikus erreka, erreka egin, errekatu sarrerak.*
- inibitu** *du* ad. *Debekatu. Orañ meatzea inibitu omen diote; zer egiñen baitute ere, egonen gera Pazkoz.*
- iñola(z) ere ez** adb. *Horiek deritzan bezala konpon bitza, nik emanarekiñ ez lirake kontentu izanen iñolaz ere. / Iñola ere aziertorik ez dago.*
- iñolaz ere** adb. *Nolabait. Eta etorriko naiz larunbat goizean, eta ehun ezkutu horiek, iñolaz ere al badu, egiñ behar dizkit. / Igandean, iñolaz ere al badu, bialdu behar dizkit hogeï eta hamar ezkutu, arren. Lotsatua nabill zorrakiñ.*
- iñon ez** adb. *Juan Franzisku Galtxadarekiñ ere egondu naiz, eta esan dit ez duela orañdik iñon hitza emanik, baña ez du erresuleziorik ematen, egonen garala esan dit.*
- iñondik ez** adb. *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik iñondik ez ematekotan.*
- iñor (ez)** izord. 1. *Inor (ez) ...baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña balere saiatuko dela. / Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit iñor ideroko ote duen. / Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke iñork eraman gabe. / Astearte goizean ola hasitzekotan, mea eskastuko da, iñork ez ekarzekotan. / Atzo ere hemen ez da itzairik agertu, eta ni banoa Astiarragara, iñor erakarri al badezat. / Eta egondu naiz Ubitziren seme zarrarekiñ eta esan dit Belaundiak abisatua daukala, santiagoak pasatu artea iñori ez agiñzeko. / Honek badu erraja errugu bat baba gehiago. Ez dute iñork beste errajarik nik emanik. / Lobietan*

*gauza den abere bat iñork ez dauka ere, konparezioa[n]. / 2. Edozein, nornahi. Egin biozate kontua. Aski dira horrelako batzuek iñoren kredita erabillzeko.*

**iñor besterik ez** izord. *Atzo Saldagarbirena izandu zen, eta besterik iñor izandu ez da.*

**iñor gutxi** zenbtz. *Bestela, iñor gutxi izanen degu.*

**iñote** iz. *Inautea, inauteria. Derecho más iñoteko haragitako emanak...05 pezetas. / Iñotetako haragitako emanak...10 pezetas. / Iñotetako haragitako hartuak...10 pezetas.*

**iñporta izan da** ad. *Axola izan. [Esan] diot lauren eta bost karga dirala eta nola etzakin beurr[ek] zenbat ziran segururik, eta konpon dezala, eta zenbat fal[ta diran] abisatzeko, eta esan dit baietz,<sup>15</sup> ez zela iñporta (sic), zenbat ziran [...]<sup>16</sup> ezkeru.*

**iñporte** iz. *Diru kopurua. Hoietaz gañera, badituz beste berrogei ezkutu fuerte hartuak Pello Bergarandik, baña ez dakit zeñ egunez hartu nituan. Orduko fetxa paratzea aztu zizadan. Beurrek horr izanen du; ez dago iñporterik horretan.*

**\*io du** ad. *Esan. Bi anega baba hartu dituela dio. / Larunbatean horrara etorri behar zuela zion. / Sebastian Etxeberriak kontuak egiñ nahi litukeala dio.*

**irabazi du** ad. *Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun. // iz. Batzuek irabaziak eta aurrera gehiago aurrera emanta lana egiñ behar dute. / Egundik hemen izandu dira Astiarragako itzaiak; hill honetako beren irabaziak behar dituzte. / Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita. / Orañ hoietaz irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi.*

**irago da/du** ad. *Igaro. Aleroak ate[ra] zuten mea, ehun bat kintal iragoa. / Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten. / Hemen gaua irago zuten.*

**irauli da** ad. *Uzkaili, erori. Bergamazoiako paretan hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera.*

**iraun du** ad. *Tobera galdurik dago txol; beldurrak nago aste honetan iraun ez dezan ere.*

**iritzi** ad. *Iruditu. 1. Ergatiboarekin. Bai, ola hobeko degu hasi [Ur]te[be] rri goizean, egun batengatik! Enfiñ, beurrek nahi duena edo deritzena gaztigatu beza. / Eta horien portea egin beza abere baten jornala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat. / 2. Datiboarekin. Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogei eta zazpi kana kotoña, edo beurri daritzan bezalakoa, eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalakoa.*

<sup>15</sup> Testuan bayez dugu.

<sup>16</sup> Zuloa dago. Irudi luke d-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (dakien edo).

**irundar** adj./iz. Irungoa. *Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes. Mealle irundarra aritu zen Lukes horren partez. Zazpi aste hoietan ez Lukes horrek, ez burnirik eta ez deus ere.*

**istante batean** adb. Berehala. *Honen aurreko urtekoa hor du, eta bi urte horietako kontua garbitu beza; istante batean egiñen du beurrek, eta etorriko naiz bigar goizean.*

**ito** adj. Ikus *ikatz ito*.

**iturindar** adj./iz. Iturengoa. *Iturindar zurginak dituzten egunak dira [...].*

**itxalartar** adj./iz. Etxalartarra. *Gabriel de Tomasarena itxalartarrarena...04. / Gabriel de Tomasarena itxalartarrarena...09.*

**itxe** iz. Etxea. *Bigar ere bial bitza itxe mandoak mea errearekiñ, eta etzi oiarzuarrak guziei eragiñ behar dite jorrada bana mea errearekin. / Eta Patxiku Antoniorengana izandu niñzan; ez nuen itxean topatu, baña esa[n] nion emazteari, baña ez da neregana iñor agertu. / Eta yonen naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. / Iruñerako egiñ behar duen karta bial dezake haren itxera.*

**itxeki** (ustez) da ad. Atxiki. *Eta suerte orri disekele, emateko gauza haundirik ez dela nago.*

**itxola** iz. 1. Etxola. 2. Etxola egiteko ekaia (*choza* erdaraz). *...eta itxola bat eramana Tranpari Presaburutik Olzorrotza. / Derecho itxola bat eramana Arranbidetik Tintopoloko suertera Gregorio Apezenakoari. / Derecho itxola eta iduriak eramana Artxaizarrari, Olzorrozko suertetik Gañzi[n]go errekarra. / Itxola bat ekarria Tintopoloko suertetik Arranbidera, Gregorio Apezenekoarena. / Itxola ekarria Olzorrozko suertetik Arranbidera, Tranparenara. / Itxola eramana Presaburutik Unzingo suertera, Jose Olaizola Marzanekoari.*

**itzai** iz. (erdaraz *carretero*). *Agustin Itxeberría Mutuaren itzai haren meak dira 34 quintales. / Elduiñ itzaiak eskatzen du hogeï ezkutua behar lukeala. / Eta itzaiak etorriko dira bigar edo etzi; esanen diotet dabillzala fundamentuz, izanen dela dirua. / Hoiek dira Murgioko bi itzai horiek, abuztu joan denean urtebete ezkerro, hemen hartu dituzten diruak.*

**itzuli** da/du ad. *Egun goizean berantetsi eta iñor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da. / Haiek eman dizkit itzulzeko beurri, eta beste mandatari batekin bialduko ditut.*

**izan, izandu** da/du ad. *...eta ni ez niñzan oroitu lenago esatea, eta hemen izandu da larunbatean, eta honen kontua garbitu beza. / Derecho por menas Pello Josepe Orzeriogan izanduarena. Suerte de Urdiñola, Iturruan egiñak...1 quintal, 4 arrobas ½. / Eta Patxiku Antoniorengana izandu niñzan; ez nuen itxean topatu, baña esa[n] nion emazteari, baña ez da neregana iñor agertu. / Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera. / Horko*



*asentuan izanen dira gehiago. / Lenagoko hor izandu ninzanean, Migel Josepe de Ezeizabarrena itzai baten kontua garbitu baitzidan hor, haren kontuan gelditu ziran hogeiki kuarto sobra.*

**jai iz.** *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Jai ondoko astean erre beharko degu arragoa. / Larunbatean meza enzuteko jaia da eta astelenean ere bai. / Oran esaten diot maisu honek, jaietan hemen gelditzen denean, espensa nola behar duen gaztigatu behar du. / Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe. / Ikus meza enzuteko jai sarrera.*

**jai erdi iz.** *Egun erdiko jaia. Asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea, zergatik bi jai erdi horietan ez da mea erorerik etorriko, noski.*

**jainko iz.** *Izengoitizat azaltzen da: Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak... / Derecho por menas beratar meakariak, Jainkoak, eta bere lagun berriak Aranoko Goiko mendian egiñak...1 quintales, 1 arroba.*

**jakin du ad.** *Enfin, hill horretako asentuan jakiñen du. Beste lau karga horiena hilleko asentuan paratua da. / Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik. / Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerro jakiñen al du.*

**jan du ad.** *Aranoar karriadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan. / Ardizar[r]ja jantakoa sei pezeta. / Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealte honek. / Oran esaten diot maisu honek, jaietan hemen gelditzen denean, espensa nola behar duen gaztigatu behar du, edo olako taiean jan behar duen edo berak bere taiera jan behar duen. / iz. Jatekoa. Egun hoietan guzietan hemen izandu dute jana. / Hoietaz gañera, badu bideak egiten sartua...1 día berak jana duela. / Hoietaz gañera, badu presan lanean sartua, berak jana zuela...1 día. / Orañ inor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz. / Senperren semeak ditu...2 días berak jana duela. / Zaldibiak ditu...2 días berak jana duela.*

**janari iz.** *Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik.*

**jarrio zaio ad.** *Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote.*

**jarri du ad.** *Eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage egiña izanen duela gogoan jarria daukat. / Eta oran garbitzen ari diran meatze bark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean. Proga bitza eta zer esaten dioten adituko diote.*

**jaso du ad.** *Berak jasoak ditu guziek. / 19 septiembretik hasi eta 23 octubrerano. / Hau da honen gaztañaditik etorri den ikatz guzia, bere propioa. Karreteroak jasoak dira guziek. / Ikatz hoietan ez du berak ekaririk,*

*karreteroak jasoak dira guziak. / Ikatz hoietatik guzietatik berak edo horren kontura jasoak dira 30 cargas. Hoien karretoa ondu behar dio berari.*

**jasorazi du** ad. *Jasoarazi. Ikatz hoiek berak jasorazi ditu. Hoien portea berari ondu behar dio.*

**jateko baba** iz. *Jose Olaizola Marzaneakoak eskatzen du anega bat babaren txartela, jateko babatik.*

**jaun** iz. *Nagusi jauna: Zubietako menditik ekarri dute ikatza [...].*

**joan, juan** (arruntean), **jon** (behin), **yon** (behin) da ad. *Bigar goizean jonen naiz nere beajean. / Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Eta yonen naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak. / Ostiral arratsaldean joan ninzan Astiarragara.*

**jornal** iz. *Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten 102 reales, eta haienak eta bere mandoan jornalak 18 pesos, 7 reales, 18 maravedís. / Eta horien portea egin beza abere baten journala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat. / Hoietatik Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako journala, bi erreal. / Hoietaz gañera tokatzen zaio Manuel honi erremienta egiten bi eguneko journala. / Jornalean pasatu zituzten egunak.*

**jornalean aritu** da ad. *Ez du Axtiarragak hoietan parterik; jornalean aritu zen hoietan.*

**jornalean egin du** ad. *Bi partida horiek dira Moxok eta bere lagunak jornalean eta beren gañ egiñ dituzten mea guziek, ni honara etorri ezkerro. / Moxok eta bere lagunak Basaianegiñ jornalean egin dituzten meak dituzte...33 quintales, 3 arrobas ½.*

**jornalean sartu du** ad. *Eta hoietaz gañera, badituzte meatze berri orañ garbitzen ari diran hartan, jornalean sartuak, aste honetako hiru egunakiñ izanen dituzte bi lagunek hamasei egun...32 jornales. / Guzitara izanen dituzte jornalean sartuak...36 jornales. / Jose Domingo de Iribarrenen Urraideko basoa botatzen jornalean sartu dituzten egunak dituzte [...].*

**jornalero** iz. *Soldatapekoa. Hoiek dira basoa botatzeko jornaleroan egunak. / Jose Domingo Teresenakoaren Urraideko basoa bota zen jornaleroan egunak dirade [...].*

**jorrada** iz. *Garraioaldia (< erdarazko jornada). Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala. / Bigar ere bial bitza itxeke mandoak mea errearekiñ, eta etzi oiarzuarrai guziei eragiñ behar dite jorrada bana mea errearekin. / Datorren astean egiñen duela beste jorrada bat esan du. / Itzaiak esan zidaten niri mearik etzuten jorradetan espensa libre beharko zutela; esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran. / Sebastianek jorrada bat laster hartuko du, eta besteak nora bialdu gaztigatuko du.*



- juan-etorri** iz. *Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri.*
- jubizioa egin du** ad. Pentsatu, ondorioa atera. *Porfiñ nere jubizioa hau egiten dut honela, eta ageriko da.*
- juradu** iz. *Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan.*
- kabi** iz. *Gabia, olako mailu handia. Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]lla haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako. / Gaztiga beza ola haundiko kabiaz zer egiñ behar den. / Hoietaz gañera tokatzen zaio Manuel honi erremienta egiten bi eguneko jornaia, olatxoko kabiak konponzen aritu baikiñan bi egunean.*
- kabia egin du** ad. *Hoietaz gañera, baditu olaundiko kabia edo erremienta egiten...3 días. / Olatxoko kabia egiten...2 días [...] olatxoko kabia egiten 1½ días. / Olatxoko kabia egiten...1 día. / Olatxoko kabia eta ingudea egiten...2 días. / Olaundiko kabia egiten...2 días.*
- kabia errekatu du** ad. *Gabiari erreka, ebakia egin. Olatxoko kabia eta ingudea errekatzen eta pasatzen...3 días. / Ikus erreka, erreka egin, errekatu eta ingudea errekatu sarrerak.*
- kabia pasatu du** ad. *Errepassatu? Findu? Olatxoko kabia eta ingudea errekatzen eta pasatzen...3 días.*
- kabiguña sartu du** ad. *...eta ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat. / Ola haundiko kabiguñ bat sartua. / Ola haundiko kabiguña sarzen [...] / Olatxoko kabia egiten eta kabiguña sarzen...4 días. / Olatxoko kabiguña sartutzen...1½ días. / Olaundiko kabiguña sartua.*
- kabilla** iz. *Kabila, olan egiten zen peza; A. M. Mitxelenak (2020: 242) ‘burdin biribilezko ziria’ adiera ematen dio. Larramendik honela dio: «Aquí (en Guipúzcoa) se ha trabajado estos años la más cabillería en la cantidad prodigiosa de quintales de hierro, que se han reducido á cabillas grandes y menores para los navíos del Ferrol y otras partes [...]». Lekukotasun hauek ditugu gutunotan: Kabillak aurten orañdaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobas, 1.110 barras. / Nik beurri gaztigatu nion gutxi gorab[e]ra hamabost kiñtal kabilla izanen zirala, baña ez dira izanen. / Orañ juan diran kabillak dirade 27 quintales, 1 arroba, 171 barras. Hoietaz gañera, Pasaiarako egin diranak...06 quintales, 1 arroba, 014 barras.*
- kabitu du** ad. *Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak.*
- kama** iz. *Ohearen burdinazko egitura, ustez. Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hogei eta bi berga; horra kamaren muestra.*
- kana** iz. *Luzera neurria, metro eskasekoa. Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogei eta zazpi kana kotoña. / Ikus berga sarrera.*

**kanpoan, kanpora** postpos. (instrumentalarekin). Gainera, landa(ra). *Eta nahi badiozka kontuak egiñ, baditu olako lanetaz kanpora ikatz egiñak, bere propioak, berak egiñak [...] / Hoietaz gañera, baditu haxiak zepadiaz kanpoan egiñak....3 quintales, 1 arroba. / Honek baditu espensaz kanpora hiru txiki ardo.*

**kantari** adj. *Txorikantaria(ga)* toponimoan daukagu.

**karel.** iz. Gaur egun saskien goiko ertza da, azpiko xafla edo zumitzak baino lodiago dena. Nolanahi ere, gutunotako *karelak* zubiak ezker-eskuin dituen harrizko horma txikiak dira, jendea eror ez dadin eraikitzen direnak, erdaraz, singularrean, *pretil* deitzen dena. Ikus bedi A. M. Mitxelena (2020: 62). Txanda bakar batean ageri da hitza: *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. [Urak, ubeldeak] eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka. / Perurenak (2010: 37) Urraideko zubia eraikitzearen inguruko lekukotasun hau biltzen du: «Yten asi mismo se a de poner un trabesaño y una Carela que sirba de Caja para que se mantenga la tierra». Euskaltzaindiaren Hiztegian ‘goiko ertza’ ‘ertza’ dela esaten da, eta itsasontzietan ‘albo bakoitzaren goialdea edo goiko ertza’.*

**karga** iz. *Anton Paradisu honen basotik basotik olarako, sutegirako ekarria karga bat iduri. / Aritzederretatik ekarria olarako karga bat ziri. / Hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu. / Hoge eta sei karga ikatzen kontua. / Karga bat ardo. / Tiki Añarbekoak esan dit badituela berrogei karga ikatz eta mandoak bialzeko.*

**kargatu da/du** ad. 1. *Zamatu. Arrago erretzallerik ez da hemen; oran abisatuko ditut datozela, kargatu badere egin baledi! Mea aski izaten bada. Orañdik arbazta lotzekoa dago gehiena, eta ekarzekoa. Enfiñ, mearik aski bada, kargatuta egonen da. / [Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den]. / 2. Norbaitek bere gain hartu. Orañ espensa horietaz ni kargatze[n] naizal[a] egiñen du deritzan soldata niri emana didana.*

**Karmengo fraide** iz. Karmengo Amaren ordenakoa, karmeldarra. *Hoietarako baditu Karmengo bi fraideri emanak...2 reales. / Hoietarako baditu taia txikiko ardoak 3 pintas ½, eta Karmengo bi praideri emanak 2 reales. / Karmengo fraideari emanak...2 reales. / Olakoak esan didate Karmengo fraide deskalzo horri emateko [...] / Olaundikoak eta olatxokoak Karmengo fraide horri emateko esan dute guzientzat erreal fuerte bana, eta neretzat ere bai.*

**karraiadore** iz. *Garraiatzailea. Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit iñor ideroko ote duen. / Horra itzaian asentua eta karraiadoreana, leneko hillekoa. / Oiarzungo karraiadoreak honara ekarri zituzten mea errean eta ikatzen eta eraman zituzten burnien asentuiak bialdu nituan 3 de noviembreñokoak beren espensakiñ. / Sebastian*

*Etxeberria karraiadoreak esan du bial diozala dozena bat ezkutu. / Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean. / Ikus karretero sarrera.*

**karraiatu** *du* ad. Mando batekin egurra karraiatzen, media día.

**karretero** iz. Garraiatzailea. Aranoar hoiek badira egunero zazpi edo zorzi karretero, eta itzaiak ere etorriko al dira! / Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere. Egiten diran ikatz pixkak ekarri al baganitza, hemengo karreteroan esperanza ez degula zer egonik. / Horra leneko hilleko karreteroan eta itzaien asentuak. / Ikatz hoietan ez du berak ekarririk, karreteroak jasoak dira guziak. / Ikus karraiadore sarrera.

**karreto** iz. Garraioaldia. Hoiek dira hor[r]jen ikatzak, eta boien karretoa[k] hilleko asentuan paratuak dira, eta espensak ditu [...] / Hoien karretoa ondu behar dio berari. / Horra karretoko asentua hillean hillekoa, aparte nahi badu ere. Ez dute hill honetan mea gehiago izanen. / Ikatz hoietan lenbiziko hamabi karga horien karretoko porteak ondu beharrak izanen dira nereko.

**karta** iz. Gutuna. Hau aztu zait kartan paratzea. / Horra! Atzo kartan bialzen nuela gartzigatu nuen txartela aztu egin zizadan. / Karta hori bart hemengo mandazaiak ekarri zuen Goizuetatik; ez dakit zeñena den.

**karta bialdu** *du* ad. Gutuna igorri. Iruñerako egiñ behar duen karta bial dezake haren itxera.

**karta egiñ** *du* ad. Gutuna egin. Karta hau egiñ ezkerro allegatu da mutill hau; entregatu ditu hamalau ogi.

**kartak entregatu** *du* ad. Entregatu ditut kartak Juakintxori eta Alkatezarrari bialdu diot Juamartin Ansarekiñ.

**katz** iz. Gatza. Donostiatik errugu erdi bat katza...2 pezetas. / Errugu bat katza pagatua...5 pezetas. / Errugu erdi bat katza eresia...1½ pezetas, 8½ cuartos. / Etziko beharko ditugu olio eta katza, eta baba ere bai, laster. / Gaitziru bat katza pagatua...1 pezetas (sic).

**kendu** *du* ad. Manuel de Ansa hemen orañ ari den igeleari kenduta emantako diruak hasta 9 julio...30 pezetas. / Olio ordañetan meakariai kendurik eman diotet olakoai. / Sebastian zor dut bi libra olio, ordaña emateko elizarako oliotik kendua.

**kintal, kiñtal** iz. Pisu neurria (ikus bedi A. M. Mitxelena 2020: 50). Elduiñ itzaiak eskatzen du hogezi ezkutu behar lukeala. Bada, honen lana egiña: haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baña esan du prezio motxa dela. / Honek lana egiña du berrogei eta hamar kiñtal bezala guzia, eta diru hartua bi urretxiki. / Paskual de Iribarren horrek leneko kontua egin ezkerro, urte honetan egiñ dituan meak dirade...140 kintal, 5 arroa.

**kintalaje** iz. Kintal kopurua. *Eta hoietaz gañera, tokatzen zaio Gregorio igeleari azkeneko aste honetan egiñ diran burnian kintalajea [...].*

**kokote** iz. Gabiaren buruaren atzeko aldea (ustez). *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten.*

**koltxoi** iz. *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogei eta zazpi kana kotoña.*

**kondenatu** adj. Madarikatua. *Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz. / Itzai kondenatu hoiek agiñzen dute guziak, eta erdiak ez etorri gaur.*

**konforme** (genitiboarekin) postpos. -en arabera. *Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren conforme.*

**konparezioa[n]** adb. Adibidez (edo). *Lohietan gauza den abere bat iñork ez dauka ere, konparezioa[n].*

**konplitu** adj. Behar bezalakoa, alde-aldekoa. *Ogeko kama konplitu egiteko behar omen da hogei eta bi berga; horra kamaren muestra. / JRMk (II, 318) kunplitu ibiltzen du.*

**konpondu** 1. *du* ad. Arranjatu. *[Esan] diot lauren eta bost karga dirala eta nola etzakín beurr[ek] zenbat ziran segururik, eta konpon dezala. / Hoietaz gañera, baditu hemen pasatuak sutegia konponzen eta beste maxura batzuetan sartuak 4 días. / Hoietaz gañera, baditu kabiguña sarzuekoa eta ola haundiko erremienta egiten bi egun, eta ola konponzen egun bat. / Ola konponzen...1 diña. / Zubia konponzen: 6 abril. Anbrusiok, Olasokoak...03 días. / 2. *da/du* ad. Ados jarri. *Enfin, konponduko al dira edo abonatuko al diote gastu hori. / Eta meatze saria zenbat utzi behar duten, nik ez dakit nola konponduak diran. / Hark emanen ziozkala 60 pezeta eta 5 cuarto, eta konponduko dira haiek biek. / Hogeí eta sei karga ikatz horien gañera geldi dizikiola bi ezkutu horiek ere, konponduko dirala beurrekin. / Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak.**

**konporta** iz. A. M. Mitxelenak (2020: 35) ‘zaku ikatzaren neurria’ dela dio lehenik, ‘uharkako ataka’ («*compuerta de la presa*», hitzez hitz) geroago (*ibid.*, 51, 244) eta ‘ikatz zakuak neurtzeko erabiltzen ziren egurrezko balde handi batzuk’ ondoren (*ibid.*, 268; ikus orobat 146. or.). IBren etsenpluak ikusirik, hirugarrena dela esanen genuke. *Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekiñ beñere konportarik eziñ bete dezaketanak. / Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekiñ konportarik betetzea. / Hoiek denbora onetan zerbait hurranzen dira neurrian, baña denbora txarretan ez du iñork ere konporta hau beteko.*

**Konseju.** iz. Udaletxea. *Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri. /*

*Hoietaz gañera, badute Santiagoetan Makutsulatik ekarria karga bat ikatz Konsejurako. / Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten.*

**kontatu du** ad. Zenbatu. *Bada, hemen kontatzen ditudanak dirade, ezpadut huts egiten, ...245½ cargas; eta baldin huts egin bada, kontatuko ditu beurrek ere.*

**kontentu izan da** ad. Pozik egon. *Horiek deritzan bezala konpon bitza, nik emanarekiñ ez lirake kontentu izanen inñolaz ere. / Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke.*

**kontu iz.** *Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko. / Kontua garbitua dago. / Hala egiñ beharke du; nik hoiien kontua lenago bialdu niola nago. / Haren kontuan gelditu ziran hogeï kuarto sobra. / Nik ez dakit honen aseturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerok jakiñen al du.*

**kontu egiñ du** ad. Pentsatu. *Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke.*

**kontu harzalle iz.** *Kontu ikuskatzailea. Mikolas Añarbeko kontu harzallearena. / Mundragoren semeak ekarri zuen Añarbetik karta hori eta ni egondu naiz kontu harzallearekin.*

**kontua ajustatu du** ad. *Ikus ajustatu sarrera.*

**kontua bialdu du** ad. *Eta horra Sarranen asentua, leneko kontua bialdu ezkerokoa. / Hoiiek dirade leneko kontua bialdu ezkerok egiñ dituzten mea guziek. / Leneko kontua bialdu ezkerok Patxiku Errotari horrek Erbizañgo errekan egiñ dituen meak dirade [...].*

**kontua hartu du** ad. *Urte honetan 31 deziembreraño Arranbidera etorri diran ikatzak, hemengo konturik hartu gabeak, izanen dituzte.*

**kontua(k) egin, kontua(k) egiñ du** ad. *Eta horra Ferminen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin ezkerokoak. / Eta Lubis maisua ere horrarako da noski, eta kontua egiñ nahi badio, horrek honara etorri ezkerok hemen taia txikira hartu dituen ardoak dirade... 47½ pintas. / Juan dira itxera, esan dute kontuak egiñ bear dituztela, horrarako dirala eta asentuak bial ditzadala. / Patxiku ardamandazaiak kontuak egiñ ezkerok ekarri dituen ardoak dirade [...] / Pello maisuak esan dit larunbatean etorriko dela, nahi dituela kontuak egiñ, eta behar dituela larunbatean hiru hogeï ezkutuko. / Pello maisuak esan zidan kontuak egiñ zituala taia txikiko ardoak sartu gabe, eta bialzeko beurri zenbat ardo zituan.*

**kontua(k) eman du** ad. (genitiboarekin ere bai). *Eta beste beratar meakari hoiiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri, eta haien esanarekin eziñ fiatu dirala, eta gaztiga diozatela konturik eman dioten, edo zenbat kontu eman dioten jakin nahi luketela, eta gaztigatzeko. / Horra naza egiten sartu zituzten*

*egun guziek, Brunori kontua ema[n] nahi badio. / Leneko kontuak eman niozkan Bordatxo horri.*

**kontua(k) garbitu du** ad. 1. Ordaindu, zorrak kitatu. ...*eta lenago gaztigatu zidan kontua garbitu eta bialzeko. / ...eta ni ez niñzan oroitu lenago esatea, eta hemen izandu da larunbatean, eta honen kontua garbitu beza. / Horiei biai kontua garbitu nahi badite. / Horra leneko kontuak garbitu ezkerok ikazgilleak egiñ dituzten ikatzak. / Leneko kontua garbitu ezkerok Patxiku Kaperok Arranbiden pasatu du aste bat. / Leneko kontuak garbitu ezkerok, 6 de diciembrek hasi eta honaraño, Juan Antoniok eta Moxok eta honen anaie Josepek Basaianegitik honara bialdu dituzten mea guziak dirade...489 quintales, 3 arrobas ½. / 2. Hartzekoak kobratu. Murgioko itzai horiek biek kontua garbitu nahi dutela diote. Jose Antonio Beloki horrek leneko kontua garbitua duela dio.*

**kontuak atere du** ad. *Atere bitza kontuak eta gaztigatu beza olan zeñ egunez hasi behar den.*

**kontualdi** iz. Kontuak egiteko tenorean aintzat hartzen den denbora tartea, epea. *Eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage egiña izanen duela gogoan jarria daukat.*

**kontuan sartu du** ad. Kontuan apuntatu, kontuan asentatu. *Beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik, sobratuatik (sic), eman nitioñ hiru pezeta, eta [beurr]jek kontuan sar[tu]ko diozka mealle honi.*

**kontura** (genitiboarekin) -en bizkarretik, -en lepotik. *Ikatz hoietatik guzietatik berak edo horren kontura jasoak dira 30 cargas. Hoiien karretoak ondu behar dio berari. / Pello Bergaragandik beurren kontura hartuak... 100 pesos fuertes.*

**konziencia** iz. *Horra atzo nik gaztigatze[n] niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak! Enfiñ! Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hogeï eta hamabi kua[r]to eskeñia ere.*

**koñado** iz. Koinatua. *Manuel Antonio honen koñadoak [...].*

**korte** iz. Mozketa, motzaldia. *Porfin, horra leneko kortean egiñ ziran guziak.*

**kosna azal** iz. Gosnaren azala, lumaz betetako koltxoi edo lastairaren azala. *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogeï eta zazpi kana kotoña, edo beurri daritzan bezalakoa, eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalakoa; eta buruko azal baten gaia, kosna azalak egiten diran hartatik.*

**kosta da** ad. *Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau zenbat costa den ezpaitu galdatzen. / Eta hoiien egiteak eta ekarzeak eta paratzeak, gauza gutxi gorabera, beurrek jakiñen du zenbatsu costa ditezkean. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. Hori geldituko dio, ordaña, edo kostatzen zaiona pagarazi. / Goizuetan gaur egun costa da 'kostatu da' da, eta kostatzen da 'kostatzen da'.*

**kostal** iz. Zaku handia. *Entregatu ditu 24 panes, horra. Atzo aranaztarrak babarekiñ ekarri zuten kostala, eta mealleak ekarri zuen zakutxo. / Eta*



*horra Tranpak ekarri zuen kostala. / Ignazio Loidikoak bost ogikiñ ekarri zuen zaku txiki bat, eta Jose Domingo Teresaneakoak hamar ogirekiñ ekarri duen kostala bat.*

**kotoña** iz. Kotoia. *Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hoge eta zazpi kana kotoña.*

**kredita** iz. Kreditua, izen ona. *Egin biozate kontua. Aski dira horrelako batzuek iñoren kredita erabillzeko.*

**kuadreno** iz. Koaderno, kaierra. *Itzaien leneko hilleko asentua kuadreno berrian paratu dut; horra zarra ere. Bakeanoren honek entregatu ditu zorzi ogi.*

**kuadro** iz. Burdinolan egiten zuten burdinazko peza, adibidez laiak egiteko ibiltzen zena, barra itxura —edo barra itxura ere— ematen zitzaiona. *Iruñerako quadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago, eta zertatik hasi behar den gaztigatu beza. / Quadro barra bat [...] / Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira, eta baldin honela ona heldu bada, egiñen degu burniñtxoa, eta ona heldu ezpada, egiñen degu quadroa.*

**kuartillu** iz. Isurkari neurria, pinta erdia baino txikiagoa. *Donostiatik kuartillu bat lumera...1 reales fuertes, 9 maravedís (sic). / Eta kuartillu bat lumera...1 reales fuertes, 9 maravedís (sic).*

**kuarto** iz. Diru baten izena. *Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko: hamazazpi kuarto eta erdi. / Haren kontuan gelditu ziran hoge kuarto sobra. / Hoge ezkutuko Ansaneokoarekiñ bialdu zuen hura utzi nion Ansaneokoari berari, Marti[n] de Tellitxeari emateko 60 pezeta eta 5 kuarto, eta Ansaneokoak berak geldi zitzaala 20 pezeta eta 5 kuarto. / Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hoge eta hamabi kua[r]to eskeña ere.*

**kupel** iz. 1. Upela. *Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean.*

**laburtu du** ad. *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten.*

**lagun** iz. Laneguna. *Bost laguneko espensa dute...47. / Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin. / Hoiek dira tretxuak, eta beste hoiek, sei lagunekoak, izanen dira espensak. / Sei laguneko espensa maisuarekiñ...51.*

**lagun** iz. 1. Lankidea. *Berako Jainkoak bere lagun berriarekin Arano aldeko Goiko mendian egiñak... / Hoietaz gañera, baditu Juan Franzisku Korroxxakoak, baditu berak aparte, lagunik gabe egiñak, bere propioak, 7 kintal, 2 arroa. / Hoietaz gañera, badituzte hiru lagun hoiek hiruna egun bide egiten sartuak. / Maisu hau atzera gelditu da; ez dihoa lagunakiñ, zer pensamentu baitu ere. / 2. Adiskidea. *Eta nik ez dakit zer diran horiek ere, itzai guziek oro orobat elkarren lagunak dira gehienak.**

**lakadi** iz. Lakaria, edukiera neurria. Testuinguruak argi uzten du Nafarroakoa eta bestetakoa desberdinak zirela. *Gaztigatu nion Buruzuriak anega bat baba nola eman zidan; ahitu da guzia, ez dago lakadi bat besterik. / Hoietarako hartuak ditu Naparroako lakadi bat baba eta laurden bat olio, eta hiru txiki ardo. / Hoietaz gañera, badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba, eta liberdi bat olio.*

**lan** iz. *Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme. / Eta nahi badiozka kontuak egiñ, baditu olako lanetaz kanpora ikatz egiñak, bere propioak, berak egiñak [...] / Hemengo karreteroan esperanza ez degula zer egonik, guziek beren lanetan eta gonbenienzietan dabillza. / Hoiek dira horren lanak eta hemen hartuak guziak. / Hoietaz gañera, badu presan lanean sartua, berak jana zuela...1 día. / Lorenzo bart etorri zen honara; horrek esanen diozka guziek nola dauden. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du.*

**lana egin, lana egiñ** du ad. *Batzuek irabaziak eta aurrera gehiago aurrera<sup>17</sup> emanta lana egiñ behar dute. / Elduiñ itzaiak eskatzen du hogeiz ekzutu behar lukeala. Bada, honen lana egiña: haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Horra. Horiek dira horren lana eginak eta diru hartuak...38.*

**lanak eman** du ad. *Egiñen degu tellatuan egiñ dezakeguna igandean ola hasitzeko, baña ikatza ekarzeak lanak emanen ditu denbora hau honela bada.*

**lanean sartu** du ad. *Hoietaz gañera, badu presan lanean sartua, berak jana zuela...1 día. / Ikus sartu sarrera.*

**lantegi** iz. Epaitza erakoa, egurra edo ikatza egiteko esleitzen den baso puska, baina olarako, ez etxerako. *Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak, pisatu diranak, dirade 407 quintales, 1 arroba. / Eta iduriak joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak. / Razón de los carbones Bautista de Ubitzi y su compañero Manuel andoiñdarrak, suerte de Elamagoieneko lantegikoarenak. / Saiatuko naiz lantegiaz beurrek gaztigatzen didan bezala.*

**larru** iz. Hauspo larrua. *Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. Hartu ditu urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.*

**larunbat** iz. *...eta ni ez niñzan oroitu lenago esatea, eta hemen izandu da larunbatean, eta honen kontua garbitu beza. / Horra Arotzandiko haren asentua, larunbateko guziak elkarri eraitsi nahi badiozka.*

---

<sup>17</sup> Aski nahasia da pasartea; *aurrera* bi aldiz idatzi du, itxuraz aldi bakar batez izkiriatu behar bidean.



- laster** adb. ...akorda dediela zeñekin bialdu zituan, eta bi[al] ditzala al duen lasterrena, hau horrara ebilli gabe. / Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nahi badu. / Eta bialdu beza al duen diru guzia, eta bilduko da beste arragoaren mea laster. / Etziko beharko ditugu olio eta katza, eta baba ere bai, laster. / Pasaiarako burni hoietan hasirazi ditut, eta bialduko ditugu al dugun lasterrena.
- lau** zenbtz. ...datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / ...eta bi urretxiki hoiek eta itzai horri eman nahi nitionak –bi– badaude, lau urretxiki. / Hoietaz gañera, Lorentxio Trabujorenak bere semearekin eta Baratzurik eta Zarrukok eta lauen artean egiñ dituzten mea guziak dirade [...].
- launa** banatz. *Eta horien portea egin beza abere baten jornala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat.*
- laurden** iz. *Eta ez dut oliorik batere, eta ogirik ere ez dut laurden bat besterik. Bial bitzate horrekin hononzean batzuek. / Hoietarako hartuak ditu Naparroako lakadi bat baba eta laurden bat olio, eta hiru txiki ardo. / Olio-rekiko horiek ‘(libra) laurden bat olio’ dira. Ikus, bestalde, ogi laurden sarrera.*
- lehorrik** adb. *Lehor. Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den lehorrik sartu nahi ganituke (sic), batzuek badere.*
- leku** iz. *Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterareztzeko modua har dezadan len baño len. / Bihoaz, bihoaz nahiz Pagollagara eta nahi duten lekura! / [Jakin] nahi nuke mea haren ala kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den]. / Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote.*
- len** adb. *Antokoren seme horko urzalle berri horren kontua bialdu nion, lenago hemen izandu zuena. / Eta honetan esan dit niri, len ere honi ematen ziola bi pezeta. / Hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu.*
- len baño len** adb. *Lehenbailehen. Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterareztzeko modua har dezadan len baño len. / Hau da niri esan didana, eta len baño len egiñ gogo badu, egiñ egiñ behar du denbora aunitz luzatu gabe, al duen lasterrena.*
- lenagoko** adj. *Lenagoko aldian Aragoara halaxe juan ziran. / Lenagokoak bialdu niozkan. / adb. Lehenago. Lenagoko hor izandu ninzanean, Migel Josepe de Ezeizabarrena itzai baten kontua garbitu baitzidan hor, haren kontuan gelditu ziran hogeiturok sobra.*
- lenako** adj. *Lehenagokoa, lehengoa, aurrekoa. Aragoes honek omen ditu lenako ola [el]ditu zen denboran mealle pasatuak bost egun. / Hoietaz*

*gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio. / Jose Antonio Beloki horrek lenako kontua garbitua duela dio, eta Jose Antonio Aroztegi horrena ere hor da, itzai guziena batean, eta orañ urte honetakoak dituzte. / Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita. / Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako kontua ekusi ezkerro jakiñen al du.*

**lenbiziko** adj. *Fermin Josepe Moxorenak Yakomeanak lenbiziko pisatualdian zituan meak dirade [...] / Horra Jaimereren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak, lenbiziko lau astetan tretxuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan. / Lorenzo bart etorri zen honara; horrek esanen diozka guziek nola dauden. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du.*

**leneko** adj. *Lehenkoa.<sup>18</sup> Apirillean leneko hillean buts egiñak...05. / Horra itzaian asentua eta karraiadoreana, leneko hillekoa. / Josepe de Bearrak ere eskatzen du, leneko hillean eta hill honetan dituen lana egiñaz gañera [...] / Leneko kontua garbitu ezkerro Patxiku Kaperok Arranbiden pasatu du aste bat. / Martin de Tellitxeak leneko kontua pagatu ezkerro ekarri dituenak.*

**lepalotu** iz. *Lepotik lotzen den zaku baten izena. Bakoitzak zenbat oso eta zenbat otsabeharri, eta zenbat lepalotu dituzten, horietatik egiñen diote kontua, heldu zaionari. / Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera. / Orañ geroztik eginak Suruan baditu: 1787, hasta 25 septiembre 33½ cargas osoak eta lau lepalotu.*

**lepo** iz. *Tantailepo(a)* toponimoan baizik ez da ageri lepo itxurarekin. Bestela *lepalotu* zaku izenaren ere badugu, elkarketan *lepa-* bihurtua.

**lesakar, lasakar** adj./iz. *[M]ikolas de Maia lesakarra. / Mikolas de Maia lesakarrarena...09. / Mikolas de Maia lasakarra...06.*

**letrak egin du** ad. *Idatzi. Bigar goizean jua nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ porsiokasu jua ten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearen zat edo gamondar haienzat. / Letra hoiiek egin ezkerro, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo haxiak.*

**liberdi** iz. *Pisu neurria, libra erdia. Hoietaz gañera, badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba, eta liberdi bat olio, eta borra bat hemen egiña, hamairu librakoa, eta bolborak nik ez dakit zenbat libra dituzten.*

**libra** iz. *Pisu neurria. Aranotik ekarria libra bat olio. / Eta horra botilla leneko astean libra bat eta erdi oliorekiñ bialdu zutena. / Eta lau libra olio pagatuak...2 pezetas, 4 cuartos. / Hoietaz gañera, badituzte hemen*

<sup>18</sup> Pentsatzekoa da *barreneko* / *barrengo* edo *urruneko* / *urrungo*-ren moduko bikotea osatzen dutela *leneko*-k eta *lengo*-k (ikus *hurrengo sarrera*).

*hartuak Nafarroako hiru lakadi baba, eta liberdi bat olio, eta borra bat hemen egiña, hamairu librakoa, eta bolborak nik ez dakit zenbat libra dituzten. / Sebastian zor dut bi libra olio, ordaña emateko elizarako oliotik kendua.*

**libratu.** *Ikus basoa libratu.*

**libre izan da ad.** *Eman hobeko zaiote pezeta, horien miñgañetik ez da libre izanen bestela.*

**libre(a) adb.** *Enkarga bitza espensa libre emanen diotela eta datozela; igoal etorriko dira. / Itzaiak esan zidaten niri mearik etzuten jorradetan espensa libre beharko zutela; esperanza hartan ebilli dira hutsik ebilli diran denboran. / Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi; librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]n zat.*

**linea iz.** *Burdinazko pezaren lodiera neurtzeko erabiltzen zen neurria. A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), oinaren hamabirena ontza zen (2,19 cm nafarra, 2,3 cm gipuzkoarra) eta ontzaren hamabirena linea. 24 linea zabal eta 3½ linea lodi ziran txabal haietatik juan ziran 82 quintales, 5 arrobas, 940 barras. Eta 25 linea zabal eta 5 linea lodi Donostiarakoak zirala, juan ziran...21 quintales, 5 arrobas ½, 200 barras.*

**llebarik gabe, llebarik bage adb.** *Zorrik gabe, eramandakorik gabe. Arruntean pisatu aditzarekin agertzen da. Eta meatzean daudenak gutxi gorabera dirade...003 quintales, 0... Haiak llebarik gabe pisatuak. / Hoiek guziak llebarik bage pisatuak dira. / Hoiek guziak llebarik gabe pisatuak dira. / Horra horiek egin dituzten mea guziak, eta horien kontua, nahi duenean garbi dezagun, eta guziak llebarik bage pisatuak dira. / Llebarik gabe pisatuak dira guziek. / Pello Jose horrek ditu meak 9 quintales, 1 arroba ½ llebarik gabe pisatuak. // Erdaraz con lleva ‘eramandakoa zenbatuta’ azaltzen da: Juan Josepe Arrantxalekoaren beraren meak, bere propioak, Ubarritzetan eta Karamalkatan egin dituen guziak dirade...85 quintales, 2 arrobas. Con lleva 79 quintales, 5 arrobas.*

**lodi adj.** *24 linea zabal eta 3½ linea lodi ziran txabal haietatik juan ziran 82 quintales, 5 arrobas, 940 barras. Eta 25 linea zabal eta 5 linea lodi Donostiarakoak zirala, juan ziran...21 quintales, 5 arrobas ½, 200 barras.*

**lohi iz.** *Lobietan gauza den abere bat iñork ez dauka ere, konparezioa[n].*

**lor iz.** *Arrastakoa garraioa. Solamente nik ez dakit haspattegiko ardatza egiten eta lorrean zenbat gastatu zen, hori beurrek jakiñen al du!*

**lorra egin du ad.** *Nik ere hemen idirik ez denean gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardo franko gastatuta.*

**lotsagabe adj.** *Eta bialdu behar ditu hoiere diruak. Lotsagabe gaiztoak ez dabillza!*

**lotsatu da ad.** *Igandean, iñolaz ere al badu, bialdu behar dizkit hoge eta hamar ezkutu, arren. Lotsatua nabill zorrakiñ.*

- lotu du** ad. *Orañdik arbazta lotzekoa dago gehiena, eta ekarzekoa. Enfiñ, mearik aski bada, kargatuta egonen da. / Ikus lepalotu sarrera.*
- luen** adb. Urrun (frantseseko *loin*-etik). Ez dakigu zein heinetan beretua zuen euskarak. *Itzai kondenatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz.*
- lumera** iz. Baleen eta arrainen koipea, maiz argi egiteko ibiltzen zena. *Donostiatik kuartillu bat lumera...1 reales fuertes, 9 maravedís (sic). / Eta kuartillu bat lumera...1 reales fuertes, 9 maravedís (sic). / Ikus argigarri sarrera.*
- luzatu da/du** ad. Berandu, berandutu. *Hau da niri esan didana, eta len baño len egiñ gogo badu, egiñ egiñ behar du denbora aunitz luzatu gabe, al duen lasterrena.*
- luzean** adb. Luzeran. *Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean.*
- maiatz** iz. *Ni etorri niñzan Elamara 1804an maiatzaren azkenean, eta 1805 1 de junioraño lenbiziko urtean egiñ nuen espensa zen [...].*
- maira** iz. Orea egiteko erabiltzen den aska modukoa. *Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.*
- maisú** iz. (Burdinolako) lanbide gidaria. *Entregatu zituen maisu honek sei hogei ezkutukoak. / Eta Lubis maisua ere horrarako da noski. / Matias olatxoko maisuarenzat...1 reales (sic). / Olatxoko maisu hori etorri ezkeru egiñ diraden burniak dir[a]de [...] / Pello maisuak...1 pezeta. / Pello maisuak esan dit larunbatean etorriko dela, nahi dituela kontuak egiñ, eta behar dituela larunbatean hiru hogei ezkutuko. / Pello maisuarenzat...1 pezeta. / Predo Antonio iganziar maisuak olaunditik olatxoan sartu zituen egunak (cfr. «Pedro Antonio maestro martinet[e]», JBM).*
- maisuko** iz. Maisutza, maisugoa (burdinolan). *Derecho más maisukoan...3 días...14 quintales. / Derecho más maisukoan olaunditik arituak 3 días, 15 quintales, 0. / Derecho más olaunditik maisukoan...1 días (sic). / Hoiek dirade maisukoan sartu zituan egunak. / Manuel Juakiñ de Esnaú Elamakoak Elaman maisukoan olaunditik pasatu dituan egunak [...] / Maisukoan...3 días...14 quintales, 4 arrobas. / Manuel Juakiñ horrek olaunditik olatxoan maisukoan pasatu zituan egunak [...] / Olaunditik arituak maisukoan...5 días...23 quintales.*
- malda** iz. *Patxiku Malet beratarrak eta bere suñak, Paskual de Insauspek, Erbizango maldan egiñ zituzten meak, Burugorriak lagun bateki[n] orañ berezi dituan meak, dirade...9 quintales, 2 arrobas.*
- mandatari** iz. Mandatua daramana. *Haiek eman dizkit itzulzeko beurri, eta beste mandatari batekin bialduko ditut. / Pepe Lukanbio Exurrenekoak*

*esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ.*

**mandatua egiñ du ad.** *Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den.*

**mandazai iz.** *Mandazaina. Despatxu mandazai honek entregatu ditu bi ogi eta zorri karga mea. / Entregatu ditu mandazaiak beurrek esaten didan eta bialzen dituen diruak. / Entregatu dituzte mandazaiak zazpi ogi eta lau karga mea erreak, eta zaldalea Bordatxorenzat eta Pagotxikikoarenzat. / Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*

**mandio iz.** *Tabloia, ohola. Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko. (Ikus 1801.07.09ko gutunean pasarte honetaz dioguna eta bioladura sarrera).*

**mando iz.** *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak. / Hoiek ere, eta nahi badu bere mandoak bial ditzala, bederatziña arroa eramateko ez dirala honen abereak gauza. / Mando batekin egurra karraiatzen, media día. / Mandoren batzuek paratu artean ezkerre baliatuko. / Ttiki Añarbeakoak esan dit badituela berrogei karga ikatz eta mandoak bialzeko.*

**maneatu du ad.** *1. Kudeatu, kasu egin, goberntu. Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*

**maxter iz.** *Maizterra, etxetiarra. Justiano maxterraren semeak entregatu ditu 22 urretxiki eta hiru ogi. / Manuel Etxeberria maxterrak ekarri dituen meak dirade. / Maxter honek ez duela fundamenturik egiñen jakina da.*

**maxura iz.** *Matxura.<sup>19</sup> Hoietaz gañera, baditu hemen pasatuak sutegia konponzen eta beste maxura batzuetan sartuak 4 días.*

**mea iz.** *...eta ona heldu ezpada, egiñen degu kuadroa, baña burñitxoa Astiarragan mearik ez dela ez dute eramanen. / Agustín Itxaberria Mutuaren itzai haren meak dira 34 quintales. / Elduñ itzaiak eskatzen du hogei ezkutu behar lukeala. Bada, honen lana egiña: haxiak eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal. / Honek lana izanen du hamabost kintal mea.*

**mea belz iz.** *Aranazko Danboliñaren semeak eta Eguzkiak Basaianegiko Anzizarren mea belzeko lantegian, leneko kontua garbitu ezkerro, 1809 hasta 19 octubre ezkerro, hoiek biak partiduan<sup>20</sup> egiñ dituzten meak dirade 70 quintales, 1 arroba. / Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak, pisatu diranak, dirade 407 quintales, 1 arroba. / Basaianegiko mea belzean,*

<sup>19</sup> Goizuetan *maxura* aditu diegu beti herriko zaharrei. Ikus JRM (II, 329-330).

<sup>20</sup> 'Taldean'.

14 diciembre ezkerro, Aranazko Danboliñaren horrek eta Eguzkiak eta Bauplista Porterorenak, horiek hirurak hiru laguneko partiduan egiñ dituzten mea guziak dirade...373 quintales, 3 arrobas ½. / Danboliñaren mea belzak 23 agosto ezkerro Basaianegiñ egiñ dituztenak, honara ekarri diran[a]k dirade 323 quintales, 1 arroba. / Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan, Aranoko dermioan, eginak dituzte...20 quintales, 3 arrobas y ½. / Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu.

**mea berezi du ad.** Hoietaz gañera, baditu Elama galarrean mea berezten sartuak, berak jana duela [...] / Hoietaz gañera, baditu Martin Josepe de Belasko horrek mea berezten Elama galarrean sartua, berak jana duela, 14 enerotik hasi eta 28 marzoraño sartuak...28½ días. / Martiñ Josepe de Belaskok, leneko kontua bialdu ezkerro, 28 marzo ezkerro, hemen Elama galarrean mea berezten eta bide egiten eta arragoan, eta guzitara sartu dituan egunak ditu, berak jana duela, 6 días y media. / Patxiku Malet beratarrak eta bere suñak, Paskual de Insauspek, Erbizango maldan egiñ zituzten meak, Burugorriak lagun bateki[n] orañ berezi dituan meak, dirade...9 quintales, 2 arrobas.

**mea erre du ad.** Hoietaz gañera, badituzte azkeneko meak erretzeko egunak egiten eta mea sarzen pasatuak [...] // iz. Asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea, zergatik bi jai erdi horietan ez da mea ererrik etorriko, noski. / Bigar ere bial bitza itxeko mandoak mea errearekiñ, eta etzi oiarzuarrai guziei eragiñ behar dite jorrada bana mea errearekin. / Entregatu dituzte mandazaiak zazpi ogi eta lau karga mea erreak, eta zaldalea Bordatxorenzat eta Pagotxikikoarenzat. / Guzien artean atzo eta egun karri dituzten mea erreak dirade 27 kintal eskasxeak. / Oiarzuar karreteroak Olaberritik ekarri dituzten mea erreak eta eraman dituzten tretxuak dirade [...].

**mea sartu du ad.** Hoietaz gañera, badituzte azkeneko meak erretzeko egunak egiten eta mea sarzen pasatuak [...].

**mea zare iz.** Mea saskia. Eta zazpi mea zare pagatuak...3½ pezetas, 10 cuartos. / Lau mea zare berri pagatuak...2½ pezetas.

**mea zuri iz.** Zarrukok eta Baratzurik eta Zurmioren semeak egiñ dituzten mea zuriak.

**mea(k) egin, mea(k) egiñ du ad.** Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean lau laguneko partidukoan egiñ zituzten meak ziraden [...] / Bi partida horiek dira Moxok eta bere lagunak jornalean eta beren gañ egiñ dituzten mea guziek, ni honara etorri ezkerro. / Eta berak beren gañ egiñ dituzten meak dituzte...111 quintales, 1 arroba ½. / Hoiek dirade leneko kontua bialdu ezkerro egiñ dituzten mea guziek. / Hoietaz gañera, badituzte azkeneko meak erretzeko egunak egiten



*eta mea sarzen pasatuak [...] / Mea egiten berela ere hasiko dirala diote, erremientak ekarrita.*

**meagalbai** iz. Mea iralkitzeko lanabesa. *Horra carretero Auntxaiaaren horien leneko asteko asentua eta hemen den meagalbaia, eta orañ hemen bi kiñtal burnia bezala gelditzen dira. / Ikazgalbai bat eta meagalbai bat...5 pezetas.*

**meakari** iz. Meatzaria. *Beratar meakari horiek Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak dirade 64 quintales, 3 arrobas ½. / Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri. / Martin Antonio Lizartxikito difuntuaren eta Juan Josepe de Altamiraren eta Axtiarraga meakariaren, hiru lagun hoiek partiduan egiñ dituzten meak dirade [...] / Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote. / Olioia ordañetan meakariak kendurik eman diotet olakoai.*

**mealle** iz. Burdinolako lanbidea, maila beherenakoa, olagizonen morroia, arragoan erretako mea mailuarekin txikitzen zuena, hau da, mea xehatzen, xehakatzen zuena (gaztelaniaz *prestador*), gero urtzailak lan egin ahal izateko. *Atzo aranaztarrak babarekiñ ekarri zuten kostala, eta mealleak ekarri zuen zakutxo. / Bizente Kristok hemen mealle sartu dituan egunak. / Bizente meallearenzat...1 real. / Hoiek dirade hiruan artean mealle sartu dituzten egunak. / Manuel Antonio Ezkartikoak Arranbiden mealle sartu dituen egunak. / Ogi batzuek bialdu bitza berela mealle horrekin, eta bigar goizean gehiago.*

**mealleko** iz. Meaile lana. *Aste honetan bertan Jaimek ere baditu Pelizen partez pasatuak bi egun meallekoan. / Meallekoan...5 días.*

**meatze** iz. Meategia. *Esan behar dio leneko meatzean egin dezala mea ona. / Eta meatzean daudenak gutxi gorabera dirade...003 quintales, 0... Haiek llebarik gabe pisatuak. / Hoietaz gañera, meatzean omen dute ekarzekoa...10 quintales pasaturik pisatu beharra; hala esan dute. / Orañ meatzea inibitu omen diote; zer egiñen baitute ere, egonen gera Pazkoz. / Patxiku Maleten meatzean, Erbizañgo errekan, Patxiku Errotariak eta bere lagunak egiñ dituzten meak dirade...91 quintales, 5 arrobas ½. / Zarrukok eta bere anaie Baratzurik meatzeko harria pasatzen hasi ziranetik, Lorentxio Trabujorena haiekiñ hasi den bitartean, bi anaieak egin dituzten mea guziak dira [...].*

**meatze sari** iz. *Eta meatze saria zenbat utzi behar duten, nik ez dakit nola konponduak diran.*

**meatzea garbitu du ad.** *Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean lau laguneko partidukoan egiñ zituzten meak ziraden [...] / Eta hoietaz gañera, badituzte meatze berri orañ garbitzen ari diran hartan, jornalean sartuak, aste honetako hiru egunakiñ izanzen dituzte bi*

- lagunek hamasei egun...32 jornales. / Eta oran garbitzen ari diran meatze hark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean.*
- mendi** iz. *Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote. / Hoietaz gañera, Aranoko goiko mendian bi lagunak erdi bana egin dituzten guziak dirade [...] / Zubietako menditik ekarri dute ikatza.*
- merke** adj. *Hoiek ez dira, ez, merkeagoren zale izanen, noski.*
- meza enzun.** Ikus hurrengo sarrera.
- meza enzuteko jai** iz. *Larunbatean meza enzuteko jaia da eta astelenean ere bai. / Ikus jai sarrera.*
- mintegi** iz. *Goroskaratako mintegiaren ondotik ekarriak.*
- miñak egon da** ad. *Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes. Mealle irundarra aritu zen Lukes horren partez. Zazpi aste hoietan ez Lukes horrek, ez burnirik eta ez deus ere.*
- miñgañ** iz. *Eman hobeko zaiote pezeta, horien miñgañetik ez da libre izanen bestela.*
- modu** iz. *Arragoa laster erretzeko modua harzeagatik gaztigatzen diot. / Atzo ez ninzan oroitu esatea, eta egiñik ezpada har dazake (sic) egiteko modua. / Olaberriarri dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke. / Orañ hemen badago oraño arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu. // -en moduan menderag. Eta juañen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme. / Horra Lorenzo igelearen partida astean astekoak, joan diran moduan, burniak beren espensakin.*
- moldatu da** ad. *Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira.*
- mostra** iz. *Itxura. Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut. / Ikus muestra.*
- motx** adj. *Urria. Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baña esan du prezio motxa dela.*
- moztu du** ad. *Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten eta kabia ere bi kokotetan mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten.*
- mudatu da/du?** ad. *Aldatu. Juakintxo astelenetik bial dezake arragoa erretzera, denbora hau mudatu gabe erre dezagun.*
- muestra** iz. *Lagina. Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hogei eta bi berga; horra kamaren muestra. / Ikus mostra sarrera.*
- mugitu da** ad. *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi.*
- muskil** iz. *Kimua. ...Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko.*



- mutill** iz. 1. Mutila, 2. Morroia (zaila da bereiztea noiz den bata eta noiz bestea). *Gaztigatu nion Buruzuriak anega bat baba nola eman zidan; abitu da guzia, ez dago lakadi bat besterik. Etzi bial bitza mutill horiekiñ ogiak eta baba. / Martxaren suñaren basoan Arolako mutillak eta Martxaren suñaren semeak egiñ dituzten ikatzak dirade [...]* / *Ogiak eskas ditugu apalogitako, eta bialdu bitzate ogi batzuek mutill horrekiñ. / Yakomeakako beko hegian, Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldeko mutillak eta Patxiku Errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa ½.*
- mutur** iz. *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat.*
- nagusi** adj. *Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu. // iz. Nagusi jauna. / Nagusiaren partez Ignazio de Bergarak bere diruetatik pagatu dituen gauzak izanen dira hoiek [...].*
- nahi izan** du ad. *...eta bi urretxiki hoiek eta itzai horri eman nahi nitionak –bi-badaude, lau urretxiki. / Horra Arotzandiko haren asentua, larunbateko guziak elkarrri eraitsi nahi badiozka. / Orañ esaten diot: egun etorri da itzai berri bat, eta honek nahiko du dirua. / Orañ Manuel honek eskatzen ditu tokatzen zaskionak, nahi litukela berela, baldiñ bialzen badiozka.*
- nahiago izan** du ad. *...eta esan dit baietz, ez zela inporta, zenbat ziran [...]*<sup>21</sup> *ezkero, dirurik izan ezagatik, baño nahiago dira noski di[ruak]. / Bada, nahiago nuke hemen ezpalaude ere.*
- nahiz...eta** junt. *Bihoaz, bihoaz nahiz Pagollagara eta nahi duten lekura!*
- nasi da** ad. *Nere ustez, hor du haien asentua, eta baldin nasi bazaio beste paperen batzuekiñ, Pepe Trabujoren eta Zanpadoren semearen aurten Epelean egiñ dituzten mea guziek dirade 119 quintales, 4 arrobas, llebarik gabe gaur pisatuak.*
- nasteka** adb. *Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juañ-ettorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 quintales, 4 arrobas. / Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik.*
- naturalmente** adb. *Jakina. ...eta baldin egia bada, naturalmente izan laiteke horrara agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea.*
- naza** iz. *Errotara ura eramateko erreten edo ubidea. Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau zenbat kosta den ezpaitu galdatzen. / Hoietaz ganera, baditu presako naza egiten pasatuak...7 días. / Horra hemendik hartu dituan diruan asentua. Paper txiki horretan, hor ditu*

<sup>21</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

- presako nazako eta Urraideko basoa bota zaneko asentuak. / Horra naza egiten sartu zituzten egun guziek, Brunori kontua ema[n] nahi badio. / Naz[a] hau egiten sartu zituzten egun guziek dirade [...].*
- negutu** *du?* ad. *Negua igaro (ustez). Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*
- nerekiko** *adb.* *Nire ustez (iduriz). Ikatz hoietan lenbiziko hamabi karga horien karretoko porteak ondu beharrak izanen dira nerekiko.*
- neskame** *iz.* *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada.*
- neurri** *iz.* 1. *Heina. Bial bitza zaku neurrikoak Gregorio Eskuderozentat eta Estartakoarentzat eta Motelarentzat. / Hoiek denbora onetan zerbait hurranzen dira neurrian, baña denbora txarretan ez du iñork ere konporta hau beteko. / Hoien laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira. / Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean. / 2. Kasuren batean neurgailua adierazi nahi da, neurtzeko erabiltzen den ontzia: *Liberdiko olio neurria Iruñetik erakarri...1½ reales fuertes, 9 maravedís.**
- neurri(tu)** *du* ad. *Neurtu. Ardoa neurritzeko enbuta bat...1½ reales fuertes.*
- ni** *izord.* *...baña ez da neregana iñor agertu. / Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan. / Brunok niri esan dit presan gastatu ziran burniak zenbat ziran, eta zenbat balio zuten. Nik esan diot zenbat diran, baña zenbat balio duten ez dakidela (sic). / Neretzat...1 pezeta. / Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten.*
- nibel** *iz.* *Maila. Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.*
- noiz** *adb.* *Beurrek nahi duenean bialduko diozkat, abisa naza noiz nahi duen. / Moxok esan dit mea horien eta bestean kontua egiñ nahi luketela, eta gaztiga dezala, lekurik badu, noiz etorri, edo bestela Moxorezentat dirua bial dezala honara, eta beste lagunak etorriko dirala horrara. / Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaia hemen izandu da, nahi lukeala jakin kontuak egitera noiz etorriko den.*
- nola** *adb.* *Eta ekusiko du horko asentua nola dagoen. / Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du, eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek. / Oran esaten diot maisu honek, jaietan hemen gelditzen denean, espensa nola behar duen gaztigatu behar du. // menderag. (bait-ekin batean). Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik, eta nik nola baitzauden ogiak ya urdinzen hasiak, eman niozkatzen hiru ogi eta pezeta*

- bat.* / menderag. (-en-ekin batean). *Ez diotet burnirik eman, Erreenterian, nola mearik ez dagoan, ez dituztela entregatuko.*
- nor** izord. *Paskual Insaupse honek esan dit akorda dedielu lau urretxiki haiek norekiñ bialdu ziofz]kan.*
- nor edo nor** izord. *Norbait. Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da, ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor!*
- nora** adb. *Sebastianek jorrada bat laster hartuko du, eta besteak nora bialdu gaztigatuko du.*
- norbait** izord. *Buruzuri hau etorzen bada, gaztigatu beza zer egiñ; edo bestela, bigar goizean bialdu beharko du norbait zer egiñ behar den edo nola hasi behar den jakin dezagun. / Nik bigar agertu hobeko dut Astiarragara, agertu hobeko dut norbait erakarri al baneza.*
- noski** adb. *...baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela. / ...eta esan dit baietz, ez zela iñporta, zenbat ziran [...] <sup>22</sup> ezkerro, dirurik izan ezagatik, baño nabiago dira noski di[ruak]. / Asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea, zergatik bi jai erdi horietan ez da mea ererrik etorriko, noski. / Dirua hartuak horr asentatuak al dauzki, noski! / Eta Lubis maisua ere horrarako da noski. / Ez da bada, noski, beurri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu eta zorra bizi ote den nago. / Hoiek ez dira, ez, merkeagoren zale izanen, noski. / Lukel (sic) igelearena orobat izanen da noski.*
- oge** iz. *Ohea. Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hogei eta bi berga; horra kamaren muestra.*
- ogi** iz. *Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik, eta nik nola baitzanden ogiak ya urdinzen hasiak, eman niozkaten hiru ogi eta pezeta bat. / Ogiak eskas ditugu apalogitako, eta bialdu bitzate ogi batzuek mutill horrekiñ. / Santiagok ekarri ditu hamalau ogi eta bigarke beharko dira berriz ogiak.*
- ogi laurden** iz. *Espensak txiki ardoakiñ...10. Goizetako txiki ardoak...06 txiki. Goizetako ogi laurdenak...06. / Goizetako ogi laurdenak...5, goizetako txiki ardoak...5. / Goizetako txiki ardoak...6. Goizetako ogi laurdenak...6. / Txiki ardoak...6 txiki. Ogi laurdenak...6 / Ikus laurden sarrera.*
- oiarzuar** adj./iz. *Bigar ere bial bitza itxeko mandoak mea errearekiñ, eta etzi oiarzuarrai guziei eragiñ behar dite jorrada bana mea errearekin. / Karamesa oiarzuarrena 13. / Oiarzuar harenak. / Oiarzuar karreteroak Fermiñ de Zubeldia Tranparen basotik, Alzatetik, Arranbidera 5 noviembre semana aste honetan ekarri dituzten ikatzak dira [...] / Oiarzuar[r]ak baziran egun hamahiru abere, eta atzo zorzi abere.*
- oker** adj./iz. 1. *Begibakarra (ustez). Okerra izengoitiaren oinarrian da: Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak bi, ta Fermin Okerrak bat atereak*

<sup>22</sup> Zuloa dago. Irudi luke *d*-z hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

*dauzkite. / 2. Makurra, hutsa. Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrrik.*

**ola iz.** *Burdinola. Anton Paradisu honen basotik basotik olarako, sutegirako ekarria karga bat iduri. / Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olioia, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe. / Hoietaz gañera, baditu kabiguña sarzekoa eta ola haundiko erremienta egiten bi egun, eta ola konponzen egun bat.*

**ola hasi du ad.** *Egiñen degu tellatuan egiñ dezakeguna igandean ola hasitzeko, baña ikatza ekarzeak lanak emanen ditu denbora hau honela bada. / Hemengo mea, olan zagoena, larunbat goiz artekoa eskasa da, gehiago izanen zela uste genduen, eta asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea [...]. Eta gaztigatu beza asteartean edo asteezkenean olak hasi behar duen. Astearte goizean ola hasitzekotan, mea eskastuko da, iñork ez ekarzekotan.*

**ola haundi, olaundi iz.** *Ola nagusia. Gaztiga beza ola haundiko kabiaz zer egiñ behar den. / Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun. / Ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat. / Olaundian egiñ dituzten burnian gañera erremienta egiteko egunak [...].*

**olajaun iz.** *Olako nagusia (ez nahitaez jabea). Porfiñ, beurrek nahi badu olajaunari esatea, nik esanen diot, eta gaztigatu beza zer egiñen dudan.*

**olaxo iz.** *Ola txikia (martinete erdaraz). Eta nik esan diot hor eta hemen olaxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako. / Hoietaz gañera tokatzen zaio Manuel honi erremienta egiten bi eguneko jornala, olaxoko kabiak konponzen aritu baiikiñan bi egunean. / Matias olaxoko maisuarenzat...1 reales (sic). / Olatxoan sartuak...2 días. / Olatxoko maisu hori etorri ezkeru egiñ diraden burniak dir[a]de [...] / Predo Antonio iganziar maisuak olaunditik olatxoan sartu zituen egunak ziraden [...].*

**olio iz.** *...eta hoietaz gañera, olaren lenako geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olioia. / Bigar goizean bial bitzate baba eta olioia. Ez dago oliorik batere.*

**olio txarro iz.** *Bial bezate olioia, hor da bada aspaldian olio txarroa; hartan bial bezate olioia. / Ikus txarro sarrera.*

**omen partikula.** *Aragones honek omen ditu lenako ola [fel]ditu zen denboran mealle pasatuak bost egun. / Erremoni ere zaldi bat hill omen zaio. / Eta aleroak eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten 102 reales. / Ez omen zuen ardorik. / Gaur etorriko omen ziran (sic) berriz, eta gaurko*

*jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera. / Hoietaz gañera, meatzean omen dute ekarzekoa...10 quintales pasaturik pisatu beharra; hala esan dute. / Ogeko kama konplitua egiteko behar omen da hoge eta bi berga; horra kamaren muestra. / Orañ meatzea inibitu omen diote; zer egiñen baitute ere, egonen gera Pazkoz.*

**on** adj. Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranparena eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite. Hoiek denbora onetan zerbait burranzen dira neurrian, baña denbora txarretan ez du inork ere konporta hau beteko. / Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut. / Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako. / Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiek ordañzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten errezelarik. / Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek.

**ondo** postpos. (Leku genitiboarekin maiz). *Fermin de Zubeldia Tranpa horrek Berdabioko ondoan egin dituan ikatz guziek dirade honara etorri diranak [...]* / *Hoietaz gañera, badituzte Ignazio Predo Zubinekoak eta biak Iraurgiko ondoan egiñak...43 quintales, 1 arroba ½.* / *Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian, Arolako ondoan, egiña bere propioa [...]* / *Juan Josepe Arrantxalekoak Arritxurietan, Aranoko dermioan, Suruako ondoan egiñ dituen meak, bere propioak baditu...5 quintales, 2 arrobas ½.*

**ondoan** adb. Ondoren. *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzaieala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean. / Eta beste Pazko ondoan hasi giñan txabal haietatik juañ dira...46 quintales, 2 arrobas ½, 383 barras.*

**ondoko** adj. *Jai ondoko astean erre beharko degu arragoa. / Karretok berak olatxoko ardatzaren ondoko pareta egiten...3 días.*

**ondotik** adb. 1. Aldamenetik. *Goroskaratako mintegiaren ondotik ekarriak. / Horra Jose Migel Portalezekoaren ikatz guzien asentua, Txaradiko ondotik ekarri diranena [...]* / *Josepe Moxorenak eta bere semeak egiñ dituzten meak, beren propioak, dituzte, Demandako meatzeko ondotik ekarri diranak dituzte...65 quintales, 2 arrobas.*

**ondu** du ad. 1. Ordaindu, osatu, berdindu. *Hoietaz gañera baditu Ignazio igeleak ondu beharrak...18 reales. / Ikatz hoiek berak jasorazi ditu. Hoiien portea berari ondu behar dio. / Ikatz hoietan lenbiziko hamabi karga horien karretoko portea ondu beharrak izanen dira nereko. / Ikatz hoietatik guzietatik berak edo horren kontura jasoak dira 30 cargas. Hoiien karretoak ondu behar dio berari. / 2. Onera egin (eguraldiak). *Buruzuriak kiñtal bana burnia eramanen dutela, denbora onzen badu.**

**ongi** adb. *Agur. Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. / Geldi bedi ongi. / Kabillak aurtan orañdaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobas, 1.110 barras. Nik huts*

*egiten badut ezpadut, horiek sumatzen ditut. Ongi ez dakienak ez dezake eman satisfaziorik.*

**ongi esan** iz. Ongi mintzatzea, era onean hitz egitea. *Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer egif[n] dezakedan.*

**ongi izan da** ad. Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. *Esan diot beurrek gaztigatu didan bezala. Ongi dela esan dit, aditzera emanen diotela lagunai.*

**oñ** iz. Oina, hanka. *Zazpi aste hoietan oñeko miñak egondu zen Lukes.*

**orañ, oran** adb. Orain. *Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat. / Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira. / Oran esaten diot maisu honek, jaietan hemen gelditzen denean, espensa nola behar duen gaztigatu behar du. / Orañ geldituko dira joan den asteko burniak gehienak, eta aste honetan egiten diranak beren espensakiñ.*

**orañ aurretik** adb. Orain baino lehen. *Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu.*

**orañdaño** adb. Gaurdano, orain arte. *Kabillak aurten orañdaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobas, 1.110 barras. / Zaparrok eta Patxiku Errotariak 30 enerotik orañdaño erdi bana egiñ dituzten meak dirade: 121 quintales, 2 arrobas ½.*

**orañdañoko** adj. Orain artekoa, egundainokoa. *Taia txikiko ardoak ditu guziak, orañdañokoak...30 piñtas.*

**orañdik** adb. ...*eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sopra zela, eta pezeta hura orañdik ez du bialdu. / Bigar etorriko bide dira itzaiak; gaur orañdik ez da etorri Kosme bakarra besterik. / Orañdik arbazta lotzekoa dago gehiena, eta ekarzekoa. Enfiñ, mearik aski bada, kargatuta egonen da.*

**orañgo** adj. *Orañ hemen badago orañgo arragoako eta beste arrago bateko diña mea belza, mea gehiago eragiñ gabe aurrerako modurik ezpadu.*

**orañgoan** adb. Oraingoan. *Eta orañgoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza hartako den gizon bati, ez dezan izan enganiorik.*

**orañtze, orantxe** adb. ...*Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko. / Astiarragako abereak ya ahitu dira orañtze.*

**ordañ** iz. Balio duena. *Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. Hori geldituko dio, ordaña, edo kostatzen zaiona pagarazi.*

**ordaña eman du** ad. *Sebastian zor dut bi libra olio, ordaña emateko elizarako oliotik kendua.*



- ordañdu** *du ad.* *Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiek ordañzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten errezelarik.*
- ordañetan** *adb.* *Olíoa ordañetan meakariai kendurik eman diotet olakoai.*
- ordena eman** *du ad.* *Agindua eman. Franziarako egin diran txabalak bialdu nituen Kosmeren itxera, entregatzeko ordena emanik, 24 quintales, txabalak 154 barras.*
- orduan** *adb.* *Ba orduan baño ikatz gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago, baldin añadimenturik iñondik ez ematekotan. / Egun bat siñala diozala eta etorriko dela orduan.*
- orduko** *adj.* *Hoietaz gañera, baditut beste berrogei ezkutu fuerte hartuak Pello Bergarangandik, baña ez dakit zeñ egunez hartu nituan. Orduko fetxa paratzea aztu zizadan. Beurrek horr izanen du; ez dago iñporterik horretan. // -tu orduko menderag. Aranoko erregimentuak bialdu digu baba, haiek etorri orduko egosi dezagula. / Errenteriarako burni hoiek hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena.*
- oro** *zenbtz.* *Eta nik ez dakit zer diran horiek ere, itzai guziek oro<sup>23</sup> orobat elkarren lagunak dira gehienak.*
- orobat** *adb.* *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. / Eta honetan esan dit niri, len ere honi ematen ziola bi pezeta, eta orañ ere orobat bi pezetan emanen dituela, eta igandeko beharko dituela diruak. / Lukel (sic) igelearena orobat izanen da noski. Urzalle berriarena ere bai. Utzi ditu eskupularioak guzientzat. Gregori[o] Danborenak orobat.*
- oroitu** *da ad.* *Atzo ez ninzan oroitu esatea, eta egiñik ezpada har dazake (sic) egiteko modua. / Ni ez niñzan oroitu lenago esatea, eta hemen izandu da larunbatean, eta honen kontua garbitu beza.*
- osatu** *du ad.* *Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera. Hor elkarri eratsiko diozka. Zenbat karga osatzen diran, guziek.*
- oso** *adj.* *Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera. / Orañ geroztik eginak Suruan baditu: 1787, hasta 25 septiembre 33½ cargas osoak eta lau lepalotu. // iz. (zaku oso dagoke azpian, halarik ere). Bakoitzak zenbat oso eta zenbat otsabeharri, eta zenbat lepalotu dituzten, horietatik egiñen diote kontua, heldu zaionari.*
- ostegun** *iz.* *Itzai kondenuatu haiei hañbeste enkargu ema[n] nioten entrega zitzatela berela, osteguna luen zela, eta esan zidaten guziek baietz. /*

<sup>23</sup> Ematen du oro 'denak' dela, baina kontuan eduki behar da ondoan orobat duela, eta badaiteke hitz honen hastapena besterik ez izatea, gero osorik idatzi duena. Alegia, IB orobat izkiriartzen hasi, utzi eta berriz ere saiatu dela iduri du.

- Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz, zazpitako etorriko zirala.*
- ostiral** iz. *Errenteriarako burni hoiek hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena. / Ostiral arratsaldean joan ninzan Astiarragara, eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean.*
- ote** zalantza hitza. *Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit inor ideroko ote duen. / Eta ez daki[t] horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere. / Hoiek dirade pisatu guziek, eta nik ez dakit meatzean zertsu ote duten. / Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten.*
- otsabeharri** iz. *Otsoaren belarrien antzeko itxiturak dituen zakua. Bakoitzak zenbat oso eta zenbat otsabeharri, eta zenbat lepalotu dituzten, horietatik egiñen diote kontua, heldu zaionari. / Hoiien laueñ kargak, bana beste, beñere ez dira allegatzen otsabeharriko neurrira. / Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera.*
- pagarazi** du ad. *Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko swertetik, zaku bat ikatz. Hori geldituko dio, ordaña, edo kostatzen zaiona pagarazi.*
- pagatu** du ad. *...eta hoietarako beurrek, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki. / Dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak. / Manuel Arpiderenak esan dit, lana egiña duenaz gañera, hogei ezkutuko bat bial diozala, pagatuko diola. / Martin de Tellitxeak leneko kontua pagatu ezkerre ekarri dituenak. / Nagusiaren partez Ignazio de Bergarak bere diruetatik pagatu dituen gauzak izanen dira hoiek [...] / Ikus espensa pagatu sarrera.*
- pago** iz. *Bakarrik Pagollaga, Pago(a) eta Pagotxiki onimoetan azaltzen da.*
- palanka** iz. *Gurdi burnia bazuen hartua, 9 octubrean, 4 arroa. Honen kontua egiñ zuela esan zidan, eta geroztik egiñ du palanka bat.*
- palanka ziri** iz. *Horiek badituzte meatzerako hartuak borra bat ta palanka-ziri baten gaia.*
- palanketa** iz. *Palanka txikia, palangeta. Hemen badituzte hartuak mea hof[i] etarako palanketa bat 9 libras eta bi borra...46 libras.*
- paleta** iz. *Ardo horietaz gañera, baditu harpiko baten gaia eta bi burniñziri txiki eta paleta bat sukaldarako. Guzitara 18 libras. Ez du hemen beste konturik.*
- pañu** iz. *Oihala. ...eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia.*
- pañuelo** iz. *Pañelua. Eta hiru buruko zapiak eta bi pañuelo, franzes pañueloak, eta bat txuria.*



- paper** iz. *Eta lenago hor emaf[n] nion paper batean. / Horiek dira guziak, eta horra hemendik bialdu zazkioten diruak. Beste paper horretan daudenak dira. / Horra hemendik hartu dituan diruan asentua. Paper txiki horretan, hor ditu presako nazako eta Urraideko basoa bota zaneke asentuak. / Horra paper txiki horretan lenbiziko lagunarekiñ egiñ zituan mean asentua, eta geroztik hiru laguneko partiduan egiñ dituzten meak dirade 72 quintales, 1 arroba.*
- paratu** du ad. 1. Ezarri, ipini. *Mandoren batzuek paratu artean ezkerera baliatuko. / 2. Idatzita, asentatuta egon; idatzi, idatzita utzi. Bada, horiek guziak, eta illeak, eta punzio honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentu aparteko batean. / Erremienta egiten eta hemen sartu dituzten egun guziak hor dira, solamente atzokoa ez dut paratu. / Eta ez daki[t] horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere. / Hau aztu zait kartan paratzea. / Hoiek dira hor[r]en ikatzak, eta hoiien karretoa[k] hilleko asentuan paratuak dira, eta espensak ditu [...].*
- pare** iz. *Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderok zakurik ez daukate batere gauza denik, eta baldiñ zakurik badu, behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena.*
- pareta** iz. *Bergamazoiaiko pareta hagitz irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea aritzera. / Karrettok berak olatxoko ardatzaren ondoko pareta egiten...3 días.*
- parte** iz. *Zatia. Librea gelditzen dena emateko Gregoriorren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]n zat. / -en partez. Aste honetakoa, Kaperoren partez duena [...] / Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin. / Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun. / Nagusiaren partez Ignazio de Bergarak bere diruetatik pagatu dituen gauzak izanen dira hoiek [...].*
- partida** iz. *Erregistroa, asentua. Beste partida batean dago hemen Patxiku Malet horrek lagun berriarekiñ egiñak [...] / Bi partida horiek dira Moxok eta bere lagunak jornalean eta beren gañ egiñ dituzten mea guziek, ni honara etorri ezkerero. / Eta ez daki[t] horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere, eta bi partidatan badago asentu horretan. / Horra Lorenzo igelearen partida astean asteoak, joan diran moduan, burniak beren espensakin. / Horra Lorenzoren partida joan den aterañokoa.*
- partidu** iz. *Taldea. Hiru laguneko partidukoak...91 quintales, 1 arroba. / Mea horietaz gañera, Axtiarragarekiñ partiduan hasi ezkerero, honara etorri diran meak badituzte...190 quintales, 5 arrobas ½.*
- partiduan egiñ** du ad. *Taldean egin. Basaianegiko meatzean beren gañ alde batera garbitzen hasi ziranean lau laguneko partidukoan egiñ zituzten meak. / Hoiek dirade hiru laguneko partiduan orañ egiñ dituzten meak. / Horra paper txiki horretan lenbiziko lagunarekiñ egiñ zituan mean*

- asentua, eta geroztik hiru laguneko partiduan egiñ dituzten meak dirade 72 quintales, 1 arroba. / Martin Antonio Lizartxikito difuntuaren eta Juan Josepe de Altamiraren eta Axtiarraga meakariaren, hiru lagun hoiek partiduan egiñ dituzten meak dirade [...] / Txorikantarian bi anaie horiek erdi bana edo partiduan egiñ dituztenak dituzte...26 quintales, 5 arrobas.*
- partitu** da ad. Eman. *Patxi mandazaiak nahi omen luke behi aretzedun bat negutzeko, ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.*
- pasatu** (eskuarki), **pasa** (inoiz) da/du ad. 1. *Igaro...eta ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu...2 días, eta kabiguña sartutakoa bat. / Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira! / Hoietaz gañera, meatzean omen dute ekarzekoa...10 quintales pasaturik pisatu beharra; hala esan dute. / Manuel Antonio urzallearen partez Ferman Iberon aritzen de[n] urzalleak hemen pasatu zuen aste bat. / Olatxoko ardatza ustaitzen eta olaundiko puxondegiko bi zepo berriak sarzen pasa zituzten egunak dirade [...] / 2. Atera?, iragazi? Ikus harria pasatu sarrera. / 3. Errepasatu? Olatxoko kabia eta ingudea errekatzen eta pasatzen...3 días. / Ikus irago sarrera. / Orain Goizuetan pasa(tu) da ‘pasatu da’ da eta pasatzen da ‘pasatzen da’.*
- Patarro** iz. Patarra, malda zut handia. Bakarrrik Beko Patarroa toponimoan kausitu dugu: *Hoietaz gañera, Yakomeakan eta Beko Patarroan, bi lekutan egiñak.*
- Pazko** iz. *Eta beste Pazko ondoan hasi giñan txabal haietatik jua dira...46 quintales, 2 arrobas ½, 383 barras. / Orañ meatzea inibitu omen diote; zer egiñen baitute ere, egonen gera Pazkoz.*
- pazkoak** iz. *Hoiek dirade eguerrietatik pazkoak artean egiñak. Ez du hemen beste lanik.*
- pensamentu** iz. *Ez du beste sustanziarik ematen, ez dakiela zer pentsamentu duen. / Maisu hau atzera gelditu da; ez dihoa lagunakiñ, zer pentsamentu baitu ere. / Nik ez dut mea hoietatik gehiago ekarzeko pensame[n]turik, zergatik txarrak diran.*
- peonza** iz. Peoiaren lanbidea. *Peonzan sartuak presako ura gelditzen eta azekiak garbitzen sartuak [...] / JRMk (II, 351) peonko darabil.*
- perra** iz. Ferra. *Hoietarako hartuak ditu: 11 junio, hiru anega baba eta 02 julioan perra egiteko burniñtxoa...1 quintal 0. / Perra egiteko burñintxoa, 15 noviembre...11 arrobas.*
- peskiza** iz. Itxaropena, ustea. *Eta egondu naiz Ubitziren seme zarrarekiñ eta esan dit Belaundiak abisatua daukala, santiagoak pasatu artea iñori ez agiñzeko, baña peskiza horretan egon gabe, konponzen badira, etorriko litzakeala beurrengana.*
- pezeta** iz. ...*eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sopra zela, eta pezeta hura orañdik ez du bialdu. / Ardizar[r]ja jantakoa sei pezeta. / Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa. / Haragitako sei pezeta. / Hoietaz gañera, presan ura gelditzen, gonbitetan gastatuak, ogiak eta*

*ardoak, guzitara egiñak...4½ pezetarenak. / Len ere honi ematen ziola bi pezeta. Ikus bost pezetako sarrera.*

**pinta** (gehienetan), **piñta** (frankotan) iz. Edukiera neurria, litro baten antzekoa.<sup>24</sup> *Errezio hoietaz gañera, pinta bat ardo. / Errezio hoietaz gañera, piñta bat ardo. / Eta ardoak, tai txikian dituenak, zorzi pinta. / Hoiek dira hemen daudenak, eta tai txikiko ardoak ditu 8 pinta. / Hoietarako hartua dute pinta bat eta erdi ardo. / Hoietaz ganera (sic), Juakiñtxok agindurik [go]nbitetan gastatuak, bi ogi eta 9 pinta ardo...8 reales. / Taia txikiko ardoak ditu bi pinta eta txiki bat.*

**pinterdi**, **piñterdi** (arruntean), **piñderdi** (behin) iz. Pinta baten erdia. *Eta piñterdi bat ardo. / Hoietaz gañera, pinterdi bat ardo. / Hoietarako hartua badu piñderdi (sic) bat ardo. / Honek badu gehiago pinterdi bat ardo.*

**pisatu** *du ad.* Aste honetan ez da burmirik pisatu. / *Eta orañ itxiduan egiñ dituenak pisatu ditugu...31 quintales. / Guziek llebari[k] gabe pisatzen dira. / Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat.*

**pisatualdi** iz. *Fermin Josepe Moxorenak Yakomeakan lenbiziko pisatualdian zituan meak dirade [...].*

**pixka** iz. *...eta hoietarako Dixiduko ubalde honetan egiñ zituen mea pixka batzuak. / Burnia oran hasi da pixka bat gozatten. / Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere. Egiten diran ikatz pixkak ekarri al baganitza. / Eta Ereñezutik ere mea pixka bat erakarri nahi nuke, baña hemen abere gutxi dago, nabiagatik ere. / Paskual de Loperena Itxazurikoak esan dit ez dutela artorik batere eta, arren, egiñ diozala arto pixka baten txartela.*

**planta izan** *ad.* du. Itxura izan. *Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote.*

**plazeria** iz. Baso puska baten ustiapena. *Aurtengo basotako plazeriak dir[a] [...] / Aurtengo ikazgillean plazeriak izanen dira [...] / Horra aurtengo Makutsolako eta Arteskiñetako basoen plazeriak [...] / Urte honetako gure ikazgilean plazeriak izanen dira lenbizikoak Añerbekoarekiñ trukada egin dudanak, Ozizpeko ondoan.*

**porfin**, **porfiñ** lok. Beraz-edo, *enfin*-en adierakidea-edo. *Porfin ekusiko du / Porfin, horra lenako kortean egiñ ziran guziak. / Porfiñ, beurrek nahi badu olajaunari esatea, nik esanen diot, eta gaztigatu beza zer egiñen dudan. / Porfiñ, ekusi beza febreroko hilleko asentuan paraturik ote den Paskoal horrenik, eta baldin paraturik bada ezpada, orañ hemen paratuak izanen dira guziak. / Porfiñ nere jubizioa hau egiten dut honela, eta ageriko da.*

<sup>24</sup> Ikus EH. RAEren hiztegiaren arabera «azunbre erdi eskasa» da, hots, litroa baino gutxiago. Guk, erdaraz, pintak hiru litro laurden zuela ikasi dugu, eta badirudi bi gauzak ez daudela elkarrengatik hagitz urrun, edukiari dagokionez.

- porsiokaso** adb. Erdarazko *por si acaso* ‘badaezpada ere’ esamoldean du etorki, baina erabilera berezia du, gaztelaniako *por si* + *aditza*-ren euskarazko baliokide den *ba-* + *aditza* + *ere*-rekin batean azaltzen delako, edo zehazkiago esan, *baldiñ* + *ba-* + *aditza* + *ere*-rekin batean. *Nik bigar goizean juan nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere, eta baldiñ porsio kaso juaten banaiz ere, egin bitza letra batzuek alkatearen zat edo gamondar haienzat.*
- porte** iz. Zerbait garraiatzeagatik ordaintzen den diru kopurua. *Agustin de Ubiziri Basoberriko iduriak emateko portea...1½ reales. / Eta horien portea egin beza abere baten jornala, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat. / Ikatz hoietan lenbiziko hamabi karga horien karretoko portea ondu beharrak izanen dira nere kiko. / Orañ ñori ez porterik añaditu, bestela guziek hala nahiko lukete. / Txaradiko ikazgille bati iduriak emateko portea...6 reales.*
- portu** iz. Ostiral arratsaldean joan nintzan Astiarragara, eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean.
- porzio** iz. Zatia. *Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita.*
- posible ez izan da** ad. *Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak. / Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekin konportarik betetzea. / Ez da posible izanen datorren astean honekin hasitzea.*
- pozik** adb. *Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit ñor ideroko ote duen.*
- presa** iz. Uharka. *Eta geroztik, ubelde haundi hura egiñ ezker —1800, 22 noviembre ezker— presako ziargilzan pasatuak [...] / Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. / Hoietaz ganera, izanen ditu presako nazan pasatua[k] zazpi egun, eta espensak hamar eta erdi. Eta Urraidako basoa botatzen, egun bat. / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*
- presentean** adb. *Une honetan, orain. Nik gaztigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.*
- prezio** iz. *Ereñezuko haxiduna hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean, baña esan du prezio motxa dela. / Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa. / Nik esan diot ea zer prezioan izanen diran, hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu.*

- preziso** adj. Beharrezkoa. *Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko.*
- prinzipal** adj. *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eramán diozka.*
- probetxu** iz. *Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. Haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.*
- progradu** du ad. *Probatu. Eta oran garbitzen ari diran meatze hark badirudi jarri behar duela, eta jornalean gabe ea konpon ditezkean. Proga bitza eta zer esaten dioten adituko diote.*
- punzio** iz. Xedea, helburua. *Bada, horiek guziak, eta illeak, eta punzio honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentu aparteko batean; eta dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak.*
- purrustan** adb. *Haserre antzean, protestan. Batere txartelik gabe purrustan heldu ziran, eta eman egin diotet.*
- puska** iz. 1. *Zatia. Entregatu ditu hamar ogiak, daramazki sei barra burñintxo eta hamaika puska errekusar. / puxka* iz. *Xatia. Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke inork eramán gabe. / Hemen daude egiñ ziran burnia puxka gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira!*
- puxkaren batean** adb. *Tarte bat(ez). Anaieak esan zidan aste honetan etzela posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren batean.*
- puxondeg** iz. *Puxoi edo puxon-ak ardatzaren alde banatan zeuden burdinazko pezak ziren (ikus A. M. Mitxelena, 2020: 40, 41), eta puxondegia haiek zeuden lekua. Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziranekoak, eta zubia konponzen sartu zituzten egun guziek, zenbat diran guzien egunak. / Olatxoko ardatza ustaitzen eta olaundiko puxondegiko bi zepo berriak sarzen pasa zituzten egunak dirade [...].*
- repartitu** du ad. *Banatu. Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme.*
- saiatu** da ad. *...baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela inor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela. / Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke. / Saiatuko naiz lantegiaz beurrek gaztigatzen didan bezala.*

- Samartin.** Done Martieren omenez egiten diren jaiak, azaroaren 11n. *Eta ikazgille horiekin bial bitzate olioa, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da, hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.*
- Samigel** iz. Done Mikelen ohoretan egiten den besta, irailaren 29an. *Beste arragoa erre behar badu, arbaztak bota nahi luke, eta Tranpak Samigel bitartea egiteko ez du batere baso beharrik, zergatik eziñ egiñ dezaketen. / Hau da Samigel artekoa. / Lukas de Zabala aranoar igele honek Samigel artea Arranbiden egiñ dituen burniak. / Sidro iganziar igeleak Samigel ezkeroko egiñ dituanak. / Taia txikiko ardoak baditu, Samigel ezkeroko... 13½ pintas.*
- samigelek** iz. Done Mikel egunaren kariaz egiten diren jaiak, irailaren 29an. *Azenzio horrek samigelek ezkeroko hemen egiñ dituen burniak. / Samigelek ezkeroko Nolbertoren denboran hemen Arranbiden egiñ diran burniak.*
- San Franzisku.** Erlijio ordena, frantziskotarrena. *San Frantziskuko fraide horri emateko [...].*
- santiagoak** iz. Done Jakueren omenetan egiten diren jaiak, uztailearen 25ean. *Eta egondu naiz Ubitziren seme zarrarekin eta esan dit Belaundiak abisatua daukala, santiagoak pasatu artea inori ez agiñzeko. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. / Hoietaz gañera, badute Santiagoetan Makutsulatik ekarria karga bat ikatz Konsejurako.*
- sari** iz. Soldata-edo, lansaria. *Ikus basoa botatzeko sari eta egurra egiteko sari sarrerak.*
- sartu** du ad. 1. Sartu, zenbatu. *Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide aldean egiten diran ikatz puxka hoiek sartu nahi nituke inork eraman gabe. / Eta kontua geronakoan espensak sartuak baditu, orañ hiru hillabetekoak sarzako izanen ditu. / Pello maisuak esan zidan kontuak egiñ zituala taia txikiko ardoak sartu gabe, eta bialzeko beurri zenbat ardo zituan. / 2. Igaro, denbora eman. *Atzoko eguna sartu dute lanean, eta nik zer esan dezaket? / Gregoriotxo de Olaizola Elamako igeleak Nolbertoren partez hemen sartu dituen egunak eta egiñ dituen agoak dirade [...]. / Manuel Antonio Ezkartikoak Arranbiden mealle sartu dituen egunak [...].**
- satisfazioa eman** du ad. (Gogobeteko) azalpena eman. *Kabillak aurten orañdaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobas, 1.110 barras. Nik huts egiten badut ezpadut, horiek sumatzen ditut. Ongi ez dakienak ez dezake eman satisfaziorik.*
- segitu** du ad. Jarraitu. *Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote.*
- seguru** adj. *Pepe Lukanbio Exurrenekoak esan dit bialdu diozala 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekin.*



- segururik** adb. *[Esan] diot lauren eta bost karga dirala eta nola etzakin beurr[ek] zenbat ziran segururik, eta konpon dezala.*
- sei** zenbtz. *Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin. / Haragitako sei pezeta.*
- seiña** banatz. *Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa.*
- seme** iz. *Arotzandiko Anbrusioren semeak entregatu zuen gaitziru baba. / Barberoaren semeak Pikoagan egin zituen haxiak ziran guzitara 28 quintales zabalak. / Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala (sic), eta bealdu beza gizon horrekin. / Hoietaz gañera, Lorentxio Trabujorenak bere semearekin eta Baratzurik eta Zarrukok eta lauen artean egiñ dituzten mea guziak dirade [...].*
- senar** iz. *Fermin de Unsari Dendariren senarraren denborakoak. / Errotaria, Xurmioaren senarrarenak...35 quintales. / Horra Jose Antonio Arakiñenekoaren partez Dendariren senar Premiñ horrek edo horren denboran egin diran burniak beren espensakiñ. / Zurmioaren senar errotariarena...1 quintal, 4 arrobas.*
- serbilla** iz. *Ahozapia. ...eta buruko azal baten gaia, kosna azalak egiten diran hartatik; eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia.*
- sillu** iz. *Zigilua. Horra Jaimereren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak, lenbiziko lau astetan tretxuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan.*
- siñalatu du** ad. *Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaia hemen izandu da, nahi lukeala jakin kontuak egitera noiz etorriko den, egun bat siñala diozala eta etorriko dela orduan.*
- sobra** adb. *Gehiegi. Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko.*
- sobra gelditu** ad. *da. Lenagoko hor izandu ninzanean, Migel Josepe de Ezeizabarrena itzai baten kontua garbitu baitzidan hor, haren kontuan gelditu ziran hogeit hamar sobra.*
- sobra heldu da** ad. *Sobran egon. Hoiek gelditu eta sobra heldu dirala...4 pezetas eta 4 cuartos.*
- sobra izan da** ad. *...eta hoietarako beurrek, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki, eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sobra zela, eta pezeta hura orañdik ez du bialdu. / Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, mal pecado! Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke.*
- sobratu da** ad. *Larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez eabilzeagatik, beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik sobratuatik (sic) eman nition hiru pezeta.*
- sobrekama** iz. *Ohe estalkia, ohazala. Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogeit hamar eta zazpi kana kotoña, edo beurri daritzan bezalakoa, eta sobrekama bat, beurri daritzan bezalakoa.*

- solamente** adb. Bakarrik. *Erremienta egiten eta hemen sartu dituzten egun guziak hor dira, solamente atzokoa ez dut paratu. / Solamente nik ez dakit haspategiko ardatza egiten eta lorrean zenbat gastatu zen, hori beurrek jakiñen al du!*
- soldadu** iz. Bakarrik *Soldadua* izengoitian daukagu.
- soldata** iz. *Orañ espensa horietaz ni kargatze[n] naizal[a] egiñen du deritzan soldata niri emana didana.*
- solera** iz. Antaparako zurezko zola; ikus A. M. Mitxelena (2020: 20). *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. / Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak.*
- solo** adb. edo lok. Bakarrik, baina. *Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den.*
- suerte** iz. Zortea, herriko etxean zotz eginda auzoko bati egokitzen zaion lur edo baso puska, ordainduta denbora tarte batez ustiatzekoa. *Arranbideko suertekoak, Burniñzabalko suertekoak eta Legarraldeko edo Buztindegiko suertekoak. / Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut. / Derecho itxola bat eramana Arranbidetik Tintopoloko suertera Gregorio Apezzenakoari. / Hoietarako badu Santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz. / Iduriak emanak Gregorio de Ansari Epeleko suertera. / Itxola bat ekarria Tintopoloko suertetik Arranbidera, Gregorio Apezzenekoarena. / Zapparok eta errotariak orañ Iturruan, Urdiñolako suertean, egiñ dituzten meak dirade 73 kintal, 5 arroa ½.*
- sukalde** iz. Ardo horietaz gañera, baditu harpiko baten gaia eta bi burniñziri txiki eta paleta bat sukalderako. *Guzitara 18 libras. Ez du hemen beste konturik.*
- sulla burni** iz. Suiletan ibiltzen diren uztaiak egiteko burdina. *Eta taloburni bat eta sulla burniak...13½ libras. / Ikus elzaburni eta taloburni sarrerak.*
- sumatu du** ad. *Kabillak aurten orañdaño egiñ diran guziek dirade 276 quintales, 2 arrobak, 1.110 barras. Nik huts egiten badut ezpadut, horiek sumatzen ditut. Ongi ez dakienak ez dezake eman satisfaziorik.*
- suñ** (eskuarki), **sun** (behin edo behin) iz. Suhia. *Arritxurietan berak eta suñarekin egiñak. / Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea eta horren suña Manuel aritu dira olan nasteka juan-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suña ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. / Gregorio igelearen suñarenak izanen dirade hoiek. / Librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli. / Martxaren suña. / Patxiku Intxaloren suñaren denboran egiñ diran burniak beren espensakiñ dirade [...] / Patxiku Maletak eta bere sunak, Paskual de Insauspek, Erbizañgo errekan egiñ dituzten meak dirade 75 quintales, 5 arrobak ½.*



- sustanzia eman** *du* ad. Fundamentuzko arrazoia eman. *Ez du beste sustanziarik ematen, ez dakiela zer pentsamentu duen.*
- sutegi** iz. Burdinolan mea erretzen den tokia. *Anton Paradisu honen basotik basotik olarako, sutegirako ekarria karga bat iduri. / Hoietaz gañera, baditu hemen pasatuak sutegia konponzen eta beste maxura batzuetan sartuak 4 días. / Hoietaz gañera, baditu Martin Josepe Belasko horrek olaunditik sutegi garbitzen eta ubagari sartuak... 8 días. / Olatxoko kabia behazetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke. / Olaundiko sutegia konponzen, bi aldietan... 4 días.*
- taia** (gehienetan), **tai** (zenbaitetan) iz. 1. Kontuak eramateko makilatxoa da *taia*; bertan marrak egiten dira horretarako. *Esteban Ansaren espensak dira, taia honetan daudenak... 1805. / Eta espensak baditu taia honetan... 86. Bada, hori da hemengo taiekoa, eta ekusiko du horko asentua nola dagoen. / Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka etorriak dira. Ez dago taia garbirik, eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak bestera, eta lepalotu guziek bestera. / 2. Dieta, dirua. Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik. / Oran esaten diot maisu honek, jaietan hemen gelditzen denean, espensa nola behar duen gaztigatu behar du, edo olako taiean jan behar duen edo berak bere taiera jan behar duen.*
- taia txiki** (eskuarki), **tai txiki** (inoiz) iz. Edaten zen ardoaren kontua eramateko ibiltzen zen makilatxoa, jatekoaz ardura edukitzeko ibiltzen zena baino txikiagoa. *Eta ardoak, tai txikian dituenak, zorzi pinta. / Eta taia txikiko ardoak ditu 11½ pintas. / Eta taia txikiko ardoak hiru txiki. / Hoiak dira hemen daudenak, eta tai txikiko ardoak ditu 8 pinta. / Horrek honara etorri ezkeroz hemen taia txikira hartu dituen ardoak dirade... / Pello maisuak esan zidan kontuak egiñ zituala taia txikiko ardoak sartu gabe, eta bialzeko beurri zenbat ardo zituan. / Taia txikiko ardoak ditu bi pinta eta txiki bat. / Taia txikitarako ardoak ditu... 4 pintas.*
- taloburni** iz. Taloak erretzeko burdina. *Eta talo burni bat eta sulla burniak... 13½ libras. / Ikus elzaburni sarrera.*
- tanta** iz. *Igande arratsean Lukes Iraolak entregatu zituan zorzi ogi, eta orañ hemen ez dago ez ogirik, eta ez babaren granorik, eta ez olioaren tantarik*
- tantai** iz. Zur edo zuhaitz luze eta zuzena. Bakarrik *Tantailepo(a)* onimoan daukagu.
- tela** iz. Ehuna. *...eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia; eta lau almuda axalen gaia, telazkoak.*
- tella** iz. Bakarrik *Telletxea, Tellitxea* onimoan dugu.
- tellatu** iz. *Egiñen degu tellatuan egiñ dezakeguna igandean ola hasitzeko, baña ikatza ekarzeak lanak emanen ditu denbora hau honela bada.*
- telleria** iz. Toponimian ageri da: *Suerte de Telleria, lo de Arano.*

- tiratu** 1. *du* ad. Agoa, burdina, buztandua, kabezoiak, kuadroa, tretxua edo bestelako peza egitea, itxuratzea, ijeztea. *Olatxoan burni tiratzen...17 días. / Orañ hemen bigar arteko diña mea da, eta kuadro hoiek tiratzen zeñek hasi behar duen edo nola hasi behar den gaztigatu beza.*
- tobera** iz. Hauspoetatik sutegira zihoan kono itxurako hodi modukoa, frankotan erretzen zena. Ikus A. M. Mitxelena (2020: 58, 196, 217, 218, 283). *Despatxu mandazai honek entregatu ditu bi ogi eta zorzi karga mea. Bialdu dut tobera zarra; bigar goizean bial bezate al dutena. Baba ere abitu da. / Mutill horrek entregatu ditu hamar ogi, eta ardoa, eta tobera, eta baba. / Tobera galdurik dago txol; beldurrak nago aste honetan irauñ ez dezan ere.*
- tokatu** *da/zaio* ad. *Eta hoietaz gañera, tokatzen zaio Gregorio igeleari azkeneko aste honetan egiñ diran burnian kintalajea [...] / Hoiek dira Loretxiori tokatzen zaskionak. / Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita. / Orañ Manuel honek eskatzen ditu tokatzen zaskionak, nahi litukela berela, baldiñ bialzen badiozka.*
- topatu** *du* ad. Egun goizean berantetsi eta iñor ageri ez, eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da. / *Eta Patxiku Antonioren gana izandu niñzan; ez nuen itxean topatu, baña esa[n] nion emazteari, baña ez da neregana iñor agertu. / Mean asentu horiek bi urte hoietakoak topatu ditudanak paratu ditut.*
- trabajatu** *du* ad. Lan egin. *Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote.*
- tretxu** iz. Burdinoletan egiten zen burdinazko peza, itxuraz hogeitaz lineatik goitikoa. *Hoiek dira tretxuak, eta beste hoiek, sei lagunekoak, izanen dira espensak. / Oiarzuar karreteroak Olaberritik ekarri dituzten mea erreak eta eraman dituzten tretxuak dirade [...] / Oiarzuarrak Olaberritik ekarri dituzten mea erreak eta eraman dituzten tretxuak dirade [...] / Tretxuak...3 quintales, 3 arrobas.*
- tretxuan aritu** *da* ad. *Horra Jaimeren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak, lenbiziko lau astetan tretxuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan.*
- trukada** iz. Trukatzea, trukea (iduriz). *Urte honetako gure ikazgilean plazeriak izanen dira lenbizikoak Añerbekoarekiñ (sic) trukada egin dudanak, Ozizpeko ondoan.*
- trunkada** iz. Ikatza egiten hasteko ibiltzen diren egur lodiak. *Bial bitza mutill horiek; arratseko trunkada ya eraman du arragoak.*
- trunku** iz. Enborra. *Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko. / Ikus 1801.07.09ko gutunean pasarte honetaz dioguna.*

- txabal** iz. Burdinolan egiten zuten peza zabal zenbait. *Eta beste Pazko ondoan hasi giñan txabal haietatik juan dira...46 quintales, 2 arrobas ½, 383 barras. / Franziarako egin diran txabalak bialdu nituen Kosmeren itxera, entregatzeko ordena emanik, 24 quintales, txabalak 154 barras. / 24 linea zabal eta 3½ linea lodi ziran txabal haietatik juan ziran 82 quintales, 5 arrobas, 940 barras. / Ikus zabal sarrera.*
- txar** adj. Ona ez dena. *...eta esamiñ[a] txarra ~~non~~ (sic) izanen den beldurrarekin gaztigatzen diozkat. / Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena. / Hemen egiteko txarrak daude. / Bada, horri eman ezkeru, Juan Antoniok, Alkatezar[r]ak ere nabiko du, hobexeagoa du baña, eta Lukesek txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du. / Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranparenena eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite. Hoiek denbora onetan zerbait hurranzen dira neurrian, baña denbora txarretan ez du iñork ere konporta hau beteko.*
- txarkeria** iz. *Txarkerian ez ebillzeagatik beurrekiñ bi urretxiki galduko dituela, baña ez dituela lau urretxikiak galduko.*
- txarro** iz. *Pitxerra. Asteartean Agustiñ Ubitzik entregatu zituan lau ogiak, eta horra haiekiñ ekarri zuen zakua eta olio txarroa. / Bial bezate olioa, hor da bada aspaldian olio txarroa; hartan bial bezate olioa. / Ikus olio txarro sarrera.*
- txartel** iz. 1. *Zerbait erosteko ibiltzen zen paper puska idatzia, gero dirutan ordaindu behar zena. Batere txartelik gabe purrustan heldu ziran, eta eman egin diotet. / Jose Olaizola Marzaneakoak eskatzen du anega bat babaren txartela, jateko babatik. / Sebastianek bialdu ditu txartel horiek. Ogiak badira hiru egun hoietako diña. / 2. Oharra, jakinarazpena, zerrenda. Bialdu nion Jabierrri txartela zeñek zenbat zaraman. / Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan, eta bigar goizean jonen naiz nere beajea. / Lenago, hemendik bialdu nion txartel batean [dago] lenago zutena, baña asentu honetan daude lenago ziranak eta geroztik egiñ dituztenak, guziak. / Txartel hori orañ eman didate, Tranpak.*
- txartela egiñ du** ad. *Paskual de Loperena Itxazurikoak esan dit ez dutela artorik batere eta, arren, egiñ diozala arto pixka baten txartela.*
- txiki** adj. *Eta leneko astean gaitziru bat babarekiñ bialdu zutena zaku txiki bat. / Horra hemendik hartu dituan diruan asentua. Paper txiki horretan, hor ditu presako nazako eta Urraideko basoa bota zaneko asentua.*
- txiki ardo** iz. *Goiti-beheiti, litro laurden ardoa (chiquito de vino erdaraz). Errezio hoietaz gañera, hiru txiki ardo. / Espensak txiki ardoakiñ...10. Goizetako txiki ardoak...06 txiki. Goizetako ogi laurdenak...06. / Eta taia txikiko ardoak hiru txiki. / Eta txiki bat ardo. / Hoietarako txiki bat ardo du hartua. / Honek baditu espensaz kanpora hiru txiki ardo. / Taia*

- txikiko ardoak ditu bi pinta eta txiki bat. / Txiki ardoak...3 txiki. / Egun Goizuetan bizirik dago oraino.*
- txol** adb. Txoil, erabat. *Bada, ara[...] aski galdu zazkigu eta txol galduko [...]* / *Tobera galdurik dago txol; beldurrak nago aste honetan irauñ ez dezan ere.*
- txori** iz. *Txorikantaria(ga)* toponimoan daukagu.
- txuri** adj. *Eta hiru buruko zapiak eta bi pañuelo, franzes pañueloak, eta bat txuria. / Arritxurieta, Arritxurita eta Larratxuri onimoetan ere azaltzen da.*
- txukatu** da ad. *Lehortu, idortu. Denbora honek mostra ona harzen du; bideak txukatu litezke laster, eta agertu behar dut.*
- ubagari** iz. *Uhagari eragiten diona, uhagaz arduratzen den burdinolako langilea. Hoietaz gañera, baditu Martin Josepe Belasko horrek olaunditik sutegi garbitzen eta ubagari sartuak...8 días. / JRMk (II, 371) uaga eta uagari ditu, guk uhaga eta uhagari idatzi genituenak. Hark lorreko hagari ere badu (ibid., 325); A. M. Mitxelenak (2020: 21, 289) ubaga biltzen du.*
- ubalde** iz. *Erreka ertza, erribera. ...eta hoietarako Dixiduko ubalde honetan egiñ zituen mea pixka batzuak. / Hoietaz gañera, baditu Gorriolako ubaldean, Ubarrizetan, egiñtako meak...8 quintales, 5 arrobas. / Juan Josepe Arrantxaleko horrek baditu Azkoteko ubaldetik lenago ekarriak, meak [...].*
- ubelde** iz. *Uholdea. Eta geroztik, ubelde haundi hura egiñ ezkerero –1800, 22 noviembre ezkerero– presako ziargilzan pasatuak [...].*
- ubeldea egiñ du** ad. *Horiek dira ubelde haundi hura egiñ ezkeroko guziek.*
- ur** iz. *Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n], ura bajatzera ezagunen da. / Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta. Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote. / Peonzan sartuak presako ura gelditzen eta azekiak garbitzen sartuak [...].*
- urak hartu du** ad. *Hartu zituan urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.*
- urdiridu** da ad. *Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik, eta nik nola baitzauden ogiak ya urdinzen hasiak, eman niozkaten hiru ogi eta pezeta bat.*
- urratu da/du** ad. *Olatxoko kabia behatzetik ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]ko franko. Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke.*
- urre** iz. *Diru baten izena. ...eman baitzidan b[ost] [p]jeze[tako] ur[r]e zar bat [...]. Eta hemen daude bost pezetako urrea [eta] hog[ei] kuartoak.*
- urre zar** iz. *Diru baten izena. ...eman baitzidan b[ost] [p]jeze[tako] ur[r]e zar bat [...]. Eta hemen daude bost pezetako urrea [eta] hog[ei] kuartoak.*
- urretxiki** iz. *Diru baten izena (orillo erdaraz). ...eta hoietarako bewreck, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki, eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sopra zela, eta pezeta*

*hura orañdik ez du bialdu. / Entregatu ditu 65 urretxikiak eta hiru bost ezkutukoak, eta lau ogi eta baba. / Honek lana egiña du berrogei eta hamar kiñtal bezala guzia, eta diru hartua bi urretxiki. / Larunbatean baziran hamabi itzai. Ya jua diru leneko hillean gelditu ziran hamabi urretxikiak, eta Patxikurekiñ bialdu zuen hoge ezkutukoa.*

**urrikitu** zait ad. Damutu, errukitu, urrikaldu. *Horra atzo nik gaztigatze[n] niona, horiei onenak ematen eta horrengatik horiek deskontenturik haundienak! Enfiñ! Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hoge eta hamabi kua[r]to eskeñia ere.*

**urte** iz. ...eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun; eta joan den urtean egiñak ere bai, zazpi arroa, haxiak. / Beste urte batean ere holako lana eskatzen badiote, eman egin behar diote horiei. / Hau da Sebastianen kontua, jua den u[r]tekoa. / Jose Antonio Aroztegi horrena ere hor da, itzai guziena batean, eta orañ urte honetakoak dituzte.

**Urteberri, Urteberri egun** iz. Sebastian Etxeberriak Urteberri egunetik honaraño dituen ardoan kontua eskatu dit, eta Urteberritik honaraño dituen ardoak ditu [...].

**urtebete** iz. Hoiek dira Murgioko bi itzai horiek, abuztu joan denean urtebete ezkeru, hemen hartu dituzten diruak.

**urzalle** iz. Urtzaillea, burdinolako lanbidea, mea urtzen zuena (gaztelaniaz *fundidor*). Aste honetan Manuel Juakin Elamakoak egiñ zituan agoa bat eta erdi hoieta; Ferman urzalleak gutxiago behar du. / Hoietatik Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako jorna, bi erreal. / Kapero gaizki egondu zen denboran haren partez Manuel Antonio orañ Elaman ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat. / Kof[n]solagarriaren Semeak, Urdiñolako urzalleak, Elaman mealle sartu zituan egunak dirade [...] / Manuel Antonio urzallearen partez Ferman Iberon aritzen de[n] urzalleak hemen pasatu zuen aste bat. / Manuel horren suñari lo mismo tokatzen zaio [...], urzalle aritu baita. / Patxiku urzallearenzat...1.

**usatu** da ad. Ohikoa izan. Beste guzienzat usatzen dena, erreal bana.

**ustai** iz. Uztaia. Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean.

**ustaitu** du ad. Zerbaiten (ardatzaren, gabiaren, kupelaren...) inguruan uztaiak paratu, hots, inguruan metalezko zerrendak ezarri, hura indartzeko. *Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziranekoak, eta zubia konponzen sartu zituzten egun guziek, zenbat diran guzien egunak. / Olatxoko ardatza ustaitzen eta olaundiko puxondegiko bi zepo berriak sarzen pasa zituzten egunak dirade [...] / Olatxoko ardatza ustaitzen gastatu ziran burniak dira...8 quintales.*

- uste** iz. *Gaztigatu beza burni hoiek Errenteriara behar duten. Hara beharko dutela ustean egun baziran lau itzai astiarragatarrak. / Nere ustez, hor du haien asentua.*
- uste izan du** ad. *Hemengo mea, olan zagoena, larunbat goiz artekoa eskasa da, gehiago izanen zela uste genduen, eta asteartean olak hasi behar badu eskas izanen da mea.*
- ustel** adj. *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat. Bada, ustelenak edo galduenak badere, gogortuxe beharko dute, al den bezala.*
- usteldu da** ad. *Antapara muturreko bioladura guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera guzia orobat.*
- utzi du** ad. *...Arotzandikoaren baso pixka hori libratu al daitekean; orantxe (sic) da bada denbora, muskilla ateretzen hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko. / Eta Pello Garzitegikoa enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara. / Hogei ezkutuko Ansanekoarekin bialdu zuen hura utzi nion Ansanekoari berari.*
- uztarri** iz. 1. (Metonimia bidez) idi pare. *Orañ kontatu ditut barrak, eta 47 barra dira, eta gutxi gorabera izanen dira 13 quintales, 2 arrobas, baña hoienzat beti beharko dira lau uztarri, zergatik bide gaiztoak eronen diran. / 2. Antaparan zeharka paratzen ziren oholak (ikus A. M. Mitxelena, 2020: 20). Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko.*
- ya** adb. 1. *Ia, kasik. Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealle honek / Orañ ari diran goiko meatzea ia ahitu zaito, ez dute han mea askorik eginen. / 2. Oraintxe. Astiarragako abereak ya ahitu dira orañtxe. / Egun bazira[n] lau itzai. Hemen diran burniak ya juan dira. / Sebastian Etxeberriak, karriadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean. // Inoiz ez da garbi ikusten 1 ala 2 den: Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealle honek; Santiagok apenaz jango zuen bada.*
- zabal** adj. *24 linea zabal eta 3½ linea lodi ziran txabal haietatik juan ziran 82 quintales, 5 arrobas, 940 barras. Eta 25 linea zabal eta 5 linea lodi Donostiarakoak zirala, juan ziran...21 quintales, 5 arrobas ½, 200 barras. / Horra Jaimeren denboran egin ziran burniak, astean astekoak, lenbiziko lau astetan tretxuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua zuten hartan. // iz. (Burdinolan egindako) txabala (ustez). Eta Barberoaren semeak Pikoagan egin zituen haxiak ziran guzitara 28 quintales zabalak. / Leneko kontua egin ezkerro, Zaparrok eta Patxiku Errotariak erdi bana egin dituzten meak dirade 17 quintales, zabalak. / Patxiku Errotariak bere semearekin aparte eginak baditu 28 deciembretik hasi eta 30 eneroraño: 14 quintales, 0 zabal / Ikus txabal sarrera.*
- zagi** iz. *Zahagia. Ardo hoietan guzitan dirade Goizuetatik Tranpak ekarriak hiru zagi, eta Txurdankikoak Urraidetik ekarria zagi bat. / Patxiku*



*ardamandazaiak utzi eta Urraidetik zagi bat ardo erakarria. / Zagi bat ardo...5 arrobas, 15 libras.*

**zakar** iz. 1. Haxia-edo. *Egun ez dakik (sic) noiz akabatuko diran haxi eta zakar hoiek, eta abisatuko dut. / 2. Zikinkeria, hondarra: Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak. / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*

**zaku** iz. Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekin beñere konportarik eziñ bete dezaketenak. / Asteartean Agustiñ Ubitzik entregatu zituan lau ogiak, eta horra haiekin ekarri zuen zakua eta olio txarroa. / Beste karreteroak zerbait badabillza; Tranparena eta Txarakoak eta Sollarenak eta besteak zaku onak dauzkite. / Ez degu batere. Fundamentuz bial bitzate ogiak. Horra igandean Nolibertok zorzi ogirekin ekarri zuen zakua. / Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderoak zakurik ez daukate batere gauza denik. / Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik, zaku bat ikatz.

**zakutxo** iz. *Entregatu ditu 24 panes, horra. Atzo aranaztarrak babarekin ekarri zuten kostala, eta mealleak ekarri zuen zakutxoa. / Horra hemengo mutillak hiru ogirekin ekarri duen zakutxoa.*

**zaldale** iz. Abereei ematen zaien bazka lehorra. *Entregatu dituzte mandazaiak zazpi ogi eta lau karga mea erreak, eta zaldalea Bordatxorenzat eta Pagotxikikoarenzat. / Horra zaldalearekin ekarri duten ikatzakua berria.*

**zaldi** iz. *Arragoarako egurretan zaldi batekin...1½ días. / Erremoni ere zaldi bat hill omen zaio. / Nik bigar goizean jua nahi nuke Lezora, Buruzuriaren zaldian badere.*

**zale** adj./iz. *Hoiek ez dira, ez, merkeagoren zale izanen, noski.*

**zamau** iz. *Mahai zapia. ...eta sei serbilla, eta sei pañu, eta zamaua, eta alkandora baten gaia.*

**zar** adj. Zaharra. Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabillzenak, dirade Arotzandikoa eta Motelarena, Gregorio Eskudero eta Estartakoa, hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekin beñere konportarik eziñ bete dezaketenak. / Despatxu mandazai honek entregatu ditu bi ogi eta zorzi karga mea. Bialdu dut tobera zarra; bigar goizean bial bezate al dutena. Baba ere abitu da.

**zare** iz. Saskia. *Ikus mea zare sarrera.*

**zazpi** zenbtz. *Eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun; eta joan den urtean egiñak ere bai, zazpi arroa, haxiak. / Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz, zazpitako etorriko zirala.*

**zena** adj. Defuntua. *Hoietaz gañera, baditu meak anaie zenarekin Basaianegin egiñak...3 quintales, 0.*

- zenbat** zenbtz. *Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik. / Nik gaztigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.*
- zenbatsu** zenbtz. *Zenbat gutxi gorabehera. Eta hoiien egiteak eta ekarzeak eta paratzeak, gauza gutxi gorabera, beurrek jakiñen du zenbatsu kostatitezkean.*
- zeñ** izord. *Bialdu nion Jabierri txartela zeñek zenbat zaraman. / Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik. / Laguna zeñ zuen nik ez dakit, baña dirua hartua badu Patxiku Malet horrek [...] / Orañ hemen bigar arteko diña mea da, eta kuadro hoiek tiratzen zeñek hasi behar duen edo nola hasi behar den gaztigatu beza. / zeñenak diran ez dakidenak.*
- zepadi** iz. *Zepak ‘minerala urtuta gelditzen den hondakin edo sarra koskorak’ dira, A. M. Mitxelenak (2020: 296) dioenez. Zepadi, beraz, ‘zepa multzoa’ edo izanen da, ‘eskoriatza’, nolabait esan. Hoietaz gañera, baditu haxiak zepadiak kanpoan egiñak...3 quintales, 1 arroba.*
- zepo** iz. *Burdinolako pezak dira zepoak, gabi igunari eusten dioten zutoinak hain zuzen, lurrean sartuak daudenak. Zubiaurrek (1960: 110) Mogelen Peru Abaraka-tik jasotako zepu dakar, eta autore beraren zutoi-rekin identifikatzen du. Ikus A. M. Mitxelenak (2020: 37-38) dakartzan marrazkiak, zepo zer den hobeki ulertzeko, eta lan bereko 296-297. orrialdeetan ematen dituen azalpenak. Eta Olaundiko zepoak sartzen pasatuak...6 días. / Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziraneokoak, eta zubia konponzen sartu zituzten egun guziek, zenbat diran guzien egunak. / Olatxoko ardatza ustaitzen eta olaundiko puxondegiko bi zepo berriak sarzen pasa zituzten egunak dirade [...] / Olaundiko zepoak ateratzen...1 día. / 30 de julio semana, olaundiko zepoa hautsi zenekoa...1 día.*
- zopotillu nagusi** iz. *Zepotillua burdinolako peza da. A. M. Mitxelenak (2020: 297) ‘lurrean erdia sartuta egurrezko zunbil (‘enbor’) batzuk’ adiera ematen dio. Zubiaurrek (1960:110) Mogelen zepotilluba jasotzen du, eta ‘postes en que se apoya la rueda mayor’ dela esaten. Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu.*
- zer**. *Enfiñ, ageriko da zer egiten duen. / Eta horko asentuan ekusiko du zer duen gehiago. / Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzeaz alderako dirala nago, eta zertatik hasi behar den gaztigatu beza. / Nik ez dakit zer egi[n] dezakedan.*
- zer-nola** adb. *Nola. Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi.*



- zerbait.** ...*eta bial beza horien kontua, eta dirua zerbait gehiago honara. / Oran burnintxoan zerbait moldatzen dira. / Beste hoiek ere nahiko dute zerbait. Bernardo Karredak ere hogeiz ezkutuko bat behar zuela zion. / Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta.*
- zergatik** menderag. *Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan, zergatik hemen Presaburuko honetan ikatza den lehorrik sartu nahi ganituke (sic), batzuek badere. / Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik. / Nik ez dut mea hoietatik gehiago ekarzeko pensame[n]turik, zergatik txarrak diran.*
- zerra** iz. *Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru edo lau zerra trunku mandioak egiteko. / Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala, eta bealdu beza gizon horrekin.*
- zertsu** det. (galdetzailea) *Goiti-beheiti zer. Aranazko meakari Danboliñaren horiek Basaianegiñ Anzizarren mea belzako lantegian egiñ dituzten mea guziak, pisatu diranak, dirade 407 quintales, 1 arropa. Hoiek dirade pisatu guziek, eta nik ez dakit meatzean zertsu ote duten.*
- ziargilza, ziargillza** iz. *Presatik ubiderako ate edo konporta, eta ubide bazterrekoa, hura husteko (A. M. Mitxelena, 2020: 294). Eta geroztik, ubelde haundi hura egiñ ezkeren -1800, 22 noviembre ezkeren- presako ziargilzan pasatuak [...] / Lorenzo bart etorri zen honara; horrek esanen diozka guziek nola dauden. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du. / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurrak eta zakarrez bete ditu.*
- zierto** adj. *Egiazkoa. Arritxuritako suerte horrek esamiña haundia duela aditzen dut, eta zenbat duen ziertorik ez dut aditzen. / Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den.*
- zinzilu** adj. *Ikus erreal zinzilu sarrera.*
- ziri** iz. (*cuña* gaztelaniaz). *Aritzederretatik ekarria olarako karga bat ziri. / Urriztitxabalko suertetik ekarriak bi karga ziri.*
- ziri gai** iz. *Ziriak egiteko lehengai. Hoietaz gañera, bi karga ziri gai Goizariñdik ekarriak.*
- zor** iz. *Igandean, iñolaz ere al badu, bialdu behar dizkit hogeiz eta hamar ezkutu, arren. Lotsatua nabill zorrakiñ.*
- zor egin, zorrak egin du** ad. *Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten.*
- zor izan du** ad. *Sebastian zor dut bi libra olio, ordaña emateko elizarako oliotik kendua.*
- zorzi** zenbtz. ...*eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean. / Eta ardoak, tai*

*txikian dituenak, zorzi pinta. / Haspagilleak esan dit etorriko dela astelen datorrenean zorzi goizean, beurrek esan bezala.*

**zorziña** banatz. *Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit kupelaren ustaiatako behar dituela lau ustai. Ya behar dute, honek eman duen neurrian, zorziña beso luzean.*

**zubi** iz. *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka. / Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen eta olaundiko puxondegiko zepo berriak sartu ziranekoak, eta zubia konponzen sartu zituzten egun guziek, zenbat diran guzien egunak. / Zubia konponzen: 6 abril. Anbrusiok, Olasokoak...03 días.*

**zur** iz. *Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet, ekusi ditu guziek. Eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka. / Ola haundiko zepotillu nagusia konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio honetarako hiru zur ekarri ditugu. / Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.*

**zurgin** iz. *Iturindar zurginak dituzten egunak dira...*

**zurmio** iz. *Orkatila. Izengoititako kausitu dugu gutunetan: Zurmioren senar errotariarena...1 quintal, 4 arrobas. / Zarrukok eta Baratzurik eta Zurmioren semeak egiñ dituzten mea zuriak. / Xurmio aldaera ere badago.*



## 8. IGNAZIO BERGARAREN ETA JOSE RAMON MINONDOREN HIZTEGIEN ALDERAKETA

Atal honetan Ignazio Bergarak eta Jose Ramon Minondok erabiltzen dituzten hitzen erkaketa xumea egiten dugu, gauzak errazago ikus daitezzen eleak —bakunak edo osagai batekoak baino gehiagokoak— taulan emanik, elkarren aurkez eta parean edo bata bestearen jarraian, noiz nola. Hitzen ondoan ez dugu adierarik paratu, batzuetan aise ulertzen direlako eta beste batzuetan azalpen luzeegiak behar lituzketelako. Interesa duen irakurleak obra honetako hiztegiara eta JRMren liburuetara jo dezake argitasun xerka.

Bi autoreok ez dituzte beti hitz berak erabiltzen, eta holakoetan marra ezarri dugu batak edo besteak elea eskas duenean. Beste batzuetan alde zerbait bada, baina maiz kontu grafiko hutsa ohi da, batez ere ñ letrari dagokiona, IBren eskutizetan (ikus bedi grafiari eskaini atala). Zernahi gisaz, badira puntu deigarri eta are harrigarriak, IB eta JRM herri berekoak, garai berekoak, lanbide berekoak eta antzeko formakuntzakoak izanik zenbaitetan ele beraren aldaera bana erabiltzen baitute, adibidez Goizuetako egungo *astezken*-etik hurbil dagoen *asteezken* IBk, baina *asteazken* JRMk; egungo *berela* hark, zenbaitetan *berehala* osoa ere idatzi arren, eta azken hau baizik ez Oiartzungo Olaberriko arduradunak, JRMk. Ildo beretik, IBk egun Urumeako herrian ibiltzen den *erru* ‘erregua’ laburtua darabil, txanda bakar batean hori bai, gainerakoetan *errugu* luzeagoa baitu, JRMk bezala.

Iduri luke IBk aldaera laburtuak (ere) ibiltzeko joera duela, edo berriagoak ematen dutenak, eta JRMk aldaera osoak erabiltzekoa, zenbait aldiz laburtuekin batean, segur aski orduko egun ibiltzen diren formak sortuak zirelako, nahiz apika jatorrizko forma artean bizirik zegoen: *arrago* eta *arragoa*, *dixidu*, *erruda*, *ekarri* eta *karri*, *haundi*, *itxe*, *kendu*, *sillu* (IB) / *arragoa* (batez ere) eta *arrago*, *ixidu*, *errueda* eta *erruda*, *ekarri*, *handi*, *itxe* (usaian) eta *etxe* (behin), *kendu* eta *edeki*, *zigillu* (JRM).

Baina frankotan alderantzizkoa aurkitzen dugu: *ahitu*, *anaie*; *billatu* ‘bilatu’ eta *arkitu*, *idero* ‘ediren’; *ezagun* ‘ezagutu’, *gabe* eta *bage*, *herenegun* (IB) vs *ahitu* eta *attu*, *anaie* eta *anaia*, *billatu* ‘bilatu’ eta ‘aurkitu’, *ezagun* eta *ezagutu*; *gabe*, *herenegu* (JRM). Puntu honetan nabarmentzekoa da azken autoreak *izena* + *egin* egitura duten aditzetan *izena* + *gin* bihurtzeko duen joera; IBk holakorik ez dauka: *bide(ak)* *egin*, *egurra* *egin*, *erremienta* *egin* (IB) / *bide(ak)* *egin* eta *bidegin*, *egur* *egin* eta *egurgin*, (*er*)*remienta* *egin* eta *erremientagin* (JRM). Hondar honek *enborgin* ‘enbor egin’ ere badauka.

Inoiz edo berriz aldaera bana darabilte, edo batak forma bakarra dauka eta besteak bi. Fonetika kontuak dira gehiago ardura, ezen ez morfologiakoak: *aunnitz*, *bana beste*, *bero(t)zalle*; *bialdu* (eskuarki), *bealdu* (behin), *bigaldu* (behin); *bigar* eta *bihar*; *burnintxo* eta *burnitxo*; *eratsi* eta *eratsi* (kontu grafikoa, hemen, seguruenik) ‘erantsi’, *etorraldi*; *fraide*, *fraile* eta *praide*; *gaitziru* eta *gaitzuru*, *gaizto*, *gastatu*, *guzitara* (normalean) eta *guzietara* (txanda batean), *hasaldi* eta *hasialdi*, *haspagille*, *perra*, *solera*, *taia*, *ubagari* (IB) vs *anitz*, *batatz beste* eta *batez beste*; *berotzalle* (eskuarki), *berozalle* (behin) eta *berotzale* (behin); *bealdu* (normalean), *bialdu* (aldi batez); *bigar*, *burnitxo*, *eratsi*, *etorrialdi*, *fraile*, *gaisto*, *gaitzuru*, *gastatu* eta *kastatu*, *guzitara* (normalean) eta *guzitara* (behin), *hasialdi*, *haspagille* eta *haspogille*, *ferra* eta *perra*, *soleda*, *tai*, *uhagari* (JRM).

Ezin aipatu gabe utzi IBren *lehorrik* ‘lehor’ eta JRMren *idorraz* ‘lehorrez’ (ez itsasoz alegia) eta *idortu* ‘lehortu’. Halaber, IBk bokal protetikoa izaten du dardarkari anizkunaren aitzinean, hitz hasieran; JRMk ordea ez, zenbaitetan bederik: *errebaja*, *erreal*, *erremienta egin*, *errezio* ‘errazioa’ (IB) / *rebaja*, *erreal* eta *real*, *erremienta egin* eta *remienta egin*, *errezibitu* eta *rezibitu* (JRM)... Baina biek *errespuesta*, *errotari*, *erruda*, *errugu*. Grafiari eta zalantzarik gabe fonetikari dagokion gauza da IBk hitzaren hastapenean gehien-gehienetan <j> ibiltzea, salbuespenen bat ere izanagatik. JRMk, aldiz, batez ere <y> du lekune horretan.

Beste batzuetan ados daude: biek dituzte *atera* zaharra eta *atere* berria, biek *ebilli*, *ekusi*, *egun* ‘eguna’ eta ‘gaur’, *galdata* ‘galdetu’, *gazitatu* ‘abisatu’, *hare* ‘harea’, *lepalotu*, *oroitu*, *otsabeharri*, *partidu* ‘taldea’, *preziso* ‘beharrezkoa’, *suñ* ‘suhia’, *zagi* ‘zahagia’, *zaldale* eta abar.

Munta handikoak dira neurri izenak, euskaraz horien inguruan, oker ez bagaude, ikerketa handirik egin ez delako: *anega*, *arroa*, *beso*, *errugu*, *gaitzuru*, *gurdi* ‘gurdikada’, *kuartillu*, *lakadi*, *liberdi*, *libra*, *orga* ‘orgatara’, *pinta*, *pinterdi*, *txiki ardo* eta beste. Berebat diruen izendapenak: *bost ezkutuko*, *bost pezetako*, *dezitxano*, *erreal*, *erreal bellon*, *erreal fuerte*, *erreal zillar*, *erreal zinzilu*, *ezkutu*, *ezkutu fuerte* edo *ezkutu lodi*, *hamar ezkutuko*, *hogei ezkutuko*, *hogei pezetako*, *kuarto*, *onza(ko)*, *onza berri*, *onza urre*, *onza zar*, *pezeta*, *urre*, *urre zar*, *urretxiki*, *urretxiki zar* eta abar. Kontuak eramateko ibiltzen ziren *taia* eta *taia txikia* ezin ahanzi, bestalde, lehena batik bat jatekoetarako eta bigarrena beti edarietarako. *Taia txikia* ez da, beraz, eta gerok genioenaren aurka (ikus JRM, II, 365), inongo taberna edo arandegia, edarien gastua edo «espentsa» kontrolatzeko ibiltzen zen makila koskaduna baizik.

Burdinolen munduko teknikak bideratzen dituzten hitzak ere ugari eta biziki interesgarriak dira. Arlo honetan esanen genuke JRMren hiztegia aberatsagoa dela, zenbait aldiz IBk hark ez dakartzan ele batzuk ekarri arren. Ez ditugu hemen errepikatuko taulan agertzen direnak, esan bezala anitz

baitira, baina aintzat har bedi hitz arruntak iduri duten batzuk berez, izatez, ele teknikoak direla: *ardatz*, *ardi* ('ahardia'), *arku*, *azal* (tretxua), *barra*, *beso*, *dotazio*, *despojo*, *erreka*, *gurutze*, *iduri*, *inutill* edo *imutill*, *itxola*, *konporta*, *lantegi*, *larru*, *lata ilze*, *linea*, *maisu*, *maisuko*, *maxter*, *palanka*, *partidu*, *pisatualdi*, *porte*, *porzio*, *poto*, *propio*, *sari*, *sillu*, *suerte*, *tiratu*, *tornu*, *txabal* eta *zabal*, *uztarri*, *zakar*, *zare*, *zepo*, *zigillu*, *ziri* eta abar, *buztandu*, *erre*, *errekatu*, *esamiñatu*, *garbitu*, *harrotu*, *ustaitu*, *zuzitu* eta beste aditz batzuk ez aipatzeagatik.

Kontuak eramatearekin, kontabilitatearekin lotura duten hitzak ere badira gutunotan, espero izatekoa zenez: *asentu*, *asentatu*, *kontu*, *kontu harzalle*, *kontuak garbitu*, *kontuak ondu*, *korritu*, *kreditara (pagatu)*, *lagun* 'laneguna', *llebarik gabe*, *pagu*, *pagua eman*, *paperean paratu* eta beste.

Hitz horiek eta beste batzuk behar bezala ulertzeko lanetan Paskualuzenean aurkitutako erdarazko gutunek laguntza handia emanen dute, eta artxibategietan gorderik dauden Goizuetako eta Aranoko agiriek ere argi egingen dute, ongi, erreposki, emaro eta poliki aztertzen badira, ez presaka eta poteka. Oraindik ateratzeko dauden euskarazko eskutitzak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko merkataritza harremanak ongienik erakusten dituztenak, ez dira kalterako izanen, alderdi honetatik.

